

Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa

2009 eta 2013 arteko bilakaera sozioekonomikoa



Editoreak:

Ignacio Bretos Fernández / José María Perez de Uralde

eman ta zabal zazu



GEZKI

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

UPV/EHUko Gizarte-Ekonomia
eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa

2009 eta 2013 arteko bilakaera sozioekonomikoa



Editoreak:

Ignacio Bretos Fernández / José María Pérez de Uralde



OVES/GEEB

Observatorio Vasco de Economía Social
Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia
Centro Carlos Santamaría
Pza. Elhuyar, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 0174 62 • Fax: 943 017 480
gezki.ekonomia.teknikaria@ehu.eus

Editoreak:

Bretos Fernández, Ignacio, Pérez de Uralde, José María

Laguntzailea:



Finantzatzailea:



Diseinu eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.
ISBN: 978-84-945538-7-5



Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Baimenduta dago obra hau kopiazea, banatzea eta jendaurrean hedatzea, betiere, baldin eta haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago obra hau aldatzerik, eraldatzerik edo hartatik eratorritako beste obra bat sortzerik. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

aurkibidea



1. Atalburua: txostenaren aurkezpena	5
1. Hitzaurrea	7
<i>José María Pérez de Uralde</i>	
2. Gizarte Ekonomia kontzeptuaz eta haren sendotze bidez	11
<i>Enekoitz Etxezarreta, Juan Carlos Pérez de Mendiguren y Jon Morandeira</i>	
3. Kapitalismoa eta Krisi Ekonomikoa	17
<i>Baleren Bakaikoa</i>	
4. Euskadiko ekonomia atzeraldi handiaren testuinguruan	23
<i>Mikel Zurbano</i>	
5. Gizarte ekonomia, krisia eta balioak	29
<i>Alejandro Martínez Charterina</i>	
6. Enplegua euskal Gizarte Ekonomian 2009-2013 artean	35
<i>Aitor Bengoetxea</i>	
7. Gizarte Ekonomiaren Politika Publikoak Euskadin	41
<i>Jon Morandeira</i>	
8. Gizarte Ekonomiaren fiskalitatea krisi garaietan: erreformarako proposamenak	51
<i>Marco Antonio Rodrigo</i>	
9. Gizarte ekonomia eta beronen presentzia Eusko Jaurlaritzaren kontratugintza publikoan.....	55
<i>Jesús García Aréjula</i>	
10. Enplegu Zentro Bereziak: adibide on bat krisi ekonomikoaren aurrean	73
<i>Pablo Moratalla</i>	
11. Euskal Gizarte Ekonomiako entitateei buruzko datuak lortzeko zailtasunak eta Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokitik proposatzen diren konponbideak	81
<i>Ignacio Bretos</i>	

2. Atalburua: euskal gizarte ekonomiaren analisi ekonomikoa eta soziolaborala	89
1. Sarrera	91
A) Gizarte Ekonomiako Sozietate Ez Finantzarioak	97
2. Kooperatibak eta Lan Sozietateak	99
3. Enplegu Zentro Bereziak	131
4. Gizarteratze-laneratze enpresak	137
5. Eraldaketako Nekazaritza Sozietateak	143
6. Arrantzale Anaidiak	145
7. Elkartek eta Fundazioak	147
B) Gizarte ekonomiako finantza-sozietateak	151
8. Kreditu Kooperatibak	153
9. Aurreikuspen Sozialeko Mutualitateak: BASEak	157
10. Elkarrekiko Berme Elkartek	163
3. Atalburua: txostenaren ondorioak	169
1. Atalburuaren aurkezpena eta euskal Gizarte Ekonomiak krisialdi ekonomikoan erakutsi duen portaeraz hurbilketa orokorra	171
2. Gizarte Ekonomiaren lau sail handiei buruzko ondorioak	173
I. Enplegua	173
II. Entitateak	175
III. Ondorioak Lurralde Historikoen arabera	176
3. Gizarte Ekonomiaren Finantza-Entitateei buruzko ondorioak	181
4. Gizarte Ekonomia osoari buruzko ondorioak	183
I. Enplegua	183
II. Entitateak	184
III. Datu ekonomikoak	184

Atalburua

Txostenaren aurkezpena



1. Hitzaurrea

*José María Pérez de Uralde*¹

OVES/GEEBek bere garaian, EHAAn 2008ko apirilaren 25ean argitaratu zen Eusko Legebiltzarraren Lan eta Gizarte Gaietarako Batzordearen 8. Ebazpenaren agindura², interes orokorraren onurarako beregain hartu zuen zerbitzu publikoko eginbeharrari eta UPV/EHU eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatu zen hitzarmenari men eginez aurkezten da orain “*Euskal Gizarte Ekonomia eta krisialdi ekonomikoa*” txostena. Sektore ekonomiko honek 2009 eta 2013 artean ukan duen bilakaera sozioekonomikoaren ikerketa bat jasotzen da azterlan honetan. Bitarte horretan, bere eraginik garratzenak erakutsi zituen krisialdiak, eta hari aurre egiteko hartutako neurriek ere ondorioak erakarri zituzten. Ondorengo orrialdetan biltzen diren datu eta balioespenen abiapuntu dira, alde batetik, Behatokiak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresa eta entitatek bilbatzen duten egitatearen neurketa lanean 2008az geroztik egin dituen ikerlanak. Eta bestetik, zenbaketarako parametro berriak erantsi dira, aldagaiak gehituz, eta garrantzia duten hainbat albo-gorabeherari buruz haietan adituak direnen hausnarketekin osatu da.

2009-2013 denboraldi erabakigarri honen analisi zehatza bereziki baliagarria gertatzen da bi adar edo azpisektoretan –merkatukoa bat eta ez-merkatukoa bestea– bereizten den sektore honen sendotasun maila eta dinamikoki erantzuteko gaitasuna ongi ulertu ahal izateko. Bi esparru horiek, hain zuzen krisialdi osoan barrena, ikusgarritzko lana egin dute erresistentziarako kontra-neurriak gauzatzeko. Langabeziak eta enpresa bilbearen suntsipenak hainbat esparru kiskalita utzi dituen gudaldi horretan, buruz buru egin du borroka merkatuko sektoreak (kooperatibek, lan sozietateek, mutualitateek, enplegu babestuko eta gizarteratze-laneratze enpresek,...). Ez-merkatuko sektoreak (elkarteeak, fundazioek, GKEk,...), berriz, jende-talde kaltetuenenganako politika publikoen murrizketen ezinbesteko leuntzaile moduan jokatu du. Honelako alde bikotasunik ez da errepikatzen beste ezein esparru sozioekonomikotan.

Txosten honetan argitaratzen diren datuak, azken ebazpen edo ondorio batzuetan laburbiltzen direnak, etorki ofizialeko iturri estatistikoetatik eta Behatokiak bere kabuz osatu dituenetatik abiatzen dira. Ez da lan erraza izan neurtu den ibilbide hori osatzea, izan ere askotan erregistro iturri ofizialak ez baitaude osatuta, edota behar adina eguneratu gabe aurkitzen dira, batez ere Elkarteei eta Fundazioei dagokienean. Iturrien arazoa nahitaez aztertu eta, gutxienean bederen, konponbideratu behar den arazo potoloetako bat da, Txosten honetan bertan adierazten denez. Halaz eta guztiz ere, iturri ofizialek diotena bestelako datu pribatu batzuekin (gehienetan, sektorean bertan jarduten duten ordezkariak erakundeek emandakoekin) metodikoki erkatzeko

1 Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiko (OVES/GEEB) Koordinatzaile. CIRIEC-Españaiko Lehendakari.

2 Ebazpen honek zera dio: “*Eusko Legebiltzarrak Administrazio Publikoari proposatzen die beharrezkoak diren pausuak eman ditzatela, Gizarte Ekonomiako agente eta Erakunde guztiak bilduko dituen ente bat sortzeko, euskal Gizarte Ekonomiaren egoeraren azterketa etengabea egiteko, kuantifikatzeko eta koiuntura aztertzeko, beroni eragiten dien arazoei eta berehalako zein etorkizuneko beharrei erantzuna emateko helburuarekin*”.

lanak zilegitu du emaitza zorrotzak, eta Gizarte Ekonomiaren merkatuko sektoreari dagokionean aurrekari gabeak direnak, zehaztu ahal izatea. Baina, esan dugun bezala, estatistika politikaren alorrean egiteko asko dago oraindik eta egokia litzateke behingoz betetzea 5/2011 Legeak, Gizarte Ekonomiari buruzkoak, bere Lehen Xedapen Gehigarrian ezartzen duen agindu legala, Gizarte Ekonomiako entitateen eta haien ordezkarietako erakundeen sailkapen ofizialari egokitutako informazio estatistiko eguneratua bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeri buruz. Autonomia Erkidegoek ere agindu horren betetzea izan behar dute bakoitzaren eskuduntzen esparruan, eta Gizarte Ekonomiaren alorrean oso zabalak dira horiek.

Txosten honen betebeharrerako bat da Behatokiak azken urte hauetan han eta hemen bildu dituen datuei nolabaiteko ikusmira bateratua ematea eta krisi urte hauetan sektoreak ukan duen portaeraren funtsezko ildoetako batzuk bistaratuko dituen ikuspegi zabal eta zehatz bat ere proposatzea. Lehen esan dugun bezala, hori lortzeko, osagarriki neurtu ahal izan ditugun magnitudeei buruzko eranskin berriekin borobildu dira hasiera batean landu ditugun datuak. Hiru dira aintzakotzat hartu diren aldagaiak, funtsezkotasuna eta ikusgaitasuna duten emaitzak zehaztea ahalbidetze aldera: entitate kopuruaren bilakaera; enpleguarena; eta, azkenik, sortutako balio erantsi gordinarena.

Gure ustez, hortik abiatuta, azterlan berri eta zehatzagoak egin daitezke azterketa zehatz, askietsi eta argigarriagoak lortu ahal izateko. Funtsezkotasun asmoa duen estatistika lan baten helburua ezin baitaiteke izan soilik datu horiei beroei buruz informazioa eskaintzea; langintza horren funtzioa da egitate sozioekonomiko hori zenbatzea bere garrantzia eta ondorioak zehazteko, eta ekinbideak errealitate horretara egokitzeko. Horregatik, balioespen estatistikoa ezin da sektorearen beraren interesetara edota jakingura akademiko eta zientifikoetara mugatu; hori ere funtsezkoa izanik, estatistika langintzen garrantzia interes orokorraren esparruan sustraitzen da. Gizarte osoak ezagutu behar ditu egitate horiek, eta aginte publikoek bereziki hartu behar dituzte aintzakotzat. Bulegoetako apaletan lokartuta, edota intraneteko orrialdeetan gogogabetuta, edota barne txostenetan ezkutatuta geratzen den estatistika lana, alferrikalduta dago gizartearentzat. Neurketa estatistikoak, test bitartez metodologikoki egindako zenbaketak diren adinean, ezinbesteko lanabesak dira politika publikoetarako. Ezin dira erakusleihen paratzaileen lana edota jardueraren protagonista direnen erabilpen pribaturako argazki albuma bailiran hartu. Berriro diogu: interes orokorreko eginkizuna da.

Eta uste dugu Euskadiko Autonomia Erkidegoan bide luzea geratzen dela egiteko norabide horretan. Lehen esan dugun bezala, 2008an Legebiltzarrak onartutako ebazpen baten ondorioz sortutako OVES/GEEBek, bidea zabaldu eta egin du norabide horretan, datuen sortzaile diren sektoreko entitateekin eta Administrazio Publikoekin (Eusko Jaurlaritzaren erregistro ofizialekin, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriokoekin, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundiekin, ordezkarietako erakundeekin, CIRIEC-Españarekin, hainbat txosten ofizial zein pribaturekin,...) elkarlanean, iturri ofizialen gabeziak samurtzen lagundu diguten iturri heterogeneoak erabiliz azterlanak burutu ahal izateko.

Ez da hitzurre honen eginkizuna txostenaren ebazpenak aurreratzea, baina esan dezakegu euskal Gizarte Ekonomiako enpresa eta entitateek krisialdiaren ondorioak, eta hari aurre egiteko hartu diren neurriak, pairatu dituztela. Lanpostuak eta enpresak suntsitu dira, eta kolpe latzak nozitu dira enpresen etekinen eta negozioen garabideen alorrean. Baina era berean esan behar da sendotasun ikusgarria ere erakutsi dutela, eta bestelako enpresa ereduak eta eragile ekonomikoak, izaera kapitalista hutsa dutenen aldean krisialdiari erantzuteko gaitasun iaioagoa zutela frogatu dutela. Euskal Gizarte Ekonomiako enpresek eta entitateek beren baitako enpleguari, eta haren kalitateari, eutsi egin diote, enpresa bilbeak bere osotasunean eduki dituen hilkortasun tasak luzaz hobetu dituzte, eta balio erantsia eta aberastasuna sortzen jarraitu dute. Enpleguen eta enpresen lehengoratzeko mailan lortu dutena benetan ereduagarria izan da.

Txostenaren muinaren aurretiazko osagarri bezala hainbat adituren ekarpenak jasotzen dira, aurkezten diren emaitzen hausnarketa egiteko lagungarri direnak eta ikuskizun geratzen diren hainbat gairen inguruko erantzunak proposatzen dituztenak. Lehendabizi, krisia bere testuinguruan kokatzen eta, bide batez, gertatzen ari dena ulertzen, edo behintzat hartarako ahalegina egiten, lagunduko diguten gogoetak eskaintzen dira. Ondoren, orain arte baino arreta gehiago, batez ere aginte publikoen aldetik, merezi duten gai zehatz batzuei buruzko iradokizunak eta balioespenak egiten dira. Lau dira, zehazki, proposamen horiek: Gizarte Ekonomian enplegua gehiago sustatzea, frogatuta geratu delako berau egonkorragoa eta kalitate handiagokoa dela; sektore honen aldeko politika publiko hobeak eta osoagoak garatu beharra; Gizarte Ekonomia osoa barneratuko lukeen zerga erreforma espezifikoko bati ekiteko egiten den proposamena, bereziki ohargarria; eta beti ahaztuta geratu ohi dena, kontratugintza publikoaren eta Gizarte Ekonomiaren arteko harremanaren auzia, egun hain egoera deitoragarrian datzana eta Europar Batasunaren irizpideen eta arestian egindako lege aldaketen aurkakoa dena. Azkenik, krisiaren eraginekiko bereziki sentibera den azpisektore bat, eragozpenik handienak dituzten pertsonen enpleguak eta babes soziala mantentzeko erabakigarria izan dena, enplegu babestuaz eta menpekotasunaz arduratzen diren Enplegu Zentro Bereziarena alegia, aztertzen da bereziki.

Bihoakie gure aitormena eta eskerrona azterlan hau osatzen parte hartu duten guzti – guztiei. Eta baita ere gure har bezate gure eskertza langintza hau ahalbidetu duten erakunde guztiek, gurekiko izan duten konfiantzagatik. Hemen dago OVES/GEEBek beregain hartu zuen konpromisoa.

2. Gizarte Ekonomia kontzeptuaz eta haren sendotze bidez

*Enekoitz Etxezarreta Etxarri*¹

*Juan Carlos Perez de Mendiguren Castresana*²

*Jon Morandeira Arca*³

I. Kontzeptuaren bilakaera historikoaz hausnarketa bat

Gizarte Ekonomiaren kontzeptuak badu gaur egun erakunde mailako ordezkartza eta onespen publiko zein juridiko garrantzitsua herrialde batzuetan; baina kontzeptuak gure artean duen edukia behar bezala ulertzeko komenigarria izango da alde aurretik esapide honen garapen historikoan eman diren urratsen interpretazio labur batekin hasia.

Esan dezagun garbi bereizten diren hiru aldi edo aro historiko igaro dituela kontzeptuak: kideen auto-identifikazioaren aroa, aztergai berezitat hartzen hasi zeneko aroa, eta aginte publikoen aitorpen osoa edukitzea edota erakundetze osoa lortzen dueneko aroa.

Hurbilketa teorikoa ezberdin samarra izan bada ere XIX. eta XX. mendeetan, mugarri bertsuak aurkitzen ahal dira prozesu osoan. Hastapenetatik abiatuz, iraultza industrialaren eta kapitalismoaren hasierako garapenaren aurkako erresistentzia giroan sortu ziren ekimen autogestionarioetan oinarritu zuten beren teorizazioa XIX. mendeko lehen *ekonomialari sozialek*. Sozialismo utopikoaren ikusmoldetik Owen, Fourier, Saint-Simon, Proudhon eta abarrek sustatu zituzten Rochdaleko lehen kontsumo kooperatiba, sorospen mutualitateak edota falansterioak bezalako ekimenetan oinarritzen ziren, ospetsuenak besterik ez aipatzearren.

Lehen *ekonomialari sozial* hauek dira esapidea estreinakoz erabiltzen dutenak horrelako esperientziak izendatzeko, eta baita ere ekimen horien bereizgarri diren bi tasun azpimarratzeko: alde batetik, haren izaera moralizatzailea, gizakien portaeran eragina duelako; eta, bestetik, haien eragin sozioekonomikoa, jardunbide ekonomiko eraginkorragoak eta gizakoiagoak direlako. Leon Walrasen eskutik, ekonomia politikoaren maila berberean ipini eta “sortutako aberastasun soziala banatzeko teoria” – ren osagai dela irizten zaion adinean, Gizarte Ekonomia zientzia mailako ikergaia izatera igarotzen da (eduki ideologiko edo moralizatzailetik harago).

XX. mendean barrena ematen den hurbilketa teorikoa aski doituagoa da gaur egun Gizarte Ekonomia esatean ulertzen dugunarekiko, baina garapen prozesuak ibilbide bertsua jarraitzen du. Kideak (kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak) dira Frantzia 1970ean edota Belgika 1990ean hainbat kontseilu eta batzordetan elkartzen direnak eta, irizpide edo printzipio zehatz

1 EHUko Ekonomia Aplikatua I Saila. GEZKI -Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.

2 EHUko Enpresa Antolakuntza Saila. Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua.

3 EHUko Ekonomia Aplikatua I Saila. GEZKI -Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.

batzuetan oinarrituta, bestelako eragile ekonomikoetatik bereizten den osotasun baten, Gizarte Ekonomiaren, partaide aldarrikatzen direnak. “Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Gutunak” jaso zituen Europa mailan estreinako irizpide horiek, zazpi puntutan oinarrituz: pertsonaren lehenetsia, borondatezko partaidetza, kontrol demokratikoa, elkartearen interesa eta interes orokorraren uztardura, solidaritatea, kudeaketarako autonomia eta soberakinen politikak.

Aldi berean eta prozesu honekin batera sortzen dira honelako entitateak ikertzea helburu duten lehen erakunde akademikoak, CIRIEC-International aitzindari dutela. Ikerlari sare unibertsitario horien jardura erabakigarria izan zen esapidearen finkamenduan, haren ingurumen teorikoa argitzeaz gain akuilatzaile izan direlako sustapen politika publikoak abiarazteko ahaleginean, eta Europa mailako kontularitza sistema nazionalen arabera entitate hauen azterketa estatistikoaren bultzagile ere izan direlako. Gizarte Ekonomiaren alorrean mugarririk funtsezkoa izan da “Gizarte Ekonomiako enpresen Kontu Sateliteak gauzatzeko Eskuliburua”-ren proposamena, sektorea zenbatzeko metodologia bat ezartzen duelako, nazio mailako kontu sistemari egokituta. Egokitzapen honetatik abiatuz iristen ahal da CIRIECek proposatzen duen Gizarte Ekonomiaren egungo definizioa.

Metodologia honen arabera, Gizarte Ekonomiaren esparrua zehazki definitu eta bi azpisektoretan banatzen da, merkatukoa edo enpresaritzakoa eta ez-merkatukoa; eta lehen aipatu ditugun kideek bere garaian aldarrikatu zituztenekin zerikusi zuzena duten zazpi irizpidetan oinarritzen da. Behin sektorea zehazki definitu ondoren, eta haren zenbaketarako metodologia egokiak ezarri eta gero, egingarriagoa dirudi alor honen sustapenerako politika publikoak abiaraztea.

Europar legegintza eta sustapenerako ekimen ezberdinak garatu dira azkenaldian; aitzindaria izan zen Gizarte Ekonomiaren lege espainiarra, 2011koa; eta haren ondotik etorri ziren Greziakoa, Portugalgo lege proposamena eta, oraintsu, Frantziako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren legea, 2014koa. Batasunaren mailan ere gero eta harrera hobea aurkitzen dute Europar Batzordeak plazaratzen dituen adierazpen eta konferentziek; Europar Parlamentuak Toia Txostena onetsi zuen; eta Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak txostenak argitaratu ditu gai honetaz, besteak beste.

Gizarte Ekonomiaren inguruko eztabaida kontzeptuala nahiko agortuta eta mugatuta dagoela lirudike gaur egun; baina ikuspegi hori aski temagarria ere izan liteke gure ustez. Sektorearen nondik norakoa mugatzeko hobetsi den soluziobidea izan da irizpide juridikoa aintzakotzat hartzea, hau da, zenbait figura juridiko (kooperatibak, lan sozietateak, gizarteratze-laneratze enpresak, mutualitateak, elkarrekin, fundazioak,...) berezitu eta hauek (hauek guztiak?) Gizarte Ekonomiaren baitakoak direla erabaki da, eta kito.

Gehiegizko “zurruntasun juridiko” honek, ordea, arazo kontzeptual mordoa sorrarazten du, jarraian ikusiko dugun bezala. Bitan laburbildu ditzakegu korapilo horiek: alde batetik, hurbil ditugun baina aipaturiko figura juridiko horiekin bat ez datozen hainbat esperientzia barneratu ezina; eta bestetik, Gizarte Ekonomia antolamendu sail zehatz batekin kideak erakartzen duen eskasia analitikoa, inolako ekarpen diskurtsiborik egiten ez duena, gainera.

II. Daudenak al dira? Direnak al daude?

Gizarte Ekonomiaren unibertsoan behin eta berriro pizten den eztabaida da hauxe, eta sektorea mugarrizteko ahalegin etengabearen ondorio ere badela esan behar da. Hein horretan, Gizarte Ekonomia ikusi ahal izan du nola jaio diren korrante teoriko berriak, oso hurbilekoak zaizkien

esperientzietatik abiatuz haiei buruzko teorizazioak plazaratu dituztenak hainbat esapide berri sortuz: “gizarte enpresak”, “ekonomia solidarioa”, “irabazi asmorik gabeko entitateak”, “gizarte zibil antolatua”, “hirugarren sektorea”, etab. Kontzeptuen arteko lehia honek ez luke zentzu handirik arazoa balitz ea zeinek lortzen duen hegemonia; baina zentzu gehixeago du tradizio ezberdinen arteko elkarrizketa sortu eta kontzientzuzkoak izan litezken proposamenak, denentzat onargarriak izan litezkeenak, egiteko abiapuntua bada.

Gure iritzian, bi dira Europa mailan azken urte hauetan eztabaida hau mahairatu duten azterlanak, zorroztasunez eta analisirako metodologia bertsuak erabiliz: alde batetik, Monzón eta Chavez (2012)-ek koordinaturik Gizarte Ekonomia Europar Batasunean ikerlana; eta bestetik, arestian Salamon eta Kolokowsky (2014)-k argitaratu dutena Hirugarren Sektorea European goiburupean.

Bi azterlan horietan berresten da gisa honetako entitateak izendatzeko erabiltzen diren esapideak aldakorrak direla herrialdeen arabera. Monzón eta Chavez (2012)-k dioenez, herrialde ipartarretan “gizarte enpresa” erabiltzen da gehienbat, eta “irabazi asmorik gabeko sektorea” gehiago erabiltzen da Erresuma Batua eta Danimarkan, bi adibide ipintzearren. Herrialde frankofonoetan (Frantzia, Belgika eta Luxenburgon) eta Europa hegoaldekoetan, “Gizarte Ekonomia” hobesten da; eta, azkenik, herrialde germaniarretan (Alemanian, Austrian, e.a.) nahiago dute “interes orokorreko ekonomia” bezalako kontzeptuak erabiltzea.

Salamon eta Kolokowskyren arabera, blokeak gutxi gora behera mantendu egiten dira, baina ez ordea horrenbesteraino hirugarren sektore hau izendatzeko erabiltzen diren kontzeptuak: hegoaldeko herrialdeek Gizarte Ekonomia esapidea erabiltzen badute ere, herrialde germaniarrek eta Europa erdialdekoek eta ekialdekoek “gizarte zibila” nahiago lukete, anglosaxoiek “public charity” erabiliko lukete gehiago, eta Iparraldekoen artean aurkituko liratekeen izendapenen aniztasunak ezinezkoa egingo luke onespén handiena lortzen duena zein den erabakitzea ere.

Alderaketa lan hauek mahairatzen dute, besteren artean, Gizarte Ekonomikoaren “zurruntasun juridikoaren” mugapena, izan ere juridikoa den esapide bat erabiltzeak ezinezkoa egiten du Europa mailan partekatua izan daiteken esapidea adostea eta, bide batez, zorroztasunez hura zenbatu ahal izatea. Mugapen honen aurrean, egokia iruditzen zaigu bi proposamen, bi kontzientzu saio hona ekartzea, Gizarte Ekonomiaren unibertsoa nola edo hala hedatzeaz gain, eztabaida kontzeptuala beste ikuspegi batekin planteatzea zilegitzen dutelakoan.

Salamon eta Kolokowsky (2014)-k proposatzen duen Hirugarren Sektorea litzateke lehena. Gizarte Ekonomiako enpresa erakunde (kooperatiba, mutualitate, gizarte enpresa, irabazi asmorik gabeko entitate) guztiez gain, esapide horretan barneratuko lirateke borondatezko lanean oinarritzen diren eta merkatutik bideratzen ez diren ekimen guztiak (moneta bihurtzen ez diren adinean). Bigarren jarduera multzo honen esparrua ez litzateke Gizarte Ekonomiaren ez-merkatuko azpisektorean biltzen den hori bera izango; proposamenaren helburua gehiago litzateke ikuspegia aldaraztea eta boluntariotzako ekimen indibidualak ere barneratu ahal izatea, boluntariotzako elkarreetatik kolektiboki burutzen diren jardueretatik harago.

Bigarren proposamena Ekonomia Sozial eta Solidarioarena da; haren defendatzaile nagusiek erronka estrategiko bezala aurkezten dute eta, ikuspegi juridikotik baino gehiago (figura juridikoa ez delako nahikoa zenbait jokamolde solidario bermatu ahal izateko), eztabaida ikuspegi diskurtsiboago eta berrideologizatu batean planteatu beharra azpimarratzen dute. Gure ustez bereziki interesgarriak diren eztabaida batzuk mahairatzeaz gain, proposamen honek bidenabar barneratzen ditu merkataritzakoak ez eta monetazkoak ez diren jarduerak, eta Gizarte Ekonomia

ekonomia anitz batean elkarri eragiten dioten hiru logika polanyarren (trukea, birbanaketa eta elkarrekikotasuna) intersekzio gune bezala ulertzetik abiatzen da.

Kontzentzuzko proposamen berri hauek, neurri batean bederen, baliogabetu egiten dute Gizarte Ekonomiaren ikuspegi juridikoegiaren lehenespena, eta jokabideak, bai norbanakoenak eta bai taldekakoak, solidarioak izan daitezkeen adinean, hartzen ditu aintzakotzat.

III. “Nortzuk gara?”-tik “norantz (eta norekin) goaz?”-era

Aipatu dugun “zurruntasun juridiko” horren mugapenak gainditzen saiatzeko giltzak noranzkoaren galderan, hartu nahi den norabideaz gogoeta egitean, entitateak (duten figura juridikotik harago) zenbait jokamolde bereizgarri bermatzeko gai izatean egon litezkeela ematen du.

Ikusmolde horretatik, interesgarriagoa dirudi ikuspegi zabalagoa eta dinamikoagoa, are finalistagoa ahal bada, hartzea, Gizarte Ekonomiaren lege espainiarrak berak egiten duen bezala, bere 5.2 artikuluan dioenaren ildoan: *“halaber, gizarte ekonomiaren partaide izan daitezke ekonomia eta enpresa jarduera duten entitate haiek, aurreko artikuluan zehaztu diren printzipioei erantzuten dieten irizpideekin bat datozen funtzionamendu arauekin aritzen direnean, eta Lege honen 6. artikuluan ezarri den entitate katalogoan barneratuta daudenean”*.

Hor aipatzen diren entitate katalogoek gaur-gaurkoz estatu mailan inolako garapenik izan ez badute ere, legegileak iradokitzen du enpresaritzako zenbait jokamolde, lau printzipio oso orokorreki atxikiak, aintzakotzat hartzeko posibilitatea dagokeela, katalogoetan inskribatuak izan ahal daitezkeen hori egiaza dezaketen entitateak. Legegilearen hitz-joko huts bezala ikus baliteke ere, hurbilketa berri honek balizko interpretazioetarako ikusgarrizko aukera irekitzen du, “enpresaritzako praktika zintzoen” esparruan sar baitaitezke begiralearen ikuspuntu ideologikotik halakotzat har litezkeen guztiak.

Bete-betean sartuko ginateke, beraz, eztabaida ideologikoago eta subjektiboago batean (eta legeriako zenbait figuratan objektibotzea hain erraza izango ez litzaketenetan). Bide batez, Gizarte Ekonomia berriro ere eduki ideologikoz jantzi eta ideologien taulan birkokatu behararen aurrean egongo ginateke. Jean-Louis Laville, ekonomia solidarioaren aitzindari teoriko nagusietako batek eskatzen zuen bezala, “sorburura itzultzen” ariko ginateke. Eta horrek hausnarketa ahalegin bat eskatzen dio Gizarte Ekonomiari, honelako itaunei erantzuteko: “ezberdinak gara, enpresa ez-kapitalistak gara, baina, norantz joan nahi dugu? Zein da gure gizarte helburua? Zein da gure garapen eredia?” Galdera hauei emandako erantzunek mugarrituko lituzkete Gizarte Ekonomiaren partaide ezberdinen bereizgarriak (autogestioa, pertsonen lehenetasuna, demokrazia, solidaritatea,...), gainerako erakunde eta egitura sozialetara zabal daitezkeen.

Laburbilduz, eta paradoxikoa badirudi ere, Gizarte Ekonomiak, bere alor akademikoan bederen, berriro ere ekonomiaz gehixeago arduratu beharko luke, eta ez horrenbestearaino enpresa teoriaz edo zuzenbideaz (hori ere egin beharrekoa izanik). Eta ekonomiaren gaurkotasunaren hausnarketa honetatik hamaika erronka eta betekizun eratortzen dira, Gizarte Ekonomiak erantzuten jarraitu beharko lukeenak.

Egungo garabide kapitalistaren sektore paradigmaticoetan (adibidez, finantza sisteman, energiarenean edota nekazaritza-elikadurarenean) erretzen ari diren ekimen berriak bereziki esanguratsuak dira, Gizarte Ekonomiatik proposatzen direnen antzeko garabide post-kapitalistako

norabide berrien eta eredu berrien ernamuin direlako. “Taldekako auto-enplegua” sortzeko tresna hutsak izan beharrean, Gizarte Ekonomiaren dinamikek gai izan behar lukete garapen esparru berriak asmatzeko, lankidetzaren publiko-pribatu berriak formulatzeko, “gizarte aberastasuna birbanatzeko” era berriak proposatzeko, hitz lauz esanda. Eta ibilbide hori bakarka egiteak ez du zentzurik; ekonomia demokratizatu beharraren eta bizitzaren iraunkortasuna bermatu beharraren ildoan kokatzen diren pertsona eta entitateekin lankidetzan egin beharreko ibilaldia da. Bidelagun horietan izango dira azken finean sektorearen mugari berriak non ipini zehaztuko dutenak.

Elkarrekin hausnarketa egiteko proposamen edo gomendio hauek, oraindik errealitateak baino gehiago desioak direnak, Gizarte Ekonomiaren bilakaera kontzeptuala moldarazten joan daitezke, egitea merezi duten ibilbideak seinatzeko lagungarri diren adinean. Kontzeptuen mailako erronka, baina baita Gizarte Ekonomiaren praxiarena ere, honako hautu honetan laburtu daitezkeela esan genezake: ea nola igaro ekonomia (merkatukoa) egiteko “beste era bat” izatetik, “beste ekonomia bat” egiteko moduetako bat izatera.

IV. Bibliografia

Monzón, J.L. eta Chaves, R. (2012): *La Economía Social en la Unión Europea*, Consejo Económico y Social Europeo, Bruselas.

Salamon, L.M. eta Sokolowsky, W. (2014): *The Third Sector in Europe: towards a consensus conceptualization*, Working Paper nº 2/2014, Third Sector Impact.

3. Kapitalismoa eta Krisi Ekonomikoa

*Baleren Bakaikoa Azurmendi*¹

I. Eskola klasikoaren ikuspegia krisi ekonomikoez

Produkzio era nagusia bihurtu zenetik, hazkunde ekonomikoa izan da kapitalismoaren konstanteetako bat. Baina halaz eta guztiz ere, hazkunde hori ez da izan etengabea, baizik gorabeheratsua eta boladakakoa. Bidenabar, hazkunde bizkorreko aldietan langile ugari behar izaten da eta inbertsio handiak egiten dira makinerian. Ondoren, ordea, hazkundera bertan behera gelditzen den aldia iristen da, inbertsiorik ez da egiten eta lanpostuak galdu egiten dira.

Kapitalismoaren bilakaera ziklotan gauzatzen da, eta ziklo horietako bakoitzak sei – zortzi urteko iraupena izaten du, gutxi gora behera. Fenomeno ekonomiko hau lehen Iraultza Industrialaren garaietatik, hau da, XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik, da nabaria, nahiz eta orduko Ekonomia Politikoaren teorikorik gehienek uste zuten hazkunde iraunkor eta etengabeko aldi batera iritsia zela jarduera ekonomikoa. Adam Smithek berak zeritzon erregimen zaharra desagertzearekin batera gero eta oparotasun handiagoko aroa hasiko zela, eta ez zen arduratu sistema berriaren garapenak berekin zekartzan zikloez. Oso bestelakoa izan zen, ordea, David Ricardoren jarrera. Ekonomialari gailen hau Smith baino ezkorragoa zen, eta kapitalismoa etengabeko geldialdi aroan murgilduko zela uste zuen. Mozkinak lortzeak gero eta interes gutxiago edukiko zuen kapitalistarentzat, eta horrek sistemaren amaiera erakarriko zuen.

XIX. mendearen lehen hamarraldietako ezkortasuna beste ekonomialari batzuegan ere hezurramitu zen, eta halakoen artean ospetsu egingo zen Thomas Malthus, ez soilik giza-populazioari buruz erditu zituen teoriengatik baizik eta John Maynard Keynesen teorien aitzindaria ere izango zelako. Malthusen ustez, gizartearen eskari ahalmena baino handiagoa zen sistema ekonomikoak garatzen zuen eskaintza ahalmena, eta ondasun (salgai) soberakin handiak agertzen zirela zen horren emaitza. Bide batez, soberakin horiek aristokraziak beretu beharko zituen, gizarte klase hori zelako kontsumo ahalmena zuen bakarria. Soberakinak desagertu ahala, hazkunde prozesua berriro abiatuko omen zen.

Hausnarketa ekonomikoaren arloan gauzak honela zeudelarik jaio zen eskola marxista, Karl Marx zelarik buru nagusia. Honek kapitalismoari egin zion kritika mugarri izango zen aldizkako krisi ekonomikoaren interpretazioari eta teorizazioari zegokionean. Marxen iritzian, kapitalismoak berezkoa du autosuntsitzeko ahalmena. Kapitalismoak, bere betiraupenerako, ezinbestekoa du etengabeko kapital metaketa, eta prozesu horretan metaketa maila bateraino iristen denean, arazoak sortzen zaizkio.

¹ EHUko Ekonomia Katedraduna. GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua-ko Zuzendari ohia.

Kapitalaren metaketa prozesua bi ziorengatik eteten da. Zergatietako lehena da kapitalaren osaera organikoa, hau da, kapital iraunkorra eta kapital aldakorren arteko erlazioa, handitzea; orduan, irabazkin tasa murriztu egiten da eta inbertsiogile kapitalistek inbertsioak eginez kapitala handitzeko interesa galdu egiten dute. Hau izango litzateke sistema kapitalistak berezkoa lukeen kontraesanetako bat, eta hor egongo litzateke bere autosuntsimenduaren hobia (Mandel).

Zergatietako bigarrena ekonomiaren alorren artean ematen diren ezproportzionaltasuna izango litzateke (Tugan-Baranowsky); horren ondorioa da industriaren sektore batzuetan soberakinak sortzea, eta soberakin horiek beste sektore batzuetako erosleek beretu ezin izana. Planifikazio ezaren ondorio izanen litzateke hau guztia. Bide batez, soberakinak dituzten sektoreetan inbertitzeari uzten zaio eta kapital metaketa geldotu egiten da. Hortik ondorioztatzen da estatu bakoitzeko ekonomia planifikatu beharra, ekoizpen kapitalista berez anarkikoa delako eta nozitzen ditugun krisi etengabeak horren ondorio direlako. Gaur egun, estatuek ez dituzte beren ekonomiak planifikatzen, bai ordea enpresa erraldoiek.

II. Keyenesen ikuspegia krisi ekonomikoei buruz

Sistemak beretu ezin dituen produkzio soberakinen teoria berreskuratzen dute Keynesek eta haren jarraitzaileek, eta horregatik eskari agregatua handitzeko neurriak proposatuko dituzte. Kontsumo, inbertsio, gobernuaren gastu eta esportazio eta inportazioen arteko aldearen baturak osatzen du eskari agregatua. Faktore horietako edozeinen hazkundeak handitu egiten du eskari agregatua eta, ondorioz, soberakinen zati bat bederen xurgatu egiten du sistemak. Eskaintza agregatua eta eskari agregatua orekan leudekeeneko egoera litzateke ideala, nahiz eta horrek ez duen ziurtatzen enplegu osoa lortzea, eta horixe da hain zuzen atzeraldi ekonomikoetan gehien nabarmentzen dena.

Kontsumoa edota inbertsioa ugalaraztea ez da eginkizun erraza, baldin ez badira pizgarri fiskal indartsuak ezartzen. Gobernuaren gastuak, ordea, bai molda daitezkeela ekonomia zikloaren bilakabideari egokitzuz. Gobernuaren gastu horiek arautu gabeak nahiz automatikoak izan daitezke. Lehenak, gobernuaren ekimen berezituak izaten dira, atzeraldiak irauten duen bitartean burutuak eta kontsumitzeko edota inbertitzeko ekimen pribatuen gabezia ordeztzea xedetzat dutenak. Bigarrenak, aldiz, gizarte-ekintzako gastuak dira, langabezia tasa handitu bezain azkar agertzen direnak, langabetuentzako diru laguntzak direla medio; hauen bitartez, zeharka bederen, kontsumo mailari eusten zaio eta horrela eskari agregatuaren maila ez da gehiegi narriatzen.

Ekonomia nazioartekotu eta hainbat estatu barneratzen dituzten gune ekonomikoak sortu ahala produkzio soberakinak desorekatu egiten dira. Gune ekonomiko berri horien burutuan herrialde aurreratuenak egoten dira eta herrialde ez hain garatuen aurrean abantailak izaten dituzte. Halaxe gertatzen da Mexikoren kasuan, NAFTAren partaide delako, edota Mediterraneo aldeko herrialde europarren kasuan, Batasuneko partaide direlako. Estatuez gaindiko gunean sartu zirenean, herrialde hauek beren produkzio ahalmena doitu egin behar izan zuten eta bide batez beren parametroak, batez ere gizarte mailakoak, eskatu egin ziren. Testuinguru berri honetan, krisi ekonomikoek gehiago kaltetzen dituzte herrialderik ahulenak. Adibide gisa argigarria izan daiteke gogora ekartzea geurean egin ziren industria birmoldaketak, hainbat alor industrialen produkzio ahalmena bizi murriztuz balizko ekoizpen soberakinak kontrolatzea helburu zutenak. Hein handi batean hainbat sektoreen gehiegizko ekoizpen ahalmenak eta produktibitate baxuegiak eragindako lehiakortasun ezak sorrarazi duen estatu ekonomien krisialdi hauetan jaiotzen dira Gizarte Ekonomia eratzen duten enpresak, hala nola kooperatibak edota lan sozietateak, atzeraldi ekonomikoaren ondorio gaiztoenetako batzuk samurtzera datozenak.

Keynesianismoaren teoriak gauzatzeko estatu esku-hartzailea behar da, azpiegitura handien eraikuntza abiarazi ez ezik gizarte gastuak burutu behar izaten direlako, iragan mendeko berrogeietako hamarkadaren erdialdera Arthur Beveridgek nagusiki diseinaturik egin zen moduan. Nire ustez, une horretan bateratu egin ziren alde batetik egundoko inbertsio gastuak exijitzen zituzten egitasmo erraldoiak eta bestetik gizarte gastu pertsonalizatuak, eta guzti horren emaitza izan zen gizarte oso kohesionatua. 1945 eta 1975 bitartean loratzen den ongizate estatuaz ari gara, jakina.

Keynesianismoaren politikak eragin onuragarria izan zuten estatuen baitan zertu ziren neurrian. Baina estatuen esparruak gainditu eta ingurune ekonomiko handiak eratu zirenean, politika horiek, eraginkorrak izan nahi bazuten, politika ekonomiko ezberdinen arteko koordinazio estua exijitzen zuten, eta hori lortzea aski korapilatsua da, Europar Batasunean ikus dezakegunez.

Politika keynestar horiek eraginkorrak izan ziren 40ko hamarkadaren erdialdetik 70rekoen erdialderaino, eta haiei esker enplegu maila jasoak lortu ahal izan ziren, etenik gabeko hazkundera kasik, salneurrien maila nahiko egonkorra eta moneten truke tipoak, doikuntzekin bederen, gorabehera handirik gabe mantendu ziren.

III. Neoliberalen mendekua

60ko hamarraldiaren amaieran eta 70rekoaren hastapenetan, ordea, fenomeno berri bat agertu zen: stagflation edo estanflazio deitua. Fenomeno honen ezaugarriak dira salneurrien gorakada aipagarria izaten dela, hazkunde tasak oso baxuak eta langabezia ematen diren bitartean. Testuinguru honetan, keynesianismoaren politikak pentsamolde ekonomikoaren mainstream-etik kanpo geratzen dira, eta Hayek eta Friedmanen teorietan oinarritzen den ikusmolde neoliberalak nagusitzen da.

Keynesen teorietan oinarritzen zen ekonomia eredu eta ongizate estatua sozialdemokrazia eta kontserbadoreen arteko itun inplizitu batetik abiatzen zen. Baina 70reko hamarraldiaren hastapenetako krisiarekin, eta batez ere Yom Kippureko gerrak hura biderkatu zuenean, itun handi hori pitzatzen hasi zen, eta hamarkada amaitzerako kontserbadore berrien ikuspegiak nagusitu egin ziren Thatcherren agindupeko Erresuma Batuko eta Reaganen agintaldiko AEBko teoria eta politika ekonomikoetan.

Bat-batean, estatua ekonomiaren funtzionamendu ezegokiaren erantzule gorena bilakatu zen. Doktrina berriak zioenez, jarduera ekonomikoan estatuak gehiegizko zerikusia edukitzea zen estankamenduaren erantzulea, eta horregatik gobernu berriek estatu enpresak pribatizatzeko eta langabezia, erretiroetan, irakaskuntzan, etxebizitzan edota osasungintzan gastuak murrizteko politikak abiaraziko dituzte. Hitz lauz esanda, kapitalismoaren urrezko aroan (1945-1975) lortutako ongizatea, ekonomiaren geldotzearen eta burokratizazioaren erantzulea dela ebatziko da eta, bidenabar, pribatizazioetan eta estatua argaltzean datzala krisiari aurre egiteko era.

Pentsamolde ekonomiko berri honen giltzarrietako beste bat da estatu mailako ekonomien funtzionamendu egokia galarazten duena esparru ekonomikoan gehiegizko arautzea dela. Teoria berri honek dioenez, egundoko arau piloa betearazten diote estatuek jarduera ekonomikoari, eta horrek oztopatu egiten du ekonomiaren bilakaera. Beraz, desarautzealdi bati ekin behar omen zaio eta merkatuei utzi beren legeak ezar ditzaten eskuarki. Desarautze hau muturreraino eramanen da finantza sisteman batik bat, eta inolako estatu kontrolik gabeko finantza produktu sail ikusgarria

sortu da horren ondorioz; banku zentralek ere gobernuaren tresna funtsezkoa izateari muzin egin diote, eta banka handiaren zerbitzura ipinitako lobby bihurtu dira.

Neoliberalismoaren tema nagusietako bat enpresa publikoan privatizazioa da, beti ere sektore pribatuak sektore publikoak baino kudeaketa hobea egiten duenaren aitzakiarekin. Horrelako enpresa publikoen privatizazioari esker, elite politikoez eta hainbat familia ahaltsuek oso baldintza onuragarrietan eskuratu ahal izan dituzte haiek. Bide batez, hainbat gizarte zerbitzu ere privatizatu egin dira, hala nola osasungintzakoak, hezkuntzakoak, menpekotasunen alorrekoak, e.a. Halaz eta guztiz, inondik ere ez da frogatu kudeaketa pribatua kudeaketa publikoa baino hobea denik, kapital pribatuak gura duena bere mozkinak handitzea delako, kostuak murriztuz, kapital publikoaren helburua gizarte zerbitzuaren kalitatea hobetzea zen bitartean.

Ekonomiaren sustapenari dagokionean ematen da beste aldaketa funtsezkoa. Keynesianismoaren teoriaren arabera, eskari agregatua aldagai makroekonomiko gisa akuilatzera bideratu behar ziren herri politikak. 80ko hamarkadan, ordea, Sayren ideia berreskuratzen da: eskaintza litzateke eskari agregatua herrestan eramaten duena. Horregatik, herri politikek eskaintza sustatuko dute, enpresariei baldintzarik gabeko laguntza emanez produktibitatea handitu eta ekoizpen kostuak murriztu ditzaten, horrela gero eta globalizatuagoak diren merkatuetan baldintza hobegotan lehiatu ahal izateko.

Doktrina neoliberalen nagusitasuneko garai hauetan, lanaren irabazkinei eraso egin zaie eta, horren ondorioz, errenta horietan oinarritzen den eskari agregatua murriztu egin da. Bide batez, eskaria mantendu edota hobetu ahal izateko, maileguak baldintza onuragarritan lortu ahal izatea ahalbidetzen zuen finantza sistemak. Maileguak merkeak ziren eta haiek lortzeko baldintzak ez ziren batere zorrotzak. Horrela lortu ahal izan zen eskari agregatuari maila jasoetan eustea, maileguen etorria eten zen arte. Soka eten zenean egin zuen eztanda 2008ko finantza krisiak.

Produktibitatea hobetu ahal izateko, teknologia eta enpresaren antolamendua hobetu behar izaten dira, baina hori ez da lortzen langile kostuak murriztuz, nahiz eta honela bai lortzen den lehiakortasuna hobetzea; baina produktibitatea hobetzea ez bestelako kontua da hori. Hauxe da estatu espainolean zertzen ari den lanbide politika, barne devaluaziora bideratutako politika, epe luzera horrelako bidea hartzen duen ekonomiari kalte egingo diona. Produktibitatearen estankamendua ere erakar dezake horrek, langileen artean eros ahalmena etengabe galtzeak sortzen duen etsipenak bultzatuta.

Laburbilduz, irabazkin handiagoak lortzen zituzten elite ekonomikoek gehiago inbertitu eta horrela lanpostu berriak sortuko zituztela eta bide batez hori guztia lanaren irabazkinen onurarako izango zela zioen doktrina ez da bete eta, aldiz, erdi eta behe mailetakoko klaseek maileguetara jo behar izan dute euren eros ahalmenari eutsi ahal izateko; eta, ondorioz, familien ekonomiak zorpetuta geratu dira.

IV. Epe luzeko ziklo ekonomikoa

La Ziklo ekonomikoaren teoriaren ustez, ekonomiaren gorabehera hauek sei eta zortzi urte bitarteko iraupena izan ohi dute. Halaz eta guztiz ere, iragan mendearen lehen hamarkadetan hizpide izan ziren iraupen luzeagoko ziklo batzuk, hots, Kondratieffen zikloak deituak, berrogei eta berrogeita hamar urte bitarteko iraupena izango luketenak alegia. Ziklo hauek aurkikuntza teknologiko handiekin eta haien ustiapenarekin lotuta egonen lirateke, eta ez lukete zer ikusirik

edukiko Schumpeterrek ikertutako ziklo ekonomikoekin, honek aztertutako ziklo normalak lirakeelako, eta aldiz beste horiek teknologia aurreratuagoa darabilten makinak ezarri eta zaharkituak bazterraztearen ondorio izango lirakeelako. Fenomeno honi “suntsimendu sortzailea” deitu zitzaion.

Aurkikunde teknologiko funtsezkoak erabat zabaldu egiten dira eta haien aurretik erabiltzen zen makineria bazterrazti egiten dute. Hala gertatu zen lurrin makinek mugiarazitako ehungailuak asmatu zirenean: horrelako makineriaren erabilpena ohikotu zenean jazo zen lehen Iraultza Industrialia. Zabalkunde hori 1778 eta 1814 bitartean eman zen, eta handik aurrera hazkunde gutxiko edota atzeraldiko fasea etorri zen, 1848ra arte iraungo zuena. Urte haietan idatzi zituen David Ricardok bere idazlan ekonomikoak, ezkortasunez blaituak, garaiko kapitalismoaren tenorean. Horrela igaro zen Smithen garaietako kapitalismoaren urte loriatsuetako baikortasunetik Ricardoren ezkortasunera.

Bigarren hedatze zikloa ferrokarrilaren garapenarekin hasi zen. Lurrin makina pertsonen eta salgaien garraio lurartean erabiltzeko egokitu zen, bere sasoirik oparoena 1850 eta 1873 bitartean izango zuen bolada batean. Azken urte horretatik aurrera, XIX. mendearekin amaituko zen depresio aldia etorriko zen.

Pixkanaka lurrin makina ordeztu eta bazterraziko zuen eztanda motorrean oinarritu zen hurrengo hedatze aldia. Aldi berean, indar elektrikoaren erabilpena ere ohikotu egin zen hiriak eta etxebizitzak argiztatzeko edota industriako makineria mugiarazteko. Eta itsas garraioak ere hazkunde ikusgarria jazo zuen sasoi horretan. Goraldi ekonomiko honek 1920ko hamarraldira arte iraun zuen.

1929-1933ko depresio aldi handiarekin amaitu zen hamarraldi hura, eta urte haietan hasi ziren aplikatzen Keyenesek proposaturiko politika hedakorak, eskari agregatua handitzea helburutzat zutenak. Ondoren, berrarmatze handiaren urteak etorriko ziren, II. Mundu Gerraren atarian. Gerra amaitzean, birbanaketazko hazkunde aldi batean sartu zen ekonomia kapitalista, Europako ekonomia berregin beharrak bultzatuta eta automobilgintzaren garapenak garrantzi berezia edukiko duen testuinguru batean. Une hartan oraindik oso merkea zen petrolioaren eratorikinen erabilpen intentsiboa erabakigarria izango da oparotasun urte haien bilakaerarako. 70reko hamarkadaren erdialdera amaitu zen aro hura.

Informatikak eta komunikabideek eragindako iraultza izango da mundu mailako merkatuetan ekoizpen eta kontsumoan jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa eman ahal izateko pizgarria. Aldi honetan herrialdeez gaindiko merkatu bateratuak sortzen dira, NAFTA edota Europar Batasuna, adibidez. Aldi berean, ekonomia hazkor erraldoiak, produkzio ahalmen handi eta kontsumo maila baxukoak, agertzen dira, Txina eta India kasu, eta horrek kalte egin die Iparramerika, Europar Batasuna edo Japoniako bezalako ekonomia tradizionaleri.

1945az geroztik ekonomia kapitalistek errenten birbanaketako urteak bizi izan zituzten eta horrek era endogenoan bultzatu zuen eskari agregatua. Baina politika neoliberalak praktikara eraman zirenean eta, aldi berean, sobietar sistema desegin zenean, lan errenten beherakada etorriko zen eta, aurreko urteetako kontsumo mailari eutsi ahal izateko banketxeen maileguei heldu behar izan zitzaion. Finantza entitate horiek, Stiglitzek esana duen moduan, desarautze maila larregiak probestuz, errazkeria handienarekin eman zituzten maileguak bai familien ekonomiarako eta baita ere erakunde publikoentzat. Baina ziklo hori 2007an ahitu zen, eta ekonomiarik aurreratuenak berriro ere atzeraldiko fase batean sartu ziren; krisi aldi honetan gutxien sufrituko duen herrialdea AEB izango da, hari aurre egiteko erabili dituen politika keynestarrei esker.

Kondratieffen teoriak esaten du ziklo luzeko gorabeherak ziklo motzekoei gainjartzen zaizkiela eta jazotzen diren krisi ekonomikoak samurragoak izaten direla epe luzekoa goraldiko joeran dagoenean; aldiz, epe luzeko zikloaren beheranzko aldiarekin bat egiten dutenean, aldizkako krisi ekonomiko arruntak larriagotu egiten dira.

Laburbilduz, oso argi ez badago ere, pentsa genezake Kondratieffen ziklo luzea iragan hamarkadan sartu zela bere depresio aldian, eta hil ala bizi bilatu behar direla sektore dinamikoak edota ekonomia aurreratuenak lortzeko gai izango diren produktuak. Baina ez da lan erraza. Horregatik egiten dira I+G+b-n egiten diren ahaleginak, industria lortzaile berriak aurkitzeko, ekonomia kapitalistak beste hazkunde aldi luze bat izan dezan. Baina hori ere oso zalantzarria da, hazkunde mugagabeak hain zuzen berez mugatua den mundu batean eragiten dituen albo kalteak aintzakotzat hartzen badira.

4. Euskadiko ekonomia atzeraldi handiaren testuinguruan

Mikel Zurbano Irizar¹

Estatuko beste erkidegoetan bezalaxe, atzeraldi handiaren ondorioak pairatzen ari da Euskadi, bai ekonomian eta baita ere gizarte mailan. 2008tik aurrera, atzeraldi bortitza leherrarazi zuen faktore ezberdinen konbinazio batek: higiezin burbuilak eztanda egin zuen eta finantza entitateetan, enpresetan eta familien ekonomietan metatutako zor handiekin bat egitera etorri zen. Funts publikoak erabiliz finantza entitateen kontuak onbideratzeko helburuarekin eta adierazle fiskalak kontrolpean edukitzeko asmoarekin Europar Batasunetik ezarri diren zerga sendotasunezko politika ekonomikoek areagotu egin dute atzeraldiranzko joera ekonomiko, 2008az geroztik Euskadin ere bete-betean pairatzen duguna. Hemen aztertuko ez dugun arren, ez da inolaz ere ahantzi behar horrek duen eragin sozial ikaragarria, eta krisiaren ondorioengatik eta doikuntza politiken ezarpenengatik ematen ari den desberdintasunen hazkunde handia.

Euskadiko adierazle ekonomiko nagusiek atzeraldi handi honen testuinguruan ukan duten bilakaera aztertzea da hemen egin asmo duguna. Lehenik eta behin, Euskadiko BPGaren eta errenten bilakaera begiratzea komeniko da.

1. Taula: Egiatzko BPGaren bilakaera herrialdeka (urtearteko aldaketa tasa)								
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Munduko ekonomia	5,2	2,7	-0,4	5,2	4,2	3,4	3,4	3,4
AEB	2,1	-0,3	-2,8	2,5	1,6	2,3	2,2	2,4
Japonia	2,4	-1,0	-5,5	4,7	-0,5	1,8	1,6	-0,1
Txina	13,0	9,6	9,2	10,4	9,3	7,7	7,8	7,4
Europar Batasuna	3,1	0,4	-4,5	2,0	1,7	-0,5	0,0	1,3
Alemania	2,5	1,1	-5,1	4,0	3,6	0,4	0,1	1,6
Frantzia	2,3	-0,1	-3,1	1,7	2,1	0,3	0,3	0,4
Erresuma Batua	2,6	-0,8	-5,2	1,7	1,6	0,7	1,7	2,8
Italia	1,5	-1,2	-5,5	1,7	0,6	-2,8	-1,7	-0,4
Espainia	3,6	0,9	-3,7	-0,3	-0,6	-2,1	-1,2	1,4
Euskadiko A.E.	4,2	1,3	-3,9	0,4	0,2	-2,0	-1,7	1,2

Iturria: NMF, Eurostat eta Eustat.


Lurralde ezberdinetan BPGak izan duen bilakaera agertzen duen taula honetan ikus liteke atzeraldiaren lehendabiziko ukaldia Estatu Batuetan pairatu zela, herrialde hori 2008rako BPGa

¹ EHUko Ekonomia Aplikatua I Saila. EHUko Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko Masterreko Zuzendaria GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua-ko kidea.

gutxitzeko fasean sartuta baitzegoen. Hurrengo urtean, atzeraldiaren bolada mundu osora hedatu zen, eta batez ere Europar Batasunera, hemen BPGaren hazkunde tasa harez geroztik ezkorrak edota hutsa hurrengoak izan dira. Kontinente mailan, Europa hegoaldeko herrialdeek latzago pairatu dute atzeraldi handi honen eragina, taulan Italia eta Espainiaren kasuak begiratzuz gero ikus litekeen bezala; bi herrialde horietan hazkunde tasa ezkorrak ematen dira ia ondorengo urte guztietan. Europa hegoalde horretan doikuntza eta sendotze fiskaleko politiketan tematu izanak esplikatzen du, hein handi batean, BPGaren uzkurduraren luzamendu hau.

Euskal BPGaren bilakaerak, Europa hegoaldeko herrienaren antza du bere joeran. Krisiaren eraso pittin bat beranduxeago iritsi zen, baina 2009az geroztik Euskadiko ekonomia uzurtzen edota gelditzen hasten da, eta horretan jarraituko du 2010 eta 2011n. 2014ra arte itxaron beharko da BPGaren suspertze txiki bat kausitu ahal izateko, batez ere kanpotik iristen zaizkion bulkadei esker, esate baterako Europako Banku Zentralaren hedapen kuantitatiboari, euroak dolarraren aldean zuen ahultasunari edota urte horretan petrolio gordinak izan zuen merketasunari esker.

Ez du harritzen Euskadin emandako ekoizpenaren uzkurduraren erantzule nagusia barne eskaria dela ikusteak.



Iturria: Eustat.

Izan ere, erraz ikus baitaiteke Euskadiko BPGak atzeraldi handienak pairatu dituen urteetan, barne eskaria eratzen duten osagaiak (kontsumoa, inbertsioa eta gastu publikoa) izan direla hazkundera eragotzi duten faktoreak. Aldiz, kanpoko eskariak, hau da, atzerriko merkatuek, izan duten joera baikorragoarekin, samurtu egin da barnekoaren tendentzia hori. Halaz eta guztiz ere, kanpotiko bulkada nahiko ahula izan da eta soilik 2011n izan du indar nahikoa barne eskariaren dezeleratzeari gain hartu eta, ondorioz, BPGaren hazkunde tasa positibotasunera itzularazteko. Krisialdiaren aurretiko urteetan eta iragan berri dugun azkenekoan (2014) barne eskari horren portaera baikorra izan da, hala ere, BPGaren hedapenaren faktore erabakigarria.

Jarraian doan euskal taula makroekonomikoan ikus daitezke barne eta kanpo eskariak osatzen dituzten atal ezberdinen portaerak, hala nola BPGaren bilakaera diferentziala sektore ekonomikoen arabera.

2. Taula: Euskal taula makroekonomikoa (urtearteko aldaketa tasa)								
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Azken kontsumo gastua	4,1	1,9	-1,7	1,1	-0,4	-1,2	-1,0	1,4
Familien kontsumo gastua	3,6	0,6	-3,6	0,8	-0,7	-1,3	-1,0	1,6
APen kontsumo gastua	6,4	7,0	3,0	2,2	0,6	-0,8	-1,3	0,9
Kapital eraketa gordina	4,6	-1,8	-14,3	-4,3	-2,3	-6,3	-3,2	0,0
Barneko eskaria	4,3	0,8	-5,4	-0,3	-0,9	-2,4	-1,5	1,1
Esportazioak	5,4	-0,2	-13,4	7,7	0,9	-3,3	1,1	3,4
Inportazioak	5,4	-0,8	-14,5	5,9	-0,9	-4,2	0,5	3,2
Benetako BPGa m.p.-tan	4,2	1,1	-3,9	0,4	0,3	-1,6	-1,2	1,2
Lehen Sektorea	0,0	-6,1	-4,8	20,8	7,9	8,7	-6,1	5,5
Industria	3,1	-0,7	-12,9	2,0	1,6	-3,7	-1,9	1,0
Eraikuntza	11,3	-5,8	-7,4	-7,9	-7,9	-8,2	-5,0	-3,0
Zerbitzuak	4,1	3,4	0,0	0,7	0,9	-0,4	-0,6	1,5

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren osagaien ikuspuntutik, azpimarragarria da atzeraldi handi honen iraunaldi osoan zehar kapital eraketa gordinak erakusten duen ezkortasun larregia. Iragan urtean izan ezik –eta orduan 2013ko mailari eustea besterik ez du egiten–, beste urte guztietan joera biziki murriztailea ukan du salbuespenik gabe, eta horrek eragina izan du ondorengo atzeraldiaren espiralean. Beste muturrean, administrazio publikoen gastuak, motel samar baina zikloaren aurkako portaera eduki du, atzeraldi handi honetako lehen urteetan bederen, 2011 arte hain zuzen. Harez geroztik, bankaren finantza erreskaterako Estatu mailan ezarritako neurriek eta Europar Batasunak Estatu Espainolari luzatu zion emergentziako laguntza baldintzatuak, zikloaren aldeko neurriak erakarri zituzten eta bidenabar Estatu Espainoleko administrazio publikoen esku hartze hedakorrerako gaitasuna antzutu geratu zen.

Kanpoko eskariari dagokionean, soilik 2010rean eta 2014an izan dute esportazioek hazkunde nabarmena, eta lagundu ahal izan diote positiboki Euskadiko dinamika ekonomiko orokorrari.

Krisialdian barrena sektorekako joerak aztertzen ditugunen, lehenik eta behin topatzen duguna da eraikuntza sektorearen portaera, aski ezaguna, baina nolana ere oso adierazgarria. 2007an, eraikuntzak hazkunde tasa oso handiak aurkezten zituen, ehuneko hamarretik gorako zenbatekoekin. Baina higiezin burbuilak eztanda egin eta gero, sektoreak etengabeko doikuntza negatibo bat pairatu du, oraindik ere amaitu ez dena. Eraikuntzaren garrantzia erlatiboki apala da Euskadin, baina hala eta guztiz ere, haren beherakadaren eragina, nola zuzenekoa hala zeharkakoa, ohargarria izan da euskal ekonomian.

Bestalde, 2008an eragin apaleko lehen ukitu bat pairatu ondoren, industriak bere neurria murriztuz berregokitzeko oso prozesu gogorra nozitu du, 2009an oso bereziki baina baita ondorengo urteetan

ere, 2012an eta 2013an. Sektorearen hobekuntza txiki bat antzematen bada ere, eta BPGari egiten dion ekarpenak azken urtean gora egin duen arren, atzeraldi handiak bigarren industriagabetze prozesu bat sorrarazi du euskal ekonomian, laurogeietako hamarraldiaren bigarren erdian eta laurogeita hamarretakoaren hasieran eman zen lehen hura bezain bortitza ez bada ere.

Industriagabetze erlatibo honen aztarnak hurrengo taulan topatuko ditugu euskal BPGaren sektorekako egitura, sektore eta jarduera esparru bakoitzak guztizkoan duen partaidetzaren ehunekotan zenbatuta, aztertzen dugunean. 2007 eta 2013 bitartean ikus liteke euskal ekonomiaren nola edo halako hirugarreneratze prozesu bat, sei urte horien ondoren zerbitzu sektoreko jarduerak ia %69ko ekarpena egiten baitiote euskal BPGari, hau da, krisialdia hasi baino lehen egiten zutena baino ia bederatzita gehiagokoa. Bitarte horretan bertan, eraikuntzak lau ehuneko galtzen ditu BPGari egindako ekarpenean. Eta, gainerakoan, industriak %25eko ekarpena egiten dio BPGari 2013an, 2007an %30rekoa egiten zionean.

Laburbilduz, euskal ekonomiaren hirugarreneratze eta industriagabetze prozesu batean murgilduta gaude atzeraldi handiaren testuinguru honetan. Elkar elikatzen duten bi prozesu horiek gogorarazten dute, bertsio samurragoan bada ere, duela hogeita urte baino gehixeago euskal ekonomiak pairatu zuen produkzio berregokitze hura.


3. Taula: Euskal BPGaren sektore egitura (%tan)		
	2007	2013
1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	0,79	0,85
2. Industria erauzleak	0,22	0,06
3. Elikagai, edari eta tabako industriak	1,53	1,43
4. Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	0,23	1,12
5. Zurgintza, papergintza eta arte grafikoak	1,56	0,15
6. Koke eta petrolio fintzea	0,56	0,75
7. Industria kimikoa / 8. Farmazia gaiak	0,82	2,15
9. Kautxogintza, plastikogintza eta gainerako ez – metalezkoak	2,81	6,53
10. Metalgintza eta produktu metalikoak	9,71	0,66
11. Informatika eta elektronika produktuak	0,52	1,32
12. Material eta tresna elektrikoak	1,48	2,55
13. Makineria eta tresneria	2,28	2,48
14. Garraio materialak	2,46	0,99
15. Altzariak eta beste manufaktura batzuk	1,23	2,84
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	2,66	0,69
17. Ur hornidura eta ur zikinak	0,55	6,53
18. Eraikuntza	10,57	68,69
19. Zerbitzuak	59,99	
BPG guztira	100	100

Iturria: Eustat.

Taulak agerian ipintzen ditu, bide batez, industriaren berregokitze horren ñabardurak, nola sail batzuk gainbehera doazen, beste batzuk iraun edota, behin edo behin, hobera egiten duten bitartean. Noski, gehiengoak dira posizioak galtzen dituztenak, baina kasu ohargarriak dira, duten berezko garrantziagatik eta haien galerak duen eragin ezkorragatik, Metalgintza eta produktu metalikoak –hiru ehuneko galtzen ditu–; Zurgintza eta papergintza; eta baita ere Altzarigintza, eraikuntzaren krisiaren eraginez. Zutena mantendu edota hobetzen dutenen artean daude Makineria eta tresneria, Garraio materialak eta Energia. Berezko garrantzia eskasa badu ere, azpimarratzekoa da Informatika eta elektronika produktuek lortzen duten aurrerapena.

Atzeraldi handiak euskal ekonomian ukan duen eraginari buruzko gainbegiraketa honi amaiera emateko, ezin da ahantzi lanari buruzko soslaia, hura baita, Euskadin ere, krisiaren larritasuna gehien nozitu duen ekonomiaren atala.

Euskadiko langabezia tasaren bilakaera adierazten duen irudian, erabilitako bi iturri ezberdinekin dagozkien bi lerroren bitartez irudikatzen da langabezia tasa. Bat, Eustatek eskaintzen duen PRA edo Biztalaria Aktibitatearen Araberako datuekin; eta bestea INEk argitaratzen duen EPA edo Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuekin eginak daude. EPAren datuek langabezia tasa handiagoak ematen dituzte PRAkoek baino, atzeraldi handiaren urte guztietarako.



Iturria: INE.

Ñabardurak alde batera utzita, deigarria da langabezia tasek Euskadin urte hauetan jo duten gorakada ikaragarria. Oso tasa baxuetatik abiatuz 2007an, eta 2008an, krisiaren eragina oraindik oso ahula zenean, horrelatsu mantenduz, 2009an gorakada bortitza jotzen du, eta goranzko horrek ez du etenik izan 2014ra bitartean. 2012an egindako lan merkatuaren erreforma, hain zuzen ere langabezia tasak murrizteko helburu esplizituarekin egin zena, erabateko porrota izan da, datuek frogatzen dutelako langabeziaren gorakada ez dela eten, nahiz eta 2014an nolabaiteko gelditze bat nabari den. Euskadiko langabezia tasa %15 eta %16 bitartean kokatzen da, aintzakotzat hartzen den iturriaren arabera, eta nolana ere Estatuko batz bestekotik oso urruti badago ere, lehen mailako gizarte arazoa mahairatzen du, Euskadiko gizarte kohesioaren etorkizuna arrisku larrian ipintzen duen heinean.

5. Gizarte ekonomia, krisia eta balioak

*Alejandro Martínez Charterina*¹

Badakigu zikloka egiten duela ekonomiak bere bidea, eta ziklo ekonomiko horietan kokatzen direla krisi ekonomikoak.

Industrializazio prozesua iritsi zen arte, naturako baldintzen menpe egoten ziren zikloak, haiek uztei eragiten zieten neurrian salneurriak aldatzen zirelako, eta hori guztia esparru mugatu batean ematen zen.

Industrializazioaren eta nazioarteko merkataritzaren hazkundearen ondorioz, eskariaren menpe geratu ziren zikloak eta herrialde batetik bestera zabaltzen hasi ziren².

Doktrinak bereizten dituen ziklo mota ezberdinen artean, ziklo ertaina edo Jutglarren zikloa da ziklo ekonomikoa deitu ohi duguna. Hedapen edota aurreko alditik suspertzeko aro batekin hasten da zikloa; fase horretan jarduera bizkortu egiten da. Jarraian, krisia edo depresio aldiaren hastapena iristen da: kreditua murriztu egiten da, jarduera moteldu, merkataritza gutxitu, langabezia ugartu, burtsa gainbeheratu... eta egoera horrek denboraldi batean irauten du.

Ekonomiaren historiak krisi ekonomiko askoren oroitza gordetzen du³. Egun nozitzen ari garena okerrenen parekotzat jotzen da; milurteko berriaren lehen urteetatik dator, orduan gertatu baitzen puntukom enpresen burbuilaren leherketa, Dorre Bikien aurkako atentatua eta guzti horren ondorioz Estatu Batuetako jarduera ekonomikoan jazo zen motelaldia⁴.

Estatu Batuetako Erreserba Federalak interes tasak jaitsi egin zituen ekonomia suspertzeko, bankuek etxebizitzak erosi ahal izateko maileguak eman zizkieten, beroiek balio zutena baino gehiagoko zenbatekoan, kaudimenik gabeko pertsona askori, sortzen ari zen higiezinaren burbuilarengatik hazitako balioarekin itzuliko zituztelakoan; eta likidezia handiagoa lortu, hipoteka gehiago saldu eta berauen arriskuetatik babestu ahal izateko, finantza merkatuaren araugabetasunari esker sortutako finantza produktu deribatuetan paketatutako zituzten, hipoteka *prime*-ak, hau da, itzultzeko ziurtasuna zutenak, hipoteka *subprime*-ekin, hots, ez itzultzeko arriskua zutenekin, nahasiz. Bilgo horiek inbertsio bankuei saldu zizkieten, nola bertakoei hala beste herrialdeetako edozeini, bereziki Europako bankuei, hauek gero beren inguruko inbertsiogileen artean bana zituzten.

-
- 1 Zuzenbide Fakultateko Kooperatiba Ikaskuntzen Institutuko Zuzendaria Deustuko Unibertsitatea.
 - 2 Honetarako, ikus Rondo Cameron: *Historia económica mundial* (2000), 390. orr.
 - 3 Oriol Amatek bere *Euforia y pánico* (2009) obran, 42. orr. zerrendatzen ditu 17 eta 18. orr.; haietako batzuen iruzkina egiten dut in Alejandro Martínez Charterina: "Las cooperativas frente a la crisis" (2010), 199-202. orr.
 - 4 Ikus liteke Ignacio Ramonet: *La catástrofe perfecta* (2009), 73. orr. Baita ere, besteren artean, Oriol Amat, *o.c.* (2009), 39. orr.; Carlos Salas: *La crisis contada a sus víctimas* (2009), 118. orr.

MBS, *Mortgage Backed Securities*, bezalako izen xarmangarriekin plazaratzen ziren finantza produktu deribatu hauen banaketa, deribatu horiek saldu behar zituzten banku beroiek ordaindutako *rating* agentzien maila goreneko kalifikazioen bermearekin egiten zen.

Eta horrelaxe joan zen zabaltzen finantza krisia deitzen duguna munduan zehar, edo behintzat munduaren zati garrantzitsu batean. Gure ingurumenean, egitate honek, higiezinaren burbuilaren amaierarekin uztartuta, erakarriko zuen finantza sistemari laguntzak eman beharra, hartarako defizita biderkatu eta zor publikoa jaulkiz, kreditua agortzea, burtsaren amiltzea, lantegiak ixtea, langabezia, Barne Produktu Gordinaren beherakada, kontsumoa murriztea, eta abar luzea.

Krisia samurtzen hasi dela esan badezakegu ere, eta langabeziaren murrizketa eta jardueraren suspertzea adierazten duten datuak, ahulak baina itxaropentsuak, agertzen hasi badira ere, nozitutako kaltea eta ekonomiak berrosatzeko beharko duen denbora aintzakotzat hartzeaz gain, gogoan izan beharko dugu, krisia iragarri zuen bakanetakoa zenean batzuek “asturu gaiztoko txoria” deitu eta kasurik egin ez zioten⁵ Paul Krugmanek esana: pertsona asko dirurik gabe eta depresioa edo antsietatea bezalako arazo psikologikoei jota geratuko direla; adinean aurreratuta dauden askok ezingo dutela berriro lan egin; eta gazte askok onartu beharko duela bere trena galdu duela eta ahalegin bereziak egin beharko dituela lan merkatuan lekua hartzeko, bere adinari dagozkion itxaropen eta desio zentzuzkoenak zapuztuta geratzen zaizkion bitartean⁶.

Baina, horrez gain, bereizgarri bat azpimarratu behar da, agian beste krisi batzuetan ere izango zena, baina egungo krisian erabat funtsezkoa dena: balio krisia da oraingoa, hobeto esanda, balio gabeziaren krisia⁷. Leopoldo Abadiak hainbat obra argitaratu ditu urte hauetan krisiari buruz, eta denetan hizpidera ekartzen du enpresa-etika eta zintzotasun gabezia, bidegabekeriaren zabalkundea, zintzotasuna globalizatu beharra, ustelkeria lotsagabea eta erlatibismo morala⁸. Anekdotak mailan, oker erabilitako gobernu laguntzen adibidea kontatzen du Salasek: “*Citibankeko exekutiboek erreaktore bat erosteko erabili zituzten*”⁹.

Gizarte Ekonomiak, bere esparruan biltzen diren entitate pribatuen ekonomia eta enpresaritza jardueren multzoa biltzen du, jarduera horren orientabide diren printzipio batzuei jarraituz, eta bere kide direnen talde interesak eta ekonomiaren zein gizartearen interes orokorra¹⁰ zaintzen ditu. Beraz, balioen ekonomia bati men eginez kokatzen da testuinguru ekonomikoan: bere kide guztiek “*gizakiaren beharrak asetzera bideratzen den ekonomia baten osagai dira, non gizakia, talde soziala, ingurunea, natura, portaera etikoa, etab. baitira partekatzen diren balioak... Zerbitzua emateko enpresak, etekinak ematekoak baino gehiago. Zer egiten den bezain garrantzitsua da nola egiten den*”¹¹.

5 Hala uste du Carlos Salasek, *o.c.* (2009), 193. orr.

6 Paul Krugman: *¡Acabad ya con esta crisis!* (2012), 18-22. orr.

7 Ikus liteke in Alejandro Martínez Charterina, “Las cooperativas y los jóvenes en la actualidad” (2015), 121-124. orr.

8 Hauta bat, ez gutzizkoa, Abadiaren obra hauetan aurki liteke: *La crisis ninja y otros misterios de la economía actual* (2009), 133 eta ond. orr.; *La hora de los sensatos* (2010), 79. orr.; *¿Qué hace una persona como tú en una crisis como esta?* (2010), 167. orr.; *El economista esperanzado* (2012), 173 eta ond. orr.; *La economía en 365 preguntas* (2013), 181. orr.

9 Carlos Salas, *o.c.* (2009), 142. orr.

10 5/2011 Legeak, martxoaren 29koak, Gizarte Ekonomiari buruzkoak, 2. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

11 Alejandro Martínez Charterina: “Economía social, economía de valores” (2002), 1.148. orr.

Gizarte ekonomiako entitateek, balio batzuek erdiestera bideratzen dituzten irizpide komun batzuei jarraiki burutzen duten euren jarduera. Gizarte Ekonomiaren legeak jasotzen ditu printzipio horiek¹²:

- Kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta parte hartzailea, pertsona eta helburu soziala kapitalaren gainera gera daitezten.
- Etekinak, burutzen den jardueraren eta entitatearen helburu sozialaren arabera bideratzea.
- Barne solidaritatea eta gizartearekikoa, lekuan lekuko garapena, aukera berdintasuna, gizarte kohesioa, gizarteratzea eta laneratzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa, kontziliazio eta iraunkortasuna sustatzeko.
- Aginte publikoekiko independentzia.

Guztiz ulergarria denez, bestelako enpresei bezalaxe eragiten die krisi ekonomikoak gizarte ekonomiako entitate hauei ere. Halaz eta guztiz, enpresa konbentzionalek baino sendotasun eta malgutasun gehiagorekin egiten diote aurre krisialdiari, arestian esan dugun bezala, euren jardunbidea, funtzionamendu irizpide jakin batzuetara moldatu behar dena, baldintzatzen duten balio batzuen araberrako antolamendu ereduak duten enpresak direlako.

Kooperatibei dagokienean, eta nire ustez haiekin balioak eta oinarriko printzipioak partekatzen dituzten gizarte ekonomiako beste kide guztien kasuan ere berdintsu litzateke, bi txosten dira ezinbestean aipatu beharrekoak gai honen inguruan: lehena Johnston Birchall eta Lou Hammond Ketilsonen Txostena, 2009koa, kooperatiba ereduak eta krisia gaitzat duena litzateke¹³; eta bestea Johnston Birchallena, 2013koa, finantza kooperatibei buruzkoa¹⁴. Nazioarteko Lan Erakundearen eskariz egindakoak dira bi azterlanak.

Lehenak hobesten duen tesia da krisiari aurre egiterakoan kooperatibak sendagoak direla bestelako enpresak baino, eta horrelakoetan kooperatiba berriak sortzen direla desagertu diren bestelako enpresetako langileetako batzuek eratuta¹⁵. Kreditu kooperatibak eta kooperatiba bankuak, bestalde, ez dira mugitzen banku konbentzionalak bezala akziodunen berehalako interes presatiagatik, haiek sozietate kapitalistak direlako eta hauek, ordea, epe luzerako helburuekin jokatzen dutelako, eta horregatik dirua interes baxuagoan mailegatzen dute, kredituak mantendu eta handitu egiten dituzte, eta maileguak ematerakoan zuhurtzia gehiagorekin jokatzen dute.

Aipatu txostenetako bigarrenak, datu ugariarekin lantzen duen ideia da banku konbentzionalak baino hobeto moldatu direla finantza kooperatibak krisialdian zehar, eta horregatik diru-sarrera baxuenak dituztenei maileguak eman ahal izan dizkietela eta lekuan lekuko ekonomia berregiten eta lana sortzen lagundu ahal izan dutela, zeharbidez.

Horrek ez du esan nahi gizarte ekonomiako entitateak krisiaren aurka immunizatuta daudenik, haietako hainbat ere desagertzen ikusi baititugu, zarata mediatiko galantarekin gainera kasu batzuetan. Ikuspegi honetatik, Fagor Etxetresnak kooperatibaren kasuak interes berezia piztu du hedabideetan,

12 5/2011 Legea, martxoaren 29koa, 4. artikulua.

13 *Resilience of the Cooperative Business Model in Time of Crisis*.

14 *Resilience in a downturn: The power of financial cooperatives*.

15 Honek gogorarazten du gure herrian ere lan sozietate asko petrolioaren krisialdiaren testuinguruan, hirurogeita hamarreko hamarkadan, sortu zirela, hain zuzen ere desagertzen ari ziren hainbat sozietate konbentzionaletako langileek lantegiak euren esku hartu zituztenean.

izan ere, era batera edo bestera, argudia zitekeen eredu kooperatiboaren beraren ondorioz gertatzen zela, nahiz eta ohiko kapital sozietateek krisiari aurre egiterakoan emaitza aski okerragoak erdietsi dituzten, eta hala ere ez dute inolako kritikarik jaso euren ereduari dagokionean¹⁶.

Azken finean, kooperatibak ere enpresak dira eta, oraintsu Juan Mari Otaegik esaten zuen bezala, “*Fagor Etxetresnakek zuen kokamendu estrategikoak ezin izan dio aurre egin bi faktore erabakigarriren elkartzeko bikoitiari: bere merkatu nagusian eskaria dramatiko beharrezari eta lehiakide erraldoiei aurre egiteko zailtasun handiegi...*”¹⁷.

Eta era berean berresten du balio kooperatiboari eustearen garrantzia, krisialdiak eta gainbehera ekonomikoak enpresa etsipenaldi batera eramane eta bertan balio horiek lausotu edota desagerrarazteko bidean ipin ez dezaten.

Aldi berean, esan behar da kasuaren inguruan eman den prozesu luzea, bere bilakaera osoan, solidaritate eta interlankidetzaredu garrizkoa izan dela Mondragon Korporazioko kooperatiba guztien artean, eta horrek berak begiramendua eta gogoeta bat merezi duela.

Bestalde, balioen krisiaren ikuspegi honetatik hain zuzen uler liteke nola herrialderik gehienetan ari den bizkorki hazten ezberdintasuna. Munduko aberastasuna bakan batzuen eskuetan metatuta geratzen ari da (familien %1 da munduko aberastasunaren %46ren jabea, eta 85 pertsonaren artean munduko biztanleriaren erdiak baino aberastasun gehiago biltzen dute) eta ezberdintasunaren zanga betirako finkatzen ari da, gizaterian aurrerabidea arriskuan ipiniz¹⁸.

Eta balio gabeziaren testuinguru honetan gero eta ugariagoak, eta gero eta ozenagoak, dira eredu postkapitalista berri baterako dei egiten duten ahotsak.

Lankidetzazko ekonomia bere ekinbidea bizkortzen ari da, garai bateko denbora bankuetatik hasi eta gaur egun interneteko hainbat ataritan eskaintzen diren zerbitzu ezberdinetara etorriz, beti ere partekatzearen ideia oinarritzeko baldintza delarik.

Christian Felber-en guztien onaren ekonomia, bestalde, pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia eta zerbitzu horretatik urrunduta dagoen merkatu ekonomia baten artean ematen kontraesanetik abiatzen da.

Guztien onaren bilaketan neurketa ekonomiko konbentzionalak erabat aldatu beharko liriteke. Arrakasta, baliagarritasun sozialaren arabera neurtu behar da, truke balioen neurria erabili ordez. Eta, bide batez, guztien ona neurtu ahal izateko, adierazle ez – monetarioak ere aintzakotzat hartu beharko dira, ohiko adierazle monetarioekin batera¹⁹.

Gizarte interesari, iraunkortasunari, ingurumenaren zaintzari, solidariotasunari, parte hartzeari, demokraziari, partekatze gaitasunari,... begira ipintzen diren balioetan oinarritzen dira eredu berri hauek.

16 Ikuspegi horretatik kasua sakonago aztertzen dut in “El sexto principio cooperativo: la cooperación entre cooperativas” (2014), 89-92. orr.

17 KOOP, 64. Zka.: “Entrevista a Juan Mari Otaegui” (2015), 16. orr.

18 Hala dio argiro Oxfam Txostenak: *Gobernar para las élites. Secuestro democrático y desigualdad económica* (2014).

19 Christian Felber: *La economía del bien común* (2012), 48. orr.

Horregatik, gizarte ekonomiak itxaropenez eta ilusioz begiratu behar dio bere etorkizunari. Islatzen den ibilbide horretan, gizarte ekonomiako entitateak, barneratzen dituzten balioengatik, lehenetasunezko lekua betetzera deituta daude.

Bibliografia

- Abadía, L. (2012): *El economista esperanzado*. Espasa, Barcelona.
- Abadía, L. (2009): *La crisis ninja y otros misterios de la economía actual*, Espasa, Barcelona.
- Abadía, L. (2013): *La economía en 365 preguntas*, Espasa, Barcelona.
- Abadía, L. (2010): *La hora de los sensatos*, Espasa, Barcelona.
- Abadía, L. (2010): *¿Qué hace una persona como tú en una crisis como esta?*, Espasa, Barcelona.
- Amat, O. (2009): *Euforia y pánico*, 3ª ed., Profit, Barcelona.
- Birchall, J. (2013): *Resilience in a downturn: The power of financial cooperatives*. ILO, Geneva.
- Birchall, J. y Ketilson, L.H. (2009): *Resilience of the Cooperative Business Model in Time of Crisis*. ILO, Geneva.
- Cameron, R. (2000): *Historia económica mundial. Desde el paleolítico hasta el presente*, 3ªed., Alianza Editorial, Madrid.
- Felber, C. (2012): *La economía del bien común*, Ediciones Deusto, Barcelona.
- Informe Oxfam (2014): *Gobernar para las élites. Secuestro democrático y desigualdad económica*. 20 de enero de 2014. www.oxfam.org/files/bp-working-for-few-political-capture-economic-inequality-200114-es_0.pdf
- Koop (2015): “Juan Mari OTAEGUI. Expresidente del Congreso de MONDRAGON y del Consejo Económico y Social (CES) Vasco”. KOOP, 64, 14-16.
- Krugman, P. (2012): *¡Acabad ya con esta crisis!*, Crítica, Barcelona,
- Martínez Charterina, A. (2002): “Economía social, economía de valores”, en *Estudios jurídicos en memoria de José María Lidón*, Universidad de Deusto, Bilbo, 2002, 1141-1149.
- Martínez Charterina, A. (2014): “El sexto principio cooperativo: la cooperación entre cooperativas”, *Las cooperativas como alternativa económica. Una visión de México y España*, Dykinson, Madrid, 2014, 79-94.
- Martínez Charterina, A. (2010): “Las cooperativas frente a la crisis”, *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, 44, Universidad de Deusto, Bilbo, 195-219.
- Martínez Charterina, A. (2015): “Las cooperativas y los jóvenes en la actualidad”, en *Difusión de los valores y principios cooperativos entre la juventud*, Dykinson, Madrid, 2015, 121-134.
- Ramonet, I. (2009): *La catástrofe perfecta*, Icaria, Barcelona.
- Salas, C. (2009): *La crisis contada a sus víctimas*, Áltera, Barcelona.

6. Enplegua euskal Gizarte Ekonomian 2009-2013 artean

Aitor Bengoetxea Alkorta¹

Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa. 2009 eta 2013 arteko bilakaera sozioekonomikoa GEEBen txostenak balio kualitatibo ikusgarriko lanabesa eskaintzen digu. Oraindik gainean dugun krisialdi ekonomiko eta finantzarioaren urterik latzenetan gizarte ekonomiak nolako portaera izan duen aztertzea litzateke helburua.

Enpleguari dagokion atalaren hausnarketan xedatuko da iruzkin hau, eta bertan gizarte ekonomiako entitate ezberdinen bilakaera eta ezaugarriak aztertuko dira; bidenabar, gizarte ekonomiako enpleguaren eta ekonomia orokorrekoaren arteko alderaketa bat egingen dugu.

Enpleguaren arazoa behatzeari ekiterakoan, azertu beharreko arazoa, funtsean, ez datzala horrenbestearino enpleguan baizik haren gabezia, langabezia alegia, azpimarratuz has gaitzke. Izan ere 2008az geroztik nozitzen dugun krisialdi ekonomiko eta finantzarioak pertsona asko, ordura arte egoera sozioekonomiko erosoan zeudenak hainbat, bota ditu bere lanpostutik eta langabeziaren munduan murgilarazi ditu.

EB-28an batz besteko langabezia tasa %9,7an dago, eskura dugun azken datuaren arabera². Iruzkina dugun GEEBen Txostenaren erreferentziazko lurralde esparrua den Euskadiko Autonomia Erkidegoan, %16,43koa da PAIren azken datuek adierazten diguten langabezia tasa³. Bide batez, inkesta horrek berak jakinarazten digu Espainiako tasa %23,78ra iristen dela⁴. Zirrargarria ere bada datua: Espainiako populazio aktiboa osatzen dutenen artean lau pertsonetatik ia batek lan egin nahi eta ahal luke, baina enplegurik gabe aurkitzen da egun⁵.

Datu enpiriko hauek ikusi ondoren, ez da harritzekoa langabezia izatea herritarren kezka-gaien muina eta erdigunea. Azterketa soziologiko guztiek aho batez berresten dute, edozein delarik ikerlanerako hautatutako lurralde esparrua: gaur egun langabezia da gure ingurunekeo gizarte guztietan arazo eta erronka nagusizat hartzen dena. Horixe adierazten dute hurrenez

1 GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua-ko Zuzendaria EHUko Lan Zuzenbide eta Gizarte Segurantzza Saileko Irakasle Agregatua.

2 Eurostat, 2015eko apirila.

3 2015eko lehen hiruhilekoa.

4 Europar Batsuneko bigarren tasa altuena da, Greziaren ondoren, eta Kroaziak, %17,5eko langabeziarekin, duen hirugarren postutik oso urruti (Eurostat, 2015eko apirila).

5 Enplegu formal eta erregistratua, datu ofizialek jasotzen ahal dutena. Zentzuzkoa da susmatzea ekonomia ez-formal eta irregularrean diharduten pertsonen kopurua handia dela. Horrek berak lagunduko luke egoera material sozioekonomikoa horren jasangaitza izan ez dadin.

hurren Euskadi⁶, Espainia⁷ eta Europa⁸ mailan azterketa zentro ofizialek egiten dituzten inkesta soziologikoek.

Ikusmira aldatu eta langabeziatik enplegura joanez, benetan interesgarria da enpleguari buruz egin ohi den sailkapena: besteren konturako enplegua, norbanakoan autoenplegua (pertsonek autonomoena, alegia), eta taldekako autoenplegua (lan elkartua).

Lehen kasuan, enplegua duten pertsonen beste norbaitentzat egiten dute lan, menpekotasun eta besterendutasun egoeran, lan kontratuak direla bitarteko. Pertsonek autonomoak norbanako mailan autoenplegatzen dira, libreki eta menpekotasunik gabe nor bere lanbide jardura burutu eta haren arriskuei aurre egiten dien adinean. Azkenik, hain desiragarria zaien enplegua emango dien enpresa bat elkarrekin sortzeko batzen diren pertsona taldeak aurkezten dizkigu taldekako autoenpleguaren formulak; azken enplegu mota honen agerkaririk gardenenak lan elkartuko kooperatibak dira.

Gure ingurumenean, taldekako autoenplegua gauzatzeko bigarren era, aski bitxia zuzenbide konparatuaren ikuspuntutik, lan sozietateena da. Hauek, sozietate mugatuak (SL) edo sozietate anonimoak (SA) izaten dira, eta berrietan kapital sozialaren gehiengoa sozietatean bertan, besteren konturako enpleguarekin eta mugapenik gabeko iraupena duen lan harremanarekin, lanean ari diren pertsonena izaten da. Zirkunstantzia horien arabera, lan sozietate mugatuak (SLL), edota lan sozietate anonimoak (SAL) izan daitezke honelakoak.

Gizarte ekonomiaren baitako enpleguaren ñabarduren esparruan barneratzen garenean, ordea, aipatu dugun bereizkuntza hori ez da esanguratsuena. Zalantzarik gabe, gizarte ekonomiaren arloko entitateak garrantzitsuenak kooperatibak eta lan sozietateak dira, bai datu ekonomikoaren ikuspegitik eta baita ere enpleguari dagokionean.

Baina gizarte ekonomiaren sektorea benetan bereizten duen zioa da *pertsonek eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren gainetik* (5/2011 Legea, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa, 4. art.) edukitzea goiburutzat hartuta diharduen jardura ekonomikoa izatea da haren ezaugarria. Horrexegatik sektore honetan barneratzen dira ez kooperatiba ez eta lan sozietate diren elkargoak, hala nola enplegu zentro bereziak edota gizarteratze-laneratze enpresak, sozietate mugatuaren forma juridikoa dutenak.

Oro har, gizarte ekonomiako sektoreak begirune gehiago dio enpleguari ekonomia orokorrak baino, bere jardueran ardatza delako. Maiz baino maizago ikusten ahal dugu enpresa kapitalista arruntetan krisi egoera bati aurre egiteko lehen neurria izan ohi dela lan kostuak murriztea, bere langileak kaleratuz. Aldiz, maiztasun berdinsuarekin ikus dezakegu nola gizarte ekonomiako enpresek, eta bereziki kooperatibek, abagune horretan bertan lan baldintzen doikuntzak lortzeko ahalegin ugari egiteari ekiten diotela (soldatak murriztu, lanaldiak luzatu, funtzio aldakortasuna areagotu, etab.), bazkideek duten ondasunik preziatuena, lanpostua, mantendu ahal izateko.

6 Erantzunen %83tan lan merkatuarekin zerikusia duten arazoak aipatzen dira Euskadik dituen hiru arazo garrantzitsuen artean. (*Euskadi munduan*, Euskal Soziometroa 57, 2015eko martxoa).

7 Langabezia da lehen kezka nagusia inkestaturiko pertsonen %54rentzat; bigarren kezka nagusia %19,9rentzat; eta hirugarren kezka nagusia %5,6rentzat. Hiruren baturak %79,4 egiten du (2015eko maiatzeko Barometroa, CIS).

8 2014ko abenduko eurobarometroak oso argi adierazten du langabezia dela, alde handiz, europar gizartearen kezka nagusia. Inkestaturiko pertsonen %45ek hala aipatzen du.

Beraz, ez da gehiegikeria esatea enpresa kapitalista arruntek estatusunaren aurrean, maizegi, lehen neurri moduan erabiltzen dutela langileen kaleratzea, eta aldiz kooperatibek *ultima ratio*-ko neurritzat jotzen dituztela horren parekide lirakeen baja derrigortuak. Kasu bietan, kooperatibenean zein laboral arruntean, bakoitzaren erregimen juridikoak bultzatzen du joera faktiko hori.

Aztertzen ari garen GEEBen txostenak gizarte ekonomiako sektoreko enpleguari buruzko datu interesgarriak jakinarazten dizkigu. Enpleguaren ikuspegitik, lau dira aintzakotzat hartu behar diren arlo nagusiak: kooperatibak, lan sozietateak, enplegu zentro bereziak eta gizarteratze-laneratze enpresak. Interes gutxiago dute, nola ikuspegi kualitatibotik hala kuantitatiboki, aztergai diren gainerako entitate guztiek: eraldaketako nekazaritza sozietateak, arrantzale anaidiak, elkarteak eta fundazioak⁹; eta gizarte ekonomiako finantza sozietateak.

LEK – lan elkartuko kooperatiben kasuan esan behar da, entitate horien sortzezko xedea dela, hain zuzen ere, beraien bazkide diren pertsoneri, bazkide-langileei, enplegua ematea. LEKak dira Euskadiko kooperatiba motarik garrantzitsuena, enpleguari dagokionean behintzat, eta haien baitako enplegudunen artean bi eratako pertsonak aurkitzen dira: alde batetik, langile-bazkide¹⁰ direnak eta, besterik, besteren kontura lan egiten duen langile jendea. Lehen kasuan, kooperatiba enpleguaren aurrean aurkitzen gara, eta zuzenbide kooperatiboaren pean dauden enpleguatuak dira. Baina besteren kontura enplegaturik dihardutenak lan kontratu baten pekoak dira eta lan zuzenbide arrunta aplikatzen zaie.

Kooperatibetako enpleguari dagokionean, GEEBen Txostenak adierazten digu azterkizun duen denboraldian, 2009-2013 artekoan, enplegua sortzeko joera eduki dutela, 55.121etik 56.251era igo delako haien enplegudunen kopurua. Benetan datu txalogarriak dira, hain giro ezkorrean lortutakoak direlako, eta kooperatiben mugimenduaren bertuteak eta beronek enpleguari ematen dion nagusitasuna berrestera datoz.

Lurralde Historikoen arabera, azpimarra genezake Gipuzkoa dela kooperatibetan enplegu gehien batzen duena (30.863 enplegudun 2013an), ondoren Bizkaia datorrelarik (22.381), biztanleriaz, bai orokorrean eta baita ere enplegudunei dagokienez, bigarrena askoz handiagoa bada ere. Azpimarragarria da, halaber, Araba dela kooperatibetan enplegua galdu duen lurralde bakarra (3.224 enplegudunetik 3.007ra igarotzen da).

Lan sozietateen kasuan, ekonomia zikloaren uzkurraldia iritsi denean, honelako enpresak ez dira gai izan denboraldi horretan beren enplegu mailari eusteko, eta jaitsi ere biziki jaitsi da hura: 11.444 enplegudunetik 6.519ra murriztu da lana dutenen kopurua.

Lan sozietateetan ere, Gipuzkoa nabarmentzen da lurraldeka, 3.097 enplegudunekin 2013an, Bizkiak dituen 2.942 eta Arabak dituen 480en aurretik. Lan sozietate motari dagokionean, sozietate mugatuetan enplegudun gehiago biltzen dira (3.492) sozietate anonimoetan baino (3.027). Sozietate anonimoen kapital sozialerako behar izaten diren 60.000 euroak, mugatuak sortzeko behar diren 3.000 euroen aldean, eragiten dute bigarren hauen formula askoz erabiliagoa

9 Elkarte eta fundazioen kasuan, ematen duten enplegua aipagarria da, kantitatearen ikuspegitik. Entitate horiekiko arazoa datu eguneratu eta fidagarriak lortu ahal izateko zailtasunean datza.

10 Lan elkartukoak ez diren kooperatiben kasuan (kontsumokoetan, hezkuntzakoetan, nekazaritzakoetan, e.a.), haietan lan egiten duten bazkideak lan bazkideak dira, baina ez zaie bazkide-langileak deitzen, LEKetan bezala, lege araudi berberaren pean badude ere.

izatea entitateen kopuruari dagokionez (455 eta 219, hain zuzen) eta enplegudunen zenbatekoan ere alde egotea.

Kooperatibetan eta lan sozietateetan batzen den enpleguak ekonomian oro har ematen denarekiko suposatzen duen portzentuari dagokionean, eskura ditugun datuek aditzera ematen dute beherakada bat jazo dela 2008 eta 2010 artean, %6,34tik %6,17ra jaitsi baita.

Lurralde Historikoen arabera banatzen baditugu datuak, berriro ere Gipuzkoa nabarmentzen da, izan ere, autonomia osoaren mailan ematen den beherakadaren aurka, Lurralde honetako kooperatiba eta lan sozietateetan biltzen den enpleguak handitu egin du bere presentzia ekonomia orokorrean, gutxi bederen igo egin delako bere enpleguaren ehunekoa, 2008ko %9,70etik 2010reko %9,73ra.

Aipamen berezia merezi du Gipuzkoako kooperatiba eta lan sozietateek Lurralde horretako industria enpleguan osotasunean lortzen duten presentziaren zenbatekoa, %21,16raino iristen baita. Gaur egun MCCren baitan antolatuta dagoen Arrasateko kooperatibetan industriak duen egitate handiak esplikatzen du hori.

Enpleguaren egonkortasunari dagokionean, GEEBen Txosten honek erakusten digu EAE mailan kooperatiba eta lan sozietateetan aldi baterako lan kontratuen indizea %15 inguruan ibili ohi dela (%17,30 zen 2008an, %14 2010rean eta %15,30 2012an). Ekonomia orokorrean ematen denarekin alderatzean agertzen da datu hauen alderik azpimarragarriena, haatik. Eurostatek 2012an Estatu espainiar osorako aldi baterakotasun tasa %23,4an ipitzen duela gogoratzeak balio dezake, adibidez.

Beraz, enpleguaren kalitatea neurtzeko funtsezko adierazlea eta lan zuzenbidearen logikan oinarritzko elementua den enpleguaren egonkortasunari dagokionean, esan dezakegu kooperatibak eta lan sozietateak modu baikorrean eta argiro nabarmentzen direla.

Lanaldiaren iraupenari dagokionean, lanaldi osoa eta lanaldi laburtuaren artean lan zuzenbideak azkenaldian lanaldi laburtuko kontratuak sustatzearen aldeko hautua egiten du. Joera hori berori nabaritzen da gizarte ekonomiaren alorrean ere, GEEBen Txostenak mota horretako kontratuak etengabe ugartu direla 2009-2013 artean erakusten baitigu, eta %15,5 izatetik %17,2 izatera igaro direla denboraldi horretan.

Lanaldi motaren aldagai hau balioestea zaila da, izan ere, beti enplegudunaren mesederako den eta baita ere lan zuzenbideak nahiago izaten duen lan egonkorraren kasuan gertatzen denean ez bezala, lanaldi osoko enpleguaren ordezkari lanaldi laburtua nahiago izatea izan daiteke komenigarria bai enpresarentzat, bai enplegudunarentzat, edo biezat. Kontratuen erregistroek ez digute horri buruzko argibiderik eskaintzen eta, bide batez, lanaldi laburtuko kontratu bakoitzaren aurrean ez dakigu hiru aukera horietako zeinen aurrea egon gaitezken.

EZB – Enplegu Zentro Bereziei buruzko datuak ere eskaintzen dizkigu GEEBen Txostenak. Ahalmen urritasuna duten pertsonen enplegu babestuaren esparrura garamatzate horiek. Pertsona horiek lan merkatu arruntean ere sarrera aurki dezakete, baina gizarte ekonomiako jarduera hain zuzen esparru babestu horretan ematen dena da, non ematen baitzaie enplegua lan merkatu arruntean historikoki eta baita gaur egun ere diskriminaturik dauden pertsonen.

EHLABE – Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartean bazkideguta dauden EZBak, aztergai den denboraldi latzean ere, ahalmen urritasuna duten pertsonen enplegua emate horretan etengabeko

hazkunde eskergarria erakusten dute: 2009ko 5.326 enplegudunetatik 2013ko 6.257etara igarotzen dira. Ahalmen urritasuna duten pertsona horiek oso nekez lor zezaketen halakorik lan ingurune arruntean, batez ere krisialdia eta enplegu suntsiketa nagusi zireneko testuinguruan.

Sexuaren aldagaiari dagokionean, EZBetako enpleguan joera ezkorra nabaritzen da ahalmen urritasuna duten emakumeen enpleguaren alorrean, 2009ko %38,64tik 2013ko %37,53ra igarotzen baita haien enplegua. Zifra hori are ezkorragoa da ekonomia orokorrean emakumeen enpleguak denboraldi berebean izan duen gorakadarekin alderatzen badugu: 2009ko %44,2tik 2013ko %46,5era. Ahalmen urritasuna duten emakumeek jasaten duten diskriminazio bikoitzean aurkituko dira horren zergatiak.

Balioespen ezkorra merezi du, halaber, EZBetako enpleguaren joerak aldi baterakotasunaren ikuspuntutik, igo egin baita 2009ko %28,12tik 2013ko %31,48raino. Alderaketa egiteko erreferentzia gisa har genezake Eurostatek, Estatu espainoleko lan merkatu osorako, 2013rako, ematen duen aldi baterakotasunaren zifra: %23,1. Zergatien artean, beste faktore batzuekin batera, lan legeriak ahalmen urritasuna duten pertsonen kontratazioa suspertzeko egiten duen hautua aipa genezake.

Ondoren aipatu behar dugun alorrak, Gizarteratze-laneratze Enpresenak, kidetasun handia du EZBekiko, biek hala biek ematen dietelako enplegu babestua jende-talde baztertu zehatzei, kasu honetan baztertze sozialeko egoera edo arriskuan dauden pertsonen.

Honelako enpresetan, gizarteratze-laneratze prozesuan dauden pertsonen gain ari daitezke lanean egoera horretan aurkitzen ez diren langileak. Aplikagarria zaien legeriak agintzen du gizarteratze-laneratze prozesuan daudenen gutxieneko portzentua ehuneko 30rekoa izan behar duela jarduerako lehen hiru urteetan, eta gutxienez langileen ehuneko 50rekoa izan behar duela laugarren urtetik aurrera.

GEEBen Txostenak erakusten digu, aztergai duen denboraldi horretan, gizartean baztertze egoeran edo arriskuan dauden pertsonen enplegua hazi egin dela, 2009ko 365etatik 2013ko 420etara igaroz. Halaz eta guztiz, baztertzerik pairatu gabe horrelako enpresetan lan egiten dutenen enplegua murriztu egin da, 2009ko 309etatik 2013ko 241etara jaisten delako. Enpresa horien betekizuna gizarteratze prozesuan dauden pertsonen enplegua ematea dela gogoan izaten badugu, onuragarritzat jo behar da lehen aipatu horien multzoa handitu izana.

Genero ikuspuntutik, bestalde, azpimarragarria da emakumezko eta gizonezkoen kopurua paretsukoa dela, 326 emakume eta 335 gizon 2013an. Hala ere joerak adierazten du emakumezkoen enplegua murrizten ari dela, 2009an 418 emakume eta 256 gizonezko baitziren.

GEEBen Txostenak gizarte ekonomiako beste entitate batzuei buruzko datuak ere jasotzen ditu.

Elkarte eta Fundazioei dagokienean, ez da erraza enplegu datuak lortzea. Txostenak jakinarazten duena da enpleguaren hazkundera eman dela, 2010reko 12.448 enplegudunetatik 2012ko 15.393etara igaroz. Dirudenez, datu horrek adieraziko luke sektorearen profesionalizatzea ematen ari dela, borondatezko lanaren kaltetan.

Kreditu kooperatiben sektorean, Laboral Kutxaren sorrerarekin burutu den bateratze prozesuak biziki baldintzatu du enpleguaren bilakaera. Horren emaitza da beheeranzko joera etengabe baten ondoren (2009ko 2.395 enplegudunetatik 2012ko 1.903etara jaisten baita), bateratzearen

ondoren berriro gorantz egin eta 2013ko 2.177etara iristen dela. Eta hori guztia bulegoen kopurua nabarmen murriztu eta 2012ko 450retatik 2013ko 382etara igaro dela aldi berean.

Azkenik, munta txikiko zifra agregatuekin, eraldaketako nekazaritza sozietateek handitu egin dute beren enplegua, 2010reko 104 enplegudunetatik 2012ko 248etara igaroz. Aldiz, arrantzale anaidiek murriztu egin dute berea, 2010reko 103 enplegudunetatik 2012ko 90retara jaitsiz. Oinarri, Elkarrekiko Berme Elkarteari dagokionez, bere enpleguaren bilakaera kuantitatiboki hutsaren hurrengoa da, 2009 eta 2013 bitarte horretan 19 enplegudunetatik 20ra igaro baita.

Gutzizko analisi orokorra eginez, ikus dezakegu 2010 eta 2012 artean, EAeko gizarte ekonomiaren baitako enplegua handitu egin dela 85.606 enplegudunetatik 86.909ra igaroz. Aldi horretan bertan, EAeko ekonomia orokorraren baitako enplegua murriztu egin da 906.044 enplegudunetatik 873.121etara etorriz. Bidenabar, gizarte ekonomiaren alderako joera kausitzen da bere baitako enpleguak ekonomia orokorraren baitan duen partaidetza tasari dagokionean, %9,45 izatetik %9,95 izatera igaro baita.

Tasa hori, itxuraz, oso apala bada ere, %10rera ere iristen ez delako, kontuan izan behar da guztizko enplegua zenbatzerakoan enplegua pribatua ez ezik enplegu publikoa ere aintzakotzat hartzen dela. Alderaketa sektore pribatuarekin soil-soilik eginen balitz, portzentua askoz handiagoa izango litzateke.

FAGOR Etxetresnak enpresaren itxierari buruz esan behar da GEEBen Txostenak ez duela beronen eragina kontuan hartzen, 2013a amaitzear zenean gertatu zelako. Beren lanpostua zuzenki galdu zuten 2.000 pertsonentzat horrek erakarri zuen ekonomia eta gizarte dramaz harago, azpimarratzekoa da harez geroztik gauzatu den birkokatze prozesu arrakastatsua, zeinari esker pertsona horien erdiak bederen jada Mondragon Taldeko beste enpresa batzuetan enplegatuta baitaude, edo aurretiko erretiroa hartuta, taldeko kideen arteko interlankidetzeta eta solidaritatearen erakustaldi eredugarri batean. Enpresa kapitalista batean horrenbesteko kaleratzeak ematen direnean, inoiz ez da izaten birkokamenduen berririk.

GEEBen Txostenak berak eskaintzen dituen datuez gain, bereziki interesgarriak dira ATLASKOOP, EAeko kooperatiben informazio geo-argibidetua eskaintzen duen lanabes informatikotik, eta "Lurraldean arteko desoreka EAEn krisi ekonomikoaren testuinguruan" Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Txostenetik eratorritako datuei buruz ematen dituen argibideak.

Ikerlan horiek argiro erakusten dituzte kooperatibismoa indartsuen agertzen den bailaretako adierazle sozioekonomiko bikainak, batik bat, Debagoienakoak, Arrasate barneratzen duen bailarakoak alegia. Adierazle horiek garbi ikusarazten dute emaitza hobekak lortzeko kooperatibismoak duen eragina kooperatiben presentzia ahulagoa den bailarekin alderatutakoan, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik erabakigarriak diren hainbat arlotan: jarduera maila, okupazio maila, langabezia, egiatzko pobrezia, BPG per capita, errenta ertain baliokidea, berrikuntza, goi teknologia edota munduratzeta.

Labur esanda, aztertu ditugun datuak hasieran esaten genuena egiaztatzen datozela ematen du, hau da, gizarte ekonomiako enpresek enpleguari trataera hobea ematen diotela ohiko enpresa kapitalistek baino, bai kuantitatiboki eta baita ere kualitatiboki.

7. Gizarte Ekonomiaren Politika Publikoak Euskadin

*Jon Morandeira Arcas*¹

I. Sarrera

Gizarte Ekonomiaren politika publikoen azterketa egiteko orduan bereizkuntza, entitateen sorrera eta garapena suspertuz sektorearen egiturari eragiten dioten politika publikoen eta Gizarte Ekonomiako entitate horien enpleguan zuzenean eragiten duten enplegu politiken artean, egitetik abiatu behar da (Chaves eta Monzón, 2000b, eta Chaves, 2008). Artikulu honen xedea da, gai honetan erreferentziazkoak diren autoreez baliatuz, Gizarte Ekonomiari zuzendutako politika publikoen sailkapena aurkeztea, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan horrek duen aplikazioaren analisi deskribatzaile orokor bat burutzea.

Euskadin Gizarte Ekonomiari buruzko politika publikoek duten egitateari buruzko analisi deskribatzailea izango da, baina artikulu honen berezko izaeragatik ezingo da Gizarte Ekonomiara bideratutako politika guztien analisia egin azterketak hartzen duen denboraldi osorako eta, bide batez, haien 2011ko argazkia aurkezteko hautua egiten dugu (Morandeira, 2013 abiapuntutzat hartuz), eta Gizarte Ekonomiaren sustapenerako Eusko Jaurlaritzak duen erakunde aproposenak, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak zertu dituen politiken analisia egingo dugu.

II. Gizarte Ekonomiaren Politika Publikoen testuinguru teorikoa

Sailkapen ezberdinak daude horretarako baina, edukian baino gehiago beren hierarkizazioetan bereizten dira soilik; horregatik, ondorengo sailkapen hau proposatzen da, Chaves (2002: 457; 2008:41; 2010: 573; eta 2012: 177), eta Monzón et al (2009: 92) abiapuntutzat hartuta (ikus 1. Laukia).

¹ EHUko Ekonomia Aplikatua I Saila. GEZKI – Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.

1. Laukia: Gizarte Ekonomiara bideratutako Politika Publikoak		
Gizarte Ekonomiako entitateetara bideratutako POLITIKAK		
Eskaintza politikak (erakundeen egituretara zuzenduak)		
Erakunde mailako neurriak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Ekonomia Aktore Pribatua dela onartzea. • Gizarte Ekonomiak jarduera ekonomikoaren edozein esparrutan aritzeko gaitasuna duela onartzea. • Gizarte Ekonomia Aktore Politikoa dela onartzea. • Gizarte Ekonomia sustatzeko erakunde publikoak. 	<i>Politika soft-ak</i>
Ezagutza mailako neurriak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Ekonomiaren arloan zabalkunde, prestakuntza eta ikerketa lana. 	<i>Politika soft-ak</i>
Ekonomia mailako neurriak	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontu mailako neurriak. • Zerga mailako neurriak. • Finantza laguntzarako bestelako neurriak. • Laguntza teknikorako neurriak. 	<i>Politika hard-ak</i>
Eskari politikak (erakundeen jarduerara zuzenduak)		
	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio Publikoaren hornitzaile bihurtu ahal izateko neurriak. • Gizarte Ekonomiarekin partaidetza publiko-privatuak eratu ahal izateko arautegi eta aplikazio neurriak. 	<i>Politika hard-ak</i>
Gizarte Ekonomiako entitateetako enplegura bideratutako POLITIKAK		
	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Ekonomian enplegua sortzen eta egonkortzen laguntzeko neurriak. • Gizarte Ekonomian prestakuntza suspertzeko neurriak. • Bestelako neurriak. 	<i>Politika hard-ak</i>

Iturria: geuk egina, Chaves (2002: 457; 2008: 41; 2010: 573; eta 2012: 177) eta Monzón et al. (2009: 92) abiapuntutzat hartuta.

III. Gizarte Ekonomia sustatzeko politika publikoak Euskadin

Morandeira (2013)-k Euskadin Gizarte Ekonomiari buruz egiten diren politika publikoez eginiko azterketa oinarritzat hartuta, alde zehatzak zehaztu dugun testuinguru teorikoaren arabera, 2011rako Euskadin zertu diren politiken laburpen taula bat osatu da. Esan behar da une zehatz bati dagokion argazkia bada ere, hor aipatzen diren politiketako askok denboraldi luzeak egin dituztela indarrean, neurritako bakoitzaren eduki zehatzak hainbat aldaketa eduki ahalko zituen arren.

2. Laukia: Gizarte Ekonomiari buruzko Politika Publikoak Euskadin		
Gizarte Ekonomiako entitateetara bideratutako POLITIKAK		
Eskaintza politikak (erakundeen egituretara zuzenduak)		
Erakunde mailako neurriak	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekonomia Aktore Pribatua dela eta jarduera ekonomikoaren edozein esparrutan Gizarte Ekonomiari aritzeko gaitasuna duela onartzea. 	Bai. Ikus 3. Laukia Gizarte Ekonomiako entitateei buruzko euskal eskuduntza eta arautegiez.
	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekonomia Aktore Politikoa dela onartzea. 	Bai. Ikus 4. Laukia Gizarte Ekonomiari aholku erakunde duen presentziaz.
	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekonomia sustatzeko erakunde publikoak. 	Bai. Gizarte Ekonomia eta Enpresako Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza.
Ezagutza mailako neurriak	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekonomiaren arloan zabalkunde, prestakuntza eta ikerketa lana. 	Bai. Eginkizun honetan diharduten erakundeak ondorengo hauek dira: <i>Elkar-Lan, S. Coop., Kooperatibak Sustatzeko Elkarteak; PROMOKOOP-Fundazioa, Kooperatiben Sustapen Fonda; GEZKI-Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte-Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua; OVES/GEEB-Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia; LANKI-Mondragon Unibertsitateko Lankidetzaren Ikertegia; ETEO-Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatea; Mondragon Innovation and Knowledge – MIK; Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua eta Etika Aplikatuaren Zentroa</i>
Ekonomia mailako neurriak	<i>Aurrekontu mailako neurriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekonomiako enpresa eta entitateen elkarre-egiturak sendotzera bideratutako laguntzak. Gizarte Ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa sustatzeko laguntzak. Gizarte Ekonomian Prestakuntza bultzatzeko laguntzak. Gizarte Ekonomian enpresen arteko lankidetzaren eragiteko laguntzak. Gizarte Ekonomiako enpresetan inbertsioak burutu ahal izateko laguntzak. Esku hartze sozialean borondatezko ekinbideak eta elkarrean partaidetza sendotzeko ekimenei diru-laguntzak. Esku hartze sozialerako ezagutzaren kudeaketako ekimenei diru-laguntzak. Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateen bitartez bideratutako aurreikuspen sozial gehigarriko zenbait sistema ezartzeko laguntzak. Gizartratze-Laneratzeko Enpresen sostengura bideratutako laguntzak.
		Mondragon Corporation-ek Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinekin sinatu dituen lankidetzaren hitzarmenak.
	<i>Zerga mailako neurriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Kooperatiba, elkarre eta fundazioentzako zerga erregimen bereziak.
	<i>Finantza laguntzarako bestelako neurriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Oinarri E.B.E. eta Hazibide, S.A. elkargoetan partaidetza zuzena edota zeharkakoa.
	<i>Laguntza teknikorako neurriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi-Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (CSKE/EKGK).

Eskari politikak (erakundeen jarduerara zuzenduak)		
Administrazio Publikoaren hornitzaile bihurtu ahal izateko neurriak	<ul style="list-style-type: none"> • 6/2008 Ebazpena, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeko erabakia argitaratu duena. • 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, hauen kontratazioan Gizarte Ekonomiaren lehentasuna ezartzen duena. 	
Gizarte Ekonomiarekin partaidetza publiko-pribatuak eratu ahal izateko arautegi eta aplikazio neurriak	<i>Diru – laguntzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako Kooperatiben jarduera sustatzera bideratuak. • Gizarte Zerbitzuen alorrean Gizarte Ekonomiako entitateen jarduerara bideratuak.
	<i>Aurrekontu mailako neurriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, Gizarte Ekonomiako entitateen lehentasuna eta haien aldeko diskriminazio baikorra ezartzen duena. • Agintzari Kooperatiba Elkartea. • Etxebizitza politika: Viviendas Izki S. Coop., Pagoa Kooperatiba, eta VITRA kooperatiba BOEko sustapenatarako.
	<i>Hitzarmenak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako Hitzarmenak, Kooperatibek lehentasuna dutela. • 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, Gizarte Ekonomiako entitateen lehentasuna eta haien aldeko diskriminazio baikorra ezartzen duena.

Gizarte Ekonomiako entitateetako enplegura bideratutako POLITIKAK		
Gizarte Ekonomian enplegua sortzen eta egonkortzen laguntzeko neurriak	<i>Zuzenean lanpostuak sortzeko laguntzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia sari kontributiboa jasotzen ez duten pertsonen, edota diru – sarrera bermatzeko errenta jasotzen dutenen kontratazioari laguntzak, Gizarteratze-Laneratze Enpresei arreta berezia eskaintzen zaielarik. • Lankidetzako kooperatiba batean edo lan sozietate batean bazkide – langile bezala beren lanbidean jardun ahal izateko langabezia saria ordainketa bakarreko modalitatean jaso duten langileentzat Gizarte Segurantzako kuoten ordainketarako laguntzak.
	<i>Entitateak sortzeko emandako pizgarrien bitartez enplegua suspertzeko laguntzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Ekonomiako ekimenetarako laguntzak. • Enplegu Zentro Bereziak sortzeko edota langileen kopurua handitzeko proiektuak finantzatzeko laguntzak. • Gizarteratze-Laneratze Enpresak sortzera bideratutako laguntzak.
	<i>Enplegua egonkortzeko laguntzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkide berriak sar daitezten laguntzak². • Garraiolarien Kooperatibetan bazkide berriak sar daitezten laguntzak³. • Kooperatibetan langileria berritzeko laguntzak. • Enplegu Zentro Berezietan enplegua eta laguntzako unitateak mantendu ahal izateko laguntzak. • Gizarteratze-Laneratze Enpresen sostengura bideratutako laguntzak.
Gizarte Ekonomian prestakuntza suspertzeko neurriak	<ul style="list-style-type: none"> • Laneratzeko xedetutako prestakuntza baliabideentzako laguntzak. • Kooperatiben edota Lan Sozietateen Konfederazio edo Federazioei langileen prestakuntzarako emandako laguntzak. 	

Iturria: geuk egina Chaves (2002: 457), Chaves (2008: 41) eta Monzón et al (2009: 92) abiapuntutzat hartuta.²³

2 Zenbatekoa zehazteko orduan, kontuan hartzen da langabezia sariaren kopurua, ordainketa bakarreko modalitatean.

3 Zenbatekoa zehazteko orduan, kontuan hartzen da langabezia sariaren kopurua, ordainketa bakarreko modalitatean.

3. Laukia. Euskal eskuduntzak eta arautegiak Gizarte Ekonomiako entitateen buruz		
Gizarte Ekonomiako entitateak	Eskuduntza	Euskal arautegia
Kooperatibak	Euskadirena	Legea
Lan Sozietateak	Estatuarena	Ez
Gizarteratze-Laneratze enpresak	Estatuarena	Dekretua
Enplegu Zentro Bereziak	Estatuarena	Ez
Arrantzale Anaidiak	Euskadirena	Legea
Eraldatzeko Nekazaritza Sozietateak	Estatuarena	Ez
Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateak	Euskadirena	Legea
Elkartek	Euskadirena	Legea
Fundazioak	Euskadirena	Legea

Iturria: geuk egina.

4. Laukia. Gizarte Ekonomiaren presentzia Euskadiko aholku batzordeetan

Aholku batzordeak	Jarduerak esparrua	Bazkide kopurua	Gizarte Ekonomiako batzordekideak
Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea	Sektore artekoa	32	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. 1 ASLE – Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak. 1 Euskadiko Kontsumitzaile Elkartearen Federazioa.
Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua	Sektore artekoa	48	1 Euskadiko Pentxidun eta Erreiratuaren Prohibitza Elkartearen Lurralde Federazioa. 1 Elkartearen – Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duen Pertsonen Konfederazio Koordinatzaileen. 1 Fevas – Adimen Ezintasuna dutenen Aldeko Elkartearen Euskal Federazioa. 1 Fedafes – Buru Gaitutasuna duen Pertsona eta Senide Elkartearen Euskadiko Federazioa. 1 Euskadiko GKEen Koordinakundea 1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
Industria Seguratasunerako Euskal Kontseilua	Sektorekoa	19	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. 1 Euskadiko Kontsumitzaile Elkartearen Federazioa.
Gizarteratze Euskal Kontseilua	Sektorekoa	36	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
Familiaren Sektoreko Batzorde Iraunkorra	Sektorekoa	18	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. 1 Irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak.
Laneko Seguratasun eta Osasunaren Euskal Batzordea	Sektore artekoa	15	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
Euskal Estatistika Kontseilua	Sektore artekoa	17	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. 1 ASLE – Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak. 1 Euskadiko Kontsumitzaile Elkartearen Federazioa.
Kontsumuko Euskal Institutua	Sektorekoa	21	1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. 3 Euskadiko Kontsumitzaile Elkartearen Federazioa.
Kontsumuko Aholku Batzordea	Sektorekoa	11	1 Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa. 1 Familiartekoen Elkarteak. 3 Kontsumitzaile Elkarteak edota haiei Federazioak.
Herritar Etorikinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa	Sektore artekoa	41	6 Gaian diharduten Elkarteak. 1 Konfekoop – Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. 1 Etorikinen laguntzarako GKEen Euskadiko Koordinakundea: "Harresiak Apurtuz".
Nekazaritza eta Elikagai-gintzarako Berrikuntza Foroa	Sektorekoa	24	2 Anaidien Federazioa. 1 Nekazaritza Kooperatiben Federazioa.
Portuen Aholku Kontseiluak	Sektorekoa	9	1 Arrantzale Anaidiak.
Euskadiko Portuetako Aholku Organoa	Sektorekoa	40	2 Arrantzale Anaidiak.
Landa Garapenerako Kontseilu Aholku – emaitza	Sektore artekoa	11	1 Nekazaritza Kooperatiben Federazioa. 3 Mendiko Nekazaritza edo Landa Garapenerako Elkarteak.
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Sektorekoa	31	9 ordezkari GKEen Koordinakundearen partaide diren GKEetatik. 6 ordezkari GKEen Koordinakundearen partaide ez diren eta Lankidetzaren Agenteen Erregistroan inskribaturik dauden GKEetatik.
Boluntariotzaren Euskal Kontseilua	Sektorekoa	28	13 ordezkari Boluntariotza Elkartearen Errolda Orokorrean inskribaturik dauden erakundeetatik.

Iturria: geuk egina.

Ikus daitekeenez, euskal Gizarte Ekonomiak sustapen sistema oso bat dauka, era guztietako laguntzak jasotzen dituen sektorea delako eta, bide batez, teoriaren alorretik proposatzen diren neurri guztiak zertzen dira sektorean. Beraz, Gizarte Ekonomiak erakundeen aitorten maila handia jasotzen duela esan dezakegu.

IV. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza. **Gizarte Ekonomiaren sustapenerako politika publikoak Euskadin**

Euskal Administrazio Publikoak programa berezitua dauka jardunean Gizarte Ekonomiarako (3212 Programa, Gizarte Ekonomia). Programa hauek, diru-laguntza bihurturik, moldatuz joan dira denbora igaro ahala Gizarte Ekonomiarari sortzen zitzaizkion beharrei erantzuteko.

Programa horren kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren betekizuna da. Enplegu alorreko ardurak jasotzen zituzten sailetan kokatuta egon izan ohi da, usu, zuzendaritza hori. Bidenabar, berau izan da beti ere Gizarte Ekonomia sustatzeko eginkizuna duen erakundea Euskadin.

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak programa honen baitan kudeatu dituen laguntzen aurrekontu bilakaera erakutsiko dugu jarraian, laguntza horien eduki zehatzak arakatu gabe, 2009-2013 denboraldian beti ere.

Lehenik, instantzia ezberdin bakoitzak kudeatu dituen aurrekontuak erakusten dira: aurrekontu orokorra, sailkakoa, eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzarena. Ikus daitekeenez, maila guztietan aurrekontuen murrizketa jazo bada ere (ikus 1. Taula), Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza da beherakadarik nabariena nozitu duena, atal bakoitzak izan duen aldaketaren zenbatekoari begiratzen badiogu (ikus 1. Irudia).


1. Taula. Instantzia bakoitzaren aurrekontuen zenbateko absolutuak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Zuzendaritza	6.712.034	5.751.898	5.492.073	4.087.840	3.575.996
Saila*	667.979	624.123	998.743	926.740	796.024
Orokorra*	10.487.458	10.315.210	10.549.489	10.449.167	9.316.657

Iturri: geuk egina. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak, sekzioaren eta programaren laburpena.

* Milakoak.

Azpimarragarria da, hain zuzen, bai sailak eta baita ere aurrekontu orokorrek, 2011ko ekitaldian hazkundea, nabaria gainera lehenaren kasuan, eduki zuten arren, Gizarte Ekonomiaren sustapenera bideratutako aurrekontuan ez zela halakorik izan.

1. Irudian ikusten ahal da egitate hori: aurrekontu horiek urte batetik bestera egiten duten aldaketa irudikatzen duen grafiko horrek erakusten du 2011n Zuzendaritza dela aurrekontuaren zenbatekoan aldaketa negatiboa duen instantzia bakarra. Halaber, ikus dezakegu Zuzendaritza dela beti ere daturik okerrenak agertzen dituen instantzia. Beraz, ondoriozta daiteke Gizarte Ekonomiaren sustapenak ez duela Eusko Jaurlaritzaren aldetik sustatu beharreko jarduera guztietarako erabili diren baliabideen bilakaerak adinako laguntasunik eduki.

1. Irudia. Instantzia bakoitzaren aurrekontuen zenbatekoaren aldaketa

Iturria: geuk egina.



Gizarte Ekonomiaren sustapenerako emandako laguntza orokorra murriztu egin denez, oraindik garrantzitsuagoa da laguntza bakoitzera bideratutako aurrekontuen bilakaeraren analisirik zehaztuena egitea. Ondoren doan taulak erakusten ditu urte horietako bakoitzean Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzatik kudeatutako laguntzetara bideratutako aurrekontuen zenbateko absolutuak.

2. Taula. Laguntza bakoitzera bideratutako aurrekonteun zenbateko absolutuak

	2009	2010	2011	2012	2013
Prestakuntza	1.508.049,00	930.475,00	652.426,00	526.026,00	505.159,00
Enpresa laguntza teknikoa	517.652,00	465.000,00	657.783,00	507.783,00	173.910,00
Interlankidetzak	254.000,00	215.000,00	141.000,00	114.600,00	0,00
Langileen partaidetza enpresa arruntetan	641.576,00	440.000,00	109.101,00	109.101,00	0,00
Langabetuei bazkide moduan sartzen laguntzeko	223.789,00	170.500,00	250.000,00	250.000,00	115.000,00
Gizarte Ekonomiako ikerketak egiteko bekak	21.828,00	21.000,00	0,00	0,00	0,00
Elkarte egituraketa laguntzeko	484.642,00	520.000,00	646.392,00	313.392,00	621.510,00
Ekonomia solidarioko enpresa eta elkarten sustapena	50.800,00	80.000,00	126.198,00	40.000,00	0,00
Gizarte Ekonomiako Behatokia	70.000,00	60.000,00	60.000,00	77.000,00	60.000,00
Gizarte Ekonomiako ekimenak	1.965.179,00	1.917.428,00	1.979.519,00	1.236.560,00	1.320.359,00
Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde plangintza	314.339,00	312.090,00	249.999,00	300.000,00	210.000,00
Inbertsioak	0,00	50.000,00	50.000,00	50.000,00	0,00
Guztira	6.051.854,00	5.181.493,00	4.922.418,00	3.524.462,00	3.005.938,00

Iturria: geuk egina. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak.

Ikus litekeenez, laguntzak ematera bideratutako aurrekontu orokorra murriztuz joan da etengabe krisiaren denboraldi osoan zehar, 2013an 2009koaren %50 izatera iritsi delarik. Baina lehen esan dugun bezala, analisi zehatzago bat egin behar da laguntza bakoitzaren bilakaera oinarritzat hartuz; horretarako interesgarria da 2. Irudia, non ikusten baitira aurrekontuetan urte batetik bestera laguntza bakoitzerako eman diren aldaketak.



Iturria: geuk egina.

Laguntza guztietan eman den murrizketa nabarmena bada ere, ekimenetarako eta prestakuntzarako emandako laguntzetan datza Gizarte Ekonomia suspertzeko politikaren bizkarrezurra.

Azpimarragarria da, baita ere, desagertu egiten direla zenbait laguntza, hala nola Gizarte Ekonomiako ikerketak egiteko bekak, inbertsioak egin ahal izateko diru-laguntzak, Gizarte Ekonomiako interlankidetzarakoak edota langileek enpresa arruntetan partaidetza lortzeko ematen zirenak.

Azkenik, aipagarria da Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak, aurrekontuetan agertzen ez bazen ere, diru-laguntzak esleitu zituela denbora baterako langabezian zeuden kooperatibetako bazkide-langile edota soldatako langileentzat, 850.000 €-ko kreditua xedatuz hartarako.

V. Azken gogoetak

Aztertu dugunaren ondorioz esan dezakegu Gizarte Ekonomiak, haren sustapenerako ebatzen diren neurrien kopurua eta tasuna aintzakotzat hartzen badugu, erakundeen begiramendu handia duen arren, gainbehera larregia pairatu duela azkenaldian aurrekontuen xedapenari dagokionean. Beraz, gutxien-gutxienez, eszenategi kezkarri baten aurrean aurkitzen gara Gizarte Ekonomiaren sustapenerako politikek etorkizunean izan dezaketen jarraipenari dagokionean.

VI. Bibliografía

- Chaves, R. (2002): “Politiques Publiques et Economie Sociale en Europe: le cas de l’Espagne”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 73: 3, pp. 453-480.
- Chaves, R. (2008): “Public Policies and Social Economy in Spain and Europe”, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 62, pp. 35 – 60.
- Chaves, R. (2010): “Las actividades de cobertura institucional: infraestructuras de apoyo y políticas públicas de fomento de la Economía Social” en Monzón, J.L.(dir.): *La Economía Social en España en el Año 2008.Ámbito, magnitudes, actividades y tendencias*, CIRIEC-España, Valencia.
- Chaves, R. y Monzón, J.L. (2000): “Políticas Públicas” en Chaves, R.; Demoustier, D.; Monzón, J.L.; Pezzini, E.; Spear, R. y Thiry, B. (dir.): *Economía Social y Empleo en la Unión Europea*, CIRIEC-España, Valencia.
- Chaves, R. y Monzón J.L. (2007), *Economía Social en la Unión Europea*, Ciriec – España, Valencia.
- Chaves, R. y Sajardo, A. (2004), “Social Economy Managers: between values and entrenchment”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 75, 1, 139-161.
- Morandeira, J. (2013): “El servicio público de fomento de la Economía Social en el País Vasco desde una perspectiva de orientación al mercado. Propuestas y acciones”, *Doktore Tesia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

8. Gizarte Ekonomiaren fiskalitatea krisi garaietan: erreformarako proposamenak

Marco Antonio Rodrigo Ruiz¹

GEEBen txosten bikainak –alafede–, zeinaren lagungarri izan nahi baitu idazlan honek, berriro ere agerian ipintzen du, datu estatistiko sinesgarrien bitartez, gizarte ekonomiaren sendotasuna, eta oraindik ere gainean duguna bezalako krisialdi ekonomiko sakon eta luzeak gainditzeko duen gaitasun handiagoa. Eraitza horrek, haatik, ez luke inor harritu behar, sektore hori osatzen duten entitate mota ezberdinen sorkuntza eta funtzionamendua gidatzen duten oinarritzko irizpide eta balio sortaren ondorioa edo efektu zuzena besterik ez baita.

Hemen orain azpimarratu nahi duguna da gizarte ekonomiako entitateen artean biziraupen handia, bestelako sozietateen artean ematen dena baino askoz handiagoa, edota haien baitako lanpostuen iraupen tasa –eta baita lanpostu horien kalitatea– nabarmen hobea izatea, gizarte ekonomiaren zerga erregimena, oro har, egokia izatetik eta, beraz, galda litekeen eran, ekonomiaren alor hori sustatu eta bultzatzeko aproposena izatetik oso urruti dagoen arren ematen dela, hain zuzen ere. Izan ere, gizarte ekonomia horretako entitate mota batzuek, esate baterako kooperatibek edota borondatezko aurreikuspen sozialeko mutualitateek –eta azken hauen kasuan, Euskadin bakar-bakarrak, Estatuko beste erkidegoetan duten egoera guztiz kontrakoa delako eta jasaten duten zerga trataera erabat kaltegarria zaielako– zerga araudi berezitua, abantaila fiskal estimagarriak eskaintzen dizkietena –BASEak guztizko salbuespena dute Sozietate zergari dagokinean– badute ere, bestelako entitateek, esaterako lan sozietateek, gizarteratze-laneratze enpresek, enplegu zentro bereziek, edota mezenasgoari buruzko legeriaren babesik ez duten eta jarduera ekonomiko aipagarriak dituzten elkarteek eta fundazioek, zerga hobari aipagarririk ez nahikorik ez dute, ez behintzat beren izaerarako egokiak izango liratekeen neurrietan. Idazlan honetan defendatuko duguna da, beraz, gizarte ekonomia bere osotasunean egoki sustatu ahal izateko beharrezkoa dela zerga erregimen homogeneo bat, egungo egoera gaindituko duena, eta helburu hori erdiesteko betebeharrak funtsezkoa duela 5/2011 Gizarte Ekonomiaren Legeak, martxoaren 29koak.

Izan ere, merezi duen garrantzia eman behar baitzaio lege mailako arau batek gizarte ekonomiako entitate guztiei izaera bateratu bat espresuki onartu izanak barneratzen duen egitate horri. Beraien artean egon litezkeen ezberdintasun guztiek gaindi, bereizgarri komunak aitortzen baitizkie lege horrek; esate baterako, printzipio bertsuei jarraiki jardutea eta bat datozen helburuen bila aritzea (legearen 4. artikulua), sektorea bere osotasunean sustatu eta laguntzea arrazoitzen duten zioak direnak, hain zuzen. 5/2011 Gizarte Ekonomiaren Lege horrek, azken finean, errealitatea aintzakotzat hartuz, sagaratzen du gure legedian eta maila juridikora eramaten du ekonomiaren baitako fenomeno edo atal bat –gizarte ekonomia– ordura arte horrelako arau berrespen zuzen eta argi eta garbirik gabe zegoena. Sektorea horrelako nortasun juridikoz jantzi eta haren ezaugarri komunak zehaztu izanak plantearazten digu ea badagoen oraintxe bertan gizarte ekonomia osatzen duten entitate ezberdinek pairatzen dituzten zerga erregimen hain sakabanatuak eta ezberdinak justifikatzeko arrazoi nahikorik, edota, aldiz, horretarako arrazoirik ezean, erregimen berezi horien hurbilketa eta sinpletzeari ekin behar ote zaion.

1 EHUko Finantza eta Zerga Zuzenbideko Katedraduna.

Arestian esan dugun bezala, gizarte ekonomiaren baitan dauden entitate ezberdinen fiskalitatearen ezaugarria nagusia da, lehenik eta behin, hura arautzen duten normen sakabanaketa ikusgarria. Badira, adibidez, xedapen berezituak kooperatibentzat, lan sozietateentzat, aurreikuspeneko mutualitateentzat, hitz lauz mezenasgoari buruzko legeria deitu ohi denaren babesa duten fundazio eta baliagarritasun aplikagarriko elkarteentzat, edota Sozietate zergatik partzialki salbuetsita dauden entitateentzat, oso data ezberdinetan eta irizpide ezberdinekin onartu eta ezarriak gainera. Sakabanaketa horri gaineratu behar zaio –eta hauxe da bigarren bereizgarria– zerga erregimen berezi hauetako hainbaten zaharkitzapena, eta haien desfasea bai sektoreko sozietate legeria funtsezkoarekiko eta baita ere zerga sistemako oinarritzko zamaketak xedatzen dituzten araubideekiko; horregatik da beharrezkoa halakoak eguneratzea. Hirugarrenik, iradoki behar da zerga erregimen ezberdinen artean desberdintasun materiala edo edukizkoa ematen dela argiro. Hain da nabarmena gorabehera ezen irizpide berberak, demagun elkarrekikotasun printzipioa gordetzea eta betetzea, kooperatibetan Sozietate zergan hobari garrantzitsuak erdiesteko oinarritzat hartzen dena, bestelako entitate batzuetan, adibidez, lan sozietateetan, ez duela inolako eraginik izaten zerga horretan bertan. Inondik ere justifika ezinak diren ezberdintasunak eragiten dituzte behin baino gehiagotan honelakoak.

Indarrean dagoen zerga araudi sakabanatu horren ahuleziak eta akatsak, laburki bederen azaldu ditugunak, norabide aldaketa sakon baten premia justifikatzeko adinakoak dira. Egungo egoeraz, ezer esatekotan, esan dezakeguna da guztiz desegokia dela, zerga araudia zuzentzen duten oinarritzko irizpideen ikuspegitik aztertzen badugu edota barne koherentzia hutsaren eta legeriaren harmoniaren eskakizunen ikuspuntutik begiratzen badugu; halere, Euskadin arazoak ez du Estatuko zerga araudi arruntaren pean duena adinako muntarik egun. Irizpide ezberdinetan ez ezik, lehen ohartarazi dugun eran, argi eta garbiro kontrajarriak eta bateratu ezinezkoak diren irizpideetan oinarrituta indarrean dauden erregimen berezi ezberdinen desberdintasun nabarmen horrek erreforma bat eskatzen du itzulgingururik gabe; eta hori, iraganeko esperientzia aintzakotzat hartzen bada, ikuspegi global eta osotasunezkoetik bakarrik gauzatu daiteke, eta gizarte ekonomiaren baitako edozein entitate motara hedatu behar luke.

Ezinbesteko moldakuntza hau, hain zuzen, ez baita bideragarria izango zatika egin nahi izaten bada eta une jakin batean eraldaketa bidean dagoen sektore berezitu bakoitzari trataera berezitu ematen bazaio. Araugintzako aurrekariak erakusten dute, bata bestearen ondoren eta elkarrengandik urruneko datetan neurriak dekantatu edota tantaka jaulkitzeak, xedapen isolatuen bitartez gizarte ekonomiako alor zehatz batentzat zerga erregimen berezituak ezartzeko, ikuspegi motz-motzeko eta globaltasunik gabeko araudiak sortarazi dituela. Hala ere, oraintxe bertan, Gizarte Ekonomiaren legea indarrean (baina botere publikoek guztiz bazter emanda, hainbat eta hainbat adituak salatu duen moduan, eta ondoren aurkeztuko dugun egoerak ere egoskorki nabarmenduko duen bezala) indarrean sartuta dagoenean, egiten ari diren eta amaitzean izan behar duen Lan Sozietateen Legearen erreformak, bere aurrekoaren planteamenduzko hutsegite berbera errepikatzen du eta, horrela, funtsezko aldaketarik gabe, lehendik indarrean dagoen zerga araubidea mantentzea aurreikusten du; bide batez, sozietate hauen trataera fiskala hobetu eta gizarte ekonomiako beste sektore batzuek dutenarekin homologatu edo gutxienez hurbiltzeko aukera paregabea alferrik galduko da. Eta berriro ere berretsiko da sektorekako legegintzaren bitartez ezin dela espero gaur egun dagoen desberdintasun arbuiagarri hori konponbideratu.

Bestalde, salatzen dugun trataeren ezberdintasuna sorrarazten duen legeriaren atomizazio horrek berak gutxitzen eta lausotzen du nabarmenki kaltetuak diren eragileek behar adinako indarrarekin beren hitza entzunarazi eta beren nahiak eta planteamenduak helarazteko eta sakonean azterrarazteko eduki dezaketan ahalmena. Horren adibideak ugariegiak dira. Proposatzen den zerga arautegi komun honek, noski, ezingo du uniformetasun osokoa izan, kontuan hartzen

baditugu entitate ezberdinen arten ematen den aniztasun estrukturala, juridikoa edota helburu eta xedearen mailakoa. Beste arrazoi batzuen artean, ez dagoelako zertan bazterturik arau fiskalak nork bere sozietate araudi sustantibora egokitzeko beharrezkoak diren arau tekniko edo doikuntzazko berezituak, jada kooperatiben kasuan gertatzen den bezala. Horregatik, trataera homologo horrek izendatzaile komun txikiena ezartzera mugatu beharko du, gizarte ekonomiaren esparru osoan erabilgarriak izango diren oinarriko aurreikuspen batzuetara alegia, berriro diogu, sektore jakin batzuetan beharko diren arau berezituagoei bidea itxi gabe.

Nire ustez, gizarte ekonomiako entitateentzat oro har ezar litekeen xedapen eraginkorra eta bideragarria litzateke –geroago esango ditugun salbuespenak salbuespen– Sozietate zergaren gaineko zerga tipo hobaridun bat guztientzat, zerga horren zenbateko arruntaren aldean benetako funtzio eragilea izan dezan ehuneko 15 inguruan kokatu behar lukeena, eta inolaz ere ehuneko 20ko muga gainditu behar ez lukeena, bestela ez lukeelako eragin nahikorik izango eta ia esanahi testimoniala besterik ez lukeelako edukiko. Zerga tipoa, gainera, bakarra izan behar du eta oinarri likidagarria osatzen duten mozkin mota guztientzat aplikagarria, egun zerga erregimen komuneko kooperatibek dutena bezalako sistemak, zerga-oinarria zatikatu edo banatu eta zati bakoitza zerga tipo ezberdin baten pean ipintzen duena, berregiteko tentazioak behingoz desagerrarazten direlarik.

Tipo hobaridun bakar honek gizarte ekonomiako kide den edozein entitaterentzat benetako orokortasuna eduki dezan, behar-beharrezkoa da gaur egungo hobariak jaso ahal izateko ezartzen diren baldintza gehienak –denak ez esatearren– desagerraraztea. Eskakizun hauen metaketak eta aniztasunak askotan ezinezkoak edota oso onura eskasekoak bihurtzen dituzte eskaintzen diren balizko abantailak, ordainetan ezartzen dituzten zamak eta betekizunak gehiegizkoak direlako; horregatik ari da zabaltzen gero eta gehiago halakoen aplikapenari borondatez uko egiteko ohitura anomaloa, berez agintezkoa den zerga alorrean bidezkoa ez dena, betebeharrak eta haien oinarriko osagaiak araubidez ezarritakoak direlako hain zuzen. Eskakizunen biderkapen honen barrenean gaixotasunezko mesfidantza patologiko bat datza, bai legegilearen aldetik eta bai zerga Administrazioaren aldetik, arauaren hartzaile direnen fede ona a priori eta orokorrean zalantzan ipintzera eramaten dituena eta kalte jasangaitza erakartzen duena, gainera, ezin alferrikakoagoa izateko azken finean. Alde batetik, Administrazioak ez duelako behar adinako ahalmenik eta bitartekorik ezarritako eskakizunen katalogo amaiezinarekin kontrol zehatza eramateko eta betetze konplutua egiaztatzeko, eta horrek errealitatean erakartzen du abantaila horien onuradun izan daitezkeela, gero inolako endredorik pairatu gabe, legezko arauak betetzen ez dituzten entitateak, horrek sortzen dituen era askotako gorabehera eta distortsioekin. Eta bestetik, arautegia zintzo eta zorrotz betetzen ahalegintzen diren entitateak maiz aurkitzen direlako ziurgabetasun handieneko egoeretan, horrelako eskakizunen irismenaz eta azken esanguraz askotan egin daitezkeen interpretazio eta irakurketa hain ezberdinengatik; ziurgabetasun juridiko handi horri gehitu behar zaio zeharkako zerga presio handiago bat, kasu honetan arautegia bete nahiak erakartzen duen barne kontrolerako ahalegina biderkatu beharregatik, ezartzen zaizkien mugetako bat bera ere ez hausteko edo gainditzeko.

Eskakizunen ugaritasun hori desagerrarazteak esan nahiko luke, orokorki, tipo hobariduna aplikatu ahal izateko aski izan behar lukeela sozietateen legeria eta entitate bakoitzaren sorrera eta funtzionamenduak, nork bere arautegi berezituaren arabera, ezinbestekoak dituen betekizun sustantiboak betetzea. Lehen batean, entitate bat gizarte ekonomiako esparru batekotzat (kooperatibak, lan sozietateak, mutualitateak, etab.) sailkatzea zilegitzen duten arauak, bakoitzak duen legeria espezifikorekin arabera, betetzen diren adinean, tipo hobariduna aplikagarria izan behar luke, aipatu ditugun arau horiek aski zorrotzak eta estuak direlako. Eta salbuespen bezala, banakako eta muturreko kasuren batean soilik litzateke bidezkoa eskakizun gehigarrien

bat ezartzea, ahalmen ekonomikoaren printzipioari edo zerga izaerako beste edozein irizpide konstituzionalari jarraiki horrelakoak erabat justifikagarriak liratekeenean.

Halaz eta guztiz ere, Gizarte ekonomiako zenbait esparruk maila handiagoko babes fiskala eduki behar lukete. Zehatzago esanda, Sozietate zergatik guztiz salbuetsizat aldarrikatu behar lirateke fundazioak eta onura publikoko elkarteak, 49/2002 Legean edota haren parekide diren foru arauetan barneratuta daudenak alegia. Eta baita ere gizarte ekonomiako beste edozein entitate, eskusiboki edo gehien-gehienean onura publiko edo interes orokorreko helburuetarako benetan aritzen denean eta, legearen aginduz edota bere estatutuen arabera, eragotzia duenean irabazkinak banatzea hala nola bere ondare soziala bazkide, taldekide edo partaideen artean esleitu ahal izatea, baita entitatea desagiteko unea iritsitakoan ere. Ez dauka zentzurik zerga bidez entitate baten irabazkinen zati bat hartzeak harekin gastu publikoak estaltzeko dirutza gehiago izateko, jada alde aurretik entitate horren jarduerak eta dirutza guztiak helburu publikoetara bideratuta daudenean; proposatzen den erabateko salbuespena arrazoitzeko aski dela esan liteke. Gehienera, zerga sinboliko bat ezar liteke, baina gehienbat ekimen pribatu txalogarri horiek arautu eta arrazionalizatzeko helburuarekin –hori bera ere zerga bidez egin beharrekoa ez litzatekeen arren–, eta ez behintzat diru bilketako xedearekin.

Eta, azkenik, esan beharrik ere ez dago aurreikuspen sozialeko mutualitateek, gaur egun Euskadin indarrean duten eran, zero tipoko zerga erregimena mantentzen jarraitu behar dutela Sozietate zergan, hau da, erabat salbuetsita egon behar dutela, pentsio plan eta funtsekin gertatzen den bezala, berdintasun eta ez-diskriminazio irizpidearen oinarritzko aginduz. Zerga erregimen komuneko mutualitateek pairatzen duten diskriminazio egoera larria erabat jasangaitza da, eta Konstituzioak bere 14. eta 31. artikuluetan ezartzen duen berdintasuneko irizpide konstituzionalaren urraketa larregia suposatzen du.

Gizarte ekonomiako entitateak eratzekoan edota haien funtzionamenduan ezartzen diren zeharkako zergetan (bereziki OEZ-Ondare Eskualdaketen gaineko Zergan eta EJDZ-Ekintza Juridiko eta Dokumentatuen gaineko Zergan) eta udal mailako zergetan ematen diren salbuespen eta hobariei dagokienean, ahal den neurrian behintzat, arautegi eta trataera bakar bat, edo behintzat funtsean berdintsua, ezarri behar litzateke, era berean, gaur egun ematen den aniztasunak ez duelako, honetan ere, inolako justifikazio baliagarririk.

Hemen proposatzen diren neurri guztiek, eta oso bereziki Sozietate zergaren kasuan bezala tipo hobaridun bakarra ezartzea aldarrikatzen dutenek, abantaila bikoitza dute: alde batetik, oso erraz ezar daitezkeela eta, bestetik, guztiz bideragarriak direla, nola maila juridikoan hala diru bilketari dagokionean eduki dezaketen eraginean. Aginte publikoen esku geratzen da, beraz, erabakitzea gaur egungo desberdintasun onartezin honekin jarraitu behar den ala gizarte ekonomiako entitate guztiei, esparru juridiko bakar eta berezituaren partaide izateak exijitzen duen eran, zerga trataera berezitua, egun pairatzen duten desberdintasun hori gaindituko duena, ematen zaien.

9. Gizarte ekonomia eta beronen presentzia Eusko Jaurlaritzaren kontratugintza publikoan¹

Jesús García Aréjula²

I. Hitzaurre

Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak 2009 eta 2013 artean Gizarte Ekonomiak izan duen bilakaera aztertzeko paratu den txostenari buruzko iruzkina egin dezadan gonbitea luzatu dit, eta eskaintza egin didatenei eskerronik beroena agertuz onartzen dut haien eskakizuna.

Aipatu dugun denboraldi hori, ezbaierik gabe, izugarri gogorra izan da Gizarte osoarentzat, bai norbanakoentzat eta baita ere familientzat edota enpresentzat. Eta Gizarte Ekonomia ez da salbuespena izan, alderantziz baizik. Txostenaren 28. orrialdean datorren 9. Taulan, enpleguaren bilakaerari buruz agertzen diren datuek zenbatzen dute Kooperatibetan eta Lan Sozietateetan enpleguak pairatu duen galera: Autonomia Erkidegoan³, bere osotasunean jasan dena baino bi puntu handiagoa dela erakusten dute, eta lanaldi laburraren presentzia ere handiagoa dela (13. Taula, 38. orrialdean), egonkortasunik ezari dagokionean horrek barneratzen duen guztiarekin. Eta hori dena enpleguaren alorrean ematen da, hau da, Gizarte Ekonomiaren funtsa eta bere eraketa kontzeptual nahiz materialaren giltzarria denean.

Gizarte Ekonomiak, eta bereziki Kooperatibek eta Lan Sozietateek, herri kontratuen esparruan duen presentzia eskasak ez dio hari aukerarik uzten sektore publikoaren jardueratik etekinak ateratzeko, eta hori bereziki garrantzitsua da ekonomia zikloaren uzkurraldian, horrelako abaguneetan gastu publikoak dituen eragin samurgarriak direlako. Horregatik, arazo hau oso aintzakotzat hartzen hasiak dira arestian, eta lehentasunezko ikergai bihurtu ere bihurtu da. Halaber, hein horretan, ez da ahanzi behar Gizarte Ekonomiaren sustapena eta zabalkundea Konstituzioaren agindua (129-2 art.) dela Administrazio Publikoarentzat, eta baita ere herri aginteetatik behin eta berriz aldarrikatu den helburu politikoa dugula.

Gizarte Ekonomian esku hartzen dutenek ezin dute jarraitu eta ez lukete egon behar sektore publiko horri bizkarra emanda, BPGaren %15 inguruko merkatua delako eta, gertatuak gertatu, batz besteko finantza bermeak baino hobeak eskaintzen dituelako eta kontratu publikoek berezkoak dituzten teknika eta kalitate eskakizunengatik prestigio eta eraginkortasun ospea eman ohi duelako.

Egoera konpontzeko lehen urratsa ezinbestez egoera beraren egiaztapena izan beharko du, ezagutza zorrotz eta objektiboaren bitartez. Ikuspegi horretan kokatzen dira ondorengo lerroak

- 1 Hitzaurrea izan ezik, ondorengo lerroen edukia *Zerbitzuan* aldizkarian argitaratu da, 2015eko lehen lau hilabetekoari dagokion zenbakian (GARCÍA ARÉJULA, J.M., 2015).
- 2 Nafarroako Unibertsitateko industria ingeniaria. Ekonomian Doktorea EHUan.
- 3 2012 urtean Kooperatiba eta Lan Sozietateetan erregistraturiko 55.809 langileek 2009an erregistraturik zeuden 62.615 langileen %89,13 suposatzen dute. Datu honen aurrean, maila orokorrean 2012 urtean erregistraturik zeuden 904.300 langileek 2009an erregistraturiko 987.100 langileen %91,61 suposatzen dute.

non aztertzen baita 2010 eta 2013 bitartean Eusko Jaurlaritzak esleitu dituen kontratu publikoetan Gizarte Ekonomia izan zuen presentzia. Horiek irakurri ondoren desiragarria gertatzen da susta dadila kontzientzia, bai Administrazio Publikoetan eta baita ere Gizarte Ekonomiaren sektorean murgildurik dauden eragile eta erakundeetan, gaur egun esparru honetan nabari den sintoniarik eza konpontzeko ekinbideak abiarazteko.

II. Kontratazio publikoa, lanabes politikoa

Herri Administrazioek, interes publikoari behar bezala erantzun ahal izateko beraiek jada dituzten bitartekoei gehituko zaizkien baliabide gehigarriak lortzeko etengabeko beharra eduki ohi dute (ENRÍQUEZ, R. 2007). Horretarako, ondasunen eta zerbitzuen merkatu askera jo ohi dute, kontratugintza publikoa edo administrazio kontratazioa deitzen denaren bitartez. Berau definitu behar izanez gero, obra bat egin, zerbitzu bat eskaini edota ondasun bat eskuratu behar duen pertsona fisiko zein juridikoa hautatzeko sektore publikoak jarraitzen duen prozedura dela esan genezake.

Prozedura horretatik eratortzen diren kontratuak administrazio arautegi berezi baten pean egon behar izaten dute, erregimen juridiko pribatuak ez duelako bermatzen kontratugintzaren bitartez erdietsi nahi liratekeen helburuak objektibotasunez eta eraginkortasunez, ezarrita dauden mugen barnean, konplutuki betetzea, baliabide publikoen erabilpenean nahitaezkoa den zuhurtzari dagokionean batik bat (AVEZUELA, J., 2005). Bide batez, kontratugintza publikoan gorde behar diren irizpideak betearaztea helburu duen ingurumen oso arautu baten barnean⁴ zertu behar izaten dira kontratu publikoak. Prozeduretan konkurrentzia askea, publizitatea eta gardentasuna gordetzea, eta diskriminaziorik eza edo tratu berdintasuna izatea dira irizpide horiek (RODRÍGUEZ, P., 2010). Kontratugintza publikoaren beste edozein araubideren gainetik daude printzipio horiek, eta zeharkakotasuna dute kontratugintzaren aldi guztietara hedatzen baitira eta denetan baitute eragina, nola prestamen aldietan hala gauzamendu aldietan (CANDELA, J.E., 2011).

Kontratu publikoak, beraz, ez dira bestelako kontratu arruntak bezalakoak, ezta ere Herri Administrazioari dagozkion helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak eskuratu ahal izateko tresna soil hutsak. Halaber, botere publikoen tresnak dira Gizarteak eskatzen dituen politikak, hauteskundearen bitartez adierazitako aginduekin agintariek gauzatu behar izaten dituztenak, sustatu eta garatu ahal izateko. Kontratugintza publikoaren instrumentaltasun hau zientzia mailan askok eta askok sakon eta zabal berretsi duten kontzeptua dugu (BERNAL, M.A., 2008); (GIMENO, J.M., 2006); (MARTÍNEZ FONS, D. 2009); (MEDINA, T., 2011); (RODRÍGUEZ, P., 2010); (RUIZ DE CASTAÑEDA, A. eta BERNAL, M.A., 2011).

Ikusmolde honek, bestalde, politika mailan ere badu oso oniritzi garrantzitsua, Europar Batasunaren barren-barrenetik aitortzen baita kontratu publikoak erabiltzearen zuzentasuna eta bidezketasuna, EBJAk⁵ berak berretsi baitu kontratu publikoen esleipenaz baliatuz helburu sozialak erdietsi ahal izateko posibilitatea⁶. Kontratugintza publikoaren instrumentaltasuna ontzat emateko ildo honetan bertan, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, Gizarte Ekonomia sustatzeko helburuarekin, Foru Arau bana egin dituzte, kontratugintza publikoaren bitartez Gizarte Ekonomia horren oinarritzko irizpideak ezagutzera eman eta indartzeko aurrerapauso garrantzitsuak direnak.

4 Espainiari dagokionean, oinarritzko arau legala 3/2011 Errege Lege Dekretuan, azaroaren 14koan, jasotzen dena litzateke; bertan onesten da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Elkartua (SPKLTE), 30/2007 Legea indargabetu zuena.

5 EBJA: Europar Batasuneko (lehen, Europar Erkidegoko) Justizia Auzitegia.

6 Ikus Gebroeders Beentjes, 1988 epaia, eta Batzordea/Frantzia (Nord-Pas-de-Calais), 2000 epaia.

III. Eusko Jaurlaritzak 2010 eta 2013 bitartean egindako kontratueta gizarte ekonomiak izan duen presentzia

Metodologia

Egin dugun ikerketa Eusko Jaurlaritzaren *Kontratzailearen Profilean*⁷ 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldien barnean argitaratutako kontratazio espedienteen erroldaren behaketan oinarritzen da. Bertan jasotzen den informazioak zilegitzen du zehaztea enkanteetarako eskaintza eta esleipen kopuruak, espedientearen izapidea egiteko erabilitako prozedura, kontratu mota eta, azkenik, espedientearen edota haren zatietako bakoitzaren esleipenduna edo esleipendunak nor edo nortzuk izan diren, halakorik izan bada⁸.

Espedientearen esleipenduna identifikaturik geratzen denez, berehala ebatzi daiteke espediente bakoitza Gizarte Ekonomiako entitatearen bati esleitu zaion ala ez, eta hari dagokion informazioaren xehetasunak jaso daitezke. Informazio hau azterturiko espediente guztien orokortasunarekin alderatuz, azterkizun den kontratugintza horren osotasunean Gizarte Ekonomiak eduki duen presentziaren balioespen doitu⁹ bat lortzea egingarria zaigu. Balioespen hori ikuspegi kuantitatibotik (esleipenen diru – zenbatekoak¹⁰ eta espediente kopuruak) zein kualitatiboak (espedientei dagozkien prozedura eta kontratu motak, kontratu-gai direnen gizarte tasuna, etab.) egin liteke.

Ikertzaileak burututako azterlana 2013ko urtealdiari dagozkion datuekin osatu ahal izan da arestian. Horri esker, beti ere mesedegarria izan ohi den eguneratzea lortzeaz gain, azterkizun dugun kontratugintza horretan Gizarte Ekonomiaren egitatearen bilakaera nolakoa izaten ari den argibide funtsezkoak eskainiko lizkigukeen serie tenporala hasi ahal izateko nahiko denboraldi zabalari dagozkion datuak eskura izatea zilegi izan zaigu.

Kontratu handien¹¹ iraupena aldakorra da, noski, kasu batetik bestera, baina esan liteke kasurik gehienetan bi urte inguruan kokatzen dela iraupen hori, beti ere kontuan hartu gabe han-hemenka

7 *Kontratzaileen Profila* informatika aplikazio bat da 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, Sektore Publikoko Kontratu Legeak ezarri zuena; kontratu publikoen gardentasuna eta eraginkortasuna hobetzea du helburu. Aplikazio hau edozein herritarrentzat eskura dago arrunki internet bitartez, eta Herri Administrazioetan egindako kontratu garrantzitsuen espedientei buruzko informazioa eskaintzen da bertan.

8 Informazio hori interneteko nabigatzailearen bitartez espedientearen datuak eskuratzen direnean aurkezten den fitxa batean jasota agertzen da. Kontratzailearen Profila, halaber, espedientearekin zerikusia duten dokumentu ofizialeetarako irispidea eskaintzen du, esate baterako, betebeharraren teknikoak eta baldintza berezituak txosten-agiriak, espedientearen laburbilduma (edo karatula), eta esleipenaren erabakiak; ikerketaren xedeak lortzeko oso garrantzitsua dena, erabili behar den informazioa fidagarriki ziurtatzen duten dokumentuak direlako hain zuzen.

9 Zuhurtziagatik “*balioespen*” hitza erabili behar dela esan liteke Kontratzailearen Profilaran argitalpenetan agertu ohi diren akatsengatik, kontratu espediente guztiak ez direlako esparru horretan argitaratuta aurkitzen, hala nola ezinezkoa gertatzen delako kausitzea Gizarte Ekonomiako entitateak bestelako entitate batzuekin Aldi Baterako Enpresa-Batasunak osatuz esleipendun izaten direnean haiei zehazki dagozkien esleipenaren diru-kopurua zenbatekoa den. Gorabehera hauek guztiak aintzakotzat hartuta ere, haatik, balioespena “*doituzat*” jo dezakegu presentzia errealekiko, argitaratzen ez diren kontratuen eragina txikia dela ebatzi dezakegulako, txikiak izaten baitira haiei dagozkien diru – zenbatekoak, argitara emandakoan aldean bederen. Bestalde, akatsak nahiko mugatuak izan ohi dira, eta are mugatuagoak oraindik esleipendun izan diren ABEBetan partaide izaten diren Gizarte Ekonomiako entitateak.

10 Esleitutako zenbatekoak hartu dira oinarritzko datutzat, eta ez enkantean ipinitako diru-kopuruak, lehenak direlako benetan gauzatu diren kontratu publikoek barneratzen duten zenbatekoaren benetako neurria eskaintzen duten datuak.

11 Ez 30/2007 Legeak eta ezta ere 3/2011 EDLak esapide hori espresuki erabiltzen ez duten arren, horrela deitu ohi zaie, eksklusioz, kontratu txikiak ez diren guztiei, beste esapide hau badator eta legeen testuan.

eman daitezkeen balizko luzapenak¹². Eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren analisia egiterakoan heldutasunera heltzeko epeak aintzakotzat hartu behar izaten diren bezalaxe, kasu honetan ere oso kontuan hartu beharreko datua da hori berori datuen bilakaera behatzerako orduan.

Iraupen horrek berak hobesten du datu metatu mugikorak erabiltzea, eta ez urtekako datuak, bai espedienteen batz besteko biziraupen urteanitzak sortzen dituen ondorioak doitzeko, eta baita ere Administrazioaren jardura kontratatzailearen nolakotasunarekin zerikusia izan dezaketen balizko zikloen eragina berdintzeko, izan ere legealdi politikoez nolabaiteko eragina badutela horretan ematen baitu. Faktore hauek guztiak aintzakotzat hartuta, egokiagoa iruditu zaigu hiru urteko datu metatuak¹³ oinarritzat hartuta lan egitea. Irizpide honekin, hasierako ikerketan aztergai genuen denboraldiak, hiru aurrekontu-urtekoa izaki, ez zigun ahalbidetzen bere garaian bilakaera hori aztertzea, baina orain laugarren aurrekontu-urtea ere, 2013koa, eskura dugunez, mugapen hori ere gainditu ahal izan dugu. Halaz eta guztiz, esan behar da emaitzak zuhurtziaz handienarekin hartu beharrekoak direla, oraingoz darabilgun denbora-epea litekeenetan txikiena delako.

Lortutako emaitzak

Eusko Jaurlaritzaren Kontratatazailearen Profilean 2010 eta 2013 bitartean argitaratu diren kontratazio espedienteak hartzen dira aintzakotzat ondoren doazen lerroetan. Datu horien aurkezpena, arestian aurreratu dugun hiru urtekako irizpideari jarraiki egiten da eta, beraz, emaitzak bi epealdi ezberdinen arabera aurkezten dira: 2010-2012 eta 2011 – 2013.

Esleipenak eta esleitutako zenbatekoak, eguneratzea baino lehenagoko datuen arabera (2010 – 2012)

1. Taula. 2010 eta 2012 bitartean esleitutako espedienteak eta zenbatekoak						
2010-2012	Espediente kopurua	Ehunekoak		Zenbatekoak	Ehunekoak	
		Guztiena	GE*-ko guztiena		Guztiena	GE*-ko guztiena
Aztertuak	2.043	100,00%		2.477.112.859,77	100,00%	
GE-ri esleituak	223	10,13%	100,00%	99.942.532,00	4,03%	100,00%
KOOP.ei esleituak ¹⁴ .	99	4,85%	44,39%	47.176.468,97	1,90%	47,20%
LS-ei esleituak ¹⁵ .	15	0,73%	6,73%	1.667.955,95	0,07%	1,67%
Besteei esleituak ¹⁶	111	5,43%	49,78%	51.098.107,08	2,06%	51,13%

(*) Taula eta Irudietan “GE” laburdura erabiliko dugu “Gizarte Ekonomia” adierazteko.

Iturria: geuk egina.

12 Aztertu ditugun kontratuen multzoan ez dira jasotzen kontratu txikiak, hauek ez baitira ia inoiz argitaratzen Kontratatazailearen Profilean. Kontratu hauek, oso ugariak badira ere, ezinbestez esleipen zenbateko txikiak izaten dituzte eta esleitu direneko aurrekontu-urtearen barnean zertu behar izaten dira nahi eta ez beti. Beraz, haien iraupena beti ere urtebete baino laburragoa da eta haien luzapena espresuki debekatuta dago kontratugintzaren arautegian (SPKLTEaren 23.3 art.).

13 Geroago, 4. atalean, aztergai ditugun kontratuetan Gizarte Ekonomia duen egitatearen bilakaeraren analisiairen emaitzei zehazki ekiten diogunean, itzuliko gara arazo honetara.

14 KOOP.: Sozietate Kooperatiboak.

15 LS: Lan Sozietateak, nola Anonimoak hala Mugatuak.

16 Bestelakoak: Kooperatiba ez eta Lan Sozietate ez diren entitateei egindako esleipenak biltzen dira sail honetan. Kasu guztietan Elkartek edota Fundazioak dira, eta bitan Enplegu Zentroak.

2. Taula. 2010 eta 2012 bitartean esleitutako espedienteak eta zenbatekoak, kontratu mota eta tramitazio prozeduraren arabera sailkatuta									
Kontratu mota	Prozedura mota	Esleipenak oro har				Geri esleipenak			
		Zenbat	%	Esleitutako zenbatekoak (€)	%	Zenbat	%	Esleitutako zenbatekoak	%
Guztiak	Guztiak	2.043	100,00	2.477.112.859,77	100,00	223	100,00	99.942.532,00	100,00
	Irekia	882	43,17	2.146.856.228,59	86,67	73	32,74	53.100.740,78	53,13
	Hitzartua	1.058	51,79	159.311.018,44	6,43	145	65,02	45.661.398,34	45,69
	Murriztua	102	4,99	170.887.084,74	6,90	5	2,24	1.180.392,89	1,18
	Bestelakoak	1	0,05	58.528,00	-	-	-	-	-
Obrak	Guztiak	223	10,92	1.535.670.123,01	61,99	2	0,90	106.548,54	0,11
	Irekia	129	6,31	1.505.735.638,19	60,79	-	-	-	-
	Hitzartua	94	4,60	29.934.484,82	1,21	2	0,90	106.548,54	0,11
	Murriztua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	Guztiak	417	20,41	250.941.478,50	10,13	25	11,21	35.043.350,14	35,06
	Irekia	205	10,03	214.709.535,40	8,67	17	7,62	34.486.722,01	34,51
	Hitzartua	205	10,03	28.349.357,38	1,14	8	3,59	556.628,13	0,56
	Murriztua	7	0,34	7.882.585,71	0,32	-	-	-	-
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Zerbitzuak	Guztiak	1.371	67,11	613.195.072,99	24,75	183	82,06	24.364.426,57	24,38
	Irekia	531	25,99	398.010.832,10	16,07	53	23,77	15.697.643,77	15,71
	Hitzartua	744	36,42	52.121.213,86	2,10	125	56,05	7.486.389,92	7,49
	Murriztua	95	4,65	163.004.499,03	6,58	5	2,24	1.180.392,89	1,18
	Bestelakoak	1	0,05	58.528,00	0,00	-	-	-	-
Bestelakoak	Guztiak	32	1,57	77.306.185,28	3,12	13	5,83	40.428.206,75	40,45
	Irekia	17	0,83	28.400.222,90	1,15	3	1,35	2.916.375,00	2,92
	Hitzartua	15	0,73	48.905.962,38	1,97	10	4,48	37.511.831,75	37,53
	Murriztua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: geuk egina.

3. Taula. 2010-2012 denboraldian Gizarte Ekonomiari esleitutako zenbatekoak

Esleitutako zenbatekoak						
Gizarte Ekonomiako entitateak	Prozedura mota	Kontratu motak				
		Guztiak	Obrak	Hornidurak	Zerbitzuak	Bestelakoak
Gizarte Ekonomia guztiari esleituak	Guztiak	99.942.532,00	106.548,54	35.043.350,14	24.364.426,57	40.428.206,75
	Irekia	53.100.740,78	-	34.486.722,01	15.697.643,77	2.916.375,00
	Hitzartua	45.661.398,34	106.548,54	556.628,13	7.486.389,92	37.511.831,75
	Murriztua	1.180.392,89	-	-	1.180.392,89	-
KOOP-ei esleituak	Guztiak	47.176.468,97	9.276,53	33.684.321,13	9.553.897,76	3.888.973,55
	Irekia	42.794.855,09	-	33.331.186,61	6.552.693,48	2.910.975,00
	Hitzartua	4.202.253,88	49.276,53	353.134,52	2.821.844,28	977.998,55
	Murriztua	179.360,00	-	-	179.360,00	-
LS-ei esleituak	Guztiak	1.667.955,95	57.272,01	1.182.029,01	428.654,93	-
	Irekia	1.390.347,40	-	1.155.535,40	234.812,00	-
	Hitzartua	277.608,55	57.272,01	26.493,61	193.842,93	-
	Murriztua	-	-	-	-	-
Bestelakoei esleituak	Guztiak	51.098.107,08	-	177.000,00	14.381.873,88	36.539.233
	Irekia	8.915.538,29	-	-	8.910.138,29	5.400
	Hitzartua	41.181.535,91	-	177.000,00	4.470.702,71	36.533.833
	Murriztua	1.001.032,89	-	-	1.001.032,89	-

Iturria: geuk egina.

2011-2013 denboraldian esleitutako espedienteak eta zenbatekoak

4. Taula. 2011 eta 2013 bitartean esleitutako espedienteak eta zenbatekoak						
2011-2013	Espediente kopurua	Ehunekoak		Zenbatekoak	Ehunekoak	
		Guztiena	GE*-ko guztiena		Guztiena	GE*-ko guztiena
Aztertuak	2.300	100,00%		2.086.720.326,29	100,00%	
GE-ri esleituak	233	10,13%	100,00%	110.637.629,56	5,30%	100,00%
KOOP.ei esleituak	107	4,65%	45,92%	50.179.292,37	2,40%	45,35%
LS-ei esleituak	22	0,96%	9,44%	5.037.918,25	0,24%	4,55%
Besteei esleituak	106	4,61%	45,49%	55.420.418,94	2,66%	50,09%

Iturria: geuk egina.

5. Taula. 2011 eta 2013 bitartean esleitutako espedienteak eta zenbatekoak, kontratu mota eta tramitazio prozeduraren arabera sailkatuta									
Kontratu mota	Prozedura mota	Esleipenak oro har				Geri esleipenak			
		Zenbat	%	Esleitutako zenbatekoak	%	Zenbat	%	Esleitutako zenbatekoak	%
Guztiak	Guztiak	2.300	100,00	2.086.720.326,29	100,00	233	100,00	110.637.629,56	100,00
	Irekia	965	41,96	1.717.980.985,36	82,33	93	39,91	31.552.462,92	28,52
	Hitzartua	1.198	52,09	291.166.327,54	13,95	134	57,51	77.828.543,75	70,35
	Murriztua	137	5,96	77.573.013,39	3,72	6	2,58	1.256.622,89	1,14
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Obrak	Guztiak	188	8,17	1.238.020.070,61	59,33	4	1,72	1.083.513,51	0,98
	Irekia	117	5,09	1.214.291.589,15	58,19	1	0,43	727.287,75	0,66
	Hitzartua	71	3,09	23.728.481,46	1,14	3	1,29	356.225,76	0,32
	Murriztua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	Guztiak	577	25,09	291.689.871,98	13,98	36	15,45	36.091.853,36	32,62
	Irekia	217	9,43	122.320.170,55	5,86	22	9,44	3.866.371,09	3,49
	Hitzartua	347	15,09	160.689.964,05	7,70	14	6,01	32.225.482,27	29,13
	Murriztua	13	0,57	8.679.737,37	0,42	-	-	-	-
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Zerbitzuak	Guztiak	1.498	65,13	478.934.089,59	22,95	178	76,39	33.504.843,54	30,28
	Irekia	615	26,74	354.775.553,32	17,00	68	29,18	26.523.829,08	23,97
	Hitzartua	759	33,00	55.265.260,25	2,65	104	44,64	5.724.391,57	5,17
	Murriztua	124	5,39	68.893.276,01	3,30	6	2,58	1.256.622,89	1,14
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	Guztiak	37	1,61	78.076.294,12	3,74	15	6,44	39.957.419,15	36,12
	Irekia	16	0,70	26.593.672,34	1,27	2	0,86	434.975,00	0,39
	Hitzartua	21	0,91	51.482.621,78	2,47	13	5,58	39.522.444,15	35,72
	Murriztua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bestelakoak	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: geuk egina.

6. Taula. 2011-2013 denboraldian Gizarte Ekonomiari esleitutako zenbatekoak						
Esleitutako zenbatekoak						
Gizarte Ekonomiako entitateak	Prozedura motak	Kontratu motak				
		Guztiak	Obrak	Hornidurak	Zerbitzuak	Bestelakoak
Gizarte Ekonomia guztiari esleituak	Guztiak	110.637.629,56	1.083.513,51	36.091.853,36	33.504.843,54	39.957.419,15
	Irekia	31.552.462,92	727.287,75	3.866.371,09	26.523.829,08	434.975,00
	Hitzartua	77.828.543,75	356.225,76	32.225.482,27	5.724.391,57	39.522.444,15
	Murriztua	1.256.622,89	-	-	1.256.622,89	-
KOOP-ei esleituak	Guztiak	50.179.292,37	877.368,02	34.386.308,23	13.523.949,16	1.391.667
	Irekia	14.462.057,99	727.287,75	2.546.562,51	10.992.232,73	195.975
	Hitzartua	35.461.644,37	150.080,27	31.839.745,72	276.126,43	1.195.692
	Murriztua	255.590,00	-	-	255.590,00	-
LS-ei esleituak	Guztiak	5.037.918,25	206.145,49	1.465.746,13	3.366.026,63	-
	Irekia	4.571.992,28	-	1.319.808,58	3.252.183,70	-
	Hitzartua	465.925,97	206.145,49	145.937,55	113.842,93	-
	Murriztua	-	-	-	-	-
Bestelakoei esleituak	Guztiak	55.420.418,94	-	239.799,00	16.614.867,74	38.565.752,20
	Irekia	12.518.412,65	-	-	12.279.412,65	239.000,00
	Hitzartua	41.900.973,41	-	239.799,00	3.334.422,21	38.326.752,20
	Murriztua	1.001.032,89	-	-	1.001.032,89	-


Iturria: geuk egina.

Gizarte Ekonomiak Kontratazio Publikoan duen presentzia, esleitutako zenbatekoen mailari begiratu aztertuta. Mailakako parte hartzea, eguneratzearen aurreko datuen arabera (2010-2012 hirurtekoa)

Aztertutako espedienteak esleitutako zenbatekoaren arabera sailka daitezke, zenbateko hori handitu ahala Gizarte Ekonomiak duen parteak zer-nolako aldaketa izaten duen ikusi ahal izateko. Horretarako, ondorengo maila hauek bereizi ditugu:

- 50.000,00 € baino gutxiagoan esleitutako espedienteak.
- 10.000,00 € baino gutxiagoan esleitutako espedienteak.
- 500.000,00 € baino gutxiagoan esleitutako espedienteak.
- 1.000.000,00 € baino gutxiagoan esleitutako espedienteak.
- 5.000.000,00 € baino gutxiagoan esleitutako espedienteak.
- 5.000.000,00 € baino gehiagoan esleitutako espedienteak.

Emaitzak 9. Taulan eta 1. Irudian ikus daitezke:



Iturria: geuk egina.

7. Taula. Gizarte Ekonomia entitateei eginiko esleipen zenbateko metatuak, aurretik zehaztu dugun esleituriko zenbatekoaren mailaketaren arabera

		Esleitutako zenbatekoen metaketa, zenbateko hauen azpitik:											
		50.000		100.000		500.000		1.000.000		5.000.000		> 5.000.000	
		Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%
2010-2012													
GUZTIRA		15.999.298,95	100,00	60.496.966,23	100,00	205.171.618,19	100,00	287.660.640,63	100,00	544.651.351,79	100,00	2.477.112.859,77	100,00
GE oro har		2.127.875,11	13,30	7.446.021,78	12,31	18.895.424,02	9,21	25.396.228,02	8,83	33.151.228,02	6,09	99.942.532,00	4,03
KOOP.		1.056.322,51	6,60	3.063.329,60	5,06	8.584.598,19	4,18	11.291.611,99	3,93	15.606.611,99	2,87	47.176.468,97	1,90
LS		111.133,10	0,69	367.608,55	0,61	796.810,95	0,39	1.667.955,95	0,58	1.667.955,95	0,31	1.667.955,95	0,07
Bestelakoak		960.419,50	6,00	4.015.083,63	6,64	9.514.014,88	4,64	12.436.660,08	4,32	15.876.660,08	2,92	51.098.107,08	2,06
2011-2013													
GUZTIRA		17.948.362,83	100,00	69.246.992,29	100,00	231.432.035,07	100,00	321.605.739,62	100,00	628.478.910,63	100,00	2.086.720.326,29	100,00
GE oro har		1.915.667,56	10,67	7.323.075,16	10,58	19.766.771,77	8,54	31.157.616,27	9,69	43.986.771,36	7,00	110.637.629,56	5,30
KOOP.		905.884,48	5,05	3.437.918,89	4,96	8.711.107,58	3,76	12.431.697,78	3,87	18.749.881,17	2,98	50.179.292,37	2,40
LS		126.767,04	0,71	333.242,49	0,48	1.595.801,55	0,69	2.466.946,55	0,77	5.037.918,25	0,80	5.037.918,25	0,24
Bestelakoak		883.016,04	4,92	3.551.913,77	5,13	9.459.862,64	4,09	16.258.971,94	5,06	20.198.971,94	3,21	55.420.418,94	2,66

Iturria: geuk egina.

IV. Gizarte Ekonomiako entitateen presentziaren bilakaera, aztertu den kontratazio publikoan

Urteroko ekitaldien arteko aldaketan arazoa

Bere txikitasunagatik, Gizarte Ekonomiaren presentzia kontratazio publikoan bereziki sentibera da suerta daitezkeen zenbateko handiko espedienteen esleipenekiko, eta horrelakoek aldaketa larregiak erakar ditzakete urte batetik besterakoan.

Bestalde, aztertu ditugun kontratu publikoek maiz urtebete¹⁷ baino gehiagoko iraupena izan dute, balizko luzapenak kontuan hartu gabe ere; beraz, administrazioaren kontratugintza aztertzerakoan urteroko zikloak aukera gutxi eskaintzen du lanerako. Bide batez, urtekako zenbatekoak ez dira baliagarriak kontratazio publikoaren bilakaera, oro har, ikertzeko eta are gutxiago kontratazio horretan Gizarte Ekonomiak duen eragina kausitzeko.

Arazo hau konpondu ahal izateko, metaketa mugikorak erabil daitezke, kasu honetan bina edo hiruna urtekoak izan litezkeenak. Txosten honetan hiruna urteko metaketa mugikorak erabiltzen dira, gorabeherak berdintzeko aukerarik eraginkorrena dela deritzogulako.

Azterturiko kontratazioan Gizarte Ekonomiak duen presentziaren bilakaera mugikorra hiruna urteka. Balioespenak

Ebatzi dugun denbora-eredua, kapitulu honen 3. atalean jada erabili duguna, aintzakotzat hartuta, 2010-2012 eta 2011-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren kontratugintza publikoan Gizarte Ekonomiak eduki duen presentziaren bilakaeraren zehaztapena 1., 2. eta 3. Taulak, 4., 5. eta 6. Taulekin hurrenez hurren erkatuz egin liteke.

1. eta 4. Taulak alderatuz, ikus liteke Gizarte Ekonomiaren egitatea 2010-2012 denboraldian %4,03koa izatetik %5,30ekoa izatera igaro dela 2011-2013 denboraldian; hori bera ikus liteke 1. Irudian ere.

Alderaketa horretan bertan ikus liteke Gizarte Ekonomiako entitateen alde egin diren esleipenen osotasunaren baitan sozietate mota ezberdinek izan duten egitate erlatiboaren bilakaeraren nondik norakoa. Bidenabar, Kooperatibak igaro dira 2010-2012an Gizarte Ekonomiari esleitutako diru kopuruaren guttizkoaren %47,20 jasotzetik %45,35 izatera 2011-2013 denboraldian; bidenabar, Gainerakoak multzoan bildu ditugun entitateak 2010-2012an Gizarte Ekonomiari esleitutako guttizkoaren %51,13 izatetik %50,09 izatera igaro dira 2011-2013 denboraldian. Aldiz, 2010-2012an esleipenen guttizkoaren %1,67 baino jaso ez zuten Lan Sozietateek, %4,55 eskuratu zuten 2011-2013 denboraldian¹⁸.

17 Lehenago aipatu bezala (ikus 11 orri oina), kontratu txikiek adjudikaturiko urte naturaleko iraunaldi mugatua dute modu luzaezinean eta gainera hemen ez dira aztertzen.

18 Eusko Jaurlaritzaren kontratugintza publikoaren esparruan Lan Sozietateek duten presentzia ia marjinala ez da ezezaguna (GARCÍA ARÉJULA, J.M., 2014). 2013ko ekitaldiari dagozkion datuak eranstean, sozietate horien eraginaren suspertze txiki-txiki bat nabaritzen da, baina beti ere zifra minimoenetatik atera gabe, kooperatiben eta gainerako entitateen, eta batez ere lehendabizikoen, onurarako. Hein horretan aintzakotzat hartu behar da Elkarteen aldeko esleipenek zerikusia eduki dezaketela gizarte politikak gauzatzeko eginkizunarekin.

2. eta 5. Taulak alderatuz, bestalde, hainbat ebazpen ondorioztatzen dira espedienteak tramitatzerakoan erabilitako prozedura administratiboei dagokienean kontratazioak izan duen bilakaerari buruz. Alor hau erabakigarria izan daiteke esleipenak zertzerako orduan. 8. Taulak erakusten du lauki bakoitzean ematen den portzentu aldaketa.

8. Taula. 2010-2012 eta 2011-2013 denboraldietan eginiko esleipen guztien eta Gizarte Ekonomiari eginikoen arteko alderaketa					
Kontratu motak	Prozedura motak	Esleipenak oro har		Geri eginiko esleipenak	
		Kopurua	Esleituriko zenbatekoak (%)	Kopurua	Esleituriko zenbatekoak (%)
Guztiak	Guztiak	112,58%	84,24%	104,48%	110,70%
	Irekia	109,41%	80,02%	127,40%	59,42%
	Hitzartua	113,23%	182,77%	92,41%	170,45%
	Murriztua	134,31%	45,39%	120,00%	106,46%
	Bestalakoak				
Obrak	Guztiak	84,30%	80,62%	200,00%	1016,92%
	Irekia	90,70%	80,64%	∞ (*)	∞ (*)
	Hitzartua	75,53%	79,27%	150,00%	334,33%
	Murriztua	-			
	Bestalakoak	-			
Hornidurak	Guztiak	138,37%	116,24%	144,00%	102,99%
	Irekia	105,85%	56,97%	129,41%	11,21%
	Hitzartua	169,27%	566,82%	175,00%	5789,41%
	Murriztua	185,71%	110,11%		
	Bestalakoak				
Zerbitzuak	Guztiak	109,26%	78,10%	97,27%	137,52%
	Irekia	115,82%	89,14%	128,30%	168,97%
	Hitzartua	102,02%	106,03%	83,20%	76,46%
	Murriztua	130,53%	42,26%	120,00%	106,46%
	Bestalakoak				
Bestalakoak	Guztiak	115,63%	101,00%	115,38%	98,84%
	Irekia	94,12%	93,64%	66,67%	14,91%
	Hitzartua	140,00%	105,27%	130,00%	105,36%
	Murriztua				
	Bestalakoak				

(*) 2010-2012 denboraldian ez zegoen kontraturik, eta 2011-2013 denboraldian bi kontratu zeuden.

Iturria: geuk egina.

Alderatutako Taulen diseinua gorde egin dugu, baina jatorrizko portzentuei zegozkien laukiak zurian geratu dira. Era berean, zurian geratzen dira orijinaleko zeroei zegozkien laukiak, horrela taularen aurkezpena gardenagoa izango delako eta aldaketak argiago ikus daitezkeelako.

Oro har kontratazioari dagokionean, eta kontratugintza publikoan Eusko Jaurlaritzak darabilen jokamoldearen ildo nagusiak ikus daitezzen, esan behar da esleipenen kopurua handitu bada ere (2.300 ziren 2011-2013 denboraldian, 2012-2012an 2.043 baino ez zirenean), esleitutako diru-kopurua murriztu egin da (2010-2012 denboraldian esleitutako diru-kopuruaren %84,24 baino ez zen esleitu 2011-2013 hirurtekoan), gastu publikoari galga ezartzeko joera ezagunarekin bat datorren kontua, hain zuzen. Gastua murrizteko joera hau argiro nabarmendu da Obra¹⁹ eta Zerbitzuen²⁰ alorretan. Honelako kontratuetan izan ezik, gainerako beste mota guztietakoan esleipenen kopurua gehiago hazi da esleitutako diru-zenbatekoa baino eta horrek adierazten du, ondorioz, kontratuen batz besteko balioa gutxitu egin dela.

Bereziki interesgarria gertatzen da Hornidura kontratuetan prozedura hitzartuaz esleitutakoan zenbatekoan ematen den gorakada, prozedura irekian izapideak eginikoen ifrentzua dena, hain zuzen. Esparru Hitzarmenaren²¹, eredia maizago erabiltzearen ondorio izan daiteke hori, izan ere horixe baita 3/2011 EDLan, azaroaren 14koan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Elkartua (SPKLTE) onetsi eta ordura arte indarrean zegoen 30/2007 Legea, lehen aipatua, indargabetu zuenean aurreikusten diren aukeretako bat kontratazioa arrazionalizatu ahal izateko. Arrazionalizatzeko neurri honen ezarpenaren ondorioz, lehen prozedura irekiaz tramitatu ohi ziren kontratu asko, orain Esparru Hitzarmenaren bitartez egiten dira; prozedura hau, lehen unean, prozedura irekiaren antzekoa da baina jarraian hitzartuak bezala tramitatzen den beste espediente batean zertzen da.

Gizarte Ekonomiak Eusko Jaurlaritzaren kontratugintzaren baitan erakusten duen joerari dagokionez, 8. Taulako zenbakiak aditzera ematen dute oro har haren egitatea hazten ari dela kontratazioaren barnean²², eta azpimarragarria da hazkunde hori lehen aipatzen genuen joera orokor murriztailearen aurka eman ere ematen dela. Eta pare bat ñabardura berezirekin, gainera. Lehena, Obretako kontratuen esleipenetan Gizarte Ekonomiak jo duen gorakada nabarmena (%1.016,92koa izan baita aldaketa) litzateke; kontratu horiexek dira esleitutako zenbateko handienak bereganatzen dituztenak (2010-2012 hirurtekoan esleitutako diru-kopuru guztiaren %61,99, eta 2011-2013 denboraldian %59,33) gainerako kontratu motekiko alde handiz, gainera. Egitate honek, ezberrik gabe, zerikusi nabaria izan du aztertu dugun kontratazioan Gizarte Ekonomiak erdietsi duen hobekuntzan, eta are gehiago balioetsi beharrekoa da kontuan izaten badugu Obretako kontratuen esleipenak orokorrean gutxitu egin direla, lehen ere esana dugunez.

19 2011-2013an esleitutako zenbatekoa 2010-2012 bitartean esleitutakoen %80,62 izan da; esleipenen kopurua, berriz, haren %84,30.

20 Kasu honetan, hirurtekoen artean esleipen kopurua %9,26 hazi bada ere, 2011-2013an esleitutako diru – kopuruak 2010-2012 bitartean esleitutakoen %78,10 baino ez dira. Gorabehera honek eragin zuzena du Gizarte Ekonomian, honek jasotzen dituen esleipenik gehienak kontratu mota honetakoak izaten direlako (2010-2012 bitarteko esleipenen %82,06, eta 2011-2013 hirurtekoan %76,39).

21 Balizko hornitzaileen alde aurretiko aukeraketa modu bat da, prozedura irekian erabiltzen denaren antzeko prozedura berezi batez tramitaturiko espediente baten bitartez egiten dena ia beti. Esleipenduntzat hartzen diren eskaintzak, haien arabera ondoren behar zehatzagoei erantzungo dieten beste kontratazio espediente batzuk tramitatzeko oinarritzat jotzen dira; espediente berri hauek prozedura hitzartuaren bitartez tramitatzen dira eta horrela agertzen dira Kontratatzailaren Profilean.

22 Bai esleipenen kopuruari dagokionean (%4,48 gehiago 2011-2013an 2010-2012an baino), eta baita ere esleitutako zenbatekoari dagokionean (%10,70 gehiago).

Bigarrena, prozedura hitzartuaren bitartez egindako Hornidura kontratuetan ematen den gorakada dugu. Hori argitu ahal izateko, Esparru Hitzarmenen aplikapenaren ondorioz prozedura honi jarraiki tramitatu diren espedienteen ugalketa izan behar da kontuan, lehen esan dugun bezala. Eta, bestalde, aintzakotzat hartu behar da espediente jakin baten, SU/20/13²³ 60 deituaren esleipena, harengatik hogeita hamar milioi euro esleitu baitzaizkio kooperatiba bati, eta horren isla baita 9. Taulan agertzen den portzentu hain deigarria. Espediente honek berak soilik bereganatzen du 2011-2013 hirurtekoan Gizarte Ekonomiari esleitu zaion diru-zenbateko osoaren %28,41, eta denboraldi horretan bertan prozedura hitzartuaz Gizarte Ekonomiari esleitu zaion kopuru osoaren %40,38.

Halaz eta guztiz, eta Hornidura kontratuei buruz arestian aipatu duguna alde batera utzita, 8. Taulak adierazten digu prozedura hitzartuaren bitartez tramitaturiko espedienteetan Gizarte Ekonomiari egin zaizkion esleipenen kopurua gutxitu egin dela. Hitzarturiko espediente horien zenbatekoa handitu izana, berriro ere, espediente jakin batzuen eraginari zor zaio, adibidez lehen aipatu dugun SU/20/13 horri edota Obretako²⁴ espedienteren bati; izan ere, Gizarte Ekonomiari maizen esleitzen zaion kontratu motan, hau da, Zerbitzuetakoan²⁵, beherakada nabaria ageri baita, nola hitzartutako prozeduretatik eratortzen diren esleipenen kopuruari dagokionean hala esleitutako diru – zenbatekoetan (%83,20 eta %76,46, hurrenez hurren). Beraz, hitzartutako prozeduraren bitartez tramitaturiko espedienteak, oro har, ugaritu egin badira ere, Gizarte Ekonomiaren kasuan alderantzizkoa aldakuntza eman da.

Hitzarturiko prozedura hauek Gizarte Ekonomiaren onurarako egindako esleipenen artean barneratzen duten munta balioesteko, esan behar da prozedura hauek 2010 – 2012an 45.661.398,34 €-ko zenbatekoa, eta 2011-2013an 77.828.543,75 €-koa suposatzen badute ere, lehen kasuan barneraturik daudela ospitale-lanekin zerikusia duten Zerbitzu Publikoen Kudeaketako hiru espediente²⁶, zenbateko osoaren %77,14 barneratzen zutenak; eta bigarreanean, espediente bakar batek guztizko zenbatekoaren %40,38 bereganatzen du, eta arestian aipatu ditugun beste hiruekin batera, guztira jasotako ia hirurogeita zortzi milioien %85,64 biltzen dituzte lauen artean.

8 Taularen oinarrian dagoen planteamendu berdina erabili daiteke 3 eta 6 Taulekin, 9 Taula delarik lortzen den emaitza.

23 Antzeko beste espediente baten, SU/12/10 deituaren oinordekoa da. Argigarria izan daitekeelako, azpimarra daiteke espediente berri honek 2010eko espedienteak baino ehun eta berrogei bat mila euro gutxiago jasotzen dituela.

24 Badira beste hiru espediente, prozedura hitzartuaren bitartez tramitaturikoak hauek ere eta diru – zenbateko handiak, hamar milioi euro baino gehiagokoak, dituztenak (GARCÍA ARÉJULA, J.M., 2014:150), baina espediente hauek 2011an argitaratu ziren Kontratatzailearen Profilean eta, bide batez, ez dute eraginik hirurtekoen arteko aldakuntzan, alderatutako bietan barneraturik daudelako. Ez da hori, ordea SU/20/13 espedientearen kasua, izan ere 2010-2012 hirurtekoan agertzen bazen haren baliokidea zen SU/12/10, prozedura irekiaren arabera tramitaturikoaren artean zetorren hura orduan, eta horregatik badu eraginik hirurtekoen artean ematen den aldaketan.

25 Ikus orrialde oinaldeko 19. oharra.

26 Ikus orrialde oinaldeko 23. oharra.

8. Taula. 2010-2012 eta 2011-2013 denboraldietan Gizarte Ekonomiari eginiko esleipenen zenbatekoen alderaketa						
Esleitutako zenbatekoak						
Gizarte Ekonomiako entitateak	Prozedura motak	Kontratu motak				
		Guztiak %	Obrak %	Hornidurak %	Zerbitzuak %	Bestelakoak %
Gizarte Ekonomia osoari esleituak	Guztiak	110,70	1.016,92	102,99	137,52	98,84
	Irekia	59,42	99.999,99 (*)	11,21	168,97	14,91
	Hitzartua	170,45	334,33	5.789,41 (**)	76,46	105,36
	Murriztua	106,46			106,46	
KOOP-ei esleituak	Guztiak	106,37	1.780,50	102,08	141,55	35,78
	Irekia	33,79	99.999,99 (*)	7,64	167,75	6,73
	Hitzartua	843,87	304,57	9.016,32 (**)	80,66	122,26
	Murriztua	142,50			142,50	
LS-ei esleituak	Guztiak	302,04	359,94	124,00	785,25	
	Irekia	328,84		114,22	1.385,02 (***)	
	Hitzartua	167,84	359,94	550,84	58,73%	
	Murriztua					
Bestelakoei esleituak	Guztiak	108,46		135,48	115,53	105,55
	Irekia	140,41			137,81	4.425,92 (****)
	Hitzartua	101,75		135,48	74,58	104,91
	Murriztua	100,00			100,00	

(*) Ikus antzeko oharra 8. Taulan.

(**) Lehen aipatu dugunez, Esparru Hitzarmen batetik eratortzen den SU/20/13 espedientea prozedura hitzartuaz esleitzearen ondorio dena.

(***) 2010-2012an bi espediente zeuden esleituta guztira 234.812 €-ko zenbatekoarekin, eta 2011-2013an bost espediente daude 3.252.183,70 €-ko zenbatekoarekin.

(****) 2010-2012an esleipen bakarra zegoen 5.400 €-ko zenbatekoarekin, eta 2011-2013an ere bakarra dago esleituta, baina 239.000 €-ko zenbatekoarekin.

Iturria: geuk egina.

Kontratu mota batzuetatik eratortzen diren zenbait berezitasun nabarmentzea besterik ez du egiten 9. Taula honek. Batik bat Gizarte Ekonomian kokatuta dauden entitate mota batzuen jarduerari buruzkoak dira, 9. Taula horren berorren oinaldean agertzen diren oharretan zehaztuta daude eta alde zuzenetik aipatuak ditugun datuei erantzeko ezer funtsezkorik ez dute gehitzen. Koherentzia gorde beharrez eskakizunak eskaintzen ditugu hemen, nagusiki.

V. Ondorioak

Eusko Jaurlaritzaren kontratugintza publikoan Gizarte Ekonomiak duen presentzia handitu egin da, baina oraindik urrutiegi dago entitate horietatik EAEko BPGari egiten zaion ekarpenari legokiokeen mailatik. Hobekuntza horren aztarnak aurki ditzakegu ikuspegi kuantitatibotik begiratuta, esleitutako zenbatekoek kopuru absolututan erakusten dutenagatik, zein kualitatiboki, baldin eta esleipenen zenbatekorik handienak dituzten espedienteen artean Gizarte Ekonomiak lortzen duen presentzia horren erakusletzat hartzen bada behintzat. Hobekuntza hau Eusko Jaurlaritzak bere ondasun eta zerbitzu eskaria murriztu duen denboraldi batean eman dela kontuan hartzen badugu, Gizarte Ekonomiaren lehiakortasunaren hazkundearen aurrean gaudela ere ebatzi genezake.

Halaz eta guztiz, edonola ere oso presentzia alderraia da, esleipen berezietan sentiberatasun eta menpekotasun handiegia duena eta, beraz, goizegi da presentzia iraunkorra duela esateko, eta are gehiago joera jakin batean norabide bat erakusten duela ziurtatzeko.

Aztertu dugun kontratugintza honetan Gizarte Ekonomiak, eta haren baitako entitate mota ezberdinek, duten parte epaitzeko erreferentziatzat hartu dugun BPGarekiko alderaketari eutsiz, esan dezakegu kooperatibak 2010-2012 denboraldian esleitutako zenbatekoen %1,90ren hartzaile izatetik %2,40ren hartzaile izatera igaro direla 2011-2013an. Aldi berean, lan sozietateak, esleitutako zenbatekoen %0,07ren hartzaile zirenak, %0,24ren hartzaile izatera pasa dira; hazkundera nabarmena bada ere, oso txikia izaten jarraitzen du zenbatekoak, bistan denez. Eta, nolahi ere, kasu batekoek zein bestekoek EAEko BPGari egiten dioten ekarpenari legokiokeenetik oso urruti egoten jarraitzen dute, kontratugintza publikoaren balio instrumentala eta irizpide politikoengatik edota Konstituzioaren aginduagatik Gizarte Ekonomiaren sustapenari zor litzaiokeena bezalako beste hausnar-bideetan sartu gabe.

Elkarte eta Fundazioei esleitutako kontratuen presentziak kooperatibei esleitutako kontratuena baino handiago izaten jarraitzen du, nahiz eta 2010-2012 denboraldiko kontratugintzaren azterketan nabarmen zuten bezala, 2011-2013an ere kooperatiba eta lan sozietateen presentzia metatuari gain hartzen dioten, maila apalxeagoan bada ere. Erreferentziatzat darabilgun irizpidearekin, entitate horiek EAEko BPGari egiten dioten ekarpenarekin kontrajartzen den egitatea da hau, eta ezingo da ulertu ez bada aintzakotzat hartzen Elkarte eta Fundazioekin egiten diren kontratu horiek, kasurik gehien-gehienetan prozedura hitzartuaren bitartez tramitatu ohi direnak, benetan, exekutiboak zertzen dituen politiken adierazpenak izan daitezkeela eta, batez ere, zenbait Elkarteri esleitzen zaizkien kontratuen kasuan, gizarte politiken garabideak.

Gizarte Ekonomiaren parte kontratu publikoetan, hauen zenbatekoa handitu ahala murriztuz joaten da, eta joerak iraun egiten du. Aztertu diren bi hiru urtekoen artean, 2010-2012tik 2011-2013ra, joera hori zertxobait apaldu bada ere, nabarmena baino nabarmenagoa da Gizarte Ekonomia desagertu egiten dela esleipen garrantzitsuenen mailara iritsitakoan, esleipenen zenbatekoa garrantziaren neurritzat hartzen badugu behintzat. Ikuspegi horretatik, Obra espedienteen esleipenetan Gizarte Ekonomiako entitateen presentzia ugari izana, dudarik gabe, garrantzitsua da, baina une bateko berezitasun kontua ere izan daiteke.

Kontratugintza arrazionalizatzeko tresna bezala Esparru Hitzarmenak erabiltzeak baldintzatu egiten du prozedura motek esleipen prozesuen baitan izan dezaketen eraginari buruz atera litezkeen ondorioen baliagarritasuna. Halaz eta guztiz ere, eta oraingoz behintzat, nola edo halako baliagarritasuna badu prozedura hitzartua eta lehia librearekiko irekitasun maila zertxobait

murriztea elkarlotzeak. Hain zuzen ere, zio horiexengatik da ezohiko prozedura bat, ia beti ere haren arabera esleitu daitezkeen kopuruak mugatuta dauzkana, eta legeriari eta arautegiari dagokionean oso era neurritsuan baino erabili ezin dena. Bada, hala ere, aburu horiek abiapuntutzat hartuta ere, egia konplutua da Gizarte Ekonomiak tramitazio prozedura horien bitartez jaso dituen esleipenen kopurua murriztu egin dela, nahiz eta kontratugintzan oro har horrelakoak ugaritu egin diren.

VI. Bibliografia

- Avezuela, J. (2005): Los Principios Generales de la Contratación Pública. *Revista Española de la Función Consultiva*, 3, 23-24.
- Barea, J. eta Monzón, J.L. (2007): *Manual para la elaboración de las cuentas satélite de las empresas de la Economía Social: cooperativas y mutuas*. Valencia: CIRIEC – España.
- Barea, J. eta Monzón, J.L. (1995): *Las Cuentas Satélite de la Economía Social en España: una primera aproximación*. Valencia: CIRIEC España.
- Bernal Blay, M.A. (2008): Hacia una contratación pública socialmente responsable: las oportunidades de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. *Revista Aragonesa de Administración Pública, Monográfico X*, 211 – 252.
- Bouchard, M.J. (2010): *Methods and Indicators for Evaluating the Social Economy*. En, Marie J. Bouchard, (ed.), *The Worth of the Social Economy. An International Perspective* (19-34). Bruselas: Peter Lang.
- Bouchard M.J. eta Richez N. (2010): L'évaluation de l'économie sociale, une perspective critique et internationale. *Économie et solidarités*, 38, 2, 5-13.
- Consejo Económico y Social (2013). *Informe Conjunto sobre los Jóvenes y el Empleo en la Región Euromediterránea*. (<http://www.ces.es/documents/10180/864093/DOC022013.pdf>).
- Candela Talavera, J.E. (2011). El fraccionamiento del objeto de los contratos públicos y la fraudulenta utilización del contrato menor. *Auditoría Pública* 53 (85 – 94).
- Enríquez Sancho, R. (2007): *La contratación administrativa en la jurisprudencia del TS*, Madrid: La LEY editorial.
- Gallego Córcoles, I. (2009): Criterios de adjudicación del contrato público y principio de transparencia en la jurisprudencia del TJCE. *Contratación Administrativa Práctica*, 87, 58 – 68.
- García Aréjula, J.M. (2015): *La economía social y su presencia en la contratación pública del Gobierno Vasco*. *Zerbitzuan*, 58.
- García Aréjula, J.M. (2014): *Contratación Pública y Economía Social en Euskadi, 2010-2012*. Argitaratu gabeko Doktorego Tesia.
- García Aréjula, J.M. y Bakaikoa, B. (2015). El papel de la Economía Social en la contratación pública del Gobierno vasco entre 2010 y 2012. *CIRIEC-España Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 82, 207-232.
- Gimeno Feliú, J.M. (2006). *La nueva contratación pública europea y su incidencia en la legislación española. (La necesaria adopción de una nueva ley de contratos públicos y propuestas de reforma)*. Madrid: Civitas.

- Kahlenborn, W., Moser, C., Fridal, J. y Essig, M. (2011): *Strategic Use of Public Procurement in Europe: Final Report to the European Commission*. MARKT/2010/02/C. Berlin: Adelphi.
- Martínez Fons, D. (2009). *Cláusulas sociales, libre competencia y contratación pública*. Fundación Alternativas.
- Martínez Martín, M. (dir.), Castro Núñez, R.B.; Alemán Rodríguez, D.; Guilló Rodríguez, N. y Santero Sánchez, R. (2011). *El impacto socioeconómico de las entidades de economía social. Identificación, medición y valoración de los efectos vinculados a los principios de actuación de las empresas de la economía social*. Madrid: CEPES.
- Medina Arnáiz, T. (2011). *Comprando para asegurar nuestro futuro: La utilización de la contratación pública para la consecución de los objetivos políticos de la Unión Europea*. En J.M. Gimeno Feliú (dir.) y M.A. Bernal Blay (coord.), *Observatorio de Contratos Públicos 2010*, (pp.43 - 104). Cizur Menor: Aranzadi.
- Moran Esparza, J.L. (2008). *La Economía Social Solidaria: Redes Productivas. Contribuciones a la Economía*, (<http://www.eumed.net/ce/2008a/>).
- Moreno Molina, J.A. y Pleite Guadamillas, F. (2009). *La nueva Ley de Contratos del Sector Público. Estudio sistemático*. Madrid: La Ley.
- Organización Internacional del Trabajo (2014). *La Economía Social y Solidaria* (http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_emp/---emp_ent/---coop/documents/publication/wcms_185354.pdf).
- Observatorio Vasco de Economía Social (2015). 75, Buletina.
- Paniagua Zurera, M. (2011). *Las empresas de la economía social. Más allá del comentario a la Ley 5/2011, de economía social*. Madrid: Marcial Pons.
- Red2Red Consultores S.L. (2005). *Fomento de la participación de la Pequeña y Mediana Empresa en los procesos de Contratación Pública*. Madrid: Dirección General de Política de la PYME.
- Rodríguez López, P. (2010). *Los contratos del Sector Público (Comentarios)*. Madrid: Edisofer S.L.
- Ruiz De Castañeda, A. y Bernal Blay, M.A.. (2011). *La contratación pública y el Derecho comunitario. Cuestiones pendientes*. J.M. Gimeno Feliú (dir.) y M.A. Bernal Blay (coord.), *Observatorio de Contratos Públicos 2010*, (23 – 42). Cizur Menor: Aranzadi.
- Technopolis Group (2010). *Evaluation of SMEs' access to public procurement markets in the EU*. Bruselas: Comisión Europea.

10. Enplegu Zentro Bereziak: adibide on bat krisi ekonomikoaren aurrean

*Pablo Moratalla Santamaría*¹

I. Sarrera. Egoeren alderaketa Enplegu Berezian. Estatu maila/Euskadi maila

Ondorengo txosten honetan, Euskal Gizarte Ekonomiaren egoerari buruz GEEBek egin duen Txostena abiapuntutzat hartuz, Euskadin gizarte ekimeneko enplegu bereziaren sektorearen datu eta estatistika funtsezkoen azterketa gehigarri bat egiten ahaleginduko gara EHLABEtik. Horretarako, GEEBen Txostenak dituen atal berezituak jarraituz, aipatu datu eta estatistika horiek ondorengo puntu hauen harira hausnartuko ditugu:

- Egoeren alderaketa Enplegu Berezian. Estatu maila eta Euskadi maila.
- EHLABEko gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Berezien tipologia.
- EHLABEko entitateetako enpleguaren bilakaera (2009-2013).
- EHLABEko entitateen datu ekonomikoen azterketa (2009-2013 denboraldia).

Estatu mailan

2007an krisialdia hasi zenez geroztik ahalmen urritasuna duten pertsonen jende-taldeari dagozkion enpleguratzeko datuen eta adierazleen bilakaera aztertzen badugu, argi eta garbi esan dezakegu jende-talde horren egoera soziolaborala nabarmen narriatu dela azken urte hauetan: 2009az geroztik iraunkor mantentzen da aktibitate tasa baxua (%36,6) biztanlerian oro har ematen dena (%77) baino askoz baxuagoa; enpleguratzeko tasa ere etengabe murrizten ari da (%24,5); langabezia tasa bikoiztu egin da azken bost urte hauetan, eta %33,1ekoa izatera iritsi da; ahalmen urritasuna duten pertsona langabetuak gero eta gehiago dira; etab.

Argitara eman diren azken datuetan agertzen denak, hau da, 2013an ahalmen urritasuna duten pertsonen kontratazioa handitu egin dela, berretsiko luke joera aldaketa bat ematen ari dela jende-talde honen enpleguari dagokionean. Baina datu horiek sakonago behatzen baditugu, ikusten ahal dugu egin diren 10 kontratu berrietatik bakarra izan dela mugagabekoa. Beraz, kontratazioen kopurua handitu bada ere, aldi baterakotasuna eta kontratazioaren errotazioa ere handitzen ari dira.

Krisialdiaren urte hauetan Estatu mailan ahalmen urritasuna duten pertsonentzat suntsitu den enplegurik gehien-gehiena enpresa arruntetan zetzan enplegua izan da; aldiz, enplegu babestuaren sektoreak, enpleguaren gehien-gehiena mantentzea ez ezik lan merkatu arruntetik kanporatuak izan ondoren bere baitako Enplegu Zentro Bereziara bideratu diren pertsona asko jasotzea lortu

1 EHLABE – Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea-ko Koordinatzaile.

du. Horregatik, 2013an egin ziren kontratuen %71, EBZetan eginiko kontratuak izan ziren; horrek erakusten du sektore honek krisialdiko urteetan eduki duen eragin funtsezkoa ahalmen urritasuna dutenen jende – taldea gizarteratu eta laneratzeko ezinbesteko tresnen artean. (Iturria: Informe CERO. Odismet).

Espanian argitaratu diren azken azterketek (Presente y futuro de los Centros Especiales de Empleo, KPMG, 2013) aditzera ematen dutenez, enplegu babestuaren sektore honen baitan 70.000 pertsona baino gehiago zeuden, 1.918 EZBtan batuta; horietatik ia 65.000k, hau da, Espainiako biztanleria aktiboaren %0,4k, nolabaiteko urritasuna zuen. Gainera, azken zortzi urte hauetan pairatutako krisialdiaren gainera, bere baitako enplegua mantentzea ez ezik bere EZBetan urritasuna duten lehen baino pertsona gehiago aritzea lortu du sektoreak.

Hori guztia, lehen esan dugun bezala, urritasuna duten pertsonak enpleguratzeko eta enpleguan aktibatzea benetan zaila egiten duen testuinguru batean. Krisi ekonomikoaren boladak nekaldi zail bati aurre egin beharra erakarriko dio enplegu babestuaren sektore espainiarrari (lehendakik jada azpigaratuta bazegoen inguruko beste hainbat herrialdetakoren aldean), denboraldi horretan ohikoak izan baitira diru-laguntzen eta antzekoen kobrantzan atzerapenak, Administrazio Publikoari eginiko zerbitzuen edota saldutako ondasunen ordaina jasotzeko zailtasunak, bezeroen galera eta merkatu murrizketak, e.a.

2010ean onartu zen Gizarte Ekonomiaren Legean (5/2010 Legean) EZB guztiak Gizarte Ekonomiako kideak direla eskubide osoz esaten bada ere, egia konplutua da egitate multzo oso anitza biltzen dela izen horren pean, interes, helburu eta xede oso ezberdinak daudelako batzuen eta besteen artean. Hainbatetan, gainera, gizarte ekonomia beraren oinarriko irizpideen (pertsonek eta helburu sozialek lehentasuna dutela kapitalaren gainera; mozkinak helburu sozialerako erabili behar direla; barne eta gizartearekiko solidaritatea; etab.) aurkakoak ere badira, araudiaren izpiritua argiro urratzen dutelako eta legetasunari iskin egiten dioten EZB korporazio handiak sustatzen direlako.


Ekimen sozialeko EZBak. Ekimen sozialeko eta irabazi asmorik gabeko Enplegu Zentro Bereziak dira Zentroaren jabetasuna irabazi asmorik gabeko entitate publiko zein pribatuena dutenak, edo beren irabazkinak entitatearen xede sozialean berrinbertituko dituzten entitate publiko nahiz pribatuena zeinen kapital sozialaren akzioen gehiengoa izanen baita, zuzenean edo zeharka, irabazi asmorik gabeko entitateena edota ahalmen urritasuna duten pertsonen gehiengoa duten gizarte ekonomiako entitateena. EZK hauek dira krisialdi honetan lanpostuak mantendu ez ezik ugaltzea lortu dutenak, batez ere ahalmen urritasuna dutenen artean gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten artean (adimen urritasuna, gaixotasun mentala, garuneko paralisia, %65ekoa baino gehiagoko urritasun fisikoa edo sentsoriala dutenak, e.a.).

Euskadi mailan

Ondorengo ataletan sakonago aztertuko ditugun arren enplegu babestuak Euskadin duen egitatea eta haren baitako datuak eta emaitzak, interesgarria iruditzen zaigu alde aurretik, flash modura, Euskadi eta Estatuko gainerakoaren artean alderaketa bat egitea urritasuna duten pertsonen enpleguratzeari buruz eta enplegu babestuari buruz:


- Euskadi da, Nafarroarekin batera, Estatu osoan langabezia tasarik baxuena duen erkidegoa urritasuna duten pertsonen atalean

1. Grafikoa. Desgaitasuna duten eta enplegu eskatzaileak diren pertsonen kopurua desgaitasuna duten pertsona okupatu bakoitzeko




- Euskadi aitzindari da urritasuna duten pertsonen enpleguari dagokionean


2. Grafikoa. Enplegu Zentro Bereziak desgaitasuna duten pertsonak, desgaitasuna duten pertsona guztiekin alderatuz




- Euskadik, Estatu mailako enplegu berezi guztiaren %12 osatzen du (Espainiako biztanleria guztiaren %6-7 besterik ez duela gogoratu behar da)



- Euskadi aitzindari da gizarteratzeko zailtasunik handieneko urritasunak dituzten enpleguari dagokionean ere



- Euskadi eta Nafarroa dira ekimen sozialeko EZBek protagonismo handiena duten Autonomia Erkidegoak



II. Entitateak/entitate motak

Idazlan honen sarreran eskaintako datuetan ikusi ahal izan dugunez, EAE aitzindari da urritasuna duten pertsonen enpleguratzeko arloan, oraindik ibilbide luzea geratzen bada ere jende-talde horren lan egoera (aktibitate tasa edo enplegu tasari dagokionean, esaterako) hobetu eta oro har biztanleriak duenarekin parekatzeko.

Enplegu Zentro Berezien enpleguari begiratzen badiogu zehazki, ikus dezakegu EAE lehena dela enplegu babestuari dagokionean ere (Estatu osokoaren %12 bereganatzen duelarik), zailtasun bereziko urritasunak dituztenen jende-taldearentzat aukerak sortzeko orduan eta ekimen sozialeko EZBen alorrean.

Enplegu babestuak Euskadin honenbesteko garapena edukitzean zergatiak era askotarikoak dira: enpresaritzaren eta industriaren kultura bat badago, asoziazionismoaren eta herri administrazio ezberdinen laguntasan baldintzagabea lortu du, eta ekimenak elkartu egin dira. Azken zio honen inguruan esan behar da, Estatuko beste zenbait lekutan gertatu denaren kontrara, Euskadin batuketa eta elkarganatze bat eman dela (eta ematen ari dela) EHLABE Elkartearen inguruan.

1987an sortu zenetik, Elkarte honek lortu du hiru lurralde historikoetan diharduten ekimen sozial edota publikoko ia EZB guztiak bere gerizpean elkarganatzea. Horregatik, EHLABEren baitan elkartzen da gaur egun Euskadiko enplegu babestuaren alorreko ekimen guztien ia %90. Errealitatean, horrek esan nahi du 11 entitate batzen dituela, denen artean 100 lantegi baino gehiago eta urritasuna duten 7.000 pertsona inguru enplegudun dituztelarik, sektore osoaren laguntzarako

dauden beste hainbat enpleguratzeko zerbitzu (orientabidea, prestakuntza, bitartekaritza, laguntzadun enplegua) kudeatzeaz gain.

EHLABEn bazkideak dauden entitateen era juridikoak ezberdinak badira ere (badira merkataritza sozietateak, fundazioak, lan sozietateak, e.a.) denak dira ekimen sozialetik edota ekimen publikotik sortutako entitateak, eta denek onartzen dituzte gizarte ekonomiaren oinarri guzti-guztiak: pertsonak eta xede sozialak lehentasuna dutela kapitalaren gaintik, erakunde parte hartzaileak dira, mozkinak eta irabazkinak xede sozialera bideratzen dira, kalitatezko enplegua sortzen ahalegintzen dira, etab.

Laburbilduz, enplegu babestuko sektore bat da, ekimen sozialekoa, sendoa, kohesioduna, EHLABEren inguruan bateratua eta, beste hainbat eragile ahaltsuren (Elkarteen, Herri Administrazioen,...) laguntzarekin, ahalmen urritasuna duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen lagunduko duten ekimen eta proiektu ezberdinak sustatzen ari dena, batez ere helburu horretarako zailtasunik handienak dituzten jende – taldeak aintzakotzat hartuz.

III. Enplegua

GEEB – Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren “Euskal Gizarte Ekonomiaren bilakaera 2009-2013” txostenean esaten den bezala, enplegu babestuaren sektorearen bilakaera Euskadin, eta zehazkiago EHLABEn elkartzen diren EZBena, baikorra izan da; izan ere ekonomiaren krisirik latzeneko denboraldi horretan EHLABEko entitateak gai izan baitira ez soilik urritasuna duten pertsonentzako enplegua mantentzeko, baita ere lan aukera berriak sortzeko jende-talde horrentzat. Une zehatz batzuetan (2012 urtean) aldi baterako enpleguaren galera batzuk pairatu izan arren, EHLABEko EZBen enplegu aldaketa positiboa izan da oro bat, urritasun mota guztietako jendearentzat lanpostuak gehituz. Azpimarragarria da zailtasun handienak erakartzen dituzten urritasunak (urritasun intelektualak, gaixotasun mentalak, e.a.) dituztenentzako enpleguek izan duten hazkundera. Emakumezko eta gizonezkoen arteko enpleguen alderaketan ere hobekuntza sumatzen da, eta baita ere egonkortasun tasari dagokionean.

EHLABEk 2014 urterako egin duen aurrerapenak berretsi egiten du esana dugun guztia, hau da, urritasuna duten pertsonentzako enplegua mantendu ez ezik hazi egiten dela, 2013ko aldean 403 lanpostu berri sortzen direlarik.

1. Taula							
	2013		2014		Enplegu garbia		
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Araba	289	404	286	410	-3	6	3
Bizkaia	662	1495	708	1620	46	125	171
Gipuzkoa	1.212	2.081	1.297	2.225	85	144	229
Guztira	2.163	3.980	2.291	4.255	128	275	403

Gainera, 403 enplegu berri horietatik 151 (%37, alegia) zailtasun bereziak erakartzen dituzten urritasunak dituzten pertsonentzat dira, urritasun intelektuala edo gaixotasuna mentala dutenentzat batik bat.

Horrela, egiaztatu egiten da gure herriko enplegurako hainbeste ondorio txar erakarri dituen krisialdi latzeneko urte hauetan sektoreak erakutsi duen sendotasuna. Gizarte ekonomiatik at dauden hainbat enpresetan ez bezala, jardueraren beherakada itzela (mozkinak zuzenki hondoratu dituen), zerbitzuen sektorean ez ezik industrian ere nozitu den eskarien galera, edota Administrazio Publikoetatik jasotako diru – laguntzetako batzuen murrizketa, ez dira EZBetan urritasuna duten pertsonentzako enplegua suntsitzeko aitzakia bihurtu. Alderantziz, ia 7.000 pertsonen enpleguari eusteko egin den esfortzuaz gaindi, gai izan gara enplegu aztarnategi berriak kausitzeko eta egun ditugun jardun esparruetan ahaleginak biderkatzeko, beti ere jende-talde horrentzat lan aukera gehiago sortzeko helburuarekin.

Krisialdiko urte hauek, gainera, jende-talde horren enpleguratzearrekin harreman estua duten hainbat atal eta aldagai hobetzeko lehentasunak ezarri eta laguntza emateko erabili ditugu: enplegurako prestakuntza prozesuak hobetu ditugu, lanbide orientazioan espezializaturiko unitateak sendotu ditugu, Laguntzadun Enpleguko unitateak ere bai, zahartzaro aktiborako proiektuak bultzatu ditugu, eta beste asko.

Laburbilduz, egindako lanak, enplegu datuen bilakaeran argi ikusten denak, ematen duen berrespenarekin, gizarte ekimeneko enplegu babestuaren sektoreak urritasuna duten pertsonen enplegua, bai EZBetan eta baita enplegu arruntean ere, suspertzen aitzindari izaten jarraitu behar du, eta jende-talde horrentzat, eta batez ere laneratzeko zailtasunik handienak dituztenentzat, kalitatezko lan aukera berriak sortzeko ahaleginean jarraitu behar du. Halaber, gainerako eragileekin (Lanbide-EEZ, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta abarrekin) lankidetzan eta elkartasunean, EHLABEkin eta honen baitako entitateekin jada dituzten enpleguratzeko zerbitzuen kudeaketa doitzen saiatu behar dugu.

IV. Datu ekonomikoak

EHLABEko Zentro Berezi guztien galera eta irabazkinen kontuak oro har aztertuz gero, oso argi ikusten da txosten honetan hasiera-hasieratik esana geratu dena, alegia, krisialdi ekonomikoak gure EZBetan izan duen eragin bortitza. Oro bat, entitateetan azken urte hauetan joera ezkorra eduki duten emaitza orokorretan islaturik geratu da egitate hori.

Krisialdiaren lehen urteetan (2007tik 2011ra bitartean) lortzen diren zerga ondorengo emaitzak baikorrak badira ere (heine handi batean, Administrazio Publikoaren aldetik iristen ziren diru-laguntzek izan zuten gorakada puntualagatik), ondorengo urteetako joera, 2013ra artean behintzat, ezkorra da, jarduerak eta eskariak beherakada itzelak pairatzen dituztelako, eta arestian aipatu ditugun diru-laguntzak eta bestelako laguntzak ere murriztu egiten direlako. Halaz eta guztiz ere, EHLABEko entitateek ahalmen urritasuna duten pertsonen enplegua lehenetsi eta emaitzen bilaketaren gainetik ipini dute. Joera ezkor horretan badute zerikusia, baita ere, gure EZBen aurreikuspenak eta amortizazioak ugartu beharrak, hala nola azken urte hauetako finantza emaitzek ere.

Laburbilduz, Euskadin badugu ekimen sozialeko enplegu bereziaren sektore indartsu eta sendoa, jardueran eta emaitzetan beherakadak pairatu dituen arren enplegu egonkorrari eusten ez ezik zailtasun handienak dituzten jende-taldeentzat lan aukera berriak sortzen jakin duena. Horrela bada, 2014 urteko datuen aurrerapenak aditzera ematen duenez, eta honelakoetan derrigorrezkoa den zuhurtzia guztiarekin esanda, iruditzen zaigu krisialdiaren arorik gaiztoena gaintu dela, gure entitateen datu ekonomikoak hobera bidean daudela, eta jarduera eta ekoizpena berrindartu ahala berriro gorabidean jartzear direla.

V. Ondorioak

Gure EZBetako hainbatek ahalmen urritasuna duten pertsonentzako jarduera iraunkor, errentagarri eta enplegu sortzaileak sortzen eta garatzen berrogei urtetik gora daramatzaten arren, 2010 urtean 5/2010 Legea, Gizarte Ekonomiari buruzkoa, onartu zen arte ez ginen harez geroztik garena: gizarte ekonomiaren alor propio eta berezitua, eskubide osoz. Euskadin, gizarte ekonomiako beste alor nagusiekin (kooperatiba, lan sozietate, gizarteratze-laneratze enpresa, ekonomia solidarioa eta abarrek) batera pertsona, hau da, EAeko enplegu orokorraren %8,26, baino gehiago batzen duen sektorea osatzen dugu, ekonomia iraunkorra eta gizarte kohesionatuagoa lortzeko helburuaren harian oinarritzko irizpideak partekatuz.

EHLABE aitzindaritzat duen ekimen sozialeko enplegu babestuaren sektore honetatik helburu horri begira eragin eta ahalegindu beharra dugu, ahalmen ezberdinak dituzten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea hobetzeari lehentasuna emanaz, geure xedea horretan datzalako.

Zehazkiago, epe motz eta ertainera gure sektoreak dituen erronka nagusietako batzuk honako hauek izan daitezke:

- Ahalmen urritasuna duten pertsonen jarduera tasa handitzea eta langabezia tasa murriztea.
- Euskadin araudi berezitua onartu eta indarrean ipintzea ahalmen urritasuna duten pertsonentzat enplegu politika aktiboak sustatzeko.
- Lanbide-EEZrekin lankidetzan, enpleguratzeko hainbat egitasmo eta zerbitzu espezializatu sustatu eta abiaraztea.
- Ekimen sozialetik bideratutako kudeaketa ereduak lehenestea eta horren etekinak ahalmen urritasuna duten pertsonen enplegurako zerbitzu berrien sorreran eta kalitate hobekuntzak garatzean erabili ahal izatea.
- EZBetatik enplegu arruntera igarobideak sustatzea, eta enpresen aldetik erreserba kuotak eta neurri alternatiboak eduki beharra benetan betearaztea.
- Ahalmen urritasuna duten langileen zahartzaroari eta andeatzeari buruzko ikerlanak.
- Ahalmen urritasuna duten pertsonentzat lanbide publikoak bultzatzea.
- Aukera berdintasuneko politikak.
- ...

11. Euskal Gizarte Ekonomiako entitateei buruzko datuak lortzeko zailtasunak eta Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokitik proposatzen diren konponbideak

*Ignacio Bretos Fernández*¹

I. Gizarte Ekonomiaren estatistika ofizialak eduki beharra

Chaves, et al. (2013)-k dioten bezala, Gizarte Ekonomia eta haren betekizun sozio – ekonomikoa ingurumen politikoaren, akademikoaren eta gizarte zibil antolatuaren ikuspegi sozialetan benebenetan txertatzeko, hiru erronka handiri egin beharko zaie aurre:

1. Gizarte Ekonomiaren eta haren baitako entitateen ezaugarriak zein diren kontzeptualizatzea, mugatzea eta ezagutzearen erronka.
2. Gizarte Ekonomiaren ikusgaitasun soziala eta erakundeengandiko begiramendua erdiestearen erronka, dela legedian erakundetze mailaren bitartez lortua, dela Gizarte Ekonomiaz arduratuko diren lege, sustapen politika edota erakunde berezituen bitartez lortua.
3. Gizarte Ekonomia zenbatzearen erronka eta, bide batez, egitate hau osatzen duten entitateen eragin soziala eta ekonomikoa neurtu ahal izatea.

Estatu mailan 5/2011 Legea, Gizarte Ekonomiari buruzkoa, onartu zelarik, esparru akademikotik kanpoko instituzioen baitako erantzun bat ematen bide zitzaion Gizarte Ekonomiaren kontzeptualizazioaren erronkari eta sektore hori osatzen duten entitateen mugaketari (Etxezarreta eta Morandeira, 2012). Halaber, Administrazio Publikoek haren ezarpenean egindako hutsegiteak (Pérez de Uralde, 2014, 2012) hor badaude ere, erakunde mailan Gizarte Ekonomiari nolabaiteko finkamendua ematen zaio eta neurri batean haren ikusgaitasun soziala indartu egiten da.

Zalantzarik gabe, aipatutako erronketako hirugarrena, Gizarte Ekonomia zenbatzea alegia, ezinbesteko baldintza da aurreko beste erronka guztiei behar bezala aurre egiteko. Aipatu Legeak berak, bere lehen Xedapen Gehigarrian, esaten du entitate horiei eta haien ordezkari diren erakundeek buruzko informazio estatistikoa, aldian aldiro eguneratua eta Legearen 6. artikuluan aurreikusten den katalogoko sailkapenari egokitua, bermatu ahal izateko beharrezko diren neurriak hartuko direla. Hala ere, puntu honi dagokionean, ez betetze deigarria ematen ari da.

Ikuspegi honetan, sektorearen egitatea kuantitatiboki ezagutzeak eta, bidenabar, hark lurraldeen garapenerako eta komunitateen ongizaterako egiten duen ekarpen onuragarria zenbatzeak, Gizarte Ekonomiaren instituzionalizatzea eta Administrazio Publikoen sustapena lortu ahal izaten lagun dezake (Chaves, 2007), eta baita ere gizarteak oro har errealitate horren ezagutza sakonagoa eduki dezan lagungarri izan daiteke. Gizarte Ekonomiako entitateak zuzen zenbatu eta balioetsi

¹ Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokitiko (OVES/GEEB). GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.


ahal izateko, behar – beharrezkoa da eskura izatea ofizialtasunez bermatutako datu estatistikoak, zehatzak, hau da, egiazkoak eta fidagarriak; osoak, hots, Gizarte Ekonomiaren ikuspegi ezberdinak (entitateen kopurua, berauek batzen duten enplegua eta ekonomia mailan egiten duten ekarpena), denboraldi baliokideetan jasoko dituztenak; homogeenak, alegia, Gizarte Ekonomiako entitate mota ezberdinen kasuan baliokideak eta elkarren artean konparagarriak izango direnak; eta iraunkorrak, hau da, bata bestearen ondorengo denboraldiei buruzko datuak iraunkorki eskainiko dituztenak.

Esku artean dugun “Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa” azterlan honetarako egindako ikerketa estatistikoaren harira, ezaugarri horiek edukiko dituzten datu ofizialak eskuratzeko hainbat zailtasunekin egin dugu topo. Bidenabar, artikulua honen helburua da euskal Gizarte Ekonomiaren sektorea osatzen duten entitateetako bakoitzari buruzko datu sozioekonomikoak eskuratu ahal izateko Euskadiko Autonomia Erkidegoan dauden eragozpen zehatzak ezagutzera ematea. Aldi berean, Euskadin sektorea osatzen duten entitateen kopurua, batzen duten enplegua eta egiten duten ekarpen ekonomikoa zuzen neurtu eta balioesteko OVES/GEEBen hartu ditugun neurriak ere aurkezten dira.

II. Gizarte Ekonomiaren sakabanamendua euskal Administrazio Publikoan

Gizarte Ekonomiaren sektorean barneratzen diren entitateei buruz OVES/GEEBen onetsia dugun ikuspegitik abiatuta, bada Euskadiko Autonomia Erkidegoan lehen eragozpen handi bat euskal Gizarte Ekonomia horri buruz datu estatistiko ofizialak eskuratu ahal izateko: sektore hori osatzen duten entitate mota ezberdinak erregistratu eta haien jarraipena egiteko funtzioak eta ardurak Eusko Jaurlaritzako eta, baita ere, haren erakunde autonomoetako hainbat instantzia eta sail ezberdinetan sakabanatuta aurkitzen direla.

Era berean, ohikoa da Gizarte Ekonomiako entitate ezberdinekin zerikusia duten jarduerak sail eta instantzia publiko ezberdinen eskuetan egotea. Adibidetzat har dezakegu Gizarteratze-Laneratze Enpresen eta Enplegu Zentro Berezien kasua: alde batetik, LANBIDEko Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak zehazten ditu ahalmen urritasunak dituzten edota baztertze arriskuan dauden pertsonak gizarteratze-laneratzeko politika ezberdinak; eta beste aldetik, Enplegu eta Gizarte Arazoetako Sailak sustatzen ditu horrelako entitateak, hainbat neurriren bitartez, diru-laguntzak barne. Gizarte Ekonomiako beste entitate batzuen kasuan ere oso ohikoa da beraiekin zerikusia duten ardurak eta neurriak erakunde publiko ezberdinen eskuetan izatea.



Iturria: Bretos (2015).

(*) LANBIDE Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, Enplegu eta Gizarte Arazoetako Sailari atxikia.

Oharra: Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze-Laneratze Enpresak bi sail ezberdinen ardurapean daudela iradokitzen da soilik, baina eman daitezke beste kasu eta egoera batzuk zeinetan sail ezberdinak arduratuko bailirateke Gizarte Ekonomiako entitate mota batekin zerikusia duten jardueraz ezberdinez, adibidez sustapen politikez eta diru-laguntzez.

Bestalde, azpimarragarria da Gizarte Ekonomiako alor guztiek ez dutela ordezkari entitate edo elkarte baliokiderik. Euskadin badira halakoak Kooperatibentzat (KonfeKoop), Lan Sozietateentzat (ASLE), Enplegu Zentro Berezientzat (EHLABE), Gizarteratze-Laneratze Enpresentzat (GIZATEA), Arrantzale Anaidientzat (Euskal Arrantzale Anaidien Federazio Nazionala) eta Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateentzat (Euskadiko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateen Federazioa).

Bazkide dituzten entitateei buruzko informazioa modu zorrotz eta jarraituan bildu ohi dute ordezkari entitate hauek. Baina, batuko dituen ordezkari entitate ez duten alorrei buruz eskura daitekeen informazioa askoz murriztagoa da, eta horixe da batez ere Elkarteen eta Fundazioen esparruan gertatzen dena.

Beraz, esku artean dugun azterlan hau burutu ahal izateko, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokitik informazio iturri ezberdinetara jo behar izan du eskura zituen datu ofizialak osatzeko. Datu sozio-laboral eta ekonomiko zehatzak eta fidagarriak eduki ahal izatea da helburua, haietatik abiatuz euskal Gizarte Ekonomiaren egitatearen ahalik analisi osoena eta zorrotzena burutu ahal izateko. OVES/GEEBek erabili dituen informazio iturri nagusien artean aipagarrienak lirateke Eusko Jaurlaritzaren biurteko txosten ezberdinak Gizarte Ekonomiari buruz, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren estatistikak, hiru Foru Ogasunek eskaintzen duten informazioa, eta ordezkari entitateetatik eta entitateetatik bertatik lortu ahal izan ditugun datu ezberdinak.

III. Euskal Gizarte Ekonomiaren datu ofizialak eskuratzeko zailtasunak eta konponbideak

Jarraian, Euskadiko Gizarte Ekonomiako esparru zehaztutako bakoitzari buruz informazioa eskuratu ahal izateko aurkitzen diren zailtasun espezifikoak aletzen dira, eta baita ere entitate kopuruari, enpleguari eta informazio ekonomikoari buruzko datu estatistikoak lortu ahal izateko OVES/GEEBek erabili ditugun soluziobideak zehaztuko ditugu.

Kooperatibak eta Lan Sozietateak

Enplegu eta Gizarte Arazoetako Sailaren barnean dagoen Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza da Euskadiko Kooperatiben Erregistroa zuzendu eta kudeatzeko ardura duen erakundea. Baina, hala ere, euskal kooperatiben %60 ingururen identifikazio eguneratu eta zehatza besterik ez du barneratzen du gaur egun delako erregistro horrek. Lan Sozietateei dagokienean, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren ardura da Lan Sozietateen Legean ezartzen diren baldintzen betetzea eta haiei “Lan Sozietate” tasuna eman edo kentzea, baina ez da arduratzen sozietate horien erregistroaz.

Beraz, honelako entitateei buruzko informazio osorik ez dagoenez, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak bere datu-base publikoetan Kooperatiben eta Lan Sozietateen entitate kopuruari eta hauen enpleguari buruz eskaintzen dituen estatistikez baliatu gara.

Edonola ere, ikuspegi kualitatibotik, enpleguari dagokionean soilik, azterlana osatu ahal izan da Eusko Jaurlaritzak Gizarte Ekonomiari buruz argitaratzen dituen txostenetatik hartutako datuekin, hauekin zilegi baitalurreldekako eta sektorekako azterketa ere egitea, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriotik jasotako informazioarekin ezinezkoa dena.

Informazio ekonomikoari dagokionean, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateen Galera eta Irabazkinen Kontuen datuak soilik 2011 artekoak eskaintzen ditu; eta azken urte horretakoak gainera osatu gabe daude. Hala ere, Behatokian euskal hiru Foru Ogasunen urteroko datuak jaso ahal izan ditugu, kooperatibei buruzkoak besterik ez badira ere. Lan Sozietateei buruzko datuak, hemen ere, Gizarte Ekonomiari buruz Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen txostenetatik atera ditugu, txosten horiek bi urtean behineko maiztasuna soilik edukitzearen arazoari aurre egin behar izan badiogu ere.

Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze-Laneratze Enpresak

Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze-Laneratze Enpresak LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ardurapean aurkitzen dira. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Arazoetako Sailari atxikita dagoen erakunde autonomo honetan ez dago, Gizarte Ekonomiako bi alor hauei dagokienean, erregistro zehatz eta jakinik, ezta ere haien jarraipen digitalizatu, automatizatu eta eguneraturik.

Halaz eta guztiz ere, bi mota horietako entitateak, urteroko diru-laguntza eskatzerakoan, beharturik daude beren memoriak aurkeztera; nolana ere, Gizarteratze-Laneratze Enpresak, jasotzen dituzten diru-laguntzen ezaugarri bereziak direla eta, ez daude memoria urtero aurkeztera behartuta eta normalean bi urtean behin egin ohi dute hori. LANBIDEra bertara joanda aztertu du informazio hori Behatokiak, baina kausitu du datuak ez direla osoak eta, gainera, eragozpen horri gehitu beharrekoa dela datuen egoera, ez baitaude digitalizatua ez eta ordenatuta (paperezko euskarrian jasota baizik).

Bide batez, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratze-Laneratze Enpresei buruzko informazio sozioekonomikoa haien ordezkaritza erakundeek, EHLABE eta GIZATEAri, eskatu zaie. Ordezkaritza erakunde horietako ezeinek alorreko entitate guzti-guztiak ordezkatzeko ez dituen arren, esan behar da biek dutela ordezkaritza maila oso handia. Alde batetik, Euskadiko Autonomia Erkidegoko enplegu bereziaren osotasunaren %90 baino gehixeago batzen dute EHLABEko bazkide diren entitateen artean. Bestetik, GIZATEA bazkideak dauden entitateak Euskadiko Autonomia Erkidegoan erregistraturik dauden Gizarteratze-Laneratze Enpresen %95 baino gehiago dira.

Arrantzale Anaidiak eta Eraldaketako Nekazaritza Sozietateak

Arrantzale Anaidiak eta Eraldaketako Nekazaritza Sozietateak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren ardurapean aurkitzen dira, nahiz eta lehendabizikoan erregistroa eta kontrola Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren eginkizuna den eta bigarrenen erregistroa berriz Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren ardurapekoa. Jaurlaritzaren bi zuzendaritza horietako bakoitzari zegozkion datuak formalki eskatu arren inolako erantzunik jaso ez denez, Eusko Jaurlaritzak berak Gizarte Ekonomiari buruz argitaratzen dituen biurteko txostenetan jasotzen den informazioa erabili da.

Hala ere, berriki Arrantzale Anaidien Euskal Federazio Nazionala sortu izanak erraztu dezake etorkizunean euskal anaidi horiei buruzko informazioa eskuratu ahal izatea.

Elkarteak eta Fundazioak

Herri Administrazio eta Justizia Sailaren barnean dagoen Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza da Elkarte eta Fundazioen

erregistroaz arduratzen dena; erregistroa publikoa da, OpenDataren bitartez. Hala ere, erregistro hori ez dago erabat eguneratuta. Hain zuzen ere, jasotzen duen lagina seguruenik gehiegizkoa izan daiteke, izan ere bertan agertzen diren entitate askok jada jarduerarik ez duela ematen baitu, edota jarduera ekonomikorik behintzat ez duela. Gainera ez dago inolako argibiderik Gizarte Ekonomiako sektorearen partaide izango liratekeenak bereizteko. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiari buruzko txostenetan jasotzen diren datuek Onura Publikoko² Elkarteak eta Fundazioak hartzen dituzte aintzakotzat soil-soilik, eta horiek ez dira euskal Gizarte Ekonomian diharduten Elkarte eta Fundazio guztiak.

Honela bada ez dago gaur egun euskal Gizarte Ekonomiaren sektorean barneratuta egon litezkeen Elkarte eta Fundazioak zenbatuko dituen iturri ofizialik, eta ezta ere ez dago horrelako entitateak bateratu eta haiei dagozkien datuak eskain ditzakeen ordezkaritza erakunderik. Bidenabar, lehen aipatu ditugun informazio iturri ezberdin horiek erabili dira Behatokitik urte ezberdinetarako, kasuan kasuko eskuragarritasuna eta egokitasuna aintzakotzat hartuz.

BASE – Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateak

La Ogasuna eta Finantza Sailaren barnean kokatzen den Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza arduratzen da, beste eginkizun batzuen artean, BASEen Erregistroa kudeatzeaz eta entitate horiek Autonomia Erkidegoko Administrazioari igorri behar dioten dokumentazio ekonomiko-finantzarioaren zaintzaz.

Azpimarratzekoa da 2004az geroztik ez direla gehiago argitara eman ordura arte Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak argitaratzen zituen aldizkako txostenak. Gabezia horren aurrean, sektoreko ordezkaritza duen entitateak, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateen Federazioak, eskainitako estatistikak eta informazioa erabili dira.

Beraz, federazio horretako bazkide diren entitateei dagozkien datuak bakarrik erabiltzen ahal dira; nolana ere, esan dezakegu Euskadiko BASEen sektorearen osotasunaren ordezkaritza sendoa duela federazio horrek. Adibidez, federazioaren kide ziren BASEak Euskadiko BASE guztien ia %50 ziren eta BASE horietan garrantzitsuenak Federazioan bazkide-tuta daude, izan ere Euskadio BASEen guztizko ondarearen %98 pasatxo batzen baitute haren bazkideen artean.

Kreditu Kooperatibak

2012an, ordura arte Euskadin ziharduten bi kreditu kooperatibek, Euskadiko Kutxa/Caja Laboral Popular Kreditu Sozietate Kooperatiboak eta Ipar-Kutxa Rural Kreditu Sozietate Kooperatiboak bat egin zuten, egungo Laboral Kutxa entitateari sorrera emanez. Entitateetako bakoitzak berean burututako Kontu Ikuskaritza Txostenetatik atera da kreditu kooperatibei buruzko informazioa.

2 1/2002 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, Elkartze Eskubidea arautzen duenak, bere 32. artikuluan zehazten dituen baldintzen arabera Onuragarritasun Publikoa aitortzen dien adierazpena lortu duten elkarteak dira Onura Publikoko Elkarteak.

EBE – Elkarrekiko Berme Elkartek

Lehen esan dugun bezala, Euskadin bada elkarrekiko berme elkarte bat, “Oinarri, Gizarte Ekonomiarako Elkarrekiko Berme Elkartea, E.B.E.”, OVES/GEEBen ikuspegitik Gizarte Ekonomiaren barnean dagoena. Gaur egun Euskadiko enpresa txiki eta ertain guztiakin lan egiten badu ere, historikoki Gizarte Ekonomiako enpresen jardueran espezializaturiko entitatea izan da. 1996an sortu zenean, sektore honetan soilik jarduteko asmoarekin jaio zen, baina 2001ean enpresa guztietara zabaldu zuen bere jarduera esparrua. Edonola ere, jarduera horren %60 Gizarte Ekonomiako enpresen inguruan burutzen du gaur egun ere.

Kasu honetan txostena egiteko erabilitako datuak Oinarri E.B.E. berarengandik lortu dira, bere urteroko memoriatan argitaratzen baititu.

IV. Ondorioak

Euskal Gizarte Ekonomiako entitateetako bakoitzari buruzko datu sozio-ekonomiko ofizialak lortzeko kausitu ahal izan diren arazo zehatzen ondorioz, lau multzo handitan bana ditzakegu topatu ditugun zailtasunak:

- Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate guztien estatistika ofizialak argitara ditzakeen agerkari periodikorik ez dagoela.
- Gizarte Ekonomiako entitateetako batzuen datu ofizialetara iristeko aukerarik ez dagoela. Hainbat instantzia ofizialekin ipini gara harremanetan, baina kasu batzuetan ezin izan da inolako erantzunik jaso.
- Erregistro Ofizial batzuetako datuen egoeratik eratortzen diren zailtasunak. Adibidez, datu batzuek paperezko euskarrian soilik eskura daitezke eta horregatik aztergai den entitate bakoitzari dagozkion datuak eskuz jaso beharko lirateke; horrek, gaur egun, OVES/GEEBentzat ezinezkoa den kostua suposatzen du.
- Datu berberetan ezberdintasunak eta kontraesanak kausitzen dira iturri ezberdinetan, erabilitako metodologia ezberdinengatik.

Gizarte Ekonomiaren osotasunari buruzko datu ofizialak lortu ahal izateko aurkitutako zailtasun horiek oztopatu egin dute sektoreak Euskadin, honelako enpresek presentzia eta garrantzi ekonomiko nahiz sozial nabarmena duten lurralde batean, duen egitatea hobeto ikuskatu ahal izatea. Horregatik, erabilitako iturrien aniztasunak, haietako bakoitzean erabilitako metodologia dibergenteak, aztertutako aldagaien ezberdintasunak eta datu estatistikoak sortzeko orduan urterokotasun bat eduki ez izanak ezinezkoa egin dute analisi trinkoa eta guztiz homogenea egin ahal izatea enpresa kopuruari dagokionean, haiek batzen duten enpleguari buruz eta euskal Gizarte Ekonomiaren sektoreak egiten duen ekarpen ekonomikoaren inguruan.

Halaz eta guztiz ere, zalantzarik gabe baieztatu daitezke erabili diren iturri lagungarriek (euskal Gizarte Ekonomiako entitateak berak, eta hauen ordezkartzako federazioak), iturri ofizialei gehituta, txosten hau erreferentzia fidagarria izan dadin ahalbidetu dutela, euskal Gizarte Ekonomiako sektorearen egitatea eta 2009 eta 2013 bitarteko krisialdian beronek egin duen ekarpen ekonomiko zehatz eta zuzen islatzen duelako. Bidean, aurkezten diren datu estatistikoek buruz egindako balioespen kualitatiboak eta erabili diren iturrien aniztasunak berak (iturri ofizialetakoak zein Gizarte Ekonomiako entitateenak direlako) antzeko azterlanetan aurkitzen ez dugun balio erantsia ematen diote ikerlan honi.

V. Bibliografia

- Bretos, I. (2015): Medición y visibilización de la Economía Social en el País Vasco. Dificultades, aproximaciones y propuestas desde el Observatorio Vasco de Economía Social. *Revista Vasca de Economía Social-GEZKI*, 12 (laster argitaratzekoa, 12. zenbakian).
- Chaves, R. (2007) (Coord.): *La economía social en las políticas públicas en España*, Ministerio de Trabajo, Madrid.
- Chaves, R., Monzón, J.L., Pérez de Uralde, J.M. y Radrigán, M. (2013): “La Economía Social en clave internacional. Cuantificación, reconocimiento institucional y visibilidad social en Europa, Iberoamérica y norte de África”, *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 112.
- Etxezarreta, E. y Morandera, J. (2012): “Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011”, *Revista Vasca de Economía Social*, 8, 7-37.
- Pérez de Uralde, J.M. (2014): “La inaplicación de la Ley de Economía Social en un contexto de crisis económica. Algunas interpretaciones y propuestas”, *CIRIEC – España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 81, 33-59.
- Pérez de Uralde, J.M. (2012): “Ley 5/2011, de 29 de marzo, de economía social: ¿su aplicación es cosa de todos? (pregunta retórica)”, *Revista Deusto Estudios Cooperativos*, 1, 79-92.

2. Atalburua

Euskal gizarte ekonomiaren
Analisi ekonomikoa eta soziolaborala



Ignacio Bretos Fernández¹

Jon Morandeira Arca²

José María Pérez de Uralde³

1. Sarrera

Behatoki honek ihardunean daramatzan bost urte hauetan egindako bideari eta lortutako eskarmentuari esker, orain arteko lan dinamika, euskal Gizarte Ekonomiari buruz urtean urteko Txostenak egitera zuzendu dena, gainditu nahi du Txosten honek, eta horretarako 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013. urteak, hau da, Behatokiak aldeztetik egin dituen bost txostenetan aztergai nagusiak izan diren aldiak barneratuko dituen azterketa osoagoa egin dugu.

Bide batez, Txosten honek euskal Gizarte Ekonomiaren errealitatearen ahalik ikuspegi osoena eskaini nahi du eta, horretarako, ikerlanari tasun kualitatiboa ematen diogu, hau da, euskal Gizarte Ekonomiak erakutsi dituen joerei buruzko interpretazioak egiten ditugu, haren bilakaera agertzen diguten datu estatistiko zorrotz eta fidagarrietan oinarritutako analisietatik abiatuz. Horrela, ekonomia mota honek Euskadiko Autonomia Erkidegoan duen egitatea hobeki ulertzeko aukera izanen dugu.

Halaber, azpimarragarria da 2009-2013ko denboraldi hau, 2007/2008az geroztik pairatzen ari garen abagune ekonomiko txit zailean garatu dela, hots, ez bairik gabe azken aroko ekonomia-finantza krisirik gaiztoena izan denetik eratorri eta Europa hegoaldeko herrialdeetako klase ertain eta herrikoien baitan ondorio latzenak eduki dituenaren baldintzapean.

Jakina da Gizarte Ekonomiako entitateek, historikoki eta orokorrean, bestelako enpresa egiturek baino hobeki egin ohi dietela aurre krisialdiei, hain zuzen ere pertsona ipintzen dutelako erdigunean, bestelako interes ekonomiko guztien gainetik enpleguari eustea helburu nagusitzat hartuz.

Beraz, azterketa honetan arreta berezia eskainiko diogu euskal Gizarte Ekonomiaren bilakaerari, zehazki behatuz 2009az geroztik aurkeztu den koiuntura ekonomiko korapilatsuari nola erantzun dion enpleguari, entitate kopuruari eta datu ekonomikoei dagokienean, urte horretarako jada nabarmenak baitziren krisiaren ondorioak. Horretarako, bereziki esanguratsua izanen da Gizarte Ekonomiaren bilakaera Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekonomia konbentzionalarenarekin alderatzea, honi esker erreferentzia bat eduki eta aurreratu dugun baieztapena enpirikoki egiaztatu ahalko dugulako.

-
- 1 Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiko (OVES/GEEB). GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.
 - 2 EHUko Ekonomia Aplikatua I Saila. GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.
 - 3 Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiko (OVES/GEEB) Koordinatzaile. CIRIEC-Españaiko Lehendakari.

I. Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia, aurrerantzean OVES/GEEB deituko duguna, 2008ko abenduaren 30ean jaio zen, Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUren ordezkaria zen GEZKI-Gizarte-Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatoki hori eratzen joateko xedearekin, sinatu zuten Lankidetzaz Hitzarmenaren babesean. Bide batez, betekizun horretarako entitate bat sortu beharraz EHAAREN 153. zenbakian, 2008ko Apirilaren 25ekoan, argitaratzen ziren Eusko Legebiltzarraren erabakiei men egiten zitzaizkien.

OVES/GEEB-en ikerkuntza esparrua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiaren jardura da. Gizartearen beharrei erantzuteko, eta ez inbertsiogile kapitalistei mozkinak emateko, “pertsonentzako ekonomia eginez, eta ez merkatuentzako” sortuak izatearen tasun komuna duten eta gainera beren dialektikan zein praxian Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legeak zehazten dituen irizpideak eta baldintzapenak betetzen dituzten entitateen ekosistema anitza barneratzen da esparru horretan.

OVES/GEEB-en langintza nagusia jardura hori identifikatzean eta zenbatzean datza, euskal gizarte ekonomia mota hau agerrarazi eta suspertzeko eta, bidenabar, Herri Administrazioen erabakietan gero eta gune zabalagoa eta eragin sakonagoa beregana dezan. Lanbide honen ilduan, ihardunean daraman denbora laburrean, Behatokiak bost txosten argitaratu ditu, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 urteei dagozkienak, zeinetan aztertzen baita euskal Gizarte Ekonomiaren egoera.

Hasiera-hasieratik, OVES/GEEBek Euskal Gizarte Ekonomiako partaide nagusien laguntasuna jaso du. Horri esker, beste urrats batzuen artean, berariazko Batzorde Aholkularia osatu ahal izan du, non une honetan aurkitzen baitira, hurrenkera alfabetikoa:

- *ASLE*: Asociación de Sociedades Laborales de Euskadi. www.asle.es
- *EHLABE*: Euskadiko Lan Sozietateen Elkarteak. www.ehlabe.org
- *GEZKI*: Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte-Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (EHU/UPV). www.gezki.ehu.es
- *GIZATEA*: Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarteak. www.gizatea.net
- *KONFEKOOP*: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. www.konfekoop.com
- *Mondragon Unibertsitatea*. www.mondragon.edu
- *REAS Euskadi*: Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea. www.economiasolidaria.org/reaseuskadi
- *Deustuko Unibertsitatea*. www.deusto.es

Aldi berean, zabalkunde handia duen aldizkari bat kaleratzen du OVES/GEEBek hilabete oro, Euskal Gizarte Ekonomiarekin zerikusia duten albiste nagusiak jasotzen dituen. Hilabetekari hori Internet bitartez ikus liteke OVES/GEEB-en web orrialdean (www.oves-geeb.com), beste hainbat datu sozioekonomikorekin batera.

Azpimarragarriak dira Behatoki honek CIRIEC-Españaren Observatorio Español de Economía Social-arekin eta Divina Pastora Fundazioarekin sinatu dituen lankidetzarako hitzarmenak. Euskal

Gizarte Ekonomiari dagokionean erreferentziako entitate bihurtzeko bidean OVES/GEEBek egin duen lana eta ahaleginaren adierazle dira hitzarmen horiek. Bidenabar, lankidetzarako hitzarmenak sinatu ditu baita ere OIBESCOOP-Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Behatoki Ibeoramerikarrarekin, eta Gizarte Ekonomiako Behatoki Portugaldarrarekin.

OVES/GEEBen txosten honen xedea da Euskal Gizarte Ekonomiaren egungo egoera ezagutzearren Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomia eta Enpresako Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzarik egindako eskakizunari erantzutea, egoera ekonomikoaren eta soziolaboralaren azterketa ere aintzakotzat hartuz, 30/2009 Ez Legezko Proposamenak (Eusko Legebiltzarraren Aldizkaria, 31. zka., 2009/10/30rekoa) dioen eran, non eskatzen baitzitzaion Enplegu eta Gizarte Arazoetako Sailari egin zezala txosten bat Kooperatiba eta bestelako Gizarte Ekonomiako entitateen sektorearen egoera aztertuko zuena.

II. Gizarte ekonomiaren definizioa

Gizarte Ekonomiaren mugak zehazteak duen konplexutasunagatik, eta haren baitan aurki daitezkeen egitateen zabaltasuna eta aniztasunagatik, esan behar da OVES/GEEBek bere egiten duela CIRIEC-España (zeinaren partaide baita GEZKI) landutako definizioa, baina ñabardura batzuk eginez eta Euskadiko berezitasunetara eta 2011ko Gizarte Ekonomiaren Legearen esanetara egokituta. Beraz, OVES/GEEBetik ondorengo mapa proposatzen da euskal Gizarte Ekonomiaren ekosistema osatzen duten entitateen tipologia ezberdinak jasotzeko, 2011. urtean ematen zenetik zertxobait aldentzen den panorama osatuz.

1. Taula. Gizarte Ekonomiaren Unibertsoa OVES/GEEBentzat		
Enpresa azpisektorea edo merkatuko azpisektorea	Enpresa ez finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> • Kooperatibak • Lan Sozietateak • Enplegu Zentro Bereziak • Laneratzeko Enpresak • Arrantza Kofradiak • Nekazaritzako eraldakuntza-baltzuak • Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkartek, fundazioak eta sozietateak)
	Finantza Entitateak	<ul style="list-style-type: none"> • Kreditu Kooperatibak • Gizarte Aurreikuspen Mutualitateak • Gizarte Ekonomia Enpresen Elkarrekiko Berme Sozietateak
Merkatuakoak ez diren ekoizleen azpisektorea	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-Ekintza Elkartek • Gizarte-Ekintza Fundazioak • Etxeen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk 	

Iturria: geuk egina.

III. Metodologia eta informazio iturriak

OVES/GEEBek lehendik eginak dituen txostenetatik abiatuz, ikerlan honetan azterketa ebolutiboa egiten da euskal Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate guztien ingurumen ekonomiko eta soziolaboralaren arlo nagusienei buruz. Hain zuzen ere, haien datu ekonomikoak, enpleguari dagozkion datuak eta entitate kopuruari buruzkoak aurkezten dira. Beraz, lehendanik egindako bost urteko txosten horietan argitaratutako datuak hartzen dira abiapuntu nagusitzat, urte hauetako bilakaera agerian ipintzea zilegituko duen ildo metodologiko koherente eta berdinduarekin ari gaitzen. Eta hala egiten dugu nahiz eta Txosten hau argitara ematerakoan oraindik ez ditugun eskura 2013. urteari dagozkion hainbat datu, Gizarte Ekonomiako zenbait entitatereen kasuan.

Behatokiaren urteroko txostenak osatzeko erabiltzen diren informazio iturri nagusien artean aipagarrienak dira Eusko Jaurlaritzak bi urtean behin Gizarte Ekonomia tradizionalaz (kooperatibez eta lan sozietateez) argitara ematen dituen txostenak; Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren estatistikak; Foru Ogasunenak; eta entitateen ordezkariek diren elkarteek, entitateek beraiek eta bestelako erakunde publiko zein pribatuek argitaratzen dituzten txosten eta datu ezberdinetatik eratortzen direnak.

Beraz, datu batuketan oinarritzen da azterlana, informazio iturri ezberdinak, ofizialak gehientsuenak, erabiliz, euskal Gizarte Ekonomia osoaren azterketa, ahalik eta osatuena, egiten delarik. Iturrien aniztasunak, lantzen diren aldagaien arteko ezberdintasunak eta aintzakotzat hartzen diren epe-muguen desberdintasunak Gizarte Ekonomia oso-osoari buruzko azterketa guztiz zehatz eta homogenea egitea ezintzen badu ere, bai lortzen dela erreferentziazko emaitza fidagarri bat.

Azterlan honetako analisiaren epe-mugei dagokienean, esan da jada ez dela guztiz homogenea. Usu 2009 eta 2013 bitarteko denboraldia erabiltzen saiatzen gara, baina beti-beti ez da posible izango entitate guztientzat bitarte horretako urte bakoitzeko datu sozioekonomikoak eskaini ahal izatea, hauetako batzuek periodikotasun irregularrekoak ditugulako. Bi urtean behingo datuak baino ez dituguneko zenbait analisitan, 2008, 2010 eta 2012ko epe-mugak erabiliko dira erreferentziazat. Hortik eratortzen da analisi jarraikorra egiteko zailtasuna, urteroko aldagai sozioekonomikoak ez direlako eskura Euskal Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate guztien kasuan. Edonola ere, hurbilketa bat egin ahal izan da.

Horrexegatik, ondorioen azken atalean aurreratzen eta doitzen dugu lehen analisi bat entitateei eta enpleguari buruz soil-soilik euskal Gizarte Ekonomiaren lau esparru handiez (Kooperatibez, Lan Sozietateez, Enplegu Zentro Bereziez eta Gizarteratze – Laneratze Enpresez) egiten dugula, horiei buruzko datu osoak eta homogeenak ditugulako eskura 2009-2013 aldi osorako. Ondoren, analisi berezitua egiten da 2010 eta 2012 urteei buruz, aldi horietarako euskal Gizarte Ekonomia osoari dagozkion enpleguaren eta entitate kopuruaren datuak eskura ditugulako.

Horren haritik, berriro ere gogorarazi beharrekoak dira OVES/GEEBek euskal Gizarte Ekonomiako entitateei buruzko informazio osoa eta fidagarria eskuratzeko topatzen dituen zailtasunak eta ezintasunak, ondorengo puntu hauetan laburbil daitezkeenak:

- Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate mota guztiei buruzko estatistikak argitaratzeko aldizkaririk eza.
- Gizarte Ekonomiako entitateetako batzuen datu ofizialetara iritsi ezina, hainbat erakunde ofizialekin harremanetan ipini ondoren ere, zenbait kasutan erantzunik ere ezin izan baita jaso.

- Zenbait Erregistro Ofizialetako datuen egoeratik eratorzen diren zailtasunak. Adibidez, badira paperezko euskarrian jasota dauden datuak, entitate bakoitzari dagozkionak eskuz jasotzera behartzen dutenak, gaur-gaurkoz OVES/GEEBek bere gain hartu ezin duen kostua sorraraziz.
- Datu berberen arteko aldeak eta ezberdintasunak, iturri eta metodologia ezberdinen ondorioz.

Bidenabar, nabarmendu behar da OVES/GEEB bera izan daitekeela abiapuntu eragozpen eta disfuntzio horiek gainditu ahal izateko, estatistika lan periodikoa bideratuz, iturriak bildu eta batzeko lana eginez; baina horretarako ezinbestekoa da alde guztien arteko lankidetzaren estuena lortzea. Halaz eta guztiz ere, euskal Gizarte Ekonomia osoari buruzko informazio sozioekonomikoa eskuratu ahal izateko aurkitu ditugun zailtasun horiek guztiek egoeraren irudikamendu doiagoa taxutzea eragotzi badigute ere, euskal Gizarte Ekonomia urte horietan bizi izan duen egoerara sinesgarriki hurbiltzea zilegitzen digute Txosten honen emaitzek, aurkezten diren datuak, osoak ez izan arren, esanguratsuak eta fidagarriak direlako.

EUSK GIZARTE EKONOMIA KRISIAL

A) Gizarte ekonomiako sozietate
ez finantzarioak

2. Kooperatibak eta Lan Sozietateak

Kooperatiben eta Lan Sozietateen datu agregatuak lortzeko iturri ezberdinak erabili dira, errealitatera ahalik gehien hurbilduko den analisia egin ahal izateko, izan ere iturrietako batek ere ez baitu, berak bakarrik, informazio osoa eta homogeneoa eskaintzen 2009 – 2013 aldirako Kooperatiba eta Lan Sozietateen enplegua, entitate kopurua eta datu ekonomikoak analizatu ahal izateko. Horregatik, sektore honi buruz Eusko Jaurlaritzak egindako txosten ezberdinak, Espainiako Gobernuako Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren estatistikak, eta hiru Foru Ogasunek ematen dizkiguten datuak erabili ditugu.


I. Entitateak

Gizarte Segurantzaz inskribatuta dauden sozietateei buruz Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Estatuko Enplegu Idazkaritzaren Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorrek argitaratzen dituen datuak abiapuntutzat hartuta, ondorengo taulan laburbiltzen dira Kooperatiba eta Lan Sozietate entitateen eta haien langileen kopuruak. Ondorengo irudietan erakutsiko ditugu haien joerak.

2. Taula. Sozietate eta langile kopuruei buruzko zifra orokorrak. 2009-2013 urteak						
	Enpresa Kooperatiboak		Lan Sozietateak		Guztira Koop + L.S.	
	Enpresa kopurua	Langileak	Enpresa kopurua	Langileak	Enpresa kopurua	Langileak
2009	1.478	55.121	864	11.444	2.342	66.565
2010	1.498	56.231	815	9.177	2.313	65.408
2011	1.522	57.122	762	7.945	2.284	65.067
2012	1.533	56.365	709	7.275	2.242	63.640
2013	1.536	56.251	674	6.519	2.210	62.770

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorren datuetatik abiatuta.


Lehenik eta behin, azpimarragarria da 2009 eta 2013 bitartean, zifra absolututan, entitate zein langile kopuruak handitzeko gai izan direla Kooperatibak. Aldiz, Lan Sozietateak behera egin dute entitate kopuruari dagokionean eta, batez ere, langile kopuruan eta, bide batez, hauen eraginari atxiki behar zaio, beste edozeri baino gehiago, entitate eta langile kopuru agregatuari dagokionean nabari den beherakada orokorra.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

1. irudi horretatik eratortzen da Kooperatibak aldaketa positiboak agertzen dituztela 2009az geroztik, nahiz eta joera hori 2012 eta 2013an zertxobait lausotu egiten den, urte horietan hazkundera 2010 eta 2011n baino apalagoa baita. Lan Sozietateei dagokienean aldaketa ezkorra agertzen zaigu, nahiz eta 2013an joera aldaketa bat ematen den, suntsimendu tasa askoz txikiagoa delako aurreko aldietan baino, batez ere 2011 eta 2012an baino, izan ere urte horietan moteldu egin baitzen 2009an eta 2010rean suma zitekeen hoberako joera.

Beraz, Kooperatiba eta Lan Sozietateen kopuru agregatuei dagokienean, ikus dezakegu 2009 eta 2010rean emandako hobekuntza nabariaren ondoren, ondorengo urteetan aldaketa tasa ezkorrago agertzen zaizkigula, Kooperatiben joera onak ezin izan baitu erabat berdindu Lan Sozietateen bilakaera ezkorra.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

Kooperatibetako langile kopuruaren bilakaerari dagokionean, ikus dezakegu 2010ean nabarmen hazi eta 2011n mantendu ondoren, 2012an beherakada bat ematen dela eta, horren ondorioz, aldaketa tasa negatiboa jazotzen dela. Ondorioztatu behar da, beraz, enplegu suntsipena ematen dela nahiz eta, lehen ikusi dugunez, aldi horretan Kooperatiba sozietateen kopurua mantendu egin zen. Berritoki ere, 2013an nolabaiteko susperraldia agertzen da, aldaketa tasa oraindik ere negatiboa izan arren, 2012koa baino askoz txikiagoa delako beraz.

Lan Sozietateei dagokienean, berriz, ikus liteke agertzen zaizkigun aldaketa tasak negatiboak direla aztergai dugun aldi osorako, nahiz eta 2010az geroztik baden nola edo hala hoberako joera bat, aldaketa negatiboak gero eta txikiagoak diren neurrian.

Bidenabar, Kooperatiba eta Lan Sozietateen langile kopuruaren bilakaera agregatuak joera negatiboa aurkezten digu, Lan Sozietateetan gertatzen denaren antzera. Esan liteke 2011n susperraldi apal bat ematen dela, baina harez geroztik tasa bertsuetan mantendu da 2013ra arte, aldaketa tasa positiboak erdiestera inoiz iritsi gabe.

3. Taula. Kooperatiba Sozietateak. Sozietate kopurua, kotizazio zentroak eta beren langileak, kotizazio araudi eta lurralde Historikoaren arabera. (2009-2013)

	Sozietateen arabera						Kotizazio Zentroyen arabera					
	Sozietateak			Langileak			Zentro kopurua			Langileak		
	Guztira	Orokorra(1)	Autonomoak(2)	Guztira	Orokorra	Autonomoak	Zentro kopurua	Guztira(3)	Orokorra(1)			
2009	1.478*	774*	704*	55.121*	21.575*	33.2546*	969**	53.678**	20.132**			
Araba	248	133	115	3.224	2.070	1.154	176	3.813	2.659			
Bizkaia	627	291	336	21.904	8.457	13.447	361	21.706	8.259			
Gipuzkoa	603	350	253	29.993	11.048	18.945	432	28.159	9.214			
2010	1.498*	809*	689*	56.231*	23.310*	33.921*	1.014**	54.608**	21.687**			
Araba	257	144	113	3.191	2.057	1.134	190	3.880	2.746			
Bizkaia	639	312	327	22.363	9.271	13.092	385	21.897	8.805			
Gipuzkoa	602	353	249	30.677	11.982	18.695	439	28.831	10.136			
2011	1.522*	833*	689*	57.122*	24.478*	32.644*	1.066**	55.614**	22.970**			
Araba	264	144	120	3.236	2.033	1.203	192	3.935	2.732			
Bizkaia	644	322	322	22.861	9.978	12.883	406	21.963	9.080			
Gipuzkoa	614	367	247	31.025	12.467	18.558	468	29.716	11.158			
2012	1.533*	845*	688*	56.365*	23.521*	32.844*	1.091**	55.125**	22.281**			
Araba	258	144	114	3.159	2.024	1.135	195	3.866	2.731			
Bizkaia	661	365	325	22.894	9.886	13.008	426	21.869	8.861			
Gipuzkoa	614	336	249	30.312	11.611	18.701	470	29.390	10.689			
2013	1.536*	859*	677*	56.251*	23.547*	32.704*	1.138**	55.213*	22.509**			
Araba	255	150	105	3.007	1.956	1.051	196	3.674	2.623			
Bizkaia	661	339	322	22.381	9.508	12.873	444	21.872	8.999			
Gipuzkoa	620	370	250	30.863	12.083	18.780	498	29.667	10.887			

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorren datuetatik abiatuta. (1): Araubide orokorraz gain, autonomoak ez diren Gizarte Segurantzaren beste araubideak barneratzen ditu.

(1): Lantalde osoa Gizarte Segurantzaren autonomoen araubidean barneratua duten sozietateen balioetsitako kopurua (3): Langile autonomoak barneratzen ditu.

(*) : Datos referidos Sozietateak egoitza nagusia duen lurraldeari dagozkion datuak. (**): Kotizazio Zentroa kokatzen den eta langileek beren langintza burutzen duten lurraldeari dagozkion datuak.

4. Taula. Lan Sozietateak. Sozietate kopurua, kotizazio zentroak eta beren langileak Lurralde Historikoaren arabera												
Sozietateen arabera						Kotizazio zentroen arabera						
Sozietateak			Langileak			Zentro kopurua			Langileak			
Guztira	Anonimoak	Mugatuak	Guztira	Anonimoak	Mugatuak	Guztira	Anonimoak	Mugatuak	Guztira	Anonimoak	Mugatuak	
2009	864*	317*	547*	11.444*	7.388*	4.056*	944**	353**	591**	11.184**	7.121**	4.063**
Araba	115	35	80	3.601	3.168	433	123	36	87	1.139	688	451
Bizkaia	447	145	302	4.110	2.244	1.866	486	161	325	6.006	4.171	1.835
Gipuzkoa	302	137	165	3.733	1.976	1.757	335	156	179	4.039	2.262	1.777
2010	815*	293*	522*	9.177*	5.071*	4.106*	893**	329**	564**	9.065**	4.968**	4.097**
Araba	107	29	78	1.084	689	395	116	31	85	991	581	410
Bizkaia	420	135	285	3.955	2.105	1.850	454	150	304	3.929	2.122	1.807
Gipuzkoa	288	129	159	4.138	2.277	1.861	323	148	175	4.145	2.265	1.880
2011	762*	270*	492*	7.945*	4.163*	3.782*	821**	295**	526**	7.918**	4.152**	3.766**
Araba	93	25	68	891	541	350	103	28	75	898	542	356
Bizkaia	396	129	267	3.665	2.070	1.595	421	138	283	3.620	3.062	1.558
Gipuzkoa	273	116	157	3.389	1.552	1.837	297	129	168	3.400	1.548	1.852
2012	709*	236*	473*	7.275*	3.697*	3.578*	762**	258**	504**	7.233**	3.689**	3.544**
Araba	95	25	70	868	529	339	104	27	77	874	530	344
Bizkaia	366	112	254	3.305	1.818	1.487	392	122	270	3.254	1.814	1.440
Gipuzkoa	248	99	149	3.102	1.350	1.752	266	109	157	3.105	1.345	1.760
2013	674	219	455	6.519	3.027	3.492	715	236	479	6.476	3.018	3.458
Araba	89	21	68	480	149	331	92	21	71	484	149	335
Bizkaia	342	103	239	2.942	1.569	1.373	357	109	248	2.894	1.565	1.329
Gipuzkoa	243	95	148	3.097	1.309	1.788	266	106	160	3.098	1.304	1.794

(*): Sozietateak egoitza nagusia duen lurraldeari dagozkion datuak. (**): Kotizazio Zentroa kokatzen den eta langileek beren langintza burutzen duten lurraldeari dagozkion datuak.

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.


Sozietateen eratzea, sortzea eta suntsitzea, eta hasierako bazkideak

Ondoren, sortu diren sozietateen kopuruaz eta haien bazkideen kopuruaz Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Estatuko Enplegu Idazkaritzaren Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorrak eskaintzen dituen datuak agertzen dira.

5. Taula. Eratu diren entitateen kopurua eta haien hasierako bazkideak. 2009 – 2013 urteak				
	Eratu diren Kooperatibak		Eratu diren Lan Sozietateak	
	Kopurua	Bazkiadeak	Kopurua	Bazkiadeak
2009	132	502	40	252
2010	161	659	39	157
2011	150	639	35	145
2012	200	1.621	44	284
2013	196	805	62	237

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

5. taula horretako datuetan ikus liteke nola, kopuru absolututan, entitateak sortzeko joera positiboa den bai Kooperatiben kasuan eta baita ere Lan Sozietateetan, nahiz eta nabaria den Kooperatiben sortzeko ahalmena handiagoa dela eta joera horren goranzkoa askoz bizkorragoa dela. Ondorengo irudian ikus liteke eratutako sozietateen eta beren hasierako bazkideen bilakaera.




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

Irudi horretan ikus dezakegu Kooperatiben eratzean 2008 eta 2009an hazkunde azpimarragarria ematen dela, seguruenik 6/2008 Legea, Euskadiko Kooperatiba Txikiei buruzkoa, hasieran bi bazkiderekin besterik gabe kooperatibak sortzea ahalbidetzen duena, indarrean ipini izanaren

ondorioz; baina 2009 eta 2011 bitartean bilakaera negatiboa da. Ondoren, 2012an gorakada nabarmena ematen da berriro Kooperatiben eratzean, beharbada Kooperatiben Nazioarteko Urtea zela eta egin ziren sustapen eta zabalkunde kanpainak bultzatuta hein batean, baina 2013an beherakada nabarmena jazotzen da berriro (ikus bide batez OVES/GEEB 2011 Txostena).

Lan Sozietateei dagokienean, 2009 eta 2011 bitartean joera negatiboa ematen dela ikus daiteke, ondoren gorakada bati ekiteko 2012an eta, batez ere, 2013an, bi urte hauen artean guztira %40 pasako hazkundea edukitzeraino.

Halaber, Kooperatiben eta Lan Sozietateen eratze agregatuaren bilakaera orokorrak, Kooperatiben alorrean ematen denaren joera bertsua erakusten du, haiek baitira luzaz joera baldintzatzen dutenak, kopuru absolututan Lan Sozietateak baino aski ugariagoak direlako.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.


Eratutako entitateen (Kooperatiben eta Lan Sozietateen) eta haien hasierako bazkide kopuruaren erabateko bilakaeran harremana aztertuz gero, ikus dezakegu 2009 eta 2011 bitartean ematen den bilakaera dibergentearen ondoren, 2012an eta 2013an joera berdindu egiten dela eta bilakaera paraleloa ikus litekeela eraturako entitateei eta haien hasierako bazkide kopuruari dagokienean, hau da, bilakaerak norabide berbera hartzen duela aldi bakoitzean, nahiz eta harreman horrek ez duen proportzionaltasunik ehunekoetako aldaketan.

Ikus daiteke hasierako bazkideen joera orokorraren norabidea Kooperatibek ezartzen dutela, eraturako sozietateen kopuruari zegokionean bezalaxe eta, bide batez, orobateko joera orokorraren oso antzekoa dela haien hasierako bazkide kopuruaren bilakaera.


Azpimarragarria da 2008an Kooperatiben hasierako bazkideen kopuruan ematen den beherakada argia, aldi berean, lehen esaten genuen bezala, eraturako Kooperatiben kopuruan nabarmen goraka egiten zelarik aldi berean, 6/2008 Legea, Euskadiko Kooperatiba Txikiei buruzkoa, eta haren ondorioak berrestera letorkeena (ikus bide batez OVES/GEEB 2011 Txostena).

Lan Sozietateei dagokienean, ikus dezakegu 2009 eta 2012 bitartean eraturako entitateen kopurua eta haien hasierako bazkideen kopurua norabide bertsuan bilakatzen dela, baina 2013an joerak aldebanatu egiten direla, sortutako entitateen kopuruak goraka egiten duelako, haien hasierako bazkideen kopuruak beherantz egiten duen bitartean.

Ondoren doazen 5. eta 6. irudietan, eraturako Kooperatiba eta Lan Sozietateen eta haien hasierako bazkideen kopuru absolutuen bilakaerak zehazten dira.




Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

Dauden Kooperatiben eta Lan Sozietateen datuak eta eratu diren entitate berrien eta haien hasierako bazkideenak erkatu ondoren, suntsitu diren Kooperatiba eta Lan Sozietateen datuak


erakuts ditzakegu jarraian. 7. eta 8. Irudietan, Gizarte Ekonomiako entitate mota horietako bakoitzean ematen den joera nabarmentzen da. Urte bakoitzean sortu eta erregistratu diren entitateen datuak erabili dira aldi berean suntsitutako sozietateen kopurua kalkulatzeko eta bide batez aurreko atalean Kooperatiba eta Lan Sozietateen kopuruaren bilakaerari buruz egindako azterketa osatzeko.



Iturria: geuk egin, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

7. irudian ikus dezakegunez, Kooperatibek, aztergai dugun aldian, suntsitutakoak baino entitate berri gehiago sortzeko gaitasuna erakusten dute, 2009an izan ezik, joera nabarmen alderantzizkoa baita urte horretan. 2012ra hurbildu ahala, tarte baikor hori murriztu egiten dela ematen du eta 2013an bien arteko alderik ez dagoela esan liteke.

8. irudiak dioskunaren arabera, haatik, Lan Sozietateek ez dute erakusten Kooperatiben antziz entitate berri gehiago sortzeko gaitasunari dagokionean, aztergai ditugun aldietako ezeinetan sortutako sozietate berrien kopurua ez baita suntsitutakoena baino handiagoa. Edonola ere, ikus daiteke 2012tik 2013ra tarte murriztu egiten dela, sozietate sorberrien gorakada handiari eta suntsitutakoen beherapen apalari esker.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

Laburbilduz, ikus dezakegu 2009-2013 aldi horretan Kooperatibak gai izan direla krisiari aurre egiteko, oro har entitateen kopuruari eutsiz eta, horretarako, suntsitutako entitateak baino gehiago sortzeko gaitasuna erakutsiz. Halaber, enplegua mantentzeko ere gai izan dira, eta zenbateko absolututan 2009 eta 2013 bitartean langileen kopurua handitzea ere lortu dute, nahiz eta 2012an negatiboa izan zen aurreko urtearekiko aldaketa tasa. Joera horrek hobera egin zuen zertxobait 2013an.

Lan Sozietateek, oro har, zifra okerragoak aurkezten dizkigute. Azpimarragarria da, hala ere, aztergai ditugun datuen arabera, azken urte hauetan, eta batez ere 2013an, hoberako joera aztarnak agertzen dizkigutela, bai entitate kopuruari dagokionean eta baita ere langileen kopuruan, honetan apalagoa bada ere hobekuntza.

6. Taula. Eratatutako Kooperatiben eta haien hasierako bazkideen kopurua, mota eta Lurralde Historikoaren arabera. 2009-2013 urteak

	Lan Elkartu		Konts.- Era.		Etxebizitza		Nekazaritza		L.U.K.		Zerbitzuak		Garraioa		Irakaskun.		Besteak		Guztira	
	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.	Kop.	Bazk.
2009	98	296	1	5	18	110	3	34	0	0	1	7	0	0	1	10	10	40	132	502
Araba	12	30	0	0	2	6	2	31	0	0	0	0	0	0	0	0	2	7	18	74
Bizkaia	43	134	0	0	14	96	1	3	0	0	1	7	0	0	1	10	2	8	62	258
Gipuzkoa	42	127	1	5	2	8	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	6	25	51	165
Auton. Err.	1	5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	5
2010	123	379	0	0	27	126	5	34	0	0	1	4	0	0	0	0	5	23	161	659
Araba	17	68	0	0	7	23	4	116	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	28	207
Bizkaia	58	182	0	0	18	87	1	11	0	0	1	4	0	0	0	0	1	7	76	291
Gipuzkoa	48	129	0	0	1	13	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4	16	53	158
Auton. Err.	0	0	0	0	1	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	3
2011	117	385	2	6	22	127	4	57	0	0	0	0	0	0	0	0	5	64	150	639
Araba	17	61	0	0	3	11	3	39	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	23	111
Bizkaia	49	185	0	0	16	93	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	55	68	333
Gipuzkoa	51	139	2	6	3	23	1	18	0	0	0	0	0	0	0	0	2	9	59	195
Auton. Err.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
2012	149	1.287	1	3	35	132	4	123	0	0	0	0	0	0	2	17	9	59	200	1.621
Araba	17	39	0	0	1	3	2	6	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	20	48
Bizkaia	73	214	0	0	33	126	1	3	0	0	0	0	0	0	1	14	2	25	110	382
Gipuzkoa	59	1034	1	3	1	3	1	114	0	0	0	0	0	0	1	3	7	34	70	1.191
Auton. Err.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
2013	173	636	1	42	16	60	3	10	0	0	1	10	0	0	0	0	2	47	194	805
Araba	26	77	0	0	0	0	1	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	27	80
Bizkaia	83	374	1	42	16	60	1	4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	8	102	488
Gipuzkoa	64	185	0	0	0	0	1	3	0	0	1	10	0	0	0	0	0	39	67	237
Auton. Err.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

Non; Konts.-Era.= Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak; L.U.K.= Lur Ustiapen Komunitarioa; Irakaskun.= Irakaskuntza; Kop.= Kopurua; Bazk.= Bazkideak;

Auton.Err.= Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Errolda

Iturria: geuk egina. Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministeritza. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzunkizun Sozialaren Zuzendaritza.

7. Taula. Erregistraturiko Lan Sozietateen eta haien hasierako bazkideen (entitateak izan ezik) kopuruak, sektore eta lurralde historikoaren arabera. 2009-2013 urteak

	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		Guztira	
	Kopurua	Bazkideak	Kopurua	Bazkideak	Kopurua	Bazkideak	Kopurua	Bazkideak	Kopurua	Bazkideak
2009	0	0	13	148	7	25	20	79	40	252
Araba	0	0	0	0	1	5	2	9	3	14
Bizkaia	0	0	8	131	2	7	12	48	22	186
Gipuzkoa	0	0	5	17	4	13	6	22	15	52
2010	0	0	9	39	11	40	19	78	39	157
Araba	0	0	2	8	1	3	1	3	4	14
Bizkaia	0	0	4	18	5	20	13	55	22	93
Gipuzkoa	0	0	3	13	5	17	5	20	13	50
2011	0	0	16	63	6	31	13	51	35	145
Araba	0	0	0	0	2	7	0	0	2	7
Bizkaia	0	0	8	37	2	16	6	25	16	78
Gipuzkoa	0	0	8	26	2	8	7	26	17	60
2012	0	0	10	42	5	17	29	225	44	284
Araba	0	0	1	7	0	0	6	27	7	34
Bizkaia	0	0	5	19	0	17	16	172	26	208
Gipuzkoa	0	0	4	16	5	0	7	26	11	42
2013	0	0	19	77	6	28	37	132	62	237
Araba	0	0	0	0	0	0	8	27	8	27
Bizkaia	0	0	8	34	4	21	7	25	34	135
Gipuzkoa	0	0	11	43	2	7	22	80	20	75

Iurria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeria. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorren datuetatik abiatuta.

II. Enplegua

Kooperatibetako eta Lan Sozietateetako enpleguari buruzko datu orokorrak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriotik jasotakoak, aurreko epigrafean aurkeztu ditugu, eta jarraian enplegu horren ezaugarrien azterketari ekingo diogu, Gizarte Ekonomia tradizionala deitu ohi denari (Kooperatiba eta Lan Sozietateei) buruz Eusko Jaurlaritzak argitaratu dituen txosten ezberdinetatik jasotako informazioa abiapuntutzat hartuta.

Esan behar da Eusko Jaurlaritzaren Txosten horiek bi urtean behin argitaratzen direla eta, bide batez, ezin direla eskuratu 2009-2013 aldiko urte guztietako datuak. Horregatik, baliagarritasun nahikoa eduki dezaketen joerak aurkeztu ahal izateko, 2008, 2010 eta 2012 aldietako datuak erabiliko ditugu. Bidenabar, gogorarazi behar da bi iturrien arteko datu erreferentziak ere ez datozela guztiz bat.

Disfuntzio hauek aintzakotzat hartuta ere, interesgarria eta guztiz argigarria dela iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzaren Txostenek eskaintzen diguten informaziotik abiatuz jarraian egiten den azterketa, Euskadiko Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enpleguak sektoreka nahiz lurraldeka dituen ezaugarrietara hurbiltzeko aukera ematen digutelako, eta azterketa hori ezin dugulako egin hain zehazki Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak eskaintzen digun informazioa abiapuntutzat hartuta.


Azkenik, berresan behar dugu koherentea deritzogula OVES/GEEBen Txosten honen azken ondorioak osatzerakoan lehen datuak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministeriotik eratorritzen direnak, erabiltzeari, 2009-2013 aldiko urte guztietarako datu homogeenak eskura izatea zilegitzen digutelako.

Analisiari ekinez, lehenik eta behin 8. taula aurkeztu behar dugu, eta bertan ikus daiteke Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren banaketa jarduera sektoreen arabera, hala nola EAEn osotasunean honek duen adierazgarritasuna. 9. irudiak, bestalde, Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren eta EAEn enpleguaren bilakaeraren arteko alderaketa aurkezten digu.

8. Taula. Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatua sektoreka. 2008, 2010 eta 2012 urteak							
	Sektorea				Guztira	Bizt. Okup.	Bizt. Okup. %
	Lehen	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2008	220	29.922	2.120	30.353	62.615	987.100	6,34%
2010	179	26.510	2.055	31.171	59.915	948.900	6,31%
2012	117	25.726	2.000	27.966	55.809	904.300	6,17%

Non Lehen s. = Lehen sektorea; Bizt. Okup.= Biztanleria Okupatua.

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.



Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

Aurkezten dugun informazioa behatuz, azpimarragarria da, lehenik, Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren bilakaera negatiboa 2008-2012 aldian, denboraldi horretan ematen den egoera ekonomiko zailaren ildoa. Beraz, ikus dezakegu enpleguaren suntsimendua suposatzen duten tasa negatiboak agertzen direla aztergai dugun aldi osoan. 2006-2008 aldian %0,73an suntsitzen da enplegua, 2008 – 2010 aldian %4,31n, eta 2010-2012 aldian %6,85ean.

Bestalde, agerian geratzen da 2008-2012 aldi horretan enplegu agregatuaren suntsimendu tasak handiagoak izan zirela Kooperatiba eta Lan Sozietateetan EAeko ekonomiaren osotasunean baino, nahiz eta 2010rean ia berdintasunera iristen diren biak (%4,31 eta %3,87ko tasak, hurrenez hurren).

Aurreko denboraldietakoarekin kontrajartzen da joera hori, adibidez 2004-2006 aldikoarekin, izan ere orduan Kooperatiben eta Lan Sozietateen enplegu agregatuak hazkunde tasa nabariak aurkezten baitzituen, EAeko osotasunean enplegua galtzen zen bitartean (ikus bide batez OVES/ GEEB 2011 Txostena).

Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuak EAeko ekonomiaren osotasunean duen garrantzi erlatiboari dagokionez, azpimarra genezake 2008 eta 2010reko aldietan %6,3 inguruan mantentzea lortu bazuen ere, 2012an beherakada bat ematen dela %6,17rainokoa.

Jarraian, Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enpleguaren sektorekako azterketa sakonduko dugu, izan ere orain arte aurkeztu ditugun datuetan nabaritzen den errealitateak pentsarazi baitiezaguke Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren bilakaera negatiboak eduki dezakeela zerikusirik entitate horiek industria sektorean duten espezializazioarekin eta nazioarteko merkatuekiko duten irekitasun eta menpekotasunarekin.

9. Taula. Kooperatiba eta Lan Sozietateetako eta EAeko Ekonomia Orokorreko enplegu agregatua sektoreka. 2008, 2010 eta 2012 urteak				
	Gizarte Ekonomia	%	Euskadiko Ekonomia	%
2008	62.615	100	987.100	100
Lehen sektorea	220	0,35	12.200	1,24
Industria	29.922	47,79	252.300	25,56
Eraikuntza	2.120	3,39	82.900	8,40
Zerbitzuak	30.353	48,48	639.600	64,80
2010	59.915	100	948.900	100
Lehen sektorea	179	0,30	8.700	0,92
Industria	26.510	44,25	225.000	23,71
Eraikuntza	2.055	3,43	72.500	7,64
Zerbitzuak	31.171	52,03	642.700	67,73
2012	55.809	100	904.300	100
Lehen sektorea	117	0,21	8.000	0,88
Industria	25.727	46,10	214.300	23,70
Eraikuntza	2.000	3,58	57.800	6,39
Zerbitzuak	27.966	50,11	624.200	69,03

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.


Lehenik eta behin, aztergai dugunerako duen garrantziagatik, esan behar da 9. taulan agertzen diren aldi horiek baino antzinagokoetan, industria sektorea zela Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuan garrantzitsuena. Adibidez, 2006an, industria sektoreak enpleguaren %51,29 bereganatzen zuen, zerbitzu sektorearena %44,97 zen bitartean (ikus OVES/GEEB 2011 Txostena).

Beraz, aurreko taula horretatik eratortzen den informazioaren arabera eta aipatzen genituen beste datuak ere gogoan izanik, azpimarragarria da Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren sektorekako egituraren jasotzen den aldaketa kualitatiboa, “hirugarrenetate” prozesu argi eta garbia ematen baita. Hau da, zerbitzuen sektorearen garrantzia gero eta handiagoa bilakatu da industriaren aldean, enpleguari dagokionez.

Bidenabar, 2008an industria sektoreak enpleguaren %47,79 bereganatzen du, aldi berean zerbitzu sektorearen garrantzia %48,48ra iristen den bitartean. Joera hau areagotu egiten da ondorengo denboraldian eta horregatik 2010ean aurkitzen dugu zerbitzu sektoreak jada enpleguaren %52,03 bereganatzen duela, industria sektorearena %44,25eraino jaitsi den bitartean. Azkenaldian, ordea, 2010-2012 bitartean, joera hori lausotu egiten dela ikus dezakegu, zerbitzu sektorearen garrantzia %50,11ra jaisten baita, industria sektoreak %46,10eraino gora egiten duelarik aldi berean. Halaz eta guztiz ere, aldi honetan ere zerbitzu sektorea da garrantzitsuena Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuan, krisi ekonomiko latzeko denboraldi horretan eman den


hirugarreneratze prozesua berretsiz. Taulan bertan ikus daitekeenez, orokorrean ere, Euskadiko Autonomia Erkidego mailan, krisialdiaren eragin latzena industria sektorearen alorrean nabarmentzen da.

Ondoren doazen 10. eta 11. irudietan argiago ikus dezakegu euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateen baitako enpleguan eman den hirugarreneratze prozesu horren egitatea.



Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

11. Irudia. Enplegu agregatuaren aldaketa sektoreka, aurreko biurtekoarekin alderatuta



Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

Aurreko irudi hauek aintzakotzat hartuz, esan dezakegu, industria sektoreari dagokionez, 2006-2008 eta 2008-2010 denboraldietan, enplegu galerak %7,51 eta %11,40koak izan zirela, hurrenez hurren. 2010-2012 denboraldian ere industriako enpleguaren galerak jarraitu egiten du, baina aurreko aldi horietan baino askoz maila txikiagoan, %2,95ekoa baita galera kasu honetan.

Joera hau nabarmen kontrajartzen da, jakina, 2008az aurretiko bilakaerarekin, orduantxe ematen baita lehen aipatzen genuen joera aldaketa erakarriko zuen inflexio puntua, 2004-2006 denboraldian industriako enpleguak eduki zuen %2,9ko igoerak argi erakusten duenez (ikus bide batez OVES/GEEB 2010 Txostena).

Zerbitzuen sektoreari dagokionez, 2006-2008 eta 2008-2010 denboraldietan enplegu hazkunderak ematen dira, %7,02 eta %2,69koak hurrenez hurren. 2010-2012 aldira, ordea, beherakada nabarmena, %10,28koa, ematen da nahiz eta, lehen esan dugun bezala, jazoera honek ez duen handituko industriako enpleguaren garrantzi erlatiboa hirugarren sektorekoaren aldean.

Beraz, datuak aintzakotzat hartuz, esan daiteke aldaketa kualitatibo garrantzitsua ematen dela, industriaren nagusitasunaren profila hautsi egiten baita, zerbitzu sektoreak aurrea hartzen diolako enpleguari dagokionean. Halaber, ondoriozta liteke Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren beherakada, lehen esana dugun bezala, industria alorraren gainbeherarekin lotuta datorrela, aldi berean azpimarratzekoa bada ere zerbitzu sektorearen joera positiboak erakarri duen ondorio orekatzailea, 2008 eta 2010reko aldiran bederen, jada ikusi baitugu 2012rako sektore guztietan egiten duela beheraka enpleguak ez bairik gabe.

Noski, kausitzen diren aldaketa horiek badute ondorioz EAE osoaren eta Gizarte Ekonomiaren (Kooperatiben eta Lan Sozietateen) artean sektorekako enpleguaren alderaketa egiterakoan. Bideanabar, nabarmena da Kooperatibetan eta Lan Sozietateetan industriako enpleguak garrantzi

erlatiboa galdu duen arren, sektore honek oraindik askoz munta handiagoa duela Gizarte Ekonomian EAEko ekonomiaren osotasunean baino.

Gogoeta ildo honetan, 9. taulan ikus dezakegunetik eratoritzen da 2008an Kooperatiba eta Lan Sozietateetan industriako enpleguari zegokiona %47,79 zela, urte horretan bertan EAEko ekonomia osoan %25,56 baino ez zenean; eta 2012an %46,10 zen Kooperatiba eta Lan Sozietateetan, EAEko ekonomia osoan %23,70 soilik zenean.

Zerbitzu sektoreko enpleguari dagokionean esan behar da, Kooperatiba eta Lan Sozietateen enpleguaren egituran atal honek gero eta garrantzi gehiago badu ere, oraindik ez dela EAEko ekonomiaren osotasunean sektoreak duenaren mailara iristea lortu. Honela, 2008an zerbitzu sektoreak Kooperatiba eta Lan Sozietateen enplegu agregatuaren %48,48 biltzen zuen, EAEko ekonomia osoan sektoreko enpleguaren munta %64,80koa zen bitartean. 2012rako, Kooperatiba eta Lan Sozietateetan zerbitzu sektoreko enpleguaren munta %50,11koa zen, EAEko ekonomia osoan %69,03raino iristen zen bitartean.

Laburbilduz, ebatzi genezake euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateek beren enpleguaren sektorerako egituraren eraldaketa prozesu bat bizi izan badute ere, industria sektoreak garrantzia galdu eta zerbitzu sektoreak irabazten zuelarik, Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuak oraindik ere profil industrial nabariagoa erakusten jarraitzen duela EAEko ekonomian bere osotasunean enpleguaren sektorekako egiturak duena baino.

Beraz, ondorengo 10. taulan ikus daitekeenez, Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu industrialaren zatia esanguratsua da EAE osoko enplegu industrial guztiaren barnean, %11,86koa baitzen 2008an, %11,78koa 2010ean, eta %12koa 2012an. Aldiz, ikus dezakegu zerbitzu sektoreari dagozkion ehunekoak, EAE osoarekin alderatuta, askoz munta eskasagoak direla: %4,75koa 2008an, %4,85koa 2010ean eta %4,48koa 2012an.

10. Taula. Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren sektorekako banaketa, Lurralde Historikoen eta era juridikoaren arabera. 2008, 2010 eta 2012 urteak						
2008	Koop.	L.S.A.	L.S.M.	Guztira	EAEko Ekonomia	Garrantzi Erlatiboa %
CAPV	50.359	7.451	4.806	62.615	987.100	6,34
Lehen Sek.	190	8	22	220	12.200	1,80
Industria	23.329	4.385	2.208	29.922	252.300	11,86
Eraikuntza	1.111	346	664	2.120	82.900	2,56
Zerbitzuak	25.729	2.712	1.912	30.353	639.600	4,75
Araba	5.205	728	535	6.467	150.200	4,31
Lehen Sek.	117	0	0	117	3.200	3,66
Industria	1.694	633	201	2.528	49.200	5,14
Eraikuntza	236	32	63	330	10.500	3,14
Zerbitzuak	3.158	63	271	3.492	87.300	4,00
Bizkaia	18.074	4.353	2.027	24.454	510.600	4,80
Lehen Sek.	57	8	22	87	5.300	1,64
Industria	5.855	1.904	510	8.268	108.300	7,63
Eraikuntza	374	185	388	947	45.300	2,10
Zerbitzuak	11.789	2.256	1.107	15.151	351.800	4,30
Gipuzkoa	27.080	2.370	2.244	31.694	326.300	9,70
Lehen Sek.	16	0	0	16	3.800	0,40
Industria	15.780	1.848	1.498	18.126	94.800	19,12
Eraikuntza	502	129	213	843	27.200	3,10
Zerbitzuak	10.782	393	533	11.709	200.500	5,84
2010	Koop.	L.S.A.	L.S.M.	Guztira	EAEko Ekonomia	Garrantzi Erlatiboa %
CAPV	48.196	7.355	4.365	59.915	948.900	6,31
Lehen Sek.	154	0	25	179	8.700	2,00
Industria	20.897	3.487	2.126	26.510	225.000	11,78
Eraikuntza	1.242	311	502	2.055	72.500	2,80
Zerbitzuak	25.903	3.557	1.711	31.171	642.700	4,85
Araba	5.346	730	523	6.599	143.800	4,60
Lehen Sek.	85	0	0	85	3.100	2,70
Industria	1.894	500	159	2.552	40.900	6,20
Eraikuntza	288	28	45	362	8.800	4,10
Zerbitzuak	3.080	203	318	3.601	91.000	4,00

Bizkaia	17.904	4.413	1.870	24.186	495.800	4,90
Lehen Sek.	56	0	15	71	3.600	2,00
Industria	5.239	1.647	613	7.499	97.400	7,70
Eraikuntza	488	147	321	955	42.300	2,30
Zerbitzuak	12.121	2.620	921	15.661	352.500	4,40
Gipuzkoa	24.946	2.212	1.972	29.130	309.300	9,40
Lehen Sek.	14	0	10	24	2.000	1,20
Industria	13.764	1.341	1.353	16.459	86.700	19,00
Eraikuntza	466	136	136	738	21.400	3,50
Zerbitzuak	10.702	734	472	11.909	199.200	6,00
2012	Koop.	L.S.A.	L.S.M.	Guztira	EAEko Ekonomia	Garrantzi Erlatiboa %
CAPV	47.981	4.005	3.823	55.809	904.300	6,17
Lehen Sek.	101	0	16	117	8.000	1,46
Industria	20.917	3.033	1.777	25.727	214.300	12,01
Eraikuntza	1.317	204	479	2.000	57.800	3,46
Zerbitzuak	25.647	770	1.549	27.966	624.200	4,48
Araba	4.983	476	387	5.846	139.300	4,20
Lehen Sek.	57	0	0	57	2.100	2,71
Industria	1.707	382	169	2.258	39.300	5,75
Eraikuntza	245	24	44	313	7.800	4,01
Zerbitzuak	2.974	70	174	3.218	90.100	3,57
Bizkaia	17.704	1.860	1.523	21.087	468.300	4,50
Lehen Sek.	32	0	12	44	3.900	1,13
Industria	5.215	1.401	324	6.941	96.900	7,16
Eraikuntza	636	99	266	1.001	30.200	3,31
Zerbitzuak	11.822	360	920	13.102	337.300	3,88
Gipuzkoa	25.294	1.670	1.912	28.876	296.700	9,73
Lehen Sek.	12	0	4	16	2.000	0,80
Industria	13.995	1.249	1.284	16.528	78.100	21,16
Eraikuntza	436	89	169	686	19.800	3,46
Zerbitzuak	10.851	340	455	11.646	196.800	5,92

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Buirteko Txostena. Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Buirteko Txostena. Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

10. taulatik abiatuz Lurralde Historikoen arteko alderaketa bat eginez gero, argibide interesgarriak aurkitzen ahal ditugu. Lehenik, euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuari egindako ekarpenean Gipuzkoak duen garrantzia, Bizkaia eta Arabaren aurretik, aztergai diren aldi guztietan, 2008an, 2010rean eta 2012an. Hala ere esan behar da Gipuzkoako lurraldeak beherakada txiki bat eduki duela aipatu ditugun denboraldi horietan (2008 eta 2012 bitartean, Gipuzkoako Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren munta 31.649tik 28.876ra jaisten baita).

Era berean, lurraldeen arabera sektorekako banaketari begiratzen badiogu, industriako enpleguak Gipuzkoan duen garrantzi aparta kausituko dugu, nahiz eta aztergai ditugun aldietan beherakada txiki bat egiten duen zerbitzu sektorearen mesedetan, 2012an izan ezik, denboraldi horretan bi sektoreetan egiten baitu beherakada enpleguak. Aldiz, Bizkaia eta Arabako lurraldeetan, zerbitzu sektoreak garrantzi handiagoa du Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren banaketan aztergai ditugun aldietako bakoitzean.

Era juridikoaren arabera analisiari helduz, azpimarratzekoa da Kooperatibetako enplegua munta handiagokoa dela Lan Sozietateetako baino, nahiz eta haien joera negatiboa izan 2008 eta 2012 bitarteko denboraldirako, batez ere Kooperatiba industrialetan jazotako enplegu galerak ezin izan dituelako osoro ordezkatu zerbitzu sektoreko Kooperatibek 2008 eta 2010reko aldietan izandako hazkundeak.

Bestalde, Lan Sozietate Anonimoetako enpleguak beheranzko joerarekin jarraitzen du, eta bereziki esanguratsua da joera hori industria sektorean. Deigarria da 2010-2012 aldian ematen den beherakada larregia, 7.355 enplegu edukizetik 4.005era erortzen baita, aurreko denboraldian, 2008-2010rekoan, hobeto eusteko gai izan ondoren. Bilakaera honen ondorioa da entitate hauen garrantzi erlatiboa gero eta txikiagoa dela Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren osotasunean. Lan Sozietate Mugatuei dagokienez, hauek ere enplegu galera orokorraren eraginpean aurkitzen dira, beherakada hori Lan Sozietate Anonimoena baino txikiagoa bada ere 2010-2012 denboraldian.

Laburbilduz, ondoriozta liteke, enplegu industrialak pairatu duen beherakadaren ondorioz enpleguaren egituran aldaketa esanguratsuak eman badira ere, Gipuzkoako Kooperatiba industrialek jarraitzen dutela Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren osotasunean garrantzi erlatibo handiena duten entitateak izaten; jarraian, Bizkaiko hirugarren sektoreko Kooperatibak leudeke eta Gipuzkoako hirugarren sektoreko Kooperatibak. Aztergai ditugun denboraldi guztietan homogeneouski agertzen den egoera da hau. Halaz eta guztiz, 2010-2012 denboraldian hirugarren sektoreko Bizkaiko eta Gipuzkoako Kooperatiben artean berdintzeko joera nabaritzen da, lehenek beherakada egiten duten bitartean bigarrenak goraka doazelako.

Euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enpleguaren genero eta kalitate azterketa

Ondoren aztertuko ditugu, erlazioaren arabera, euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuan ematen diren genero ezberdintasunak eta enpleguaren kalitatean horiek duten eragina, kontratu harreman mota (denborazkotasuna) aintzakotzat hartuz. Lanaldi motaren arabera azterketa ere egingen dugu (zaticakotasuna).

11. Taula. Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren ehunekoak sexuaren arabera. 2009-2013 urteak				
	Kooperatibak eta Lan Sozietateak (1)		EAE (2)	
	Gizonak %	Emakumeak %	Gizonak %	Emakumeak %
2009	52,1	47,9	55,8	44,2
2010	53,1	46,9	55,3	44,7
2011	52,9	47,1	54,4	45,6
2012	52,5	47,5	53,8	46,2
2013	52,1	47,9	53,5	46,5

(1): Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. Estatuko Enplegu Idazkaritza. Lan Autonomoaren, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresen Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza Orokorraren datuetatik abiatuta.

(2): Iturria: Eustat

11. taulak ahalbidetzen digu Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren baitan ematen diren genero ezberdintasunak kausitzea eta EAeko osotasunean ematen direnekin alderatzea. Lehenik nabarmentzen dena da Kooperatiba eta Lan Sozietateetako emakumeen enpleguari dagokionean, 2009-2013 denboraldian bilakaera homogenea ematen dela, %47-48 inguruan dabilena beti ere. EAEn osotasunean, joera positiboa ematen da emakumeen enpleguari dagokionean, 2009 – 2013 bitartean ehunekoa handitu egiten baita.

Halere, agerian geratzen da Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enpleguaren genero datuak hobeak direla EAE osoan ematen direnak baino, berdintasun gehiago dagoelako sexuen banaketaren ehunekoetan.

12. Taula. Enplegu portzentuak kontratu-harreman motaren arabera. 2008, 2010 eta 2012 urteak			
	Kontratu-harremana		
	Bazkidea %	Soldatako finkoa %	Aldi bateko soldatakoa %
2008	66,80	15,80	17,30
2010	66,00	20,00	14,00
2012	70,40	14,30	15,30

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

12. taulak Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enpleguaren kalitatea ikertzea du xedetzat, kontratu-harremanen nolakotasuna neurgailutzat hartuz. Ikuspegi horretatik, esan daiteke 2008an eta 2010rean Kooperatiba eta Lan Sozietateetako bazkideza egonkor mantendu dela %66aren inguruan, eta zertxobait hazi egin dela 2012an, %70ra gainditzera.

Gainerakoan ehunekoak besteren kontura diharduten soldatako langileek osatzen dute, eta halakoan artean soldatako finkoak eta aldi batekoak bereiz ditzakegu. Esan dezakegu azken urte hauetan soldatako finkoen eta aldi batekoen zenbatekoak berdintzen ari direla, oro har, lehendabizikoan multzoa hazten ari delako eta bigarrenagoa murrizten, baina horrek ez duela ondorio aipagarririk sortzen bazkideen multzoan.

Krisialdiaren aurreko datuekin, esate baterako 2006koekin, alderatuz gero, ikus dezakegu soldatako finkoen multzoa hazi egin dela pixka bat, aldi batekoen kopurua nabarmenki gutxitu delarik aldi berean (ikus bide batez OVES/GEEB 2011 Txostena). Ikuspegi honetatik, gogoan izan behar da egitate hau Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuan ematen den beherakadarekin oso lotuta egon daitekeelako, sektore guztietan gertatzen den bezala, aldi bateko enpleguan izaten duelako egoera horrek bere lehen eragina.

Bestalde, lanaldi osoko eta lanaldi laburreko enpleguaren arteko bereizkuntza argigarria izan daiteke Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren kalitatea neurtzerakoan, enpleguaren ez-egonkortasunarekin zuzenean parekatu behar ez bada ere, hainbat pertsonen nahiago izan dezaketelako, borondate hutsez, lanaldi laburtuarekin aritzea. Ez-egonkortasunari buruzko analisi hori egin ahal izateko, lanaldi laburtuan ari diren langileen zergatien informazioa eduki beharko genuke, eta gaurkoz ez dago halakorik euskal Gizarte Ekonomiari buruz bederen.

Jarraian doan 13. taulan ikus daitezke horri buruzko datuak.

13. Taula. Enpleguaren ehunekoak, lanaldi motaren arabera. 2008-2013 urteak		
	Lanaldi mota	
	Lanaldia Osoa %	Lanaldi Laburra %
2009	84,5	15,5
2010	84,3	15,7
2011	83,7	16,3
2012	83,2	16,8
2013	82,8	17,2

Fuente: elaboración propia a partir de datos del Ministerio de Empleo y Seguridad Social. Secretaría de Estado de Empleo. Dirección General de Trabajo Autónomo, Economía Social y Responsabilidad Social de las Empresas.

Ikus liteke 2009 eta 2013 bitartean gehitu egin dela zertxobait lanaldi laburreko kontratazio mota eta, aldi berean, paraleloki, gutxitu egin dela pixka bat lanaldi osoko kontratazioa. Edonola ere, argi utzi behar da oso aldaketa txikiak direla ematen direnak. Eta gainera, oso nabarmena da lanaldi osoko enpleguak askoz munta handiagoa duela lanaldi laburtukoak baino.

Laburtuz, esan dezakegu Kooperatiba eta Lan Sozietateen bereizgarria dela enpleguaren ehuneko oso zabala bazkideez osatutakoa edukitzen jarraitzea, eta aldi bateko soldatakoek osatuko luketen enplegu zati ez-egonkor txikia dutela.

III. Datu ekonomikoen zifra agregatuak

Kooperatiba eta Lan Sozietateei buruzko datu ekonomikoen azterketari ekiterakoan, ezinezkoa zaigu 2009 eta 2013 bitarteko urte guztietako datuak osotasunean eta homogeneoki eskaintzea.

Horretarako, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak euskal Kooperatiba eta Lan Sozietateen Galera eta Irabazkinen Kontuen datuak soilik 2011 artekoak eskaintzen ditu, eta azken urte horretakoak gainera osatu gabe daude.

Eusko Jaurlaritzak euskal Gizarte Ekonomiari buruz eginak dituen txosten ezberdinetan eskaintzen dituen datuei buruz esan behar da, bestalde, bi urtean behinekoak direla soilik. Hori bai, bi eratako entitateak hartzen dituzte aintzakotzat eta Galera eta Irabazkinen Kontuetan jasotzen dena baino informazio ekonomiko zabalagoa eskaintzen dute.

Azkenik, Foru Ogasunetatik lor daitezkeen datuak Kooperatiben Galera eta Irabazkinen Kontuei buruzkoak dira soil-soilik, eta eskuragarri dagoen azken urtea 2012koa da.

Beraz, Kooperatiben eta Lan Sozietateen errealitate ekonomikora ahalik gehien hurbilduko den azterketarik osoena eta doituena egiteko helburuarekin, koherentziazkoa iruditzen zaigu lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzaren Txosten ezberdinetatik jasotako informazioaren gaineko ikerketa bat egitea. Jarraian, Kooperatiben zifra ekonomikoei buruz hiru Foru Ogasunetatik jasotako datuak aurkeztuko ditugu, bereziki argigarriak eta fidagarritasun handikoak direlako.

Jadanik aurreratu dezakegu amaierako atalean Kooperatiba eta Lan Sozietateei buruzko ondorioak ateratzeko datu ekonomikoak bilbatzen hasten garenean, alde batetik, Foru Ogasunen datuak hartuko ditugula aintzat Kooperatiben kasurako eta, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Txostenen datuak erabiliko ditugula Lan Sozietateen kasuan, entitate mota hauei buruzko informazio ekonomikoa ahalik osoen eskaini ahal izateko.

Analisi ekonomikoari ekinez, Kooperatiben eta Lan Sozietateen Galera eta Irabazkinen Kontu agregatua aurkeztuko dugu lehendabizi, 14. taulan.

14. Taula. Kooperatiba eta Lan Sozietateen Galera eta Irabazkinen Kontu agregatua. 2008, 2010 eta 2012 urteak			
	2008	2010	2012
Ekoizpena	10.526.315,79	9.363.694,44	9.368.296,29
Bitarteko Kontsumoak	7.508.565,26	6.379.934,85	6.554.109,14
Balio Erantsia	3.017.750,52	2.983.759,59	2.814.187,15
Langileria Gastuak	2.059.310,10	2.103.010,68	2.046.598,35
Ustiapenaren Emaidza Gordina	958.440,42	880.748,91	767.588,81
Amortizazioak	322.878,81	361.615,33	280.323,01
Hornidurak	322.335,04	331.952,33	446.816,97
Ustiapenaren Emaidza Garbia	313.226,57	187.181,25	40.448,83
Finantza Sarrerak	223.459,94	145.628,85	178.032,21
Finantza Gastuak	373.186,79	226.777,84	191.913,24
Ohiko Jardueren Emaidzak	163.499,72	106.032,27	26.567,81
Ezohiko Emaidzak	173.811,36	117.290,24	4.687,48
Titulu Kartearen Emaidza (1)	-	-	-
Zerga Aurretiko Emaidzak	337.311,08	223.322,51	31.255,28
Elkarteen Zerga (2)	-18.767,40	15.752,04	-48.064,61
Zerga Ondorengo Emaidzak	356.078,48	207.570,47	79.319,90

Kopuruak milaka eurotan

(1): Finantza Sarrera eta Gastuen barnean

(2) 63. kontua. Jarduerari atxikitako Zergak/Legarrak, barneratzen du

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

Galera eta Irabazkinen Kontuan agertzen diren datuak behatutakoan, zerga ondorengo emaitzetan 2008-2010 eta 2010-2012 denboraldietan ematen diren murrizketa gogorak, %41,71 eta %61,8koak hurrenez hurren, nabarmendu behar dira, halaz eta guztiz ere zifra positiboak izaten jarraitzen duten arren.

Dirudienez, 2010reko datuen kasuan, amortizazio eta horniduren zifra handiak, batik bat finantza sektoreari eta bide batez Kreditu Kooperatibei lotuta egongo lirakeenak, ekoizpenaren balioa murriztu izanarekin batera, dira emaitzaren gainbeheran gehien eragin bide duten atalak. 2012ko kasuan, berriz, azpimarragarria da berriro ematen den horniduren hazkundera, bitarteko kontsumoen hazkunderarekin eta ezohiko emaitzen beherakada apartarekin elkartuta, urte horretako emaitzak biziki gutxitzea erakarriko lukeen faktorea litzatekeelako.

Ondoren doan 15. taulan Balio Erantsi Gordinaren (aurrerantzean BEG) banaketa agertzen da, sektoreka eta izaera juridikoaren arabera. Jarraian, horrek Barne Produktu Gordinaren (aurrerantzean BPG) zenbateko eragina duen aztertuko dugu.


Lehenik, agerikoa da Kooperatiba eta Lan Sozietateek oro bat jarduera sektore guztietan agregatuki sortu duten BEG orokorra murriztu egiten dela etenik gabe 2008 eta 2012 bitartean, nahiz eta 2010-2012 denboraldiko beherakada handiagoa den 2008 – 2010 denboraldikoa baino: %6,38 lehen kasuan eta %3,56 bigarreanean.

Datuak izaera juridikoaren arabera behatuz gero, ikus dezakegu Kooperatibek BEG gehiago sortzen dutela Lan Sozietateek baino. Bide batez, egia izanik hiru izaera juridikoetan ematen direla sortutako BEGaren murrizketak 2008 eta 2012 bitartean, ohargarria da beherakaden ehunekoak nabarmen txikiagoak direla Kooperatiben kasuan.

15. Taula. BEGaren banaketa sektoreka eta izaera juridikoaren arabera. 2008, 2010 eta 2012 urteak				
2008	KOOP. S.	L.S.A.	L.S.M.	Guztira
Lehen Sek.	5,39	0,18	0,32	5,88
Industria	1.391,50	178,47	60,42	1.630,39
Eraikuntza	38,87	13,60	23,48	75,95
Zerbitzuak	1.071,85	90,11	53,55	1.215,51
Guztira	2.507,60	282,37	137,77	2.927,74
2010	S. COOP.	S.A.L.	S.L.L.	Total
Lehen Sek.	3,46	0,00	0,21	3,67
Industria	1.278,86	118,71	54,45	1.452,02
Eraikuntza	43,14	11,48	15,03	69,65
Zerbitzuak	1.150,98	105,36	41,87	1.298,21
Guztira	2.476,44	235,55	111,56	2.823,56
2012	S. COOP.	S.A.L.	S.L.L.	Total
Lehen Sek.	1,45	0	0,14	1,56
Industria	1.196,58	117,44	49,5	1.363,52
Eraikuntza	39,2	6,66	12,57	58,44
Zerbitzuak	1.157,08	22,62	40,13	1.219,85
Guztira	2.394,31	146,72	102,34	2.643,37

Milioika euro arruntetan.

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.



Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

Sektorekako analisisian murgilduta, has gaitezke azpimarratuz industriaren eta hirugarren sektorearen hazkunde erritmoan ematen den beherakadak behartutakoa dela Kooperatiba eta Lan Sozietateek sortutako BEGean jazotzen den atzerakada, sektore horietan baitira sortutako BEGaren egituraren gehiengo osatzen dutenak.

Bidenabar, 12. irudian ikus liteke industria sektoreak ia %11ko beherakada pairatzen duela 2010rean eta %6 ingurukoa 2012an. Zerbitzu sektorearen bilakaerak, bestalde, joera negatiboa erakusten du BEGa sortzeari dagokionean, izan ere 2008an %10,34ko hazkunde tasa bazuen ere, 2010rean hazkunde tasa hori %6,80ra jaitsi zen eta, azkenik, 2012an %6ko hazkunde tasa negatiboa aurkezten zuen (ikus bide batez OVES/GEEB 2011 Txostena).

Kooperatiba eta Lan Sozietateek sorturako BEGaren osotasunean askoz munta eskasagoa duten gainerako beste bi sektoreei dagokienez, esan behar da lehen sektoreak joera ezkorra erakusten duela 2008 eta 2012 bitartean, eta eraikuntza sektoreak gutxi gora behera bere horretan jarraitzen duela aztergai ditugun denboraldi horietan.

Funtsean, esan liteke Kooperatiba eta Lan Sozietateek oro bat sortutako BEGaren egitura hirugarren sektoreak duen garrantzi erlatiboa handituz doala. Ildo horretan, hari dagokion ehunekoa 2008an %41,5koa izatetik 2012an %46,2koa izatera pasatzen da.

Jakina, hirugarren sektorearen garrantzi erlatiboaren gorakada hau, BEGaren sorruntzan beste alor nagusia den industria sektoreari dagokion garrantzi erlatiboaren beherakadarekin lotuta ematen da. Horregatik, ikus dezakegu industria sektoreak %55,7 bereganatzen duela 2008an, eta %51,6 baino ez 2012an. Industria eta zerbitzu sektoreetan agertzen diren joera hauek, enpleguaren alorrean ematen zirenen oso antzekoak direla esan liteke. Hala ere, ez dugu ahanzi behar industria sektoreak duen garrantzi funtsezkoa Kooperatiba eta Lan Sozietateek sortutako BEGaren egitura, sortutako BEG osoaren erdia baino gehiago baitator sektore horretatik, hirugarren sektoreak egiten duen ekarpena gaituz, beraz. Gainera, garrantzi hori EAeko BPGan duen eraginean ere islatuta geratzen da. (16. taula).

16. Taula. Barne Produktu Gordinean partaidetza (ehunekotan). 2008, 2010 eta 2012 urteak					
	Jarduera sektorea				
	Lehen sek.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira
2008	e.e.	9,30	1,30	3,20	4,30
2010	e.e.	10,00	1,50	3,30	4,80
2012	e.e.	9,90	1,40	3,00	4,50

n.d: no disponible.

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

Kooperatibak eta Lan Sozietateek sortutako BEGa gutxitu izanaren ondorioa da EAeko BPG osoari egiten zaion ekarpena ere murriztu izana 2010-2012 denboraldian; ez ordea 2008-2010 denboraldian, orduan EAE osoko BEGak pairatu zuen beherakadaren ondorioz ekarpenaren ehunekoia igo egin baitzen. Bidenabar, Kooperatiba eta Lan Sozietateen BEGaren ekarpena EAeko BPGan ehuneko puntu erdia hazten da 2008 eta 2010 bitartean, eta jarraian hiru hamarren jaisten da 2010 eta 2012 bitartean. Bai 2008-2010reko hobekuntza eta baita ere ondorengo biurteko galera zerbitzu sektorearen bilakaerari eta, batez ere, industria sektorearenari zor zaizkio. Gogoratu behar da industria sektorearen muntak hirukoiztu egiten duela zerbitzu sektorearena.

Aipatu ditugun BEGaren zifra hauetatik eta enpleguarenetatik, Produktibitate Atzemangarriaren zifrak eratorzen dira (17. taula), BEGa eta enpleguaren arteko zatidura direnez. Aldagai hauek bilakaera berdintsu samarra eduki dutenez, produktibitate atzemangarria ere joera aski homogeneoan mantentzen da. Hori bai, ohargarriak dira industria sektoreak agertzen dituen balioak, nabarmenki hazten direlako, sortutako BEGa baino gehiago murriztu delako enplegua proportzionalki. Bestalde, zerbitzu sektoreko produktibitate atzemangarriaren gorakada, bere enpleguaren hazkundearen ondorioa da gehienbat.

17. Taula. Produktibitate atzemangarria (BEG m. €/Enplegua) sektoreka eta izaera juridikoaren arabera. 2008, 2010 eta 2012 urteak						
2008	KOOP. S.	L.S.A.	L.S.M.	S.M.	Guztira	EAE
Lehen Sek.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Industria	59,60	40,70	27,40	36,20	54,00	e.e.
Eraikuntza	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	36,00	e.e.
Zerbitzuak	41,70	33,20	28,00	31,10	40,00	e.e.
Guztira	49,80	37,90	28,70	34,30	47,00	46,80
2010	KOOP. S.	L.S.A.	L.S.M.	S.M.	Guztira	EAE
Lehen Sek.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Industria	61,20	34,04	25,61	30,85	61,45	e.e.
Eraikuntza	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Zerbitzuak	44,43	29,62	24,47	27,95	50,17	e.e.
Guztira	51,38	32,03	25,56	29,62	47,12	47,13
2012	KOOP. S.	L.S.A.	L.S.M.	S.M.	Guztira	EAE
Lehen Sek.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Industria	57,21	38,73	27,85	34,71	63,32	e.e.
Eraikuntza	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Zerbitzuak	45,12	29,41	25,91	27,07	49,63	e.e.
Guztira	49,90	36,63	26,77	31,82	47,36	47,36

Iturria: geuk egina, Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2008. 2006-2008 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. 2008-2010 Biurteko Txostena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta.

Foru Ogasunen datuak Kooperatibei buruz

Jarraian, Kooperatiben Emaitza Kontuei buruzko datu ekonomikak aurkezten dira. Foru Ogasun bakoitzetik jasotako datuak dira eta 2009 eta 2012 bitarteko denboraldikoak, harez geroztik daturik ez baitago eskura oraindik. Azpimarragarria da nola, 2009 eta 2012 bitarte horretan Kooperatiben kopurua ugartu bada ere, ez den beste horrenbeste gertatu haien Galera eta Irabazkinen Kontuetan, nahiz eta emaitzak positiboak izan diren aztergai diren urte horietan guztietan.

	18. Taula							
	2009				2010			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Kooperatiba kopurua	263	533	651	1.447	280	573	675	1.528
Ustiapenaren emaitza	3.583.929,27	307.285.740,23	142.521.544,78	453.391.214,28	13.712.076,32	364.264.832,71	175.648.491,37	553.625.400,40
Finantza-emaitza	-10.591.604,85	-204.973.715,96	-88.493.973,73	-304.059.294,54	-6.822.036,50	-246.232.830,22	-96.693.594,13	-349.748.460,85
Zerga aurretiko emaitza	-7.007.675,58	102.312.024,27	54.027.571,05	149.331.919,74	6.890.039,82	118.032.002,49	78.954.897,24	203.876.939,55
Etekinen gaineko zergak	-1.030.775,17	2.890.681,76	372.874,33	2.232.780,92	160.453,05	8.726.728,64	1.868.755,74	10.755.937,43
Ekitaldiaren emaitza operazio jarraikortzatik datorrena	-5.976.900,41	99.421.342,51	53.654.696,72	147.099.138,82	6.729.586,77	109.305.273,85	77.086.141,50	193.121.002,12
Ekitaldiaren emaitza operazio etenetatik datorrena zergak kitatuta	-79.396,99	-1.751.306,34	-1.732.082,82	-3.562.786,15	-431.639,00	-2.572.049,46	-2.040.668,93	-5.044.357,39
Galera eta irabazkinen kontuaren emaitza	-6.056.297,40	97.670.036,17	51.922.613,90	143.536.352,67	6.297.947,77	106.733.224,39	75.045.472,57	188.076.644,73

Fuente: Foru Ogasunak.

	19. Taula							
	2011				2012			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Kooperatiba kopurua	287	609	691	1.587	299	667	689	655
Ustiapenaren emaitza	12.457.507,08	280.573.954,53	222.255.586,10	515.287.047,71	17.584.846,29	201.993.470,82	184.187.232,62	403.765.549,73
Finantza-emaitza	-4.112.105,30	-149.789.265,75	-53.141.154,55	-207.042.525,60	-4.765.047,86	-216.105.685,65	-29.255.421,33	-250.126.154,84
Zerga aurretiko emaitza	8.345.401,78	130.784.688,78	169.114.431,55	308.244.522,11	12.819.798,43	-14.112.214,83	154.931.811,29	153.639.394,89
Etekinen gaineko zergak	-2.460.902,58	4.376.910,89	24.857.002,54	26.773.010,85	483.492,15	-3.226.298,87	28.938.403,58	26.195.596,86
Ekitaldiaren emaitza operazio jarraikorretatik datorrena	10.806.304,36	126.407.777,89	144.257.429,01	281.471.511,26	12.336.306,28	-10.885.915,96	125.993.407,71	127.443.798,03
Ekitaldiaren emaitza operazio etenetatik datorrena zergak kitatuta	0,00	0,00	-13.544,39	-13.544,39	0,00	-12.908,93	0,00	-12.908,93
Galera eta irabazkinen kontuaren emaitza	10.806.304,36	126.407.777,89	144.243.884,62	281.457.966,87	12.336.306,28	-10.898.824,89	125.993.407,71	127.430.889,10

Fuente: Foru Ogasunak.

3. Enplegu Zentro Bereziak

Enplegu Zentro Bereziei buruzko informazioaren iturria EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea) da. Ahalmen urritasuna duten pertsonentzat enplegua sortzean datza beren jarduera esparrua eta, bide batez, aukera berdintasunezko ingurumenak eratzea da beren helburua, pertsona hauek enplegua lortzeko orduan aurkitzen dituzten oztopoak desagertar daitezten.

I. Entitateak

20. Taula. Enplegu Zentro Berezien kopurua, izaera juridikoa eta lantegiak. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Entitate kopurua	6	6	8	9	11
Araba	1	1	2	2	2
Bizkaia	3	3	4	5	7
Gipuzkoa	2	2	2	2	2
Era juridikoa					
Herri entitatea	2	2	1	1	1
SA-SM	2	2	4	6	8
LSM	1	1	1	1	1
Elkartea	0	0	1	1	1
Fundazioa	1	1	1	1	1
Lantegiak	97	97	97	97	99


Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.

Entitate kopuruari buruz EHLABEk eskaintzen dizkigun datuak aintzakotzat hartuz, ikus liteke Enplegu Zentro Berezien kopuruak ez duela inolako aldaketarik jazotzen 2009 eta 2010ean, ondoren, 2011n, 8 entitateraino igotzeko, 2012an 9raino eta, azkenik, 2013an 11 entitate izateko. Halaber, ikus dezakegu Bizkaia dela Enplegu Zentro Berezi gehien duen lurraldea, ondoren Gipuzkoa eta azkenik Araba datozelarik. Enplegu Zentro Bereziek lurralde historikoen eta izaera juridikoaren arabera duten banaketari erreparatzen badiogu, ohartuko gara Bizkaian ematen den entitate hazkundetik datorrela bilakaera positiboa, eta gainera hauetako gehienak Sozietate Mugatuak direla.

II. Enplegua

21. Taula. EHLABEko Enplegu Zentro Berezieta enplegaturiko pertsonak. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Urritasun psikikoa dutenak	2.767	2.981	3.048	2.982	3.127
Gaixotasun mentala dutenak	668	750	827	932	1.032
Ahalmen urritasun intelektuala dutenak	2.099	2.231	2.221	2.050	2.095
Ahalmen urritasun fisikoa eta sentsoriala dutenak	2.559	2.586	2.853	2.978	3.130
Ahalmen urritasun erabatekoa dutenak	5.326	5.567	5.901	5.861	6.257
Ahalmen urritasunik gabeak	1.069	1.079	957	925	974
Ahalmen urrikoen ehunekoa Enplegu Zentro Berezieta langile guztien aldean	83,3	83,8	87,6	86,4	86,5
Ahalmen urritasun psikikoa dutenak okupazio – zentroetan	1.811	1.823	1.836	1.799	1.846

Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.



Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.

Azpinarratu behar da Enplegu Zentro Berezieta ahalmen urritasuna duten pertsonentzako enplegua mantentzea ez ezik berria sortzea lortu dutela, ekonomiaren egoera zailari aurre eginez. Ikus daiteke ahalmen urritasuna duten pertsonen enpleguan hazkunde orokorrak nola ematen diren aztergai diren denboraldi guztietan, 2011-2012 denboraldian salbu, non enpleguaren murrizketa txiki bat jazotzen baita ahalmen urritasuna dutenen artean, ahalmen urritasun intelektuala dutenen atalean ematen den beherakadari zor zaiona bereziki.

Kopuru absolututan, agerikoa da 2009 eta 2013 bitartean hazi egin dela enplegua bai ahalmen urritasun psikikoa dutenen atalean nola urritasun fisiko/sentsoriala dutenenean. Ondorioz, guztira, ahalmen urritasunen bat duten pertsonen enplegua hazi egin da %10 baino gehixeago.

Azpitarragarria da gaixotasun mentala duten pertsonen enpleguak agertzen duen joera ona. Horrek frogatzen du zein funtsezkoa den Enplegu Zentro Berezien jarduera lan merkatura iritsi ahal izateko eragozpen korapilatsuenak eduki ohi dituen jende talde honen gizarteratze-laneratzean.

Bestalde, nabarmendu behar da ahalmen urritasuna duten pertsonen gehiengoa osatzen dutela langile guztien artean, eta oro har haien zatia %85 ingurukoa dela aztergai ditugun aldi guztietan. Ahalmen urritasunik gabeko pertsonen enpleguari dagokionez, entitateetako enplegu osoaren %15 ingurukoa da eta ikus liteke joera negatiboa duela 2010 eta 2012 bitartean, zehazki %11,3 murrizten delako 2011n eta %3,34 2012an; hala ere, 2013an susperraldi bat nabaritzen da berriro atal horretan, %5,3 hazten baita bere enplegua.

22. Taula. Enpleguaren ehunekoak sexuaren eta kontratu-harremanaren arabera. 2009 – 2013 urteak				
	Sexua %		Kontratu-harremana %	
	Gizona	Emakumea	Soldatako finkoa	Aldi bateko soldatakoa
2009	61,36	38,64	71,88	28,12
2010	60,49	38,01	68,97	31,03
2011	64,06	35,94	67,31	32,69
2012	63,26	36,74	68,58	31,42
2013	62,47	37,53	68,52	31,48

Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.

En Aurreko taulatik eratorritzen diren enpleguaren genero eta kalitate tasunen analisiari ekinez, ondorengoa berretsi genezake. Lehenik eta behin, ondoriozta dezakegu 2009 eta 2013 bitartean Enplegu Zentro Bereziatan lan egiten duten gizon eta emakumeen arteko aldea handituz joaz dela. 2009 eta 2010 artean alde hori murriztea lortzen da, baina 2011n nabarmenki handitzen da berriz ere. 2012 eta 2013ko datuek hobetzeko joera bat irudikatzen dute, gizezko eta emakumezkoen enpleguak berdintzera egiten baitu, baina nolana ere ez da lortzen lehendanik 2009an eta 2010ean ematen ziren zifretara itzultzea.

Bestalde, kontratu-harreman ezberdinei begiratzen badiegu, ikusten ahal dugu kontratu mugagabeak egonkortasuna erakusten duela, nahiz eta aldaketa negatibo txiki bat ematen den aztergai dugun aldi osoa kontutan hartzen badugu. Aldi baterako kontratazioari dagokionez, esan liteke baita ere bilakaera egonkor samarra erakusten duela baina, oro har, hazkunde txiki bat jazotzen duela aztergai dugun denboraldian.

Honek enpleguaren kalitatea, behin-behinekotasunak zapuzten duena, zertxobait galdu egin dela suposa badezake ere, esan behar da bi kontratazio motatan ematen diren aldaketak oso txikiak direla, eta mugagabeko kontratazioak askoz ugariagoa izaten jarraitzen duela aldi batekoak baino. Halaber, pentsa genezake behin-behineko enpleguaren presentzia hori, Gizarte Ekonomiako bestelako entitateetan ematen dena baino handixeagoa izan daitekeena, Enplegu Zentro Berezi hauetako enpleguak dituen berezitasunen ondorio ere izan daitekeela.

Laburbilduz, eta azken ondorio moduan, aldarrika genezake Enplegu Zentro Bereziak abagune ekonomiko zailei aurre egiteko gaitasun aparta erakutsi dutela, eta kopuru absolututan 2009 eta

2013 bitartean enplegua sortzeko gai izan direla, batez ere ahalmen urritasuna dutenen esparruan. Horregatik, enpresa hauek baliabide funtsezkoa bilakatzen dira ahalmen urritasuna duten pertsonentzat.

III. Datu ekonomikoak

23. Taula. Enplegu Zentro Berezien galera eta irabazkinen kontu analitikoa. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Ekoizpena	173.444.903,00	207.895.770,42	238.213.532,28	226.617.768,58	227.921.925,72
Bitarteko Kontsumoak	59.609.665,86	75.053.440,84	95.263.609,17	86.053.568,90	97.149.869,04
Balio Erantsia	113.835.237,14	132.842.329,58	142.949.923,11	140.564.199,68	130.772.056,68
Langileria Gastua	97.607.682,91	111.078.595,32	124.962.112,26	128.532.551,47	134.744.071,43
Ustiapenaren Emaidza Gordina	16.227.554,23	21.763.734,26	17.987.810,85	12.031.648,21	11.288.046,25
Amortizazioak	9.121.993,30	9.423.749,66	10.039.320,63	10.145.464,76	9.962.176,96
Hornidurak	347.541,64	-12.642,70	593.907,52	765.032,68	1.219.606,39
Ustiapenaren Emaidza Garbia	6.758.019,29	12.352.627,30	7.354.582,70	1.121.150,77	106.262,90
Finantza Sarrerak	176.062,60	295.338,40	547.319,32	436.543,14	243.873,78
Finantza Gastuak	568.453,05	440.037,47	507.193,99	495.654,46	494.718,18
Ohiko Jardueren Emaidzak	6.365.628,84	12.207.928,23	7.394.708,03	1.062.039,45	184.456,50
Ezohiko Emaidzak	204.929,72	-1.293.654,40	1.079.213,73	896.562,10	238.371,81
Titulu Karteraren Emaidza	390.510,00	105,35	0	0	0
Zerga Aurretiko Emaidzak	6.961.068,56	10.914.379,18	8.473.921,76	1.958.601,55	422.828,31
Elkarteen Zerga (1)	-629.956,73	850.166,37	1.051.168,24	-499.088,57	1.525.143,92
Zerga Ondorengo Emaidzak	7.591.025,29	10.064.212,81	7.422.753,52	2.457.690,12	-1.102.316,61
Balio Erantsi Gordina	104.568.751,47	121.992.974,50	133.436.034,02	130.491.153,02	135.166.899,74

(1): 63. kontua. Jarduerari atxikitako Zergak/Legarrrak, barneratzen du.

Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.

EHLABE elkartearen osatzen duten Enplegu Zentro Berezi guztien galera eta irabazkinen kontuak aztertzeari ekinez, azpimarratu behar dugu lehendabizi zerga ondorengo emaitzak erakusten duen joera ezkorra, batez ere 2012tik aurrera, azkenean, 2013an, emaitza negatiboa edukitzera iristen delako.

Zerga ondorengo emaitza horretan eragin funtsezkoena duten atalak arakatzen baditugu, ondorengo hau nabarmendu beharko genuke. 2010 eta 2011 urteetan, zerga ondorengo emaitzak onak direnean, lehenik eta behin ikusten ahal dugu ekoizpenaren hazkundeak, %20-25 ingurukoak, eman direla, eta baita ere bitarteko kontsumoenak, %15-20 ingurukoak. Horrek adierazten du jarduera ekonomikoaren hazkunde bat eman zela urte horietan.

Adierazkorra da jarduera hori murriztu egiten dela, %1,57 2012an, eta kasik %7 2013an. Halaber, 2012 eta 2013ko datu ekonomiko txarrek, horniduren eta amortizazioen hazkundearen eta finantza emaitza txarren eragin zuzena ere islatzen dute.

2012an eta 2013an bereziki nabarmen ikus daitekeen egoera ekonomiko txar horrek orain artekoan enpleguen eta entitateen suntsimendurik erakarri ez badu ere, adi egon beharko dugu joera horrek etorkizunean izan dezakeen bilakaeraren zain, izan ere galera ekonomikoak ematen dituzten urteak pilatzen joango balira, azkenean egoera horrek ondoriorik izango luke enpleguan ere.

Enplegu Zentro Bereziak sortutako Balio Erantsi Gordinaren bilakaerari dagokionez, ikus liteke joera baikorra dela 2009 eta 2013 bitarte horretan, urtero ematen baita hazkundera, 2012an izan ezik.

4. Gizarteratze-laneratze enpresak

Gizarteratze-Laneratze Enpresei buruzko datuak eskuratzeko iturburua GIZATEA (Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea) da. GIZATEA osatzen duten entitateen jarduera esparrua baztertze sozialean edota hartarako arriskuan dauden jende-taldeak gizarteratzera eta laneratzera zuzentzen da, eta jende horrek lan merkatu arrunterako sarbidea izan dezan ahalbidetzea da beren helburua. Ohargarria da GIZATEAren presentzia sendoa euskal Gizarteratze-Laneratze Enpresen sektorean, EAEn erregistraturik dauden Gizarteratze-Laneratze Enpresen %95 baino gehiago baitago GIZATEAan elkartuta egun.

I. Entitateak

Entitate hauen azterketari ekiteko, lehenik esan behar da, 21. taulan zehazten denaren ildoan, GIZATEAren baitako Gizarteratze-Laneratze Enpresek bilakaera positibo samarra agertzen dutela, 2010 eta 2011 bitartean bi entitate gehiagotuz, eta 2012an eta 2013an entitate bana gehituz.

Lurralde Historikoen araberako banaketari begiratu gero, Gizarteratze-Laneratze Enpresen presentzia handiena Bizkaian ematen da, bertan baitago haien %70 inguru. Halaber, hirugarren sektorean dute jarduera gehien-gehienek, %90 inguru baita sektore horretan diharduena. Sozietate Mugatuaren izaera juridikoa dute nagusiki, Gizarteratze – Laneratze Enpresen %80k baitu izaera hori; gainerakoen izaera juridikoa, zalantzarik gabe Gizarte Ekonomian ohikoenak diren enpresa tipologiaren ildokoa da, hau da, kooperatiba edo lan sozietate ereduakoa.

Bestalde, argitu behar dugu 2010 urteari dagozkion zifretan GIZATEAren bazkideentako entitateak 41 baziren ere, jarraian urte horretarako eskaintzen diren datu ekonomikoak 44 entitateri buruzkoak direla; izan ere, orduan oraindik bazkide ez ziren hiru entitate, 2011n GIZATEAko bazkide bihurtu ziren eta informazio hori ere eman ahal izan zuten.

24. Taula. GIZATEAn elkartutako Gizarteratze-Laneratze Enpresen kopurua, Lurralde Historikoaren, Jarduera Sektorearen eta Izaera Juridikoaren arabera. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Eusko Jaurlaritzan erregistratuak	45	45	47*	47	48
GIZATEAn bazkidetuak	41	41	44	45	46
Lurralde Historikoa	2009	2010	2011	2012	2013
Araba	8	8	9	9	9
Bizkaia	28	28	29	30	31
Gipuzkoa	5	5	6	6	6
Jarduera sektorea	2009	2010	2011	2012	2013**
Ingurugiroa	8	8	8	6	
Ostalaritza	7	7	7	8	
Garbiketa eta mantentze lanak	6	6	6	5	
Gizarte Zerbitzuak	3	3	3	5	
Mezularitza eta Garraioa	3	3	4	3	
Arte Grafikoak	2	2	2	3	
Merkataritza	2	2	3	2	
Komunikazioa	1	1	1	0	
Industrietzako zerbitzuak	1	1	2	2	
Aisia eta kultura	1	1	1	1	
Eraikuntza	3	3	2	5	
Egituren muntaketa	2	2	2	0	
Elikadura	1	1	1	1	
Ehungintza	1	1	1	1	
Beribilak	0	0	1	1	
Aholkularitza	0	0	1	0	
Izaera Juridikoa	2009	2010	2011	2012	2013
Kooperatiba	6	6	7	8	8
SM	34	34	36	36	37
SM	1	1	1	1	1

Iturria: geuk egina, GIZATEAren datu baseetatik abiatuta.

(*): Gizarteratze-Laneratze Enpresen Erregistroko datuak 2011/04/13an, eskura daitezkeen berrienak.

(**): GIZATEAko entitateen jarduera sektorearen araberrako sailkapena berregin denez, informazio hau hurrengo taulan aurkezten dugu.

24. Taularen eranskina	
Jarduera sektorea	2013
Sukaldaritza eta Catering	8
Etxean Bertako Laguntza / Pertsona Ezinduei Laguntzeko Zerbitzuak	5
Bigarren Eskuko Jostailu, Altzari eta Tresnak Jaso/Merkaturatzea	5
Hondakinak Jaso, Kudeatu eta Birziklatzea	5
Garbiketak	4
Papertegia, Inprimategia eta Arte Grafikoak	3
Eraikuntza eta Zaharberritzeak	3
Elikagaien Banaketa	2
Etxeen Mantentze eta Laguntzarako Zerbitzuak	2
Industriaren Laguntzarako Zerbitzuak	2
Zur Lanak / Altzarigintza eta Zaharberritzea	2
Aisialdi eta Denbora Libreko Jarduerak	1
Elikagai eta salgai Ekologikoak edota Premium produktuak	1
Lorezaintza	1
Garbitegia eta Tindategia	1
Mekanika	1
Mezularitza, Garraioa eta Paketeak	1
Garraiaketak eta Etxe Aldaketak	1
Basolanak edota nekazaritzakoak	1
Garraio Iraunkorra	1

Iturria: geuk egina, GIZATEAren datu baseetatik abiatuta.

II. Enplegua

25. Taula. GIZATEAren elkartutako Gizarteratze-Laneratze Enpresetako enpleguen kopurua, enplegu mota eta sexuaren arabera. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Enplegua*	674	783	752	637	661
Laneratzekoa	365	464	474	401	420
Ez laneratzekoa	309	319	278	236	241
Gizonak	256	311	332	302	335
Emakumeak	418	472	420	335	326

(*): Lanaldi osotan zenbatuta

Iturria: geuk egina, GIZATEAren datu baseetatik abiatuta.


En Gizarteratze-Laneratze Enpresek guztira duten enpleguari dagokionean, ikus dezakegu 2009 eta 2010ean bilakaera baikorra ematen dela, denboraldi horretako hazkundera %16,17koa delako. Ondoren, 2011 eta 2012an, ordea, enplegua murriztu egiten da %3,96 eta %15,29 hurrenez hurren. 2013an joera txar hori eten egiten da, enplegua %4 hazten baita aurreko urtekoarekin alderatuta.

Ohargarria da, beraz, 2011 eta 2012ko bilakaera txar hori, 2007-2010 denboraldian enplegua etengabe hazten aritu izan eta gero jazotzen zena, eta gero 2013ko hazkunde berriari esker zertxobait orekatu dena (ikus bide batez OVES/GEEB 2010 Txostena). Halaz eta guztiz ere, kopuru absolututan, 2009 eta 2013 bitartean enplegu galera txiki bat kausitzen da Gizarteratze-Laneratze Enpresetan.

Edonola ere, azpimarragarria da laneratze enpleguak, honelako entitateetan funtsezkoena denak, hazteko joera mantentzen duela 2012ra arte, eta urte horretan galera txiki bat pairatzen duela. Halaz eta guztiz, 2009 eta 2013 arteko aldaketa absolutua positiboa da. Aldiz, laneratzekoa ez den enpleguak, munta aski apalagoa duenak, 2010rera arte soilik mantentzen du joera positiboa, eta handik aurrera laneratze enpleguak baino galera nabarmenagoak jasaten ditu.

Sexuaren araberako analisisian murgilduz, bestalde, ikus dezakegu Gizarteratze – Laneratze Enpresetako enpleguan emakumeen presentzia handia dela, nahiz eta 2009 eta 2013 bitartean beheranzko joera agertzen duen. Hein honetan, 2009an, emakumezkoen enplegua %62koa zen, 2011n %56koa eta 2013an %49,3koa. Esan liteke sexuen arabera enpleguan ematen zen tartera desagertzen ari dela 2011z geroztik emakumezkoen enpleguaren suntsimendua handiagoa delako gizonezkoena baino.

Jarraian, Gizarteratze-Laneratze Enpresetako enpleguan eman diren aldaketen irudia ikus dezakegu.



Iturria: geuk egina, GIZATEAren datu baseetatik abiatuta.

Lehen genionaren haritik, ohargarria da enpleguak bere osotasunean jasaten duen suntsimendu tasa ia %4koa dela 2011n, eta %15 ingurukoa 2012an; ondoren, 2013an berrindartzeko joera erakutsiko du, %3,8ko hazkundera izaten baitu.

Laneratzeko enpleguari dagokionean, 2009 eta 2010 artean gorakada ikusgarria, %27koa, ematen da, baina 2012an negatiboa, %15,4koa, izanen da aldaketa tasa. 2013an, berriro, berrindartu egingo da enplegu mota hau, %5 inguruko hazkunde tasa lortuz. Azkenik, laneratzekoa ez den enpleguari dagokionean, joera ezkorra askoz nabarmenagoa da, nahiz eta 2013an zertxobait suspertzen den.

Laburbilduz, esan liteke GIZATEAn elkartzen diren Gizarteratze-Laneratze Enpresek egoki egin diotela aurre 2009 eta 2013 bitartean eman den krisialdi ekonomikoari, oro har enpleguari eusteko gai izan direlako eta, gainera, laneratzeko enplegu berria sortzea ere lortu dutelako. 2012ko urtea, enpresa hauentzat bereziki larria izan zena, gaituta geratu da hurrengo urtean, 2013an, enpleguan hobera egin dutelako orokorki.

III. Datu ekonomikoak

GIZATEAn elkartutako Gizarteratze-Laneratze Enpresei buruz eskura ditzakegun datu ekonomikoei dagokienez, entitate horien diru-sarrera iturriak azter ditzakegu.

26. Taula. GIZATEAn elkartutako Gizarteratze-Laneratze Enpresen diru-sarrera iturriak (2009-2013)					
	2009	2010	2011	2012	2013
Diru-sarrerak guztira	23.594.181,00	25.315.024,00	29.404.023,62	27.515.182,00	27.910.519,26
Fakturazioa	16.844.154,00	17.603.824,00	18.653.787,07	17.412.618,45	19.138.689,07
Diru-laguntzak	6.631.673,00	7.484.752,00	9.290.119,34	9.194.893,83	8.244.333,52
Beste	118.254,00	226.448,00	1.460.117,21	907.669,72	527.496,67
BEG	14.171.166,00	14.433.337,00	18.390.496,68	17.936.360,13	17.082.167,42

Iturria: geuk egina, GIZATEAren datu baseetatik abiatuta.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da entitate hauek guztira dituzten diru-sarrerak nabarmen hazten direla 2009 eta 2013 bitartean, %18,3ko hazkunde absolutuarekin. Halaz eta guztiz, ohartarazi behar da 2012an, guztira dituzten diru-sarreretan %6,4ko beherakada jazotzen dela aurreko urtearekin alderatuta, nola fakturazioan hala diru – laguntzetan eta bestelako sarreretan pairatzen dituzten beherakadengatik.

Entitate hauen diru-sarrearen nondik norakoari begiraten badiogu, ohargarria da sarrera iturri nagusia fakturazioan datzala. Diru-laguntzei dagokienean, garrantzitsuak badira ere, besteak beste gero eta munta handiagoa dutelako, esan liteke entitate hauek ez dutela haiekiko menpekotasun handiegirik, izan ere, adibidez, 2012an eta 2013an diru – laguntza gutxiago jaso duten arren, guztira dituzten diru-sarrerak ez baitira murriztu urte horietan.

Beraz, ondoriozta dezakegu Gizarteratze-Laneratze Enpresak nagusiki beren jarduera propioari esker mantentzen direla, eta hori sasoi ekonomiko onaren adierazle dela.

Azkenik, Balio Erantsi Gordinari begiratu gero, deigarria da GIZATEAn elkartutako Gizarteratze-Laneratze Enpresa hauek oro har BEGa sortzeko duten gaitasun handia, nahiz eta 2012an eta 2013an beherakada txikiak jazotzen dituzten atal horretan.

5. Eraldaketako Nekazaritza Sozietateak

2010. urteari buruzko datuak, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010 argitalpenean, kontuak aurkeztu zituzten bi entitateen datuetatik abiatuz jardunean aurkitzen ziren 26 entitateentzat egindako balioespenak dira. 2012rako berriz, aurkezten diren datuak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena argitalpenetik ateratakoak dira.

Entitate hauentzako datu segida historiko nahikorik ez dugunez, 2010 eta 2012ari dagozkienak soil-soilik aurkezten ditugu. Nolanahi ere, amaierako ondorioen atalean, datu hauek orokorki integratu ahalko ditugu eta interpretazio esanguratsuagoak egiteko aukera emango digute.

I. Entitateak

27. Taula. ENS entitateen kopurua. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
Entitateak	123	97
Jardueradunak	26	e.e.
Jardueragabeak	97	e.e.

e.e.: ez eskuragarri.

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

II. Enplegua

28. Taula. ENSetako enpleguen kopurua. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
Enpleguak	104	248

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

Entitate guztien arteko enplegu balioetsia, 2012an, 248 lagunekoa litzateke, 2010ean zituzten 104 enpleguak halako bi eta gehiago.

III. Datu ekonomikoak

ENSen ustiapeneko diru-sarreraren iturriak. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
Diru-sarrerak	21.838.947	24.915.196
Salmentak	21.687.276	24.665.216
Ustiapeneko besteak	151.671	224.017

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

ENSen Balio Erantsi Gordina. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
BEG	1.728.935	5.312.731
ZAI	-2.279.160	-295.725
Langileria Gastuak	4.008.095	5.608.456

ZAI: Zerga Aurretiko Irabazkina.

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

Aurkeztu ditugun datu ekonomiko horiei buruz esan genezake entitate hauen diru – sarrerak handitu egiten direla zertxobait 2010 eta 2012 bitartean, salmenten gorakadari esker, batez ere.

Eraldaketako Nekazaritza Sozietateek sortzen duten Balio Erantsi Gordinari dagokionean, ikus liteke hazkunde aipagarria jazotzen dela 2010 eta 2012 bitartean, zerga aurretiko irabazkinetako emaitza negatiboan ematen den beherakadari esker, nagusiki.

6. Arrantzale Anaidiak

2010 eta 2012 urteetarako ematen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010 eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena argitalpenean, kontuak aurkeztu dituzten 12 entitateen datuetatik abiatuz jardunean diren 14 entitateentzat egindako balioespenak dira, bi anaidi federazioen datuak gehituz.

Entitate hauentzako datu segida historiko nahikorik ez dugunez, 2010 eta 2012ari dagozkienak soil-soilik aurkezten ditugu, bi urteen arteko alderaketa labur batzuk eginez. Datu hauek erabiliko ditugu amaierako ondorioen atalean, eta interpretazio esanguratsuagoak egiteko aukera emango digute.

I. Entitateak

31. Taula. Arrantzale Anaidien kopurua. 2010 eta 2012 urteak		
	2010*	2012**
Entitateak	16	16
Bizkaia	9	9
Gipuzkoa	7	7

(*): Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

(**): Iturria: Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

II. Enplegua

32. Taula. Arrantzale Anaidietako enpleguen kopurua. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
Enpleguak	103	90
Bizkaia	52	n.d.
Gipuzkoa	51	n.d.

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

Arrantzale Anaidietako entitateen eta enpleguaren kopuruak behatuz, ikusten ahal dugu, entitate kopuru berberarekin, enplegua murriztu egin dela 2010tik 2012ra bitartean.

III. Datu ekonomikoak

Aurkezten diren datu ekonomikoak aintzakotzat hartuta, ikus dezakegu 2010 eta 2012 bitartean beherakadak ematen direla bai diru-sarreretan eta baita ere Arrantzale Anaidiek sortzen duten Balio Erantsi Gordinean.

33. Taula. Arrantzale Anaidien ustiapeneko diru-sareren sorburuak. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
Diru-sarrerak	28.259.937	26.454.320
Salmentak	22.159.915	21.751.742
Alokairuak eta mantentzeak	685.810	1.370.041
Diru-laguntzak, Emaitzak eta Oinordetzan Utziak	2.198.113	1.732.559
Ustiapeneko bestelakoak	3.055.477	1.253.861
Bestelako finantzarioak	160.261	346.116

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

34. Taula. Arrantzale Anaidietako Balio Erantsi Gordina. 2010 eta 2012 urteak		
	2010	2012
BEG	4.361.713	4.009.580
ZAI	916.049	887.542
Langileria Gastuak	3.445.664	3.122.038

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

7. Elkarateak eta Fundazioak

Elkarateak eta Fundazioak aztertzerakoan, lehenik eta behin ohartarazi behar da beraien enpleguari, entitate kopuruari edota datu ekonomikoei buruzko argibide osoak eta homogeneousak aurkitzeko zailtasunak handiak direla. OVES/GEEBen Txostenetan erabili ditugun informazio iturriak Eustatenak, Eusko Jaurlaritzaren Elkarate eta Fundazioen Erregistroak OpenDatan argitara ematen dituen datuak, eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010 eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena argitalpenetan ezagutzera eman dituenak izan ohi dira.

5/2011 Legean, Gizarte Ekonomiari buruzkoan, zehazten da, alde batetik, Lege horren artikuluan jasotzen diren eta jada aski ezagunak diren orientabideen ildoan jarduera ekonomikoren bat duten Elkarate eta Fundazioak Gizarte Ekonomiako entitateak direla. Halaz eta guztiz ere, gaur gaurkoz ezin da aurkitu ezin iturri ofizialetan Lege horretan zehazten diren irizpideen arabera Elkarate eta Fundazioak zenbat lirakeen, eta ezta ere ez dago euskal Gizarte Ekonomiako Elkarate eta Fundazioak oro har biltzen dituen ordezkaritza egitura edo entitaterik.

Gauzak honela, gogorarazi behar da Eustatek ez dituela 2011z geroztik eguneratu Euskadin diharduten Elkaratei buruzko datuak. Bideanabar, OpenDatako erregistroa ere ez dago eguneratuta eta, Euskadin erregistraturik dauden Elkarate eta Fundazio guztiak jasotzen baditu ere, hauetako asko jarduerarik gabe egon daitezke gaur egun edota jarduera ekonomikorik gabeak izan daitezke eta, horregatik, neurritz kanpo puztuta egon daiteke lagina. Azkenik, ohartarazi behar da Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiako Estatistika Txostenetan Elkarateen atalean aintzakotzat hartzen diren datuak, Onura Publikoko⁵ Elkarateenak eta Fundazioei buruzkoak direla soil-soilik, eta horiek ez direla euskal Gizarte Ekonomian diharduten Elkarate eta Fundazio guztiak.

Beraz, euskal Gizarte Ekonomiako Elkarate eta Fundazioei buruzko datu ofizialak eskuratzea ezinezkoa egiten duten gabezia hauek guztiak aitortuta ere, geure analisisia eginen dugu, hasieran aipatzen genituen iturriez baliatuz, mota honetako entitateek Euskadin duten egitatera ahalik gehien hurbiltzeko xedearekin.

I. Entitateak

Ondoren doan 35. taulan agertzen diren argibideak kontuan hartuz, ondorioztatzen da erregistraturiko Elkarate eta Fundazioen guztizko kopuruak, oro har, hazteko joera duela aztergai dugun denboraldian, nahiz eta 2012 eta 2013 bitartean Elkarateen kopuruak beheraka egiten duen %2,3, eta horren ondorioz Elkarateen eta Fundazioen kopuru agregatua ere apur bat murriztu egiten den 2013an.

5 1/2002 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, Elkartze Eskubidea arautzen duenak, bere 32. artikuluan zehazten dituen baldintzen arabera Onuragarritasun Publikoa aitortzen dien adierazpena lortu duten elkarateak dira Onura Publikoko Elkarateak.

35. Taula. Euskadiko Elkarten eta Fundazioen kopuruen datu agregatuak. 2009-2013 urteak			
	Elkarteak	Fundazioak	Guztira
2009 (1)	e.e.	600	e.e.
2010 (2)	19.800	585	20.385
2011 (3)	20.431	601	21.032
2012 (3)	21.237	626	21.863
2013 (4)	20.747	631	21.378

e.e.: ez eskuragarri.

(1): Iturria: El sector fundacional español, datos básicos. Marta Rey García, Luis Ignacio Álvarez González eta Instituto de Análisis Estratégico de Fundaciones (INAEF). Asociación Española de Fundaciones, 2011.

(2) Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, Vitoria-Gasteiz, 2012.

(3): Iturria: Eustat, elkarteetako, eta OpenData, fundazioetarako.

(4): Iturria: OpenData, elkarteetarako eta fundazioetarako.

Bestalde, 2011 eta 2012 urteetarako, bada jarduera motaren arabera sailkapen bat euskal Elkarte eta Fundazioen artean.

Euskadiko Elkarten sektorekako banaketa honetan (36. taula), nabarmentzen da kultura sektorea dela elkarte gehien biltzen dituen, eta gainera joera hori hazi egiten dela 2011 eta 2012 bitartean. Halaber, azpimarragarria da izaera politiko edota sozioekonomikoko Elkarte kopuru garrantzitsua ere badagoela.

Bestalde, Fundazioei dagokienean (37. taula) irakaskuntza eta ikerketaren sektorea da garrantzi gehien duena, jarraian ongintza-laguntzakoak eta lanekoak datozelarik.

36. Taula. Euskadiko Elkarten sentorekako banaketa 2011-2012 urteak								
Elkarteak	2011				2012			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Kultura Orokorki	1.944	5.243	3.255	10.442	2.004	5.448	3.385	10.837
Kultura Zehazki	201	664	492	1.357	209	700	517	1.426
Politikoak eta Sozioekonomikoak	623	1.738	1.048	3.410	655	1.844	1.119	3.619
Familia eta Kontsumoa	102	394	260	756	109	401	264	774
Irakaskuntza	223	834	547	1.604	226	840	557	1.623
Gazteria	73	247	217	537	80	252	219	551
Herrigintza	161	602	369	1.132	165	617	381	1.163
Ongintza-Laguntza	251	602	340	1.193	260	630	354	1.244
Guztira	3.578	10.324	6.528	20.431	3.708	10.732	6.796	21.237

Iturria: Eustat.

37. Taula. Euskadiko Fundazioen sektorekako banaketa 2011-2012 urteak								
Fundazioak	2011				2012			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt.
Ongintza-laguntza eta lana	35	86	44	165	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Kultura, Gazteria eta Kirola	15	64	47	126	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Irakaskuntza eta Ikerketa	40	116	88	244	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Nahasia: Ongintza – Irakaskuntza	-	3	1	4	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Bestelakoak	7	28	27	62	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Guztira	97	297	207	601	e.e.	e.e.	e.e.	626

e.e.: ez eskuragarri.

Iturria: OpenData.

II. Enplegua

Hasteko, ohartarazi behar da 2009-2013 denboraldian Elkarte eta Fundazioetako enpleguari buruz eskura daitezkeen datu bakarrak Eusko Jaurlaritzak bere Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010 eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena argitalpenetan eskaintakoak direla. Datu horiek 2010 eta 2012 urteei dagozkienak dira soil-soilik eta Onura Publikoko Elkartek eta Fundazioak bakarrik hartzen dituzte aintzakotzat.

38. Taula. Euskadiko Elkarte eta Fundazioetako enpleguaren eta boluntariotzaren datu agregatuak, 2009-2013 urteak					
	2009	2010 (1)	2011 (2)	2012 (2)	2013 (3)
Erregistratuak	e.e.	20.385	21.032	21.863	21.378
Soldatakoen kopurua	e.e.	12.448*	e.e.	15.393*	e.e.
Boluntarioen kopurua	e.e.	4.955*	e.e.	e.e.	e.e.

e.e.: ez eskuragarri.

(*) Datos referentes únicamente al empleo de las Asociaciones de Utilidad Pública y de las Fundaciones.

(1): Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, Vitoria-Gasteiz, 2012.

(2): Iturria: Eustat, elkartetako, eta OpenData, fundazioetarako, erregistraturiko entitateen kopuruari dagokionean. Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010 eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena, Eusko Jaurlaritzak, soldatakoen kopuruari dagokionean

(3): Iturria: OpenData, elkartetarako eta fundazioetarako.

38. taula honetan aurkitzen dugun daturik esanguratsuenak da Fundazioetan eta Onura Publikoko Elkartetan 2010ean eta 2012an soldatako enplegua guztira %24 hazten dela. Horrek adierazten du, soldatako enpleguaren 2005eko datuetan oinarrituz iraganeko Txostenetan jada adituz ematen genuenaren ildoan (ikus OVES/GEEB 2011 Txostena), azken urte hauetan gero eta profesionalizatzeko handiagoa ematen ari dela Elkarte eta Fundazioen sektore honen jardueran.

III. Datu ekonomikoak

Atal honetan ere Eusko Jaurlaritzak Gizarte Ekonomiari buruz argitara emandako Txostenetatik jasotako datuak erabiltzen ditugu. Bide batez, 2010 eta 2012 urteei dagozkienak dira, eta Fundazioak eta Onura Publikoko Elkarteak soilik hartzen dituzte aintzakotzat.

Tauletan ikusten ahal da 2010 eta 2012 bitartean Fundazioen eta Onura Publikoko Elkateen diru-sarreretan beherakada nabarmena jazotzen dela, eskuratzen dituzten diru-laguntzen beherakadatik letorkeena nagusiki, eta neurri apalago batean salmentetan pairatzen duten murrizketaren ondorio ere badena. Eszenategi honek adieraz lezake honelako entitateek diru-laguntzekiko menpekotasun handiegia dutela eta, horrexegatik, krisi ekonomikoaren eraginez diru-laguntza horiek gutxitu direnez eta, aldi berean, salmentak ere urritu zaizkienez, krisialdiak bereziki kaltetu duela sektore hau.

Bestalde, ikus liteke Onura Publiko Elkarteek eta Fundazioek sortu duten Balio Erantsi Gordinak ez duela aldaketarik izan 2010 eta 2012 bitarte horretan.

39. Taula. Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarten Ustiapeneko Diru-sarreraren Sorburua. 2010 eta 2012 urteak						
	2010			2012		
	Fundazioak	Elkarteak	Guztira	Fundazioak	Elkarteak	Guztira
Diru-sarrerak	1.378.991.317	353.736.675	1.732.727.992	822.246.114	209.318.008	1.031.564.122
Salmentak	875.614.843	186.795.890	1.062.410.733	609.981.974	171.161.456	781.143.430
Diru-laguntzak, emaitzak eta Oinordetzan utziak	442.383.639	138.964.256	581.347.895	38.209.563	4.418.835	42.628.398
Ustiapeneko bestelakoak	35.184.862	27.216.537	62.401.399	151.739.260	32.198.849	183.938.109
Bestelako finantzarioak	25.807.973	759.992	26.567.965	22.315.317	1.538.868	23.854.185

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

40. Taula. Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarten Balio Erantsi Gordina. 2010 eta 2012 urteak						
	2010			2012		
	Fundazioak	Elkarteak	Guztira	Fundazioak	Elkarteak	Guztira
BEG	360.700.501	112.415.956	473.116.457	361.170.506	114.248.935	475.419.441
ZAI	-15.728.074	599.036	-15.129.038	-22.747.918	467.927	-22.279.991
Langileria Gastuak	376.428.575	488.245.495	581.347.895	383.918.424	113.781.008	497.699.432

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza; eta Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2012 eta 2013ko aurrerapena. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzuen Zuzendaritza.

EUSK GIZARTE EKONOMIA KRISIAL

B) Gizarte ekonomiako
finantza-sozietateak

8. Kreditu Kooperatibak

Hasteko, gogorarazi behar dugu 2012ra arte Euskadiko Autonomia Erkidegoan bi kreditu kooperatiba zeudela: Euskadiko Kutxa/Caja Laboral Popular Kreditu Sozietate Kooperatiboa eta Ipar-Kutxa Rural Kreditu Sozietate Kooperatiboa. Aipatu urtean bi entitateak batu egin ziren egungo Laboral Kutxa sorraraziz. Bide batez, Kreditu Kooperatibei buruzko informazio iturria Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak 2012ra bitartean bakoitzak berean burututako kontu ikuskaritza txostenak, eta harez geroztik, Laboral Kutxak bere baitan egindako banakako ikuskaritza txostenak dira.

I. Enplegua

41. Taula. Euskadiko Kreditu Kooperatiben enplegu eta bulego kopuruak. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Enplegua	2.395	2.364	2.300	1.903	2.177
Gizonak	1.411	1.358	1.314	1.038	1.206
Emakumeak	984	1.006	986	865	971
Bulegoak	487	471	452	450	382

Iturria: geuk egina, 2012 artekoetan Euskadiko Kutxa/Caja Laboral Popular Kreditu Koop. eta Ipar Kutxa Kreditu Koop.aren Urteroko (banakako) Kontu Ikuskaritzaren Txostenetatik eta, harez geroztikoan, Laboral Kutxaren ikuskaritzetatik abiatuta.

Kreditu Kooperatibetako enpleguak joera ezkorra erakutsi du 2009 eta 2012 bitartean, eta ildo horretan bereziki nabarmena da aipatu azken urte horretan ematen den beherakada, %17,3koa. Datu honek zerikusi zuzena du Euskadin ziren bi kreditu kooperatiben bateratze sortutako entitatearen baitan egin zen birmoldaketarekin. Joera ezkor honi 2013an galga ematen zaion arren, berrindartze horrek ez du ahalbidetu 2009an ematen zen enplegu mailara itzuli ahal izaterik.

Bide batez, ondoriozta liteke Kreditu Kooperatibak ez direla gai izan 2009 arte zuten enplegua sortzeko ahalmenari eusteko (ikus bide batez OVES/GEEB 2010 Txostena). Halaz eta guztiz ere, 2013ko hazkundera, %14,4koa aurreko urtearekin alderatuta, aipatu birmoldaketaren ondorengo enpleguaren egonkortasuna adieraztera etorriko litzateke, eta adi egon beharko dugu etorkizun hurbilean izaten duen bilakaera zaintzeko, ea benetako inflexio puntua ote den urte horretakoa eta ondorengo urteetan enplegua sortzeko joera bat abiarazten ote duen.

Kreditu Kooperatiben enpleguan ematen den generoaren araberako banaketari begiratzen badiogu, ohartarazi behar da emakumeen enpleguak, aztergai dugun denboraldian zehar gorabehera batzuk pairatzen baditu ere, ez duela aldaketarik izan, kopuru absolututan, 2009 eta 2013 arteko denboraldi horretan. Erlatiboki, gizonezkoen enpleguarekin alderatuta, ikus liteke emakumeen enplegua 2009an %41ekoa bazen, 2013an %45 ingurukoa izatera iristen dela. Edonola ere, berdintasunerako joera hau gizonezkoen enpleguaren beherakadari zor zaio.

Bulegoen kopuruari dagokionez, beheranzko joera agertzen da, enpleguaren joera ezkorrekin bat datorrena. Haatik, bulego kopuruaren murrizketarik handiena 2013an ematen dela ikus dezakegu; zalantzarik gabe, datu horrek badu zerikusirik iraganeko bi entitateen bateratze prozesuarekin, nahiz eta egia den, baita ere, aldi berean urte horretan enpleguaren hazkunde bat ematen dela aurreko urtearekin alderatuta.

II. Datu ekonomikoak

En Euskal Kreditu Kooperatiben datu ekonomiko eskuragarriei dagokienean, beren Galera eta Irabazkinen Kontua jasotzen dugu ondorengo taulan. Aldez aurretik, hala ere, gogorarazi behar da honelako finantza entitateen kudeaketak duen konplexutasun berezia, batez ere azken urte hauetakoa bezalako krisialdia pairatzen denean, bitartekaritzako jardueretara bideratuta daudelako nagusiki, interes-tasa murriztak, eragileen arteko mesfidantza larregiak eta merkatuen aldakortasun handia ezaugarritzat dituen testuinguru batean.

Halaber, azpimarratu behar da 2012an Euskadin ziharduten bi kreditu kooperatibak bateratu izanak sektorearen bilakaera desitxura dezaketen emaitzak erakar ditzakeela eta, beraz, egitate hori ere kontuan hartu beharko dugula emaitzen azterketa egiterako orduan.

Galera eta Irabazkinen Kontuaren azterketa zehatzari ekinez, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, ekitaldien azken emaitzek joera ezkorra erakutsi dutela 2009 eta 2013 bitartean, eta 2012ko emaitza negatiboa, milioi erdi euroren galera suposatzen duena, dela horren adierazpen argiena eta gorenena. 2013an, ordea, entitateen berregituraketa prozesuagatik oso urte nahasia bizi izan ondoren, susperraldi aparta ematen da jardueran, eta ekitaldiaren azken emaitza positiboa ez ezik 2012az aurretiko urteetako baina hobea da.

Aipatu zifra horien bilakaera ulertzea ahalbidetuko digun analisi zehatzagoan murgilduz, azpimarratu behar da lehendabizi interes-tartea, bitartekaritza hutseko jarduera islatzen duena, okertu egiten dela 2010rean eta 2011n, 2012an %7,04ko hazkundearekin suspertze bidean ipintzeko eta ondorengo urtean, 2013an, %13,68raino hazteko.

Tarte gordinari dagokionean, ikus dezakegu bilakaera gorabeheratsua aurkezten duela, baina ohartarazi behar da 2011n eta 2012an %10reko beherakada jo eta, ondorioz, 2012ko tarte gordina aztergai dugun denboraldi guztiko baliorik baxueneraino iritsi ondoren, %15eko gorakada nabarmena jotzen duela 2013ko ekitaldian. Tarte gordinaren gorabehera hauek, alde baterakoan zein besterakoan, kontu – sail jakin batzuen (finantza operazioen emaitza garbi positiboan, hartutako komisioen edota kapital lanabesen mozkinen) eragin zuzena jasotzen dutela egiazta dezakegu.

Ustiapeneko jardueren emaitzari dagokionez, joera ezkor nabaria ikus dezakegu 2009 eta 2012 bitartean, aipaturiko azken urte horretan emaitza negatiboa izateraino iritsiko dena. Baina 2013an, berriro ere, emaitza horien suspertze ohargarria agertzen zaigu, zifra positiboetara itzuliz berriz ere, eta 2012 baino aurreragoko urteetako emaitzak baino hobegoetara itzuli ere. Gogorarazi behar da 2012ko egoera hori, aktiboen hondatzeagatik galeren kontu-sailean ematen den hazkundearen ondorioz jazotzen dela nagusiki, eta sail horretan bertan 2013an ematen den murrizketa dela, aldiz, urte horretako susperraldia ahalbidetzen duena. Honek esan nahi du 2013an ez zirela ezarri hain zorrozki aurreko urteetan kontu-sail horren hazkundera eta, bidenabar, ustiapeneko emaitza hondatzea, erakarri zuten zuhurtziazko irizpideak.

Bilakaera hau guztia zerga aurretiko eta ondorengo emaitzetan islatzen da. Bai 2012an eta bai 2011n, kontu-sail hauek nabarmenki hondatzen dira operazio etentzat sailkatu gabe salgai diren aktibo ohikoetan ematen diren galera oso handien eraginagatik. Horrexegatik, zerga ondorengo emaitza negatiboa oso handia izatera iristen da 2012an. Aldiz, 2013an, operazio etentzat sailkatu gabe salgai diren aktibo ohikoetan ematen diren galerek jarraitzen duten arren, askoz txikiagoak dira hauek, eta ustiapeneko jardueren emaitza onak ahalbidetzen dute emaitza positiboak lortzea, bai zergen aurretik eta baita ondoren ere.

42. Taula. Euskadiko Kreditu Kooperatiben galera eta irabazkinen kontua. 2009-2013 urteak (milaka eurotan)					
	2009	2010	2011	2012	2013
Interesak eta antzeko mozkinak	800.077	554.430	657.452	601.222	575.278
Interesak eta antzeko kargak	434.493	245.587	349.428	271.711	200.109
Aurkeztean berreskura liteken kapitalaren ordainketa	399	393	199	0	0
Interes-tartea	365.185	308.450	307.825	329.511	375.169
Kapital baliabideen emaitza	12.678	19.145	45.583	10.337	15.656
Jasotako komisioak	104.589	107.608	109.575	95.422	105.327
Ordaindutako komisioak	9.639	8.774	8.671	7.816	8.904
Finantza-operazioen emaitza (garbi)	31.343	10.972	6.460	5.508	15.940
<i>Negoiazio zorra</i>	<i>4.387</i>	<i>-743</i>	<i>1.056</i>	<i>861</i>	<i>2.636</i>
<i>Arrazoizko balioetan Galera eta Irabazkinetan aldaketak eragiten dituzten beste finantza – baliabideak</i>	<i>-</i>	<i>124</i>	<i>-975</i>	<i>-826</i>	<i>390</i>
<i>Arrazoiz balioetsi gabe dauden eta G. eta I.etan aldaketak eragiten dituzten finantza-baliabideak</i>	<i>17.721</i>	<i>5.345</i>	<i>6.813</i>	<i>6.882</i>	<i>14.077</i>
<i>Beste</i>	<i>9.235</i>	<i>6.246</i>	<i>-434</i>	<i>-1.409</i>	<i>-1.163</i>
Truke aldaketak (garbi)	362	901	1.039	477	665
Ustiapeneko beste ekoizkinak	21.294	19.364	17.599	15.680	22.376
Ustiapeneko beste kargak	17.173	16.507	14.305	30.557	45.424
Tarte Gordina	508.639	441.159	465.105	418.562	480.805
Administrazio gastuak	201.258	197.600	196.680	166.287	202.804
<i>Langileria gastuak</i>	<i>130.702</i>	<i>126.086</i>	<i>125.074</i>	<i>105.518</i>	<i>130.836</i>
<i>Administrazioko beste gastu orokorrak</i>	<i>70.556</i>	<i>71.514</i>	<i>71.606</i>	<i>60.769</i>	<i>71.968</i>
Amortizazioa	32.259	28.729	25.907	17.574	19.660
Horniduretarako diru-kopuruak (garbi)	9.966	2.606	-5.138	37.218	76.254
Aktiboan hondatzeagatik galerak	196.025	149.237	190.710	704.202	49.239
<i>Inbertsioak mailegutan</i>	<i>148.688</i>	<i>126.494</i>	<i>158.966</i>	<i>564.848</i>	<i>36.530</i>
<i>Arrazoiz balioetsi gabe dauden eta G. eta I.etan aldaketak eragiten dituzten finantza-baliabideak</i>	<i>47.337</i>	<i>22.743</i>	<i>31.744</i>	<i>139.354</i>	<i>12.709</i>
Ustiapeneko jardueren emaitza	69.131	62.987	56.946	-506.719	132.848
Aktiboan hondatzeagatik galerak (garbi)	4.434	14.241	-572	41.227	18.125
Salgai dauden aktibo ezohiko sailkatuen beherakadagatik irabaziak (galerak)	16	31	2.912	118	-187
Negozio konbinaketetako tarte negatiboak	-	-	-	-	-
Operazio etentzat sailkatu gabe dauden aktibo salgai ohikoetan irabaziak (galerak)	-565	5.406	-52.973	-199.073	-8.129
Zerga aurretiko emaitzak	64.148	54.183	7.457	-746.901	106.407
Irabazien gaineko erga	-5.314	-10.601	-22.882	-218.316	9.363
Gizarte lan eta funtsetarako derrigorrezko diru.kopuruak	3.337	2.835	1.050	0	6.655
Operazio jarraikortzat datorren emaitza ekitaldian	66.125	61.949	29.289	-528.585	90.389
Etendako operazioen emaitza (garbi)	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza	66.125	61.949	29.289	-528.585	90.389
BEG	194.850	180.269	132.531	-641.383	237.243

Iturria: geuk egina, Euskadiko Kutxa/Caja Laboral Popular Kreditu Koop. eta Ipar Kutxa Kreditu Koop. aren Urteroko (banakako) Kontu Ikuskaritzaren Txostenetatik abiatuta.

Azkenik, Kreditu Kooperatibek sortutako BEGari dagokionez, ikus liteke ekitaldien azken emaitzen oso antzeko ildo jarraitzen duela, guztiz ulergarria den eran, bereziki aipagarriak direlarik 2012an jazotzen den beherakada esanguratsua eta 2013an ematen den susperraldi ezohikoa.

9. Aurreikuspen Sozialeko Mutualitateak: BASEak

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateen, aurrerantzean BASE deituko ditugunen kasuan, informazio iturria Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa da. Beraz, datu horiek federatuta dauden entitateei buruzkoak dira soil-soilik. Nolanahi ere esan behar da Federazioaren ordezkartasuna oso sendoa dela Euskadiko BASEen sektorean.

Ildo horretan, gaingiroki esan liteke 2012an Euskadiko BASEen erdia zela, gutxi gora behera, federazioan bazkide-tuta zegoena. Hala ere, azpimarratu behar da BASE Enplegua, Elkartu eta Indibidual ia guztiak, hau da, funtsezkoenak, zeudela Federazioan elkartuta, eta bidenabar erakunde horretatik kanpo geratzen direla bestelako BASE gehienak. Datu honen garrantzia nabarmentzen duena da ondorengoa: Federazioan bazkide-tuta dauden BASEen ondarea, Euskadiko BASE guztien ondarearen %98 baino gehixeago da .

Bestalde, jakina denez, EAEn erregistraturik dauden BASEen babes esparrua Pentsio Planek eskaini ohi dutena baino zabalagoa da, eta entitate hauek erretiro, heriotza, elbarritasun edo langabeziagatiko laguntzez haratagokoak eman ohi dituzte, hala nola hileta, osasun arazo edota suteengatiko laguntzak, Euskadiko aurreikuspen eredu propioari bere osotasun eta berezitasun ezaugarriak ematen dizkietenak.

I. Entitateak

43. Taula. Euskadiko BASEen entitate eta bazkideen kopuruak. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Kopurua	87	88	87	91	82
BASE Elkartuak	4	4	4	5	4
BASE Enplegua	47	47	46	46	42
BASE Indibidualak	34	35	35	38	34
Bestelakoak	2	2	2	2	2
Bazkideak (1)	1.140.790	1.152.822	1.178.750	1.185.448	1.157.937
BASE Elkartuak	3.637	3.706	3.625	3.500	3.345
BASE Enplegua	400.671	410.087	422.612	418.855	438.265
BASE Indibidualak	724.524	726.946	740.431	751.319	704.658
Bestelakoak	11.958	12.083	12.082	11.774	11.669

(1): Bikoiztuta daudenak edota ekarpenak egiteari utzita daudenak identifikatzea zaila denez, kontu eta posizioen bitartez kalkulatu da bazkideen kopurua.


Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.

Euskadiko BASEen kopuruari dagokionez, ikus dezakegu kopuruak joera egonkorra erakusten duela oro har, nahiz eta ohargarria den 2012an ematen den hazkundera, eta jarraian 2013 ematen

den beherakada, aztergai dugun denboraldi osoko BASE kopuru txikienera eramaten gaituena.

Baita ere ikus daiteke BASE Enplegua mota dela azterturiko urte guztietan presentzia handiena agertzen duena, BASE Indibidualen mota jarraian nahiko hurbil duela.


Bestalde, bazkide direnen kopuruari dagokionez, 2009 eta 2012 bitartean joera positiboa agertzen da, bereziki Enplegua eta Indibidual motakoetan ematen den hazkundeari esker. Baina 2013an, guztira bazkidedutako pertsonen kopuruan beherakada txiki bat jazotzen da, mota guztietako BASEetan, Enpleguakotan salbu, ematen den murrizketatik.



Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.

Aurreko irudi horretan ikus litekeenez, BASE mota ezberdinek joera bertsuak agertzen dituzte denboraldi osoan: hazkunde apala 2009 eta 2010 bitartean, 2011n egonkor mantenduz, 2012an berriz hazteko eta 2013an beherakada bat jotzeko. Ohargarria da BASE Elkartuak gainerakoen ildoan bilakatzen direla, baina askoz gorabehera biziagoekin.

Nabarmentzekoa da, baita ere, 2012an BASEn kopuru osoa %4,6 hazten dela, nagusiki Indibidual eta Elkartu motakoen artean ematen den gorakadari esker. Bestalde, 2013an ematen den beherakada handia, ia %10ekoa, Elkartu motakoen eta, batez ere, Indibidual ereduakoen murrizketari zor zaio.



Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.

Bazkidetutako pertsona kopuruaren bilakaerari buruzko irudian ikus dezakegu 2010, 2011 eta 2012an bazkidetutako pertsonen kopuru hori %1, %2 eta %1, hurrenez hurren, hazi bada ere, 2013an %2,3 murriztu egiten dela, BASE Indibidualak direlarik oso nagusiki galera hori erakartzen dutenak.

II. Datu ekonomikoak

Eskuratu ahal izan ditugun BASEn datuak (ondarea, ordainsaria eta diru-laguntzei buruzkoak) aztertuz, ikusten ahal dugu, lehenik, aztergai dugun denboraldi osoan zehar ondareak joera baikorra erakusten duela, eta bilakaera horren emaitza eta isla dela azkenean 2013an, historian lehen aldiz, 21.000 milioiko kopurua gaintu izana. Ondare hori Euskadi BPGaren %33,60 baino gehixeago da, eta ehuneko hori Estatu mailako sistemek dutena (%8,4) halako lau litzateke, eta EB-15aren batz bestekoaren paretuan ipiniko litzateke; halaz eta guztiz, %77 dagoen ELGaren batz bestekotik oso urruti geratzen da oraindik.


Ildo honetan, mota guztietako BASEen ondarean ematen da bilakaera positibo hori 2009 eta 2013 bitartean, BASE Elkartuetan izan ezik, sail horretan 2010raz geroztik etengabekoak baitira beherakadak.

Bestalde, ordainsarien bilakaerari dagokionean, 2011n hasten den joera ezkor bat nabari da. Emandako Laguntzak behatzen baditugu, ikus genezake hazteko joeran bilakatzen direla, 2012an izan ezik, urte horretan murrizketa bat ematen baita, baina hurrengo urtean, 2013an, berreskuratuko dena.


44. Taula. Euskadiko BASEen Ondarea, Ordainsariak eta Emandako Laguntzak. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Ondarea	18.083.952.474,62	18.861.924.813,12	19.192.422.717,94	20.384.920.021,04	21.916.351.584,10
BASE Elkartuak	97.620.094,50	100.963.509,08	93.354.146,39	89.997.162,00	88.591.106
BASE Enplegua	9.013.891.065,13	9.573.272.661,44	9.666.580.133,85	10.259.966.224,00	11.072.438.986
BASE Indibidualak	9.023.384.107,16	9.185.690.474,58	9.430.086.271,17	10.032.147.538,00	10.751.930.399
Bestelakoak	1.677.302,33	1.998.168,02	2.402.166,53	2.809.097,04	3.391.092,45
Ordainsariak	1.287.062.138,42	1.304.990.081,97	1.166.717.364,36	923.750.185,33	896.208.421,01
BASE Elkartuak	5.226.107,24	7.005.884,33	5.465.292,53	2.412.309,00	2.564.833
BASE Enplegua	492.335.322,20	496.573.994,09	345.091.886,62	347.847.838,00	327.670.947
BASE Indibidualak	793.841.683,80	800.523.975,69	815.199.304,26	572.946.781,00	565.361.118
Bestelakoak	885.132,42	886.228,53	960.900,95	543.257,33	611.522,85
Emandako Laguntzak	833.246.236,66	883.389.179,46	1.003.820.467,18	925.481.867,22	1.093.633.592,73
BASE Elkartuak	4.184.928,75	5.218.649,70	8.155.384,44	5.546.406,00	6.109.971
BASE Enplegua	362.933.564,95	374.282.820,74	333.403.453,03	420.079.146,00	465.123.918
BASE Indibidualak	469.805.171,42	503.501.920,30	661.721.542,60	499.643.901,00	621.850.247
Bestelakoak	507.500,29	385.788,72	540.087,11	212.414,22	549.456,72

Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.

Ondorengo irudian jasotzen dugun BASEen guztizko Ondarearen bilakaerari dagokionean, 2011 eta 2013 artean hazkundean ematen diren hobekuntza jarraituak (%2, %6 eta %8koak, hurrenez hurren) azpimarra ditzakegu. BASE Enplegua eta Indibidualen ondareetan ematen diren hazkundeen ondorio da hori, nagusiki.




Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.



Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.

Ordainsariei dagokienean, gorabeheratsuagoa izan da bilakaera. Izan ere 2009 eta 2010 artean positibotasun apur bateko joera erakutsi ondoren, 2011n %10,26 erortzen baita, nagusiki BASE Elkartu eta Indibidualen ordainsarrietan ematen den beherakadak bultzatuta; eta 2012an erorketa oraindik handiagoa, %21ekoa, da, kasu honetan BASE Indibidualetan ematen den beherakadaren ondorioz. Hala ere, badirudi 2013an gainbehera hau galgatu egiten dela, urte horretan jazotzen den %3ko erorketa aurreko urteetako baino askoz txikiagoa delako.



Iturria: Euskadiko Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Entitateen Federazioa.

Azkenik, emandako laguntzei dagokienean, aztergai ditugun denboraldi guztietan kausitzen dira hazkundeak, 2012an izan ezik; urte horretan %8 jaisten dira, baina esan behar da balio absolututan, hala ere, 2009 eta 2010rekoa baino handiagoa dela zifra. 2013an, mota guztietakoan ematen dira hazkundeak, Enpleguakoetan izan ezik.

Azkenik, BASEek sortzen duten Balio Erantsi Gordinaren atalean, ikus dezakegu gorakada txiki bat ematen dela 2010 eta 2012 bitartean. Gogoratu behar da datu hauek Eusko Jaurlaritzak Gizarte Ekonomiari buruz 2010 eta 2012 urteetan egindako Txostenetatik eratorritzen direla eta, beraz, aintzakotzat hartuko ditugula batik bat ondorioen azken atalean txertatu ahal izateko.

45. Taula. BASEen Balio Erantsi Gordina. 2010 eta 2012 urteak

	2010	2012
BEC	217.768.673	227.739.331
ZAI	215.104.709	224.953.396
Langileria Gastua	2.663.964	2.785.935

ZAI: Zerga Aurretiko Irabazia.

Iturria: Gizarte Ekonomiako Estatistikak 2010. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza. Vitoria-Gasteiz, 2012.

10. Elkarrekiko Berme Elkartek

Gizarte Ekonomiako Elkarrekiko Berme Elkarteen alorrean, gure informazioaren iturria Oinarri E.B.E. da, EAEn bera delako Gizarte Ekonomiako enpresei abalak emateko eginkizunean espezializaturiko Elkarrekiko Berme Elkartea. Gehitu behar da, halaz eta guztiz, 2000. urtetik aurrera Oinarri E.B.E.-k erabaki zuela bere enpresa jarduera zabaltzea eta gaur egun euskal Enpresa Txiki eta Ertain guztiakin egiten duela lan. Azkenik, erantsi dezakegu Espainiako CESGAR (Confederación Española de Sociedades de Garantía Recíproca) konfederazioaren datuek diotenez, Oinarri E.B.E. estatuko bosgarren EBEa dela gauzaturiko abalen araberako sailkapenean.

I. Enplegua

Ondorengo taulan EBEetako enpleguari buruz agertzen zaizkigun datuak aintzakotzat hartzen baditugu, ikus genezake ez dela aldaketa handirik eman enpleguaren bilakaeran; soil-soilik hazkunde txiki bat 2012an, ondorengo urtean ere mantentzen dena.

Bestalde, generoaren araberako banaketari buruzko datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu emakumeen enplegua handiagoa dela aztergai ditugun denboraldi guztietan.

Gizarte Ekonomiako enpresen Elkarrekiko Berme Elkartetako enplegua. 2009-2013 urteak									
	2009			2010			2011		
	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira
Lizentziadunak	6	8	14	5	9	14	5	9	14
Diplomadunak	0	1	1	0	1	1	0	1	1
Bulegariak	0	4	4	0	4	4	0	4	4
Guztira	6	13	19	5	14	19	5	14	19

	2012			2013		
	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira
Lizentziadunak	5	10	15	5	10	15
Diplomadunak	0	1	1	0	1	1
Bulegariak	0	4	4	0	4	4
Guztira	5	15	20	5	15	20


Iturria: geuk egina, Oinarri, Elkarrekiko Berme Elkarteen Urteroko Txostenetatik abiatuta.

Bestalde, ondorengo taulan ikus daitezke bazkide partaideen datuak, hau da, Elkarrekiko Berme Elkarteen bermeak, laguntza eta aholkularitza eskatu eta lortzeko eskubidea duten enpresa txiki eta ertainetako buru diren bazkideak.


Ikusenez 2009 eta 2013 bitartean bazkide partaide horien kopuruak hazteko joera duela: %10,5 2010ean, %7 2011n, %5 2012an eta %9 2013an. Azken urte honetan, beraz, aurreko denboraldietan hazkundeak zuen beheranzko joera eten egiten da.

47. Taula. Bazkide Partaideen banaketa enpresa mota, jarduera sektore, langile kopuru eta Lurralde Historikoen arabera. 2009-2013 urteak					
Enpresa motaren arabera	2009	2010	2011	2012	2013
Kooperatibak	496	570	633	683	708
Lan Sozietateak	187	188	184	187	189
Autonomoak	786	834	885	908	997
Sozietate Mugatuak	781	888	951	1.000	1.117
Sozietate Anonimoak	176	201	209	217	242
Fundazioak/Elkartek	38	41	48	61	79
Guztira	2.464	2.722	2.910	3.056	3.332
Jarduera sektorearen arabera	2009	2010	2011	2012	2013
Zerbitzuak	1.040	1.207	1.342	1.450	1.654
Industria	682	723	765	789	803
Nekazaritza	493	491	486	495	520
Eraikuntza	249	301	317	322	355
Guztira	2.464	2.722	2.910	3.056	3.332
Langile kopuruaren arabera	2009	2010	2011	2012	2013
1.-5	1.461	1.629	1.761	1.866	1.875
6.-25	625	668	705	723	915
26-50	185	207	209	217	278
51-100	113	114	127	134	136
>100	80	104	108	116	128
Guztira	2.464	2.722	2.910	3.056	3.332
Lurralde Historikoen arabera	2009	2010	2011	2012	2013
Araba	661	696	744	778	850
Bizkaia	1.066	1.167	1.224	1.246	1.339
Gipuzkoa	694	806	871	926	1.009
Besteak	43	53	71	106	134
Guztira	2.464	2.722	2.910	3.056	3.332

Iturria: geuk egina, Oinarri, Elkarrekiko Berme Elkartearen Urteroko Txostenetatik abiatuta.



Iturria: geuk egina, Oinarri, Elkarrekiko Berme Elkartearen Urteroko Txostenetatik abiatuta.



Iturria: geuk egina, Oinarri, Elkarrekiko Berme Elkartearen Urteroko Txostenetatik abiatuta.

Hainbat analisi interesgarri egin daitezke 47. taulan eta 20. eta 21. irudietan ikus dezakegunean oinarrituta.

Alde batetik, bazkide partaideen izaera juridikoaren arabera datuetan ikus dezakegu Sozietate Mugatuak, Autonomoak eta Kooperatibak direla, hurrenkera horretan, era juridiko nagusiak. Gainera, hiruon kasuan hazteko joera nabaria da 2009 eta 2013 bitartean bazkide partaideen kopuruan; ohargarria da Kooperatiben kasuan ematen dena, %15, %11 eta %8koa 2010, 2011 eta 2012an, hurrenez hurren, eta baita ere Sozietate Mugatuen 2013ko hazkundera, %11,7koa, edota urte berean Autonomoek duten gorakada, %10ekoa.

Era berean, hazteko joera gero eta biziagoa ikus dezakegu Fundazio eta Elkarteen artean, %17, %27 eta %30 hazten baitira 2011, 2012 eta 2013an, hurrenez hurren; hala ere, esan behar da honelako entitateetako bazkide partaideen kopuruak ordezkaritasun txikia daukala osotasunean.

Bestalde, bazkide partaideen sektorekako banaketari erreparatzen badiogu, argi ikus dezakegu zerbitzu sektoreak duela ordezkartasun handiena, ondoren industria sektorea datorrelarik. Gainera, industria sektorearen garrantziak beheranzko joera agertzen du, 2010raz geroztik gero eta hazkunde txikiagoak dituelako (%6 2010rean, %5,8 2011n, %3,1 2012an eta 1,8 2013an). Aldiz, zerbitzuen sektoreak goranzko joera erakusten du, denboraldi horretan bertan gero eta hazkunde handiagoak dituela, 2012an izan ezik, eta hazkunde horiek industriarenak baino nabarmenki handiagoak dira gainera.

Enpresen langile kopuruaren arabera tamainaren banaketa behatzen badugu, ikus dezakegu Oinarriko bazkideak enpresa txikiak direla gehienbat, eta gehiengoa direla 1 eta 5 langile bitartean dituztenak. Bideabar, enpresaren tamaina handitu ahala, ikus dezakegu bazkide partaideen kopurua murriztu egiten dela. Datu honi esker ebatzi dezakegu nolako garrantzia duen Oinarriko enpresa txiki eta ertainentzat finantzazioa lortzeko orduan, izan ere horrelako enpresak baitira finantza merkatuetan zailtasunik latzenak aurkitu ohi dituztenak.

Azkenik, bazkide partaideen lurraldekako banaketari dagokionean, lehenik eta behin ikus dezakegu gehientsuenak Euskadin kokatzen direla, baina 2012 eta 2013an kasik bikoiztu egin dela beste erkidego autonomo batzuetan kokatuta dauden bazkideen kopurua. Halaber, agerikoa da Bizkaiko Lurralde Historikoan daudela bazkiderik gehienak, ondoren Gipuzkoakoak eta Arabakoak letozkeelarik.

I. Datu ekonomikoak

48. Taula. Gizarte Ekonomiako enpresen E.B.E.-aren galera eta irabazkinen kontua. 2009-2013 urteak					
	2009	2010	2011	2012	2013
Negozio zifraren diru-kopuru garbia	1.478	1.656	1.476	1.487	1.553
A) Abal eta bermeengatik diru-sarrerak	1.478	1.656	1.476	1.487	1.533
B) Zerbitzuak emateagatik diru-sarrerak	-	-	-	-	-
Ustiapeneko beste diru-sarrerak	-	2	21	1	1
Langileria gastuak	-741	-819	-876	-929	-904
A) Soldata, lansari eta gisakoak	-573	-625	-667	-706	-708
B) Gizarte kargak	-168	-194	-209	-223	-196
C) Hornidurak	-	-	-	-	-
Ustiapeneko beste gastuak	-575	-610	-697	-679	-552
Abal eta bermeetarako horniduretarako diru – kopuruak (garbi)	-934	-569	-578	-849	-829
Bazkide zalantzagarrrien narriaduragatiko zuzenketak (garbi)	-371	-394	-885	-400	-1.377
H.T.F.-rako diru kopuruak operazio guztien estalduran (garbi)	617	-81	148	23	74
Hornidura Teknikoen Funtza. Hirugarrenen ekarpen erabiliak	689	399	595	1.293	2.735
Ibilgetuaren amortizazioa	-40	-48	-56	-54	-15
Ibilgetua besterentzeagatik narriadura eta emaitza	-	-	-	-	-
Salgai dauden ezohiko aktiboen narriadura eta emaitza (garbi)	-	-	-	-19	-46
Ustiapen emaitza	123	-464	-852	-126	640
Finantza-sarrerak	721	778	878	891	565
A) Ondare-baliabideetako partaidetzengatik	6	10	-	3	7
B) Balio negoziagarriak eta bestelako finantza – baliabideak	715	768	878	888	558
Finantza-gastuak	-11	-3	-1	-	-
Arrazoizko balioaren aldaketa finantza – baliabideetan	47	-39	-21	4	5
Truke ezberdintasunak	-	-	-	-	-
Finantza-baliabideen narriaduragatik balio zuzenketak	-	-274	-	-1.398	-1.135
Finantza-baliabideak besterentzearen emaitzak	-	2	-4	78	-75
Finantza-emaitza	757	464	852	-425	-640
Zerga aurretiko emaitza	880	0	0	-551	0
Mozkinen gaineko zergak	-21	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza	859	0	0	-551	0
BEG	1.621	819	876	378	904

Kopuruak, milaka eurotan

Iturria: geuk egina, Oinarri Elkarrekiko Berme Elkartearen Urteroko Kontuen Ikuskatze Txostenetatik abiatuta.

Elkarrekiko Berme Elkartearen Galera eta Irabazkinen Kontuen taula horretan agertzen zaizkigun datu ekonomikoei dagokienez, nabarmentzekoa da 2009an ezohiko gorakada eman zela negozioen zifretan, abal eta bermeengatiko diru-sarreretan jazo zen %83,15eko hazkundeari esker. 2010rean ere goranzko joera hori mantendu egin zen, baina 2011n aldaketa beheranzkoa izan zen, %10,87koa, 2009ko balioetara itzultzeko. 2012an eta 2013an hazteko joera hartzen dute zifrek berriz ere, %0,75 eta %4,5 hurrenez hurren.

Negozioen zifretan agertzen diren datu hauen ifrentzua dira bereziki abal eta bermeengatiko horniduretarako diru kopuruen, Hornidura Teknikoen Funtsen, eta bazkide zalantzarrien narriaduragatik egin beharreko zuzenketetara bideratzen diren kontu-sailak, 2010rean, 2011n eta 2012an ustiapen emaitza negatiboa erakarri dutenak, nahiz eta aipatu aldiatiko azkenean joera hori arindu egin zen. 2013an, ordea, datu horrek hobekuntza aparta ezagutu zuen eta balio positiboetara itzuli ahal izan zuen, hein handi batean Hornidura Teknikoen Funtsak eduki zuen gorakadari esker.

Bestalde, azpimarratzekoa da 2009, 2010 eta 2011n finantza-emaitza positiboak lortzen direla, 2011ko kasuan gainera %83,6ko hazkundea ematen zelarik, batik bat arrazoizko balioaren aldaketa finantza-baliabideetan murrizteari eta finantza-sarrerak %12,85ean hazi izanari zor zaiona, eta horrek ahalbidetzen du 2009an ekitaldiaren emaitzan irabaziak lortu izana, eta 2010 eta 2011ko ekitaldietan emaitza 0 izatea. 2012an eta 2013an, ordea, finantza-emaitza negatiboa da, finantza-baliabideen narriaduragatik egin beharreko balio zuzenketen ondorioz. Horregatik, 2012an ekitaldiaren emaitza negatiboa da, baina 2013an egoera hori neutralizatu egiten da, eta 2010 eta 2011ko maila berreskuratu ahal izaten da.

Balio Erantsi Gordinari arreta ipintzen badiogu, azpimarra genezake berau sortzeko ahalmena galtzeko joera erakusten duela Elkarrekiko Berme Elkarteari, batez ere 2009 eta 2012 bitartean, baina 2013an hobekuntza nabarmena agertzen zaigula, nahiz eta halere 2009ko maila berreskuratzera iristen ez den.

3. atalburua

Txostenaren ondorioak
“Euskal Gizarte Ekonomia
eta Krisialdi Ekonomikoa”



Ignacio Bretos Fernández¹

Jon Morandeira Arca²

José María Pérez de Uralde³

1. Atalburuaren aurkezpena eta euskal Gizarte Ekonomiak krisialdi ekonomikoan erakutsi duen portaeraz hurbilketa orokorra

Txosten honetan aztertu dugun informazioa abiapuntutzat hartuta, ebazpen nagusi batzuk ondorioztatu daitezke euskal Gizarte Ekonomiak 2009 eta 2013 bitarteko denboraldian, enpleguari, entitate kopuruari eta emaitza ekonomikoari dagokienean izan duen bilakaerari buruz. 2009tik 2013ra arteko aldi horretan euskal Gizarte Ekonomia osoaren datu guztiak eta homogeneoak eskuratzea, Txosten honetan barrena behin eta berriz adierazi dugun eran, zaila dela onartu arren, azken atal honetan euskal Gizarte Ekonomiaren, eta krisialdi ekonomiko-fintzarioaren testuinguruan honek erakutsi duen portaeraren balioespen orokor bat eginen dugu.

Bide batez, lehen saio batean, Gizarte Ekonomiako⁴ lau arlo handiei buruzko ondorio funtsezkoenak aterako ditugu, soil-soilik, 2009 eta 2013 bitarteko aldi guztietarako datu osatuak eta homogeneoak baditugulako horien enpleguaz eta entitate kopuruaz. Bidean, Gizarte Ekonomiako lau entitate mota hauei buruz lurralde mailako ondorio nabarmenenak aurkeztuko ditugu, eskura ditugun datuak lurraldeen arabera banatu ondoren. Azkenik, eskualdekako azterketa laboratu bat ere eginen dugu, haietan kooperatibek duten presentzia erkaturaz hainbat adierazle sozial, ekonomiko eta ongizatezkoekin, Atlas Koop-en eskaintzen diren datuak eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazerarako Batzordeak arestian argitaratu duen “Lurraldeen arteko desoreka EAEn krisi ekonomikoaren testuinguruan” txostena abiapuntutzat hartuta.

Bigarren zatian, Gizarte Ekonomiako entitate finantzarioei (Kreditu Kooperatiba, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitate eta Elkarrekiko Berme Elkarteei) buruzko ebazpen nagusiak aurkeztu ditugu. Azpimarratu beharrekoa da Kreditu Kooperatibei buruz independenteki eskaintzen diren datuak jadanik jasota zeudela Kooperatiben osotasunari buruz alde aurretiki ebatzi ditugun ondorioetan.

1 Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiko (OVES/GEEB). GEZKI –Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.

2 EHUko Ekonomia Aplikatua I Saila. GEZKI–Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua.

3 Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiko (OVES/GEEB) Koordinatzaile. CIRIEC-Españaiko Lehendakari.

4 Gizarte Ekonomiako 4 familia handiak Kooperatibak, Lan Sozietateak, Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak direla kontsideratzen dugu, lan, erakunde eta zifra ekonomiko garrantzitsuenak dituztenak baitira.

Azkenik, hirugarren zatian, euskal Gizarte Ekonomia osoari buruzko ondorioak eskaintzen ditugu, 2010 eta 2012ko biurteko denboraldiak soilik aintzakotzat hartuz, aldi horietako datuak badirelako euskal Gizarte Ekonomiako entitate mota guztietarako. Hala ere erantsi behar da 2009 eta 2013 bitarteko datuak ere gehitzen ditugula, eskura ditugun adinean, era banatuan euskal Gizarte Ekonomiako entitate mota guztietarako.

Beraz, lehen ondorio orokorrari ekinez, azpimarra dezakegu euskal Gizarte Ekonomiak ere pairatu duela 2008az geroztik bizi dugun abagune ekonomiko latza, eta maila handiagoan edo txikiagoan nozitu dituela koiuntura horren ondorioak bai enpleguan eta baita ere entitate kopuruan edota datu ekonomikoei dagokienean.

Ikuspegi honetatik, kontuan hartzekoa da euskal Gizarte Ekonomiak 2009, 2010 eta 2011n beheranzko joera txiki bat pairatzen duela, bai enpleguari dagokionean eta baita ere entitate kopuruan; hala ere, azpimarratu beharrekoa da EAEko ekonomia konbentzionalaren zifrekin alderatuta, honek baino baldintza hobegotan mantendu dituela bai enpleguaren eta bai entitateen zifrak eta, gainera, enpleguaren kalitatea gutxitu gabe lortu duela hori, egonkortasunik eza (aldi bateko enplegua neurritzat hartzen badugu) ez baita handitu ohargarriki. Bidenabar, aipagarria da urte horietan bertan datu ekonomikoei, Balio Erantsi Gordina sortzeko ahalmena neurritzat hartzen badugu, erakusten duten joera baikorra.

Haatik, 2012an krisialdi ekonomiko-finantzarioaren zartada gogortasun osoz nozitu beharreko abagunea iristen zaio euskal Gizarte Ekonomiari eta galera nabarmenak pairatzen ditu enpleguan nola entitateen kopuruari edota sendotasun ekonomikoari dagozkion zifretan. Bide batez, euskal Gizarte Ekonomia 2012an ez zen gai izan EAEko ekonomia konbentzionalak bere osotasunean adinean edota hark baino baldintza hobegotan krisialdiaren ondorioei aurre egiteko. 2013an, ordea, 2012an emandako beherakada nabarmen hori arindu egiten da, bai enpleguari dagokionean eta baita ere entitate kopuruaren zifretan. Eta egia bada ere, oro har, hobekuntza horrek ez duela ahalbidetzen 2010 edo 2011n jazotako zifrak berreskuratzea, argi dago urte horrek susperraldi bat iradokitzen duela eta, gainera, berriz ere EAEko ekonomiak bere osotasunean erakusten dituenak baino baldintza hobekak agertzen dituela euskal Gizarte Ekonomiak.

Laburbilduz, esan dezakegu bere baitako entitate ezberdinetan bilakaera berezituak dituen arren, euskal Gizarte Ekonomia gai izan dela krisialdiari egokiro aurre egiteko, eta oro har Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekonomiak bere osotasunean eman duena baino erantzun hobegoa ere eman diola.

2. Gizarte Ekonomiaren lau sail handiei buruzko ondorioak

Lehen atal honetan, euskal Gizarte Ekonomia osatzen duten lau sail handiei (Kooperatibei, Lan Sozietateei, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratze-Laneratze Enpresei) buruzko ondorioak aterako ditugu enpleguari eta entitate kopuruari dagokionean.


I. Enplegua

49. Taula					
	2009	2010	2011	2012	2013
EAE (1)	952.510	906.044	890.093	873.121	855.093
Aldaketa	-	-4,88%	-1,76%	-1,91%	-2,06%
GIZARTE EKONOMIA (2)	73.595	72.837	72.677	71.063	70.662
Aldaketa	-	-1,03%	-0,22%	-2,22%	-0,56%
Zatia	7,73%	8,04%	8,17%	8,14%	8,26%

(1): Iturria: Eustat.

(2): Iturria: geuk egina, OVES/GEEBen Txosten honetan Kooperatibei, Lan Sozietateei, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratze – Laneratze Enpresei buruz emandako datu agregatuetatik abiatuta.

1. Ikus liteke euskal **Gizarte Ekonomiaren lau sail handietako enpleguak** bilakaera negatiboa ukan duela 2009-2013 denboraldian, eta bereziki nabarmena izan dela joera hori 2012an, %2,22ko beherakadarekin; edonola ere, joera ezkorra arindu egiten da 2013an, %0,56ko beherakada, aurreko urteko baino aski baxuagoa, jazotzen baita urte horretan.
2. **EAEen bere osotasunean enpleguak izan duen bilakaerarekin alderatuta**, ondoren doan irudian ikus litekeenez, garbi ikusten da aztergai ditugun denboraldi guztietan, 2012an salbu, euskal Gizarte Ekonomia portaera hobea eta krisialdiari aurre egiteko gaitasun gehiago erakusten duela EAEko ekonomia osoak baino. Egitate honen ondorioz, Gizarte Ekonomiko enpleguari dagokion zatia etengabe hazi egiten da EAEko enplegu osoaren zifren baitan.



Iturria: geuk egina, OVES/GEEBen Txosten honetan Kooperatibei, Lan Sozietateei, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratze-Laneratze Enpresei buruz emandako datu agregatuetatik abiatuta.

3. Ohargarria da 2009-2013 denboraldi honetan, lan merkatuan gorabehera ikusgarriak jazo direnean, **Gizarteratze-Laneratze Enpresek eta Enplegu Zentro Bereziek enplegua mantendu edota sortzeko** erakusten duten gaitasun aparta. Esanguratsua gertatzen da entitate mota hauek biek 2012an enplegu galera nabariak pairatu zituztela baina 2013rako suspertzeko gai izan direla eta berriz ere enpleguaren aldaketa tasa baikorrak edukitzea lortzen dutela.

Zehazki, deigarriak dira enplegurako sarbidea lortzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonentzako baliabide funtsezkoak diren **Enplegu Zentro Bereziak**, krisialdi honetan ere ahalmen urritasuna duten pertsonen enplegua gehitzea lortu baitute, bereziki aipagarria delarik ahalmen urritasun psikikoa dutenen kasuan erdietsi duten hazkundera. Era berean, 2011z geroztik joera positiboa nabaritzen da generoaren arabera ere, gizonezko eta emakumezkoen arteko tartea murriztuz joan baita. Azkenik, esan behar da 2009an aldi bateko enplegua handitzen bada ere, 2010raz geroztik krisi ekonomikoaren eraginak ez duela erakarri enplegu ez egonkorren hazkunderik ere.

Gizarteratze-Laneratze Enpresei dagokienez, azpimarratzekoa da halaber baztertzeko arriskuan dauden pertsonen laneratze-gizarteratzean duten garrantzi handia; enplegu sail hori hazi egin da 2009az geroztik, nahiz eta 2012an behera egin zuen aurreko urtearekin alderatuta. Nolanahi ere, kopuru absolututan, enplegu mota hau %15 inguru hazi da 2009 eta 2013 bitartean. Bidean, mota honetako enpresen sasoi ekonomiko ona eta independentzia handiagoa, jarduera propioagatik fakturazioaren bitartez lortutako diru-sarreraren hazkundera nabarmentzen dena, aintzakotzat hartu behar da.

4. **Kooperatibek**, 2012an eta 2013an enplegu galera pairatu badituzte ere, **krisialdiari aurre egin eta beren enplegu mailari eusteko gai izan dira oro har** eta ez dugu gutxietsi behar 2009 eta 2013 bitarte horretan kopuru absolututan enplegua zertxobait handitzea lortu dutela. Enplegu galera nabarmenagoa izan da **Lan Sozietateen** kasuan; halaz eta guztiz ere, 2009 eta 2010rean enplegu galera nabarmenak pairatu ondoren, harez geroztiko **joera klarki baikorra da**, enplegu galera tasa horiek nabarmenki arindu direlako.

Darabiltzagun datuetatik ondoriozta liteke Kooperatibek eta Lan Sozietateek tradizionalki duten izaera industrialak izan daitekeela hain zuzen enplegu galera horien zergati nagusietako

bat, krisialdiak sektore horretan izan duen eragin ikusgarria dela medio. Ildo honetan, nabaria da 2008az geroztik “**hirugarreneratze**” prozesu indartsua ematen ari dela entitate hauetako enpleguaren sektorekako egiturari dagokionean, zerbitzu sektoreko enpleguak industriakoaren aldean duen garrantzia, gero eta handiagoa, ikusteak oso argi adierazten duen bezala.

Bestalde, azpimarragarria da Kooperatibetan eta Lan Sozietateetan gizonezko eta emakumezkoen enpleguaren artean gero eta berdintasun handiagoa izateko ageri den joera, hala nola ehuneko altu batean bazkideak eta enplegu ez egonkorra proportzio txikian mantentzeko joera.


II. Entitateak

50. Taula					
	2009	2010	2011	2012	2013
EAE (1)	178.062	167.270	161.658	161.626	157.405
Aldaketa	-	-6,06%	-3,36%	-0,02%	-2,61%
GIZARTE EKONOMIA (2)	2.389	2.360	2.336	2.296	2.267
Aldaketa	-	-1,21%	-1,02%	-1,71%	-1,26%
Zatia	1,34%	1,41%	1,45%	1,42%	1,44%

(1): Iturria: Eustat

(2): Iturria: geuk egina, OVES/GEEBen Txosten honetan Kooperatibei, Lan Sozietateei, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratze – Laneratze Enpresei buruz emandako datu agregatuetatik abiatuta..

1. **Euskal Gizarte Ekonomiako lau sail handiek** entitate kopuruari dagokionean izan duten bilakaeraren inguruan esan dezakegu, era berean, 2009 eta 2013 bitarteko eboluzioa ezkorra izan dela eta, zifra absolututan, %5,1 gutxitu dela entitateen kopurua.
2. Ondorengo irudian ikus daitekeen eran, **EAEko ekonomia osoko entitateen bilakaerarekin alderatuta**, ikusten ahal da aztergai diren denboraldi guztietan, 2012an salbu, Gizarte Ekonomiak EAEko ekonomia orokorreko beste esparruek baino gaitasun handiagoa eduki duela krisialdiari aurre egin eta entitateen kopuruari eusteko.



Iturria: geuk egina, OVES/GEEBen Txosten honetan Kooperatibei, Lan Sozietateei, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratze-Laneratze Enpresei buruz emandako datu agregatuetatik abiatuta.

3. Berriro ere azpimarratu beharrekoa da krisialdiari aurre egiterakoan **Gizarteratze-Laneratze Enpresek eta Enplegu Zentro Bereziek** erakusten duten ahalmena, 2009 eta 2013 bitartean **entitate kopurua zertxobait handitzeko gai direlako**.
4. **Kooperatiba eta Lan Sozietateen** entitate kopuru agregatuari dagokionean, ohargarria da bilakaera negatibo samarra erakusten dutela, 2009 eta 2013 bitartean %5,6 murrizten delako kopuru absolutua. Halaz eta guztiz ere, gogorarazi behar da Kooperatiben kopurua, apurka bederen, baina etenik gabe, hazten joan dela 2009az geroztik. Beraz, Lan Sozietateak izan dira bilakaera ezkor orokorra gehienbat erakarri dutenak; hala ere, hauen kasuan ere 2010az geroztik hoberako joera apal bat suma daiteke berriro ere, entitate kopuruan suntsimendu tasa arindu egin delako 2009koarekin alderatuta.

III. Ondorioak Lurralde Historikoen arabera

Jarraian, Lurralde Historikoen arabeko ondorio garrantzitsu batzuk aurkezten ditugu euskal Gizarte Ekonomiako lau sail handietako enplegu eta entitate kopuruari buruz, horietatik baitira informazio soziolaboral eta ekonomiko osatuena eskuratzeko aukera eskaintzen digutenak.

Kooperatibak eta Lan Sozietateak


Ondoren taulan agertzen den **Kooperatiba eta Lan Sozietateetako enplegu agregatuaren bilakaera** behatzen badugu, ikus dezakegu Araban 2009 eta 2013 bitartean, kopuru absolututan, ia enpleguaren erdia galdu dela. Aldi berean, Bizkaian bilakaera ezkorra, baina txikia, agertzen zaigu eta, aldiz, Gipuzkoan joera baikor samarra ematen da.

51. Taula					
	2009	2010	2011	2012	2013
Araba	6.825	4.275	4.127	4.027	3.487
Bizkaia	26.014	26.318	26.526	26.199	25.323
Gipuzkoa	33.726	34.815	34.414	33.414	33.960

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Aurreko taulan jasotzen diren enplegu aldaketak aintzakotzat hartuta, azpimarragarria da Araban, 2009 eta 2010 bitartean enpleguaren ia %40 galdu ondoren, ondorengo urteetan egoerak egonkortzera egiten duela, enplegu suntsimenduaren ehunekoak nabarmen txikiagoak direlako.

Esana dugun bezala, Bizkaiko joera askoz egonkorragoa da, aldaketa ezkorak, baina txikiak, ematen direlarik 2012an eta, batez ere, 2013an, %3,34ko galerarekin. Azkenik, Gipuzkoan enplegu gorabehera negatibo handiena 2012koa da, %2,91ko beherakadarekin, baina 2013an hazteko joera berreskuratzen da, 1,63ko igoerarekin.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Bestalde, ezin dugu ahantzi 2013 amaitez zenean Fagor Etxetresna Elektrokoak enpresa itxi izanak sorrarazitako egoera: 2.000 pertsona inguru kaltetu zituen Euskadin itxierak, eta oso eragin berezia ukan zuen Gipuzkoan. Gogorazi behar da Enplegu Ministerioak 2013ko amaierarako eskaintzen dituen datuek ez dutela jasotzen enpresa horren itxiera, izan ere 800 enplegu inguruko hazkundera adierazten baitute Gipuzkoako kooperatibetan 2013an.

Aldiz, 2014ko datuetan bai jasotzen dela enpresa hori itxi izanak enpleguan duen eragina, Gipuzkoako kooperatibetako enplegua 29.584 lanpostutan zenbatzen baita, hau da, 1.300 bat lanposturen galera jasotzen da 2013ko kopuruarekin alderatuta.


Kooperatiba eta Lan Sozietateetako entitateen kopuru agregatuaren bilakaera, ondorengo taulan zehazten dena, kontuan hartzen badugu, 2009 eta 2013 bitartean hiru Lurralde Historikoetan bilakaera ezkor samarra ematen dela ikus dezakegu, Lan Sozietateen joerak baldintzatuta, nagusiki.

52. Taula					
	2009	2010	2011	2012	2013
Araba	363	364	357	353	344
Bizkaia	1.074	1.059	1.040	1.027	1.003
Gipuzkoa	905	890	887	862	863

Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Ondorengo irudian agertzen diren gorabeherak aztertuz gero, ikusten ahal dugu Bizkaian eta Araban tasa negatiboak errepikatzen direla, 2012an zertxobait arintzen direnak baina berriz ere 2013 hazten direnak.

Gipuzkoan, haatik, agertzen da hazkunde positibo bakarra 2013an, 2012an %2,8ko beherakada, aztergai dugun denboraldi osoan hiru Lurralde Historikotako ezeinetan ematen den handiena, pairatu ondoren.



Iturria: geuk egina, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuetatik abiatuta.

Amaitzeko, bereziki adierazgarria den zerbait esan dezakegu, hots, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, non ematen baita Lan Sozietateen eta, batez ere, Kooperatiben presentziarik handiena, ematen dela bilakaerarik baikorra 2009 eta 2013 bitartean, batez ere enpleguari dagokionean, 2009 eta 2013 bitarteko denboraldi horretan zifra absolututan hazkundera eman den Lurralde bakarra izateraino, hain zuzen ere.


Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarte-Laneratze Enpresak

Enplegu Zentro Bereziak enpleguaren bilakaerari dagokionez, lehenik esan behar da, kopuru absolututan, 2009 eta 2013 bitartean, enplegua hazi egin dela hiru Lurralde Historikoetan. Hazkunde hori bereziki esanguratsua da Araban, non %26,8 hazi baita, eta Bizkaian, non ia %30 hazi baita. Hala ere, enplegu mota honen agerpenik handiena duen Gipuzkoan, hazkundera %2,8koa baino ez da izan denboraldi horretan.

53. Taula					
	2009	2010	2011	2012	2013
Araba	601	722	712	737	762
Bizkaia	2.051	2.205	2.389	2.384	2.659
Gipuzkoa	3.704	3.727	3.763	3.665	3.810

Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.

Enpresa mota honetako enpleguaren gorabeherak ondorengo irudian behatuta, nabarmena da Araban, 2010 eta 2011n beherakada bortitza izan ondoren, joera positiboa nagusitzen dela ondorengo denboraldietan, 2012 eta 2013an. Aldiz, Bizkaian eta Gipuzkoan elkarren paretsuko joerak ematen dira, 2012an beherakada esanguratsuak pairatzen dituztelarik eta 2013 hobekuntza nabarmena agertzen delarik. Edonola ere, Bizkaiko kasuan aldakuntza positiboak bizkorragoak eta beherakadak arinagoak dira Gipuzkoan baino.



Iturria: geuk egina, EHLABEren datu baseetatik abiatuta.

Laburki bederen, **Enplegu Zentro Bereziakako entitateen kopuruaren bilakaera** Lurralde Historikoen arabera aztertuz gero, esan dezakegu honelako entitateen presentziarik handiena Bizkaian ematen dela eta, gainera, adierazgarritasun hori gero eta handiagoa dela 2011z geroztik.

Azkenik, **Gizarteratze-Laneratze Enpresen** inguruan, azpimarratzekoa da Bizkaiko Lurralde Historikoan duten presentzia funtsezkoa, bertan kokatzen baita horrelako enpresen %80 inguru.

Esqualdekako analisia: kooperatibismoaren presentzia eta adierazle ekonomikoak eta ongizatezkoak

Gainerakoan, garrantzitsua iruditzen zaigu laburki bederen eskualdeen araberako analisi bat egitea, kooperatiben presentzia, Atlas Koop-eko datuen⁵ bitartez neurtua, CES/EGAB-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak arestian argitara eman duen "Lurraldeen arteko

⁵ Ikus daiteke www.oves-geeb.com/ATLASKOOP_es/atlas.html?geog=0&indicator=i6&select=20069 helbidean.

desoreka EAEn krisi ekonomikoaren testuinguruan” txostenetik⁶ jaso ditugun hainbat adierazle sozial, ekonomiko eta ongizatezko eskaintzen diguten informazioarekin gurutzatuz. Aipatu txosten horrek Gizarte Ekonomiari buruzko hausnarketa zuzenik egiten ez badu ere, bertan argitaratzen diren jakingarriak benetan esanguratsuak dira Atlas Koopeko datuekin erkatzen ditugunean.

Hein honetan, gogorarazi behar da Atlas Koop lanabesa, CSCE/EKGK-Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluak finantzatutako GISKoop egitasmotik sortzen dela, eta bertan esku hartu duela OVES/GEEBek, GISlan-ekin elkarlanean, eta Gaindegia-Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiaren partaide dela.

Beraz, bi iturri horietan, Atlas Koop-ean eta EGABaren Txostenean, jasotako informazioa gurutzatu ondoren, lehenik eta behin deigarria da Debagoienako eskualdea, eta haren mugakide diren Tolosaldea-Goierri eta Aiara, direla adierazlerik onenak agertzen dituzten eskualdeak. Oso eskualde industriadunak dira hiruak, berrikuntzara eta mundializaziora bereziki bideratuak, mundu mailako merkatuaren beharizantetara hobeki egokituko diren sektoreen, teknologien eta enpresa ereduaren aldeko apustua egin dutenak. Hain zuzen ere, ikus liteke, EGABen Txostenean erabiltzen diren adierazle nagusien arabera, Debagoienako eskualdea dela ongizate maila altuena agertzen duena.

Atlas Koop-eko datuetatik ondorioztatzen denez, kooperatiben jardura kontzentrazioa, bai lantegiei dagokienean (enpresa ehunean kooperatibek duten presentzia neurritzat hartuz) eta baita ere enpleguari dagokionean (barkide langileen zenbatekoa enpleguaren osotasunean), bereziki garrantzitsua da hiru eskualde hauetan, eta partikulariki Debagoienan, non langileriaren %50 baino gehixeago kooperatibetan ari baita lanean.

Eskualde honen ezaugarrien artean aipa dezakegu bere produkzio egitura enpresa handi bakan batzuen gain sustraituta dagoela eta, bide batez, lantegien batzuetan besteko tamainaren araberako sailkapenean bigarren eskualdea dela EAE mailan, eta lehendabizikoa dela adierazle erabakigarrietan den beste batean, tamaina handiko enpresa industrialetan diharduten enplegu kopuruan alegia. Halaber, bigarren eskualdea da jardura tasa handienari dagokionean, okupazio tasa handiena eta langabezia tasa baxuena duena, eta baita ere goi teknologian diharduen biztanle proportziorik handiena duen eskualdea. Bide batez, gogora dezakegu soldatiko enplegu finkoaren garrantzia baxuena den eskualdea ere badela, eskualdean kooperatibetako enpleguak duen garrantzi apartagatik, seguru aski, Txostenak berak aitortzen duenez.

Era berean, azpimarratzekoa da BPG per capita altuena duen bigarren eskualdea dela EAE mailan, eta lan merkatuak eskualdean duen funtzionamendu doituaren adierazle dela errenta ertain baliokide altuenekoa eta egiazko pobrezia tasa baxuenekoa izatea. Halaber, balioestekoa da krisialdiaren ondorioak gutxien nozitu dituen eskualdeetako bat dela, eta egitate hori oso bat datorrela Gizarte Ekonomiako enpresek krisi ekonomikoari erantzuteko eta enplegua mantentzeko gaitasun gehiagoko enpresa egiturak izatearekin.

Laburbilduz, ukaezina dirudi Gizarte Ekonomiaren, eta hizpide dugun honetan kooperatibismoaren presentziarik sendoena duten eskualdeak, Debagoienako kasuak nabarmen adierazten duenez, garapen eta ongizate sozial eta ekonomiko maila hobekiak erakusten dituztela, eta hori langabezia tasa baxuagoan, jardura eta okupazio tasa altuagoetan, industrializazio, teknologia edota berrikuntza maila garaiagoetan, pertsonen errenta maila altuagoetan edota pobrezia tasa murriztagoetan gauzatzen dela.

6 Ikus daiteke www.cesegab.com/Portals/0/Libros/Estudio%20completo%20web.pdf helbidean.

3. Gizarte Ekonomiaren Finantza-Entitateei buruzko ondorioak

Azkenik, Gizarte Ekonomiako finantza-entitateei buruzko hainbat ondorio funtsezko aipa ditzakegu. Kreditu Kooperatibak, BASE-Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateak eta EBE-Elkarrekiko Berme Elkarateak dira entitate hauek.

Alde batetik, **Kreditu Kooperatibei** dagokienez, azpimarra dezakegu 2009az geroztik joera ezkorra erakutsi ondoren eta, bereziki, 2012ko urte zalapartatsuan, ordura arte ziren bi entitateak bateratzearen ondotik etorri zen eraberritzeak bultzatuta gauzak nabarmen okerragotu ondoren, 2013an irabazien bidera itzuli ahal izan zuela entitate bateratuak, eta enplegu maila ere egonkortu egin zela. Halaz eta guztiz, berregituraketaren ondorioz, bulegoen kopuruak beharakada aipagarria pairatu du.

BASE-Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateen kasuan, aipagarria da 2013a, urte horretan lortu zutelako 21.000 milioiko ondarea erdiestea; baina lehenagotik zetorren joera baikor hori, 2009 eta 2013 bitartean hazi egin baitzen BASE modalitate guztien ondarea, Elkartuen modalitatean izan ezik. Era berean, 2009 eta 2013 bitartean, bazkide-tuen kopurua ere handitu egin da BASE Enplegua modalitatekoetan, bestelako BASEetan zertxobait murriztu bada ere. Aldiz, ordainsarien diru-kopuruak behera egin du nabarmenki eta, aldi berean, ordea, emandako diru-laguntzak handitu egin dira biziki.

Azkenik, **Oinarri Elkarrekiko Berme Elkarateak** zertu dituen bermeen kopurua etengabe hazi da, eta Gizarte Ekonomiako enpresentzat eta bestelako enpresa txikientzat baliabide funtsezkoa dela erakutsi du krisialdian finantzazioa lortu ahal izateko orduan. Bideanabar, azpimarratu beharrekoa da entitate honen baitako enpleguaren egonkortasuna, 2009 eta 2013 bitartean sexu bietako 20 bat langileren inguruan mantendu baita.

4. Gizarte Ekonomia osoari buruzko ondorioak

Atal honetan, euskal Gizarte Ekonomia osoari buruzko ondorio nagusiak aurkezten ditugu enpleguari eta entitate kopuruari dagokionean. 2010 eta 2012ko biurteko denboraldiak hartuko ditugu aintzat, soilik, denboraldi horietako datuak bakarrik baititugu eskura euskal Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate mota guztientzat. Amaitzeko 2009-2013 denboraldiari dagozkion datu ekonomikoak aurkeztuko ditugu euskal Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate mota guztiei buruz.

I. Enplegua

54. Taula		
	2010	2012
EAE (1)	906.044	873.121
GIZARTE EKONOMIA (2)	85.606*	86.909*
Zatia	9,45%	9,95%

(1): Iturria: Eustat.

(2): Iturria: geuk egin, OVES/GEEB 2013 Txostenean Gizarte Ekonomiako enplegu osoari buruz emandako datu agregatuetatik abiatuta.

(*): BASEi dagozkien 2010 eta 2012ko datuak erantsi ditugu, Eusko Jaurlaritzak Gizarte Ekonomiari buruz egindako Txostenetatik jasota. Datu horietan, 90 eta 100 enpleguren arteko urkila erabiltzen da eta, horregatik, guk bien batuz bestekoa erabili dugu, 95 enplegu.

Taulan ikusten da nola EAEko ekonomiaren osotasunean 2010 eta 2012 bitartean enplegua %3,6 erortzen den bitartean, euskal Gizarte Ekonomian %1,5 inguru hazten dela. Horren ondorioz, Gizarte Ekonomiako enpleguaren ordezkari zatia EAEko osotasunean 2010rean %9,45ekoa izatetik 2012an ia %10rekoa izatera pasatzen da.

II. Entitateak

55. Taula		
	2010	2012
EAE (1)	167.270	161.626
GIZARTE EKONOMIA (2)	22.876	24.364*
Zatia	13,68%	15,07%

(1): Iturria: Eustat.

(2): Iturria: geuk egina, OVES/GEEB 2013 Txostenean Gizarte Ekonomiako entitate kopuru osoari buruz emandako datu agregatuetatik abiatuta.

(*): Eraldaketako Nekazaritza Sozietatetako entitate aktiboen 2012ko kopuruari buruzko datua eskura ezina zaigunez, erregistraturik dauden entitateen kopuru osoa hartu da aintzakotzat.

Aurreko taulan ikus dezakegu EAEko ekonomia osoan 2010 eta 2012 bitartean entitate kopurua %3,3 erortzen den bitartean, euskal Gizarte Ekonomiako entitateen kopurua guztira %6,5 inguru hazten dela. Horren ondorioz, Gizarte Ekonomiako entitateen ordezkari zatia EAEko osotasunean 2010ean %13,7koa izatetik 2012an %15 baino gehixeagokoa izatera pasatzen da.

III. Datu ekonomikoak

Datu ekonomiko homogeneorik ez dugunez, zaila da sektore osorako doiki baliagarria izango den ondorio global bat ebaztea. Halaz eta guztiz ere, bai egin dezakegula 2010 eta 2012 arteko erkaketa bat, bi denboraldi horietarako baditugulako Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate mota guztien datuak.

Bestalde, esan behar da Eustatek EAE osoak sortzen duen Balio Erantsi Gordinari buruz bere garaian emandako zifrak aldatu egin dituela aztergai ditugun urte guzti hauetako, OVES/GEEBen aurreko Txostenetan eman genituen balioekin alderatuz.

2014ko azken hilabeteetan Eustatek makro magnitude nagusien segida guztiak birbalioztatu izana da aldaketa horren zergatia, izan ere 2014ko irailetik aurrera kide diren estatu guztiak derrigortuta daude Europar Batasunaren metodologia berria, Kontu Ekonomikoen Sistema Europarra edo SEC-2010 deitua, erabiltzera.

Edonola ere, aldaketa horren eragina hutsaren hurrengoa da gure azterketarako, zifra berriekin agertzen diren aldaketak ez direlako ohargarriak. Bidenabar, atera eta balioesten ditugun ondorioak, aurreko Txostenetan argitaratzen genituenen ildo berberetan lerratzen dira.

56. Taula. Balio Erantsi Gordina (mila eurotan)					
	2009	2010	2011	2012	2013
Kooperatibak*	2.265.506,73	2.325.925,24	2.424.111,99	2.190.377,85	e.e.
Lan Sozietateak	e.e.	347.117,90	e.e.	249.060,00	e.e.
Enplegu Zentro Bereziak	104.568,75	121.992,97	133.436,03	130.491,15	135.166,90
Gizarteratze-Laneratze Enpresak	14.171,17	14.433,34	18.390,50	17.936,36	17.082,17
ENS	e.e.	1.728,94	e.e.	5.312,73	e.e.
Arrantzale Anaidiak	e.e.	4.361,71	e.e.	4.009,58	e.e.
BASE	e.e.	217.768,67	e.e.	227.739,33	e.e.
EBE	1.629,00	819,00	876,00	378,00	904,00
Elkarte et Fundazioak	e.e.	473.116,46	e.e.	475.419,44	e.e.
Gizarte Ekonomia Guztira (1)	2.385.875,65	3.507.264,22	2.576.814,52	3.300.724,44	153.153,07
EAE (2)	60.271.456	61.304.826	61.968.224	60.875.938	60.062.032
Zatia	-	5,72%	-	5,42%	-

e.e. ez eskuragarri.

(1): Iturria: geuk egina, OVES/GEEB 2013 Txosteneko datu agregatuetatik abiatuta.

(2): Iturria: Eustat

(*): Hiru Foru Ogasunek emandako informaziotik abiatuta lortutako datuak..

1. Lehenik, ohargarria da **euskal Gizarte Ekonomiak bere osotasunean** sortu duen BEGa %4,2 murriztu egin dela 2010 eta 2012 bitartean. Horren ondorioz, Gizarte Ekonomiak sortutako BEGak EAeko ekonomia osokoaren baitan duen zatia ere txikitu egin da (2010ean %5,72 izatetik 2012an %5,42 izatera pasa da).
2. **Enplegu Zentro Bereziei** dagokienean, ikus dezakegu 2009 eta 2013 bitartean haien BEGa sortzeko ahalmenak goranzko joera erakusten duela, nahiz eta 2012an beherakada txiki bat pairatzen duen; 2013an, berriz ere, hazkundera agertzen da. **Gizarteratze-Laneratze Enpresei** dagokienean, ordea, BEGaren hazkunde jarraitua aurkitzen da 2009 eta 2011 bitartean, azken urte horretako gorakada benetan ezohikoa izanik, baina 2012an eta 2013an haien BEGak behera egiten du.
3. **Kooperatibek** sortutako BEGari dagokienean, joera baikorra da 2009 eta 2011 bitartean, baina 2012an beherakada nabarmena jasaten du. **Lan Sozietateek** sortutako BEGak, bestalde, beherakada ohargarria pairatzen du 2010 eta 2012 bitarteko denboraldian.

